

Euskal Idazleak Bizkaieraz


ANTOLOGIA, TESTU AZTERKETAK, ARIKETAK

K. Etxenagusia

J. Kortazar

A. Etxebarria





EUSKAL IDAZLEAK · BIZKAIERAZ
ANTOLOGIA
AZTERKETAK

Euskal Biblioteka Labayru



1010739

LITERATURA / N. 13

K. ETXENAGUSIA

J. KORTAZAR — A. ETXEARRIA

EUSKAL IDAZLEAK BIZKAIERAZ

ANTOLOGIA, TESTU AZTERKETAK, ARIKETAK



LABAYRU IKASTEGIA

Arechabaleta, 1-1.º dcha. - Teléfono 443 76 84

BILBAO-10

© K. ETXENAGUSIA

© LABAYRU IKASTEGIA

I. S. B. N.: 84 - 300 - 2858 - 7


Depósito Legal: BI - 1.554 - 1980

Impreso y encuadernado en:

Talleres Gráficos EL NOTICIERO BILBAINO

Alameda de Recalde, 74 - BILBAO - 12

*Zeuri, Mikel Zarate,
adiskide aaxtu ezin orri!*




BIZKAIERAZ NATOR

Bizkaieraz nator. Bizkaieraz, Bizkaikoa nazalako, bizkaieraz azi ta ezi ninduelako, ondoen ezagutzen dodan euskalkia bizkaiera dalako.

Bizkaieraz nator, bizkaieratik baturantz joteko asmotan edo, obeto esanda, batutik batuagorantz. Izan ere, bizkaiera euskera da, euskera jatorra, betiko euskera osoaren biotzean dagoan euskera. Eta euskera dan ezker, euskera batua ere bada, euskeraren sustraian, oiñarrian (edozein euskalkitako euskeraren sustraian, oiñarrian) dagoan euskera batua, betitik baturik dagoan euskera. Eta euskeraren oiñarrian dagoan euskera batu ori ezagutu bear dogu, leenengo ta bein, batutik batuago baterantz joateko, erdi baturik dagoana ere batzeko, batu barik dagoana ere, azkenez, batzeko.

Baiña onexegaitik nator, batez ere, bizkaieraz: bizkaitarrentzat idazten dodalako eta bizkaitarrak ere bizkaieratik baturantz, batutik batuagorantz, euskera osora eroan gura ditudalako. Gure euskeratik euskerara eroan nai ditut bizkaitarrak berez-berez, errez-errez, igarri barik. Derrigorrean, nai ta nai ez, izkera ta idazkera aldatzea eziña da. Egia esan, aldatu daitezke, eta beingo baten egin ere, gogorkeriaren bitartez, zelako edo alako gogorkeriaren bitartez. Baiña gogorkeria ta indarkeria ta aalkeria aundia bear orretarako. Eta, gaiñera, leentxoago edo gerotxoago, gogorkeriak gogorkeria dakar, eta gogortasunik ere ez daukagu, zoritxarrez, guk eta...

Zarate, M.: Euskal Deklinabidea, Durango, 1975, Itzaurrea, 9.



SARRERA

Eskuetan dozun liburu au zer dan eta zertarako egin dogun jakiteko, irakurri, arren, irakurle, urrengo oarrok:

1. DERIOKO IKASTARO-ko ikasleen lagungarritzat da, batez ere:

—Ikastarako gure ikasleak, ia danak, bizkaitarrak dira eta bizkaierea dabe euren etxeke berbeta kutuna. Ikastaroaren betiko jokabideari jarraituz, leenengo ta bein geure euskalkia ezagutu ta sakondu gura dogu, beti ere euskerearen ikuspegi zabala begien aurrean dogula: au olan dala, leenengo iru mailetan, bizkaierazko idazle ta idazlanen barri emon gura deutsegu ikasleei, euren jaioterriko izketan sendoro oinarriturik gorengo mailetan euskera zabalago ta batuagora eldu daitezcan, badaezpadako pausorik emon baga;

—Ikastaroan egin oi danez, biderakusle edo gidari baten laguntza eskatzen dau liburu onek, emen pilatutako gai ugari ta askotarikoak noiz eta zelan erabili jakiteko; bein laguntza ori izan ezkeru, aurrerantzerako lana norberak ere errez egin daike, albo-lagunen premia andi barik.

2. LORATEGI edo ANTOLOGIA bat dozu, geien baten, liburu au, baina euskalki bakar baten —Bizkaieraren— idazleen lanak baino ez deutzuz erakusten, oraingoz. Neurri estu orren barruan, ostera, ikuspegi zabala erakutsi nai izan deutsegu irakurleei: aldi ta alde guztietako idazleak, jokabide ta idazkera askotarikoak, ainbat eskolatakoak, gure euskalkiaren batasuna ta ezbardintasuna, leengo ta oraingo gorabeerak argi ta garbi ikusi dagiezan. Errezago ta atseginago izango zan guretzat, bear bada, geure gogokoak baino ez autatzea, edo-ta guztiak geure eretxiaren neurrira bateratzea; baina nor gara gu inori bide estuegirik erakusteko, besteri geure gurariak eta aukerak ezarteko?

Liburu au egiterakoan, beste esi estu bat ere jarri deutzagu geure buruari: orain arteko Antologietan argitaratutako zatiak alde batera utzi, aal dala, eta zati barriak bilatu ta sartzea. Ba

dakigu, bai, zenbat galdu leiken orregaitik gure liburu onek, baina uste dogu euskal kulturearentzat mesedegarri izango dala idazlan barriak argitara emon eta zabaltzea.

3. **TESTU AZKERKETA ETA ARIKETAK:** Antologia soil bat baino geiago egin nai izan dogu, ikasleen gogo-bio-tzak argitu ta aberasteko asmotan. Orregaitik, irakurgaiak aztertzeko bide batzuk erakusten dira; eta, gero, aztertze-lan orren lagungarritzat, ariketa mordo eder bat eskeintzen da.

4. **AURKIBIDEAK:** Antologia onen orrietan ezkutaturik dagozan aberastasunak aalik ondoen aurkitu aal dagizuzan, iru-lau aurkibide ere jarri deutsuguz, irakurle. Izan ere, onelango liburu bat ez da egiten, eskuetan artu eta jarraian irakurteko; era askotara erabili daiteke eta erabili bear da, bakotxean zer lortu nai dan eta orixe bilatuz, irakasle argi baten zuzendaritzapean, aal bada.

5. **IZTEGITXOA:** Iztegitxo bi daroaz gure liburu onek: a) idazlan bakotxaren ondoren, zati orretako itzik ezezagunen iztegitxoa; b) azken aldean, Bizkaieraren itzik bereziarena (Au, egia esan, euren leenengo izketea bizkaierea ez dabenentzat egin dogu, batez ere). Baina, iztegiok egikeran, oinarri bat izan dogu: gure artean zabaldurik dabiltzazan esku-iztegietan («IKAS» iztegian, esaterako) datoza itzak ez doguz emen sartu.

6. **ZATIKETA:** Antologia bera lau zatitan banandu dogu:

—1go zatian, **ERRI-LITERATURA** sartu dogu: antxinako erromantzeak, erri-kantak, atsotitz edo errefrauak, ipuinak, jazoera barragarriak, bertsolaritza...

—2garrenean, gure **IDAZLE ZAARRAK** edo klasikoak sartu doguz: guztiak ez, baina bai geientsuenak, idazlanetan euskal kulturaren aberastasuna bilatuz.

—3garrenean, joan dan gizaldiaren azken aldiko **Berbizkundetik** asi eta gure gerrara arteko testuak, idazle bakotxaren ezau-garririk argienak erakusteko asmoz.


—4garrenean, gerrosteko idazleak batu doguz: asko dira, baina beste asko utzi bear izan ditugu sartu barik, danentzat lekurik ez eta.

7. **MIKEL ZARATE** adiskide maiteari eskeini deutsagu liburu au. Ilgo zan aurretxean, bere eskuetan euki eban Antologia au, eta beronen Ariketak egitea bere ardurapean artu eban;

zoritzarrez, asmo ori beteteko asti barik joan jakun, asmo ederre-
rez eta lan astunez ler eginda, gure Mikel. Baina gure adiskide
ta lagun andiaren eretxia nainon aurkituko dozu orriotan;
gainera, aren *Bizkaiko Euskal Idazleak* liburua guztiz egokia
dozu Antologia oni onura geiago aterateko. Bizkaiko beste eus-
kal idazle askok legez, Zaratek ere beste euskalkien edo «euskara
batua»-ren bideari ekin eutsan, azken urteotan. Gure euskalkia
bizkaitar ez diran askok maite izan dabe; landu, oso gitxik.
Bizkaitarrok, ostera, geurea alde batera utzi eta euskera zabalago
bat ikasten eta lantzen ez gara izan motelenak, ez azkenengoak...
Gaurko euskal pausoak Bizkaiko euskeratik urruti dabiltz; baina,
orain arteko bizkaiera latz errimearen nondik norakoa ezagutu
nai dauanak aurkituko al dau, gure izerdien Antologia onetan,
bere egarria non asetu! Aurrerantzean, literatura mailan beini-
pein, bizkaiera az dala landuko? Alan dirudi; baina, biar-etziko
gorabeerak zeintzuk eta zelakoak izan leitekezan, batek ba daki!

Amaitzeko, liburu au talde baten lana dan ezkerok, esan dai-
gun bakotxarena zer dan: idazle ta idazlanen autatzea iruron
artean egina da, J. A. Etxezarraga ere tarteko zala; Azterbideak
eta Ariketak, Jon Kortazar-ek eta Aitor Etxebarria-k egin ditue;
gainerako dana, eta zuzendaritza, Karmelo Etxenagusia-rena
da; akulari ta bultzegile, Ander Manterola ta Adolfo Arejita;
eta, beste laguntzaile batzuen artean, argi-emoilerik mesede-
garriena, Lino Akesolo. Eskerrik asko!


Bilbon, 1980, apirilaren 10ean, Mikel Zarate il jakun
urtebetze egunean.



A) ANTOLOGIA

LEENENGO ZATIA: ERRI-LITERATURA

- eresiak
- erromantzeak
- kantak
- ipuinak
- jazoerak
- bertsolaritza



1. MILIA LASTUR-koren ERESIA

XVgarren mendekoa, Garibay-k jasoa. Andra bertsolari biren arteko eresi-gudua eskeintzen deusku: alde batetik, Milia ilbarriaren aiztea, bestetik senar alargunaren arrebea...

1. (Milia Lasturkoren aizteak)

Zer ete da andra erdiaen zauria?
—Sagar errea, eta ardao gorria.
Alabaya, kontrario da Milia:
Azpian lur otza, gañean arria.
Lastur-era bear dozu, Milia.
Aita jaunak eresten dau elia,
Ama andreak apainketan obia.
Ara bear dozu, Milia.
Iausi da zerurean arria,
Aurkitu dau Lastur-en torre barria,
Edegi dio almenari erdia...
Lastur-era bear dozu, Milia.
Arren, ene andra Milia Lastur-ko,
Peru Garziak egin deusku laburto:
Egin dau andra Marina Arrazolako.
Ezkon bekio, bere idea dauko.

2. (Peru Garzia-ren arrebeak)

Ez dauko Peru Garziak bearrik
Ain gatx andia apukadua gatik,
Zeruetako mandatua izanik,
andrariok ala kumpli jasorik.
Gizon txiki sotil baten andra zan,
Ate arte zabalean oi zan,
Giltza-porra andiaen jabe zan,
Onra andi asko kumplidu jakan.

2. MILIA LASTUR-koren BIGARREN ERESIA

(*Miliaren aizeak*)

Arren, ene andra Milia Lasturko,
Mandatariak egin eust gaxtoto.
Zerurean jausi da abea,
Jo dau Lastur-ko torre gorea,
Eroan ditu ango jauna eta andrea,
Bata leen, gero bestea.
Bidaldu dogu zeruetara karteia:
Arren diguela gure andrea.
Mondragoeri artu deusat gorroto,
Giputz andraok artu ditu gaxtoto:
Iturriotz kalean andra Maria Balda-ko,
Arte kalean andra Ojanda Gabiola-ko,
Errebalean andra Milia Lasturko.

Michelena, L.: *Textos arcaicos vascos*, Ediciones Minotauro, Madrid, 1964, 75-77.

erdi = erditu, parir; *alabaya* = osteria; *apainketan* = apaintzen; *zeru-
rean* = zerutik (ark.); *apukadu* = jazo, gertu; *andrariok... jasorik* =
esaldi onen itzulpena illuna da (ikus L. Michelena, *Textos arcaicos vascos*,
Madrid, 1964, 77-78); *sotil* = eder, prestu; *eresten dau elia* = menditik
beera dakar artaldea (illetarako).

3. TORTOLATXU BAT BASUAN

(«Canción que Aboitiz sacó a una aldeana de Bedarona que la encontró llorando sentada al pie de un árbol, porque en Lequeitio la dijo una muchacha que era pecosa».)

1
Tortolatxu bat basuan
Bakar bakarrik neguan
Bere penak kantetan eguan
Arbola baten onduan
eta onelan ziñuan:

2
«Ez daukanak fortuna.
Uri baten jayotia
Izan arren perfektia
Ziur dau ak izatia
Uritarrentzat tatxia.

3
Naturalena kondenatia
Da pekaduna tatxetia
Ezpada esaizu ia
Pekatu dan ifintia».

4
Aren urrengo entzutia
Tortola pekaz betia
A izan zan sartutia
Erraijetan ezpatia
Ta bijotza puskatzia.

Zelai berde ta ederra
Lora baga bere eder da
Baiña udan agertzen da
Lora pekaz apainduba.

Simbirio zerukua
Media naranja goikua
Azula dozu fondua
Izar askok edertua
Eta tatxarik bakua.

Uriarte, J. A.: *Poesía Vascongada. Dialecto Vizcaino*, Ms. inédito. Archivo PP. Franciscanos. Aránzazu.

4. ALDAZTORREN NENGOANEAN (Erromantze)

ERRANAK: Aldaztorrean nengoanean irra goruetan,
etorri datan erroi zarra grauetan.
Erroi zarra, zer dakazu albiste?

ERROIAK: Ala markea galdu dala dinoc.

ERRANAK: Galdu naz, bada, alaba ditxa bagea.
Antxe nebazan ogeta bat lengusu ta nebea,
Arek baño bearragoa aita neurea.
Arek guztiak baño azkarriago jaubea.

AMAGINARREBAK: Zer diñona, puerka lotsa bagea?
azkenengo esan dona yaubea?
Esan bebanan lenengotatik yaubea,
izango ebanan Aldaztorrean partea.

ERRANAK: Nik neurea dot goian dagoan kaxea,
tapez taperaino diruz betea.
Imineagaz neban urre gorria,
anegeagaz neban urre zuria;
milla dukat neban isil-poltsea.
A bere ba zan alaba on baten dotea!
Aldaztorreak atea dituz letuez,
ango plater pitxerrak zidarrez.
Yoan ala egon eingot, ama neurea?

AMAGINARREBAK: Yoan, yoan, neure alaba maitea!

ERRANAK: Aurtxo txikinak sabelean deust ostiko.
Yaun zerukoak al dau semea sortuko!

AMAGINARREBAK: Nai dan seme, nai dan alaba,
Aldaztorrean partea izango dona.

Azkue, R. M. de: *Cancionero Popular Vasco*, La Gran Enciclopedia Vasca, Zalla, 1968, n.º 812.

erroi = bela, cuervo; *grauetan* = graznando; *marka* = barca; *azkarri* = aaztuazoten dauana; *bebanan* = bazendu(an); *imina* = anegearen 1/4; *letu* = latón.

5. MARIJESIAK (Gabon-kantak)

Asko eta era askotakoak dira gure Errian eske-kantak, etxerik etxe egun izentaduetan kantetan direanak. Euron artean, Bizkaiko Gernika-inguruan, «Marijesiak» dira gogoangarriak, Abendu ta Gabon aurretxean. Ona emen eurotariko batzuk:

Ogeta laugarrena
degu abenduan;
desio genduen
logradu genduan.

Bai Belen-en,
Eta bart Belen-en,
Jayo da Jesus Nazaren!

Gabeko amabiak
jo daben orduan,
gure Salbadoria
jayo da munduan.

Bai Belen-en, t. a.

Belen-go portalian
estalpe batian,
jayo Jesus ona
ganadu artian.

Bai Belen-en, t. a.

Belenengo urian
Gabon-gaberdian,
Birjiña Santia dago
kontzolzaziño andian.

Bai Belen-en...

Pastore santu birtuosuak,
balia zakiguz gaur emen,
bart arratsian zer pasatu dan
konta dezagun Belen-en.

Bai Belen-en...

Korraletako ardiak bere
yantzan ebizan orduan,
gure Jesusa Salbadoria
jayo dalako munduan.

Bai Belen-en...

Jesus dibiño! Gabaren otza!
Jausten da inñetasije;
erleju bijen onelan bada,
il da ganadu guztije.

Bai Belen-en...

Ortixik gora niñoyela
ospitaletxu zar baten
Aita San Josepe topadu neban
astotxuaren txalmatzen.

Bai Belen-en...

Nazareteko tenpluan dago
dama eder bat jarririk:

Goiko mendietatik
pastoriak datoz,
esanik aingeruak
jayo dala Jesus.
Bai Belen-en...

izena bere Maria dau ta
dana dao graziaz beterik.
Bai Belen-en,
eta bart Belen-en,
jayo da Jesus Nazaren!

Lekuona'tar, M.: *Idaz-lan guztiak. 1. Aozko Literatura*, Kar-daberaz Bilduma, 22, 456-458.

6. USO ZURI EDER BAT (Erromantze)

- | | |
|---|--|
| I. Uso zuri eder bat
oinetan ortozik
aldatzean gora doa
egoak zabalik. | IV. Kristo zeruan dago
Mezea esaten,
Aingeru San Gabriel
Mezea erasoten. |
| II. Aldatzean goieneko
zelai eder baten
Birjinea topau neban
atseden egiten | V. Zeruko angeruak
orgañua yoten,
amabi apostoluak
Mezea entzuten. |
| III. Kristoren Birjinea,
or zer eiten dozu?
Kristo billatzen nabil
ikusi badozu. | VI. Jesusen jardineko
lorearen argia!
Bera ta Santa Klara
dontzella garbia. |
| VII. Amaren erraietan
zenduan grazia,
munduan ibilteko
ejemplu andia | |

Azkue, R. M. de: *Cancionero Popular Vasco*, n.º 910.

7. AGOSTUAREN (Erromantze)

- I. Agostuaren amaboskarren
Andra Mari-goizean
Birjinearen debotatxu bat
zijoian erromerian.

- II. Oinak ortozik zapata bage
 abitu baltza soinean,
 San Frantziskoren kordoetxu bat
 gerrian iru doblean,
 San Agustinen liburutxu bat
 eskutxu bien artean.
- III. Birjinea ta Semea bere
 topau nituan bidean:
 konseju on bat emon leidela
 Ama-Semeen artean.
- IV. On da unila izan nendila
 munduan nintzan-arte;an;
 enabela ez damu izango
 mundurik niñoianean.

Azkue, R. M. de: *Cancionero Popular Vasco*, n.º 806.

8. PRANTZIE-KORTEKOA (Erromantzea)

- | | |
|--|---|
| <p>1
 Etorri nintzanean
 Prantzie-kortetik,
 Ama billatu neban
 Suitian tristerik.</p> | <p>5
 — Ez dot gure prantsesik,
 ain gitxi erraiñik.
 — Esan dodan berbiaz
 Urten biar dot nik.</p> |
| <p>2
 — Zer egiten dau, ama,
 Orrelan bakarrik?
 — Nobedade barrick
 entzun dodaz, bai, nik.</p> | <p>6
 — Esan dozun berbiaz
 urten biar bozu,
 urten bidera eta
 il ein biar dozu.</p> |
| <p>3
 — Ze nobedade barri
 entzun dozu, ama?
 — Ezkonetan zarella,
 bai, seme laztana.</p> | <p>7
 — Ain de polite, ba ze,
 nire emaztea...
 Ez da posible, ama,
 nik ori eitea.</p> |
| <p>4
 Nondikoa dakazu
 zeure emaztea?
 — Prantzie-kortekoa,
 bai, ama neurea.</p> | <p>8
 — Zuk ezpozu posible,
 artu anaijia,
 anaije gaztea ta
 estudiantia.</p> |

9

— Juanita, jatsi zaite
zaldien gañetik,
sar daitzudan puñalau
biotzen erditik.

10

Ai! orren puñalaren
puntien zorrotza!
Ikusiz beste barik
ilten deust biotza.

11

Zazpi zaldi daukadaz
ixeraz jantzita;
zortzigarrentxoa, barriz,
perlaz estalita.

12

Arek emongotzudaz
ixtiarren bizirik.
— Arek neuretzat, baña...
ez itxi bizirik.

13

— Orrez gañera dekot
urre-kalizia;
urre-kalizia ta
sobrepelizia.

14

Arek emongotzudaz
ixtiarren bizirik.
— Arek neuretzat, baña...
ez itxi bizirik.

15

Kanpai bat entzuten dot,
ez dakit nongoa;
igual izango da
agoniekoa.

16

— Abadea ekarrizu
konfesadu naiten,
arimaren okerrak
arteztu daidazen.

17

— Abadea urrin dago,
eliza urrinago;
oin orretan asteko
asti gitxi dago.
(Zeanuri-Undurraga)

Lekuona'tar, M.: *Idaz-lan guztiak*. 1. *Aozko literatura*, Karda-beraz Bilduma, 22, Vitoria, 1978, 476-479.

sütia = suete, sukalde; *Ezkonetan* = ezkontzen; *ixera* = maindire;
emongotzudaz = emango dizkitzut; *igual* = bear bada, agian; *arteztu*
= zuzendu; *urritin* = urruti.

9. ATSOTITZAK

A) GARIBAY-renak

- Goiz salsa otsa, berandu barazkaria (3).
- Nork bere opilari ikatza (4).
- Ginda, gozo dala, min da (7).
- Adin onari akio (8).
- Nork bere gozoz, etxaginean (9).
- Gizon nekatua (bearra) gogo uts (10).
- Ez oera, ez oerean gora (12).
- Martian zembatetan, Aprilean aimbatetan (15).
- Gure mandoa, urak engarren eta urak aroa (19).
- Urra akio, bai al baakio (21).
- Bestek ez legez Pieruk surra (22).
- Usteak, alde erdia ustel (24).
- Mila urte igarota, ura bere bidean (25).
- Bilbao, an bere dongeak birao (32).
- Ez eukia, gorde uts (35).
- Balizko oleak burniarik egin eztaroa (36).
- Mendiak mendia bear ez, baya gizonak gizona bai (37).
- Onak on direala, obiak obe (39).
- Andiak andiro (41).
- Aita gurea bein elizara, eta orduan nekez (46).
- Hora il dagien mendian, gixona idoro ez didila (52).
- Eder balitz, on ez ailitz (56).
- Ekark idia, edo begia (Cc 79, XXVI).
- Lotsa bageak, mundua bere (Cc 79, XXXVII).

Urquijo, J. de: *El Refranero Vasco*. Tomo I: *Los Refranes de Garibay*, San Sebastián, 1919.

B) 1956-ko ATSOTITZAK

- Adiadi, ze Jaun Goikoa dagok adi (1).
- Aberas izaitea baño, hospe ona obeago (2).
- Abenduko lañoa, curia edo egoa (4).
- Atzerrian lurra garratz, hoña ibiniegik baraz (9).

- Baratzea ta usategi, aberasgarri (11).
- Bildurri dana, anker (12).
- Balizko oleak, burdiarik ez (15).
- Kantari gextoak, oñon (19).
- Laarrik ez onik (45).
- Surik eztan lekuan, kerik ez (53).
- Gorhua garrian ta gogoa kirolan (63).
- Iñurria giño lagun gura (81).
- Aldi gextoan jayo doa, hospe gextokoa (107).
- Andia da ene mina, esan nai ta esan ezina (114).
- Adiskide bako bizitzea, auzo bako eriotzea (137).
- Odolak su baga diraki (146).
- Onek oñon, ta ni exilik egon (179).

D) J. A. MOGUEL-enak:

- Errementarijaren etxian, zotza burduntzi.
- Goiz jagija, goiz gosé; belu jagija, loz asé.
- Azeri zarrak allia luze; bere legezkuak bestiak uste.
- Zulo bakotxari, laakua.
- Aziak, beria kirtena; ta aritxak, bere erikua ospala.
- Otsuak otsuari gatzik ez, ta lapurrari lapurrak lazten.
- Ardao gozuak lau begi, ta oñik ez.
- Zu beti ero; otz ezdana, bero.
- Azeri zaarrari ulia juan, baña antza ez.
- Zoruen eztija, gozua guztija.
- Otsein barriak galbaiaz ura, zaarrari edarriaz bere lekurik emon ez gura.

Moguel, J. A.: *El Doctor Peru Abarca...*, Durango, 1881, 120-123.

E) R. M. AZKUE-renak:

- Andra Maria Martiko, artean udea tatiko, andik aurrera betiko.
- Gabon, bonbon; Natibitate, ase ta bete; San Estebantxe, bestetan letxe.
- Jose: jan da(ta) bére gose, edan ta bére egarri; José barrégarri.

- Bein Maria elizara ta bertan eperdiaz altarara.
- Bizkaitarra yan ta otz, arabarra yan ta poz.
- Ai ai ai! Egunak guztiak balira yai, astelentxoak bére bai!
Gu lango alperrak orixe nai!
- Ene bada ta ni! Besteak bearrean eta neu geldi(adi).
- Ze barri da munduan? — Bakotxa bizi dala bere moduan.
- Zemat eraginago, zirinago.
- Zeurea eginartean, mantso ta mantso; zeurea eginezkero,
zantzo ta zantzo.
- Zoroen eztiá, gozoa guztia.
- Emona bat, artua bi; emonak galdua dirudi.
- Bear aut eta gera akit, bear ezaut eta ken akit.

Azkue, R. M. de, *Euskalerrriaren Yakintza*, III, Madrid, 1945.

barazkari = bazkari; *oerean* = oetik; *hora* = mastin; *ailitz* = litza-ke (?); *burdia* = burdina, burnia; *gexto* = gaizto; *oñon* = porfiar; *alle* = buztan; *antx(a)* = ats, kirats; *tatiko* = «bai-ez»; *zemat* = zenbat.

10. PERU eta MARIXE-ren ipuinak

Begia bota batabateri

Peruk eta Marixek euken seme tonto bat. Ta egun baten esan eutsan Marixek ze:

—Semia, urtiak be aurrera juten dira gero! Ta ia, ezkontzia edo, zoezer pentsau egin biarko dozu. Ia emaztegei bat alik ariñen topetan dozun.

—Ai, ama, baiña zelan topetan da ba? Nik ori eztakit zelan topetan dan be ta...

—Eztakizula? Ba gaur gabion gau-belía da, ta badakizu, geu-belara neska asko juten da. Ta antxe ia batabateri begia botaten deutzazun.

—Bai, ama, e, begia bota e?

—Bai, bai, begia bota biar deutzazu antxe batabateri.

—Bai, egingo deutzat ba, zuk esan dozun moduan egingo deutzat nik.

Zer egin eban Marixen semiak? Jun kortara ta an eukoan ardi guztieri begiak atara ta poltsikua bete-bete-bete egin eban begiekin. Jun zan gau-belia daguen etxera, ta aska-buruan bera, jarrita antxe, ia noz neskak pasetan dirian. Pasetan zan lantzien bat, ta baita berak be, sartu partrikaran eskua, artu begiok, ta danba! botaten eutsazan. Ene! Neskak asarratzen yakozan. Ta egiten eban: «Au da ba! Niri amak auxe egiteko esan deust, baiña asarretu egiten dira. Ia urrengo datorrenari onixeri bota biar deust». Artu ta bota areri be, da jun zirian neska guztieri. Baiña danak asarretu zirian da mutil ori jun zan etxera. Da esan eutsan Marixek ze:

—Semia, egin dozu esan deustudana? Ia, botako zeutsan batabateri begia, ezta?

—Bateri bakarrik, ama? Bai ez gitxiri. An pasau dirian neskari danari bota deustedaz nik begiak.

—Danari? Baiña zelan danari? Bateri bota biar yako begia, bateri.

—Ba bota bateri ta asarratu egiten izan da ta, bota bestiari be ta asarratu ta...

—Baiña zelan bota deutsezuz edo ze egin deutseezu ba?

—Ba nik jun kortara ta ardieri atara deustedaz begiak ta aska-ganian antxe egon naz, aska-buruan, bai, antxe egon naz ni aska-buruan, ta andixerik botaten izan deustedaz.

—Baiña zelan?

—Ba begiak. Nik an euki ditut poltsikuan begiak, ardienak, eta arexek.

—Ai, semia, begiak poltsikuan? Ardienak! Baiña ze ardi?

—Ba kortako ardienak.

—Ori da egin dozuna biarra ba! Ardi guztiak alperrik galdu dozuz ba. Ta ori ezer ezta, neskak be asarratu dituzu. Olan ez, semia, olan ez. Neska bat gustetan yatzunian, esan biar deustazu: «Ai, zelako polita zara! Ai, ni zugaz biziko nitzateke pozik zugaz ba! Bai ni betiko be zugaz biziko nitzateke ba!» Olan, olan esan biar yako. Eztakizu ala?

—Baiña, ni ama, orain, orain asarratuta neskak, ta nik ori zelan esango deutset ba?

—Bai, esan egin biar deutseezu, ostantzian ezkondu barik geratu biarko dozu.

—Ai, ama, ai ama, ondo triste geratuko naz ba ezkondu barik.

Erri-ipuina. L. Villasante-k, Ibarrola-tar Teri-ri magnetofoid artua: *Arantzazu*, 1964, 351.

11. EULISKI (Ipuin errikioia)

Markiñen lenago zan jentil bat. Eta beti bizi zan bera euliyekin, bierrik be ezaban egiten-da. Euliyek atrapau ta euliyek jan, ta lo egin Xemeingo elizako zelayen etzunda. Ta mezie be entzuten eban zutunik plantaute. Bentanie baiño gorago, andiyague zan, ta etzunde be eguela bentanatik ikusten eban altarie, ta andixik entzuten eban mezie.

Ta egun baten ekarri eben Ondarrura barkue egiteko killa aundi bat, arbola aundi bat. Ixango zan ba iru bat metro kubiko edo gitxienien. Ta illuntzien jun ziran etxera karreteruok. Eta biyamon goxien jun zien aritz ori, arboliori Ondarrura eruteko sei buztarik idi, ta ezeben arbolarik topau; baiña Euliski an eguen etzunde zelayen lo. Ta preguntau eutsen ia an ikusi ete eban alako arbola aundirik edo. Eta kontestau eutsen ezekiyela: an euli moltzo bat edo berak tragau ebala, baiña ezebala arbolarik ikusi berak. Ta orduan pentsau eben beran bizar artien eukiko ebala Euliskik ezkutauta arbola aundiyori. Eta iru gizonek bost egunien segakin, godaiñekin jardun eben beran bizarrak ebaten, eta alan da guzti be ezeben topau. Eta ordun Euliskik esan eban ia berak euliyek jan zittun lekuen igual jan ein ixango ebala arbola andiyori; eta orduan asi zan beran bierrak egiten eta an asi zan arbola andiyori urteten. Eta gero eruan eben Ondarrure euren arboliori.

* * *

Ta beste baten Euliski jun zan Debara eta Deban ikusi eban txalupa bat itxoso egalien. Eta iru gizon egozan barruen, eta begitandu jakon euli moltzo aundiye zala, eta danak iruntsi ebazan kopau baten.

* * *

Eta gero ostera be etorri eta or ebillen Markiñe-aldien betiko moduen. Eta markiñarrak euken desafiyo bat durangarrakin. Eta durangarrak asko gizon geyago zelan ziren, ba markiñarrak billur aundiye euken, markiñarrak ilgo zittuela eta Markiñegaz jabetuko zirela. Eta orduan jun ziren Euliskigana esaten arek durangarrak domiñetan bazittuen edo arei geiyago egiten baeutsen, iru idi narru bete urre emongo eutsezala. Eta Euliskik azetau eutsen: Baietz. Baiña orretarako esan eutsen ekarteko berari an inguruan egozan okaanak, keixak, eta azurre euken frute guztiyek. Eta iru egunien egon zan jan okaana, jan keixe, ta jan ta jan. Lepa-otzarakadak jaten zittuen.

Eta preparau zan durangarrak etozenerako bera an Iturraldekie esaten deutsen lekuko kamiñuen. Eta durangarrak andik aurrera eguen Errota esaten deutsen lekuen bera etorri biar eben. Eta an eguen Euliski zai noz argittuko durangarrak goittik bera. Eta durangarrok asi zienien mordo andiye, erdiyek inguru edo gitxi gorabera, asi zan Euliski bere agotik, berak barruen eukezan azurrek ametralladorak balire baiño be indar andiyagoaz eta zorrotzago botaten. Eta durangarrak, erdiyak baiño geiago bertan iltte itxitten zittuen. Eta bestiak, bizirik geratu zirenak, jun ziren atzera Durangora.

Eta gero markiñarrak orduen iru idi narrukada emon bie-rrien, bat emon eutsen, idi narrukada bat. Eta esan eutsen: «Konforme zaz orregaz?» Eta: «Bai, konforme naa». Artu ta bota beran lepora esku bataaz, eta jun zan atzera elizondoko zelaira, bera lenago egoten zan lekure.

L. Villasantek Gabiyola izeneko baserritar bati magnetofoz artua: *Aránzazu*, 1964, 374.

12. LUKIAREN ZORITXARRA (ipuin errikoia)

Bein baten seguru, lukie goiti-bera zerutik etozan edur-matasari begira ei-egoan. Saye jatzi ei-yakon ondora ta esan ei-eutzen:

—Zer eitok, Lukito?

—Emen ñauk, goiti-bera datozen ze oneik zer ete-doazen begira.

—Eztakik zer doazen? Ollu-lumek, gizona! Geur zeruen itzelezko bodea yauk: oneik danok ollu-lumek dozak.

—Neu be antxe zeruen bañagok gura neukek, olloak asko gustetan yatazak-eta.

—Ba, ori baño ezpok, neuk eroango aut beingo baten. Paradi neure bustenetik dindilizke.

Eta lukiek agoagaz bustenetik oratu ei-eutzen, eta saye luki-ta-guzti egaz asi ei-zan. Lañoak baño be gorau igon euanean, sayek lukieri esan ei-eutzen:

—Ondo ator, Lukito?

Baña lukie ixilik, seguru.

—Ondo atorren diñoat? —esan ei-eutzen barriro sayek.

Baña lukie ixilik ostera be.

—Erantzuik, gure bok; ezpabere botako aut.

—Bai! —erantzun ei-eutzen lukiek.

Baña «bai» esateko agoa zabaldu eban, eta goiti-bera dea-brue baño ariñau asi ei-zan. Bidean etorrela, bere parean egozan arrieri zarata egiten ei-eutzien: «aparta, peñas! derribus! aparta!»

Arrieri paretik kentzeko esaten eutzen; ezpabere austu eingo eutsela-ta. Baña arriek parean itxo ei-eutzen, eta lukie tortille ein ei-zen.

Barandiarán, J. M. de y col.: *El mundo en la mente popular vasca*, tomo II, San Sebastián, 1961, 135-136. Bedian, 1921 urtean, Ispizua¹tar Tiburtziok baturikoa.

luki = azeri; *eitok* = egiten dok; *ñauk* = nago; *doazen* = direan; *yauk* = dago; *ezpok* = ezpadok; *sai* = putre; *bok* = badok; *itxon* = itxoin, itxaron.

13. IKAZKINAK YAUREGIAN edo oraintsuko Adan ta Eba (ipuina)

R. M. Azkue-k jasotako ipuin au arrigarriri jantzita eta apainduta dago, agiri danex, izkera aldetik beintzat. Aria erriarena da, baña urregorritzko jostorratza Azkuerena...

Senar-emazte, seinik bagako, ikazgintzan bizia nekez aufera eroen biri, egunik etxaken igaroten pexada bagarik. Iru-tarik bitan yazoten ezтана, senaía zan etxe tutu atako izkaldi

geienen itufia. Ezeutsan, baina, emazteari arpegi artzen (ezin eukean-ta) alpeferiagaitik (maratz-maratza zan) ez ordikeriagaitik (urak lenago bere ezaban inor orditzen) ez mîn-askatuergia zalako. Misinoe batzuetan burua sartu ekion senafari emakuma batek, lenengoak, ekañi euskuzala gure atsakabe ta neke, gose-egafi, eri ta eriotza, munduko gora-bêra mingafi guztiak. Eba zazpi bidar aitatu bagako egun gitxi izaten ziran etxe atan.

—Aingeru ezpataria neu izan banintzon, bera ilgo ñonan nik eta kitu. Emakumea izan bear yonan gauza ona izateko!

Geienean isilik egoten ekion ikazgiñari emaztea. Batzuetan, oregaitino, ezaban atzerako bagarik izten:

—Eba, zorioneko eta txafeko Eba ori, eure ama be(re) bazoan. Bera bakañik egon balitzok, etxoan ak obenik egingo; baina an yeukan kaltzandi, an yeukan Adan, eta yakiña! Bata ikusguraxöa, bestea yatun, solobre, beteeziña; ta bien artean sargañazal ta guzti klak bafura.

Onelangoxe izkaldi baten bitartean, batak esan eta besteak erantzun, Eba ta Adan ao-mînean erabilezala, eñege eizari bat ikaztoi-ondoan agertu ekioen. Euren zufumuru ta ezta-bada zolia zegaitikoa zan yakieran:

—Gizagaixo andiok, erdu neure yauregira bizi izatera—, esan eutsen.

Lotsa goritan, pozafen bazan bere, tipitapa, tipitapa, yozan biak eñegeren ondorik. Yauregian sartu ziranekoxe, ofatzetik arako soineko edefak yantzi eraginda, amesetakoak zirudien logela, langela ta bazkalgelak aukeran ipini eutsezan. Eñegek, oregaitino, euren soineko ketsu urtetsuak arduraz gorde eragin ebazan. Yauregiari egokion baratze muga bagakoan une zabal ikusgafi, zuraritzez, loraz ta arnarioñdoz ederto ornidua, euren atseginerako izentau eutsen.

* * *

Beste autugai askoren artean auxe bein baiño safiago esan eutsan senafak emazteari:

—«Mari, amaika bidar txutxu eragin daunat, Eba zala ta etzala; baina neure ekinari eskeñak gaiagonaz gu zer nai ta axe daukagula. Bestela, zer?; oraintxe be ni txondoñari ta i lapiko okela bagakoari puzka.»

* * *

Etegek iru-lau ikustaldi egin eutsezan; ta —gauzeak eka-rena— gero baino gero pozez beteago ta sinistu ezinago aurkitzen ebazan bere magalpekoak... Bein, aurretiaz atean ots eginda, yauregiko otsein bat sartu ekioen, besapean zur edefezko kutxatxo bat ekarrela.

—Etege nire ugazabak bere izenean kutxatxo eder au euki dagizuela dirautsue; baina bein bere ez zabaltzekotan. Bestela zoriona galduko dozuela.

Oinaultki baten ganean ekarkizuna itzita, burua makurka iru bidar erabiliaz, alde egin eutsen otseinak.

Emazteari lenen otu ekion gogamena: «Zer ete dauko?» izan zan. Burueratxo au, luzaro ausnartuta, senafari azaldu eutsanean: «Begira, gero, Mari —erantzun eutsan senafak—, ikuturik bere ezegion gauza ofi egin». Lenengo eguna zelanbait gautu ekioen kutxako bafi yakin bagarik. Ufengo eguna zabaldu zaneko, ofaztu baino bere lenago, kutxa-ondora uferatu zan emaztea ta esku biakaz baretxe goratuta:

—Peru —esan eutsan ezkontideari—, arin-arina dok. Zer ete ddaukak?

—Mari, gero, begira gero: osterantzean aaaa...

—Peru, argia sartzeko bestean zabalduko ddoat.

—Ezetz.

—Inok etxok yakingo.

—Uferatu banakin, uferatuuuu...

Goizerdian, gosari edefari betiko bidea emonda gero, baratzean, batean ara bestean ona, astiro ta galanto, bene-benetako andikien eran ebilzala, emazteak, bafiro bere, kutxea aitatu eutsan. Esanen esanaz zuritu eban Peru: batuk geri-geri zabalduko eban, argi-aritxu bat sartzeko doi-doi; besteak bafura ondo begiratu-artean.

—Peru, oratu euk.

—Nik ezin ddonat, Mari; naiago ñeuken egur-txondor bat metatu, lenagoko antzera. Dardar ñagon nazan au.

—Epel, ikarof; gizon bere ezaz i. Neuk zabalduko ddoat zirika zirika, argitarago eroanda.

Marik kutxeari estalkia goratu eutsaneko, txifftist eginda, sagutxo zê zê buztanluze bat urten, zazkardian sartu ta ostendu ddaken. An eragoioen senar-emazteak lafi, pistitxoa atxitu nai-

rik. Efege goian euken zelatean. Alango baten, efegek eju egin eutsenean, berari begira zurbil ta margul gelditu ziran.

—Zer darabiltzue oren arduratsu?

—Jauna —erantzun eutsan geroagogañean eta motelik emazteak—, jauna: arazo bagakoak zetan edo atan astia emon bear dabe ta...

Efege leiotik bafura sartu zanean, Peruk aopean Mariari: «Galduak gaitun», esan eutsan... Lasterko eurakanatu ddaken efege. Lenengo lenengo egin ebana, kutxea eskuan artu ta zabaltzea izan zan. —«Nun da bafuko mutikoa?», itandu eutsen... Peru isilik. Mari itz egin ezinik.

—«Nun dozue nire sagutxo txanbelina?» —«Jauna, nirea ezta etua. Neure emazte ikusgura, nunzebafi...» — «Eba beti Eba», esan eutsan Efegek Mariari... Peruri gero:

—«Eta Adan beti Adan».

Efege geiagoko bagarik urtenda, berealantxe sartu zan aueguneko ogipeko, sagua ekañ eban otseina: «Efege nire ugazabak zeuen soineko zafok ekarteko esan daust. Yantzizuez, ta etofi zintzazen bidetan bafuna zoaze zeuen etxera».

Eta senar-emazte arek, mañoz mañoz yantzita, egur-txondofai su emoten igaro ebezan euren il-arteko egunak.

Azkue, R. M. de: *Euskaleñaren Yakintza*, II, n.º 60, 171-176. Garay-ko Mercedes N. gandik jasotakoa.

pexada = matraka, gresca; *tutu* = txiki; *izkaldi* = eztabaida; *ekion* = jakon, zitzaion; *eri* = gaixo; *salobre* = jatun, glotón; *zuraritz* = árbol bravio; *arnariondo* = árbol frutal; *autugai* = tema de conversación; *txutxu eragin* = ernegauazo; *baretxe* = astiro; *geri-geri* = kontuz; *zaskardi* = sasiarte; *atxitu* = coger; *zelatean* = en acecho; *eju egin* = estul egin; *margul* = kolorga; *txanbelin* = polit; *ogipeko* = otsein, morroi; *marroi* = andrajo.

14. PRAKAGORRIAK (ipuína)

Zuek gogotan ez dozuen bariku arratsalde baten, «Gereta» basetxeko etxagun zaarra, aizkora aundi bat eskuetan ebalá, basora egurretan joan zan.

Arratsalde aretako eguraldia, otza ta ituna zan: aitz-mendiak lañioz ondo estalduta egozala, euria zaparrada aundiz jausten zan. Olako eguraldia izanda be, gure gizonak bere asmotan atzerarik be ez: bein bidean jarri ezkerro, aurrera ta aurrera baiño ez eban egiten.

Euria goian-bean zala, bideak igaroten ikusita, bere emazteak esan be egin eutsan:

—Gizon!, eguraldi onegaz nora zoaz?

—Untzillaitz-aldera egurretan —erantzun eutsan gizonak berba gitxitan.

—Gaurko eguraldiaz egurretan? —esan eutsan andreak ikaratuta—. Ez zaitez joan gaur, orretarako eguraldi ona be etorriko da-ta. Barikua danez, barriz, ekatxaz batera beste aldeko mutikoak orrenbaten urduri ibilliko dira...

Senarrak, baiña, emaztearen esanari «entzunda gor» eginda, bidean barriro be aurrera egin eban: atsoen esanak zeatz egitea, gauza gatxa be ba-zala-ta.

San Martin'go artzulora eldu zanekoxe, baiña, trumoi-ots ikaragarriaz batean ekaitz bildurgarria sortu zan. Ango oiñeztuak, ango euri ta txingor jausteak!

Orrenbesteaz, Gereta'ko etxaguna ikaratu egin zan; eta ekaitz aundi aren erpectatik iges egiteko, antxe bertan zan labarpe batera iraduz joan zan. Aitz-mendi guztiak bere ganera etorkiozala uste izan eban.

Onetan, San Martin'go artzulotik urten ziran zarata batzuek, Gereta'ko etxaguna artzulora begira ipiñi eben. Zarata bakan areik, ule-zutik gelduta jarri eben. Alako zarata ta garrazirik, bere belarriak egundo be ez eben entzun.

—Olako zaratarik eta garrazirik egundo ez yoat entzun —iñoan berekautan—. Zer ete-yagok bertan? Egingo neukek-eta, «bestaldeko mutikoak» dagozala... Txerren guztiak bat eginda be, olako zaratarik egiteko, orraitio...!

Gure gizona olako oldozkun (pentzamentu) bildurgarriakaz ebillen bitartean, oiñeztu aundi baten argitan, artzulotik zortzi mutil, zortzirak dantzari antzean, arrapalada baten urten ziran. Mutillok, euren soiñak arkondara baltzez eta praka gorritz estalduten ebezan; eta euren atzetik beste «prakagorri» bat be turuta bat eskuan ebala arifieketan agertu zan.

Eta orduan, zortzi mutillak, zortzi «prakagorriak», turuta otsean inun diran dantzak egiten asi ziran. Arein jira-birak eta arein saltuak ikusita, Gereta'ko gizona berba egiteko be adore bagarik gelditu zan. «Ai, nik, andrearen esana egin ba'neul», inoan tamalez.

Eta ikuskizun ain bakana begi-aurretik kentzeko, eskumako eskuaz «Aitaren» egin eban.

Orduan, «prakagorriak» geratu egin ziran; eta euretariko batek, asarra-bitsetan etorrita, Gereta'ko etxagunari «Aitaren» egiñiko eskua zugatz (arbola) batera lotu eutsan.

Ori eginda, barrien-barri dantzak egiten asi ziran. Barriro be, Gereta'ko ugazabak beste eskuaz «Aitaren» egin eban; eta orduan be, «prakagorriak» beste eskua be lotu egin eutsoen.

Irugarrenez dantzan asi ziranean, barriz, ujujuka ta dea-darka pozarren ibili ziran, labarpeko gizonak «Aitarenik» ezin egin eikealakotan.

Gereta'ko gizonak, baiña, eskuak lotuta eukazalako, «Aitarenik» ezin egin ebala ikusi ebanean, «Jesus» izena deadarka esan eban.

Eta orduantxe jazo zan aundiena: «Prakagorriak» JESUS izena entzuteaz batera, garrazi baten deadarka asita, jolas eta dantza guztiak bertan-bera itxiar, arrapalada baten artzulorantz abiau ziran; bidean «laugiñan» joiazala, auxe inoela: «Gereta'ko gizon zirtzilla orrek yaukok errua... Orrexena dok errua... Orre-xek apurtu yozak gure dantzak eta orrexek galdu yok gure alaitasuna...»

Eta ori esanda beste bagarik, «prakagorri» guztiak asarre-gorritan ke moltzoak atzean izten ebezala, amorruez beterik-artzuloratu ziran.

Gereta'ko etxaguna, ostera, «prakagorriak» amorruez joiazala ikusi ebanean, barre-zantzoka asita, etxerantzako bidean jarri zan. Eta gabean etxera eldu zanean, ikusikoaren barri bere emaz-teari zeatz-zeatz emon eutsan.

«Prakagorri» areik, txerrenak (deabruak) izan ei'ziran.

Bustinza'tar Errose, «Mañariko»: in *Jesus'en Biotzaren Deya*, 10-12.

labar = tierra costanera; *iraduz* = prisaz; *laugiñan* = galapan.

15. LAMIÑEK

Ona emen, Arratiako (Zeauriko) euskera errikoi gozoan, antxinatiko siniskeria errikoi bat: lamiñena. Gaia, Ipiñaburuko Angoitia-tar Fabian-ek an bere auzoan jaso da, berak idatzia, eta L. Akesolo-k orraztua.

Lanbreabe'ko lamiñek eta euren atzera-aurreak bala-bala ebildiezan zarrak euren agoetan. Lamiñok, geuk lez oiñ, beso ta ganetiko gorputzen sentzunek eukiarren, etxure bildurgarrizkoak ei-zirean; baye neu nago, guzti-guztiek bildurgarrizko motzak be etzireala izango. Ta ona zegaiti. Zarrak eurek esana da, lamiñe batek Lanbreabe'ko errotan ezkon-geye eukala. Au egie izatekotan, zelan ixen leiteke Lanbreabe'ko errotako iñok, alango motz eta bildurgarrizko bat ezkongeitatzat artu?

Lanbreabe'ko Zubietati Muñegirantza doyan errekan, ezker aldeati, Zubietati lasterrean, erreka-ertz-ertzean errenkadan dagozan atx-bitarteak eta atx-zuloak lamiñek egiñek ei-dire, eta euriekaz da eguraldi txarrakaz euren barruen sartute egoten ei-zirean. Atx-zulo oneitati apur bet gorago, Lamiñe-posu deritxon lekue dago; eta onen aldamen bietan dagozan atx-ganeetan, eguzkie zanean, euren bearlekuetan agiri ei-zirean, uleak orraztuten, bogadea zabalduen, eta olango bearretan. Uleen ardura andie eukien, antza, ta atx-gane orreitan urrezko orrasiekaz uleak orraztu ta uleak orraztu ikusten ei-eudiezan, baita ixera zuri ederrak zabalduen be. Eguzki-sarraieran ainbeste ixera eder intxaur-azal baten sartuten ikustea ei-zen gauzerik ikusgarriena ta arritutekoena. Atxinekoen bat, Barrenkaleko kalean amalau atzo tronpeta yoten motrelu baten ganean ikusi zituala-ta, guztiz arriturik gelditu ei-zan. Ba, zer eretxiko ete eutsan, ainbeste ixera, sorgin-ixerak ezpazirean, intxaur-azal baten sartuten ikusi balitu?

Sorgin ixerak be etzirean urrean; ze, Lanbreabe'ko andra batek ixera eder bat kendu ei-eutsien bein, ta andra orri baketan ez ei-eutsien isten, beti euren ixera orren eske ta eske. Gabaz ateko giltze-zuloti, eta egunez solora agertuten zaneko, an ei-zirean sorgiñok ekin da ekin: «Non dozu gure ixerea» ta «non dozu gure ixerea», gau ta egun ixildu barik, ixera zorioneko ori atzera emon arte.

Eriotzeak bildur andie emoten ei-eutsien, da Ipiñe'n baten bat ilten zanean, baterik bestera garrasike asten ei-zirean, ziñaudiela: «Lanbreabe'ko etzanderea, Ipiñeko min-dingitinek

(kanpak) asi dire-ta, gertau egixu anda iserea». Oin irurogei urte edo bear bada geyorarte, ilek etzituezan atauteetan obiratuten; parroki bakotzak bere andak eukiten zituen eta eurotan eroaten eudiezan ilek guztiek obitegire. Ilen etzekoak isera eder bat zabaltzen eutsien ganean anda orrei, ta bere ganean iminten eudien ile; ta gorpue bein lurperatu orduen, auzoko andra batek batu ta biribiltzen oan isera ori ta ilen etzera biurtuten oan. Isera onexeri esaten yakon anda-iserea. Ta orti dator laminiek, baten bat ilten zaneko garrasike esaten eudien ori: «Lanbreabe'ko etzanderea, gertau anda-iserea».

Laminok guztiz ezne-zaleak be ba-eizirean: goxean goxeti asten ei-zirean Lanbreabe'ko auzoan aterik ate ezne-eske, ta ezpanetara urreratu orduko irunsten ei-eudien katillukadea.

Ixildu barik beti ezne-eske ebizela-ta, Lanbreabe'tarrok bete-betean asperturik ei-eukiezan, eta zoezer asmau bear zala-ta ei-ebizen auzokoak, ezne-zale gogaikarrik ateetati uxatuteko. Ta ona zelan etorri yakien orretarako argie: domeka baten bertako auntz-dun bat, goxean goxeti bere auntzek mendire eroanda gero, ba-eyetorren etzerantza bizkor-bizkor, mezara orduko etzean goxari-iski bet artzeako asmoz; sartu da, eznea egozi dau ta belu egingo ete yakon ardureaz zurrutada baten irunsi gure dau dana. Irikiten egoan eznea, ta apur bet agoan sartzen oaneko, ago guztie kiskeldu bear eutson ta ixerrak ikusiazoten eutsezan. Mutil aren estutasun eta larriek, mezarako belu egiten yakola-ta, zurrutada ezne ori artu eziñik! Orduentxe gomutaun yakon lamiñiek be zurrutada baten botaten eudiela katillukada eznea euren barrure ta, eureri esteak kiskelduteko eznea irikiten emotea ixengo litzekala onena.

Domeka atan berean, arrastien, auzoko etzeko andra guztiek bat einde artu ei-eudien asmaoa, laminiek ezne-eske etozanean, dana irikiten emoteko. Esan da egin. Astelen goxean, beti lez, goxeti asi ei-zirean lamiñok aterik ate ezne-eske. Etzeko andrak ordureko maskillukada ederrak ei-eukiezan laratzuetan irikiten. Lamiñiek ezne-katilluek artu zituezan, katillu orrei ezpanak erakutsi orduko, euren urdalletan eukien ezne irikiñe. Ta jan ei-zirean garrasiek! Ezne goriek barruek erreta miñen miñez, lurrean sakea artute, goragoratan ei-ebizen buruekaz goiko ageak yoten eudiezala. Ta azkenez be, erdi illean arin bai arin euren atx-zuloetara ein ei-eudien ta bertan ondatu ei-zirean betiko. Arik geyo ez ei-daude urten, eta onan urrengorik urrengora ondatu ta egundo geyo ez ei-de ixen euren barririk.

Lamiñok onan ondatu zituezanean, errotako ezkontza ori ein barik gelditu bazan be, Lanbreabetarrok sekuleko bakea ta poza ixen ei-eudien, auzo ta inguruek be guztiz garbiturik gelditu zirealako.

Ezta ixen ordurik ona lamiñon barririk; bakarrik gelditu yakuz egoten ei-zirean atx-zuloak, eguzkie artzean egoten zirean atxak, eta buruz bera uretan mugilduten zirean pozu edo osiñe.

Ipiña ta Ipiñatarren barri, Bilbo, 1958, 28-30 (Egilearen izenik barik).

iski = apur; *bet* = bat; *maskillu* = galdara txiki bat; *laratzu* = laratz, Ilar; *arik geyo* = arrezkero; *daude* = dabe, dute; *mugildu* = murgildu; *ixera* = izara, maindire; *motrelu* = motroillo, almirez; *oan* = eban, zuen.

16. EDURNE ZURI TA ANBOTO'ko señoia (ipuina)

Anboto'ko zulo batean sorgin bat bizi ei zan guztiz zatarra ta itxusia. Begi bakar, surra guardasolaren kakoa parekoa ta okotzak artaburua emoten zebala. Batebe sentimendu zuzenik ez eukan ta aren biotza piku-pasa ximela baño xikuagua zan.

Izugarri gustatzen jakon telebisiñua ikustia. Markoni bat eukan, UHF kanala ta guzti.

Naiz ta ain itxurabakua izan, berari munduko emakumerik pollitena zala pentsatzen jakon, ta orregatik sarritan galdetzen zotzan telebisiñuari: —«Telebisiñua, telebisiñua, esaidan ba ete jan ni baño ederragorik...» Ta telebisiñuak esaten zotzan: —«Que te fagorices!» Ta Anboto'ko señoiak ekin berriro: —«Telebisiñua, telebisiñua, esaidan ba ete jan inguru onetan ni baño politagorik». Ta telebisiñuak alako batian: —«Bai, Edurne Zuri neskatilla zu baño askoz ederragua da».

Orduan atxuari esteak irakiten asi jakozen inbiriaz, ta neskatilla akaatzea erabaki zeban.

Edurne Zuri Kanpanzar'reko baserri batian bizi zan. Oso neskatxa ona zan ta beti pentsatzen ebillen zelan lagundu bere gurasoei. Eskolan be asko saiatzen zan, bañan sekula etzan arrotzen ori zala-ta, bere lagunen artean oso umil eta apala zan baña. Orregatik eskolako lagunak asko maite eben Edurne Zuri.

Egun batean, Garagarrilla'ko goiz argitsu batian eguzkiak belafño umela piñu artetik garbitzen zebala, patatak ataratzen ziarduan Edurne Zuri'k soluan gurasoei laguntzen. Alako batian Udalaix tontoretik txantxangorri bat etorri jakon ta aldameneko paguan geratuta kantuan asi zan.

Edurne Zuri'k atxurra alde batera lagata zoratuta entzuten zituan txoriaren txorrotxio alai areik, ta amaitu zebanean onela esan zotzan:

—Bai ederto egiten dozula kantuan, txoritxo! Oso estarri ona emon dotzu Jaungoikuak. Kantatuko al dostazu beste bat?

Berriro ekin zotzan txantxangorriak kantuaren bitartez auxe esaten zotzala:

—Edurne Zuri, Edurne Zuri, arrixku gorrian zagoz. Anboto'ko señoiak zure edertasunaren inbiriagatik amorru bizia dotzu ta ezer gertatu baño len obe dozu lenbailen izkutatzea.

Orduan Edurne Zuri'k otzikara larri bateaz, gurasoei txoriaren esana argituta gero, alde egin zeban Mondragoe'ra.

Mondrago'ra orduko zazpi ipotxak arkitu zituan. Gizon oneik txiki-txikiak ziran ta bizardunak. Oso langilleak zirala, kooperatiba bat euken labadorak ta bestelako elektrodomestikuak egiteko. Aretxekin bizitzea erabagi zeban, arik eta arrixkua igaro arte.

Illuntze batian sorgiñak atzera ipiñi zeban telebisiñua, Sollube'ko kanalan, ta Edurne Zuri ikusi zeban zazpi ipotxekin Musakola ondoan pasiatzen. Biziro asarretu zan; bere asmo makurra geiago ez luzatzea pentsatu zeban.

«Vespia» artu ta ran, ran, ran, Elorriotik zear; ran, ran, ran, Kanpanzar'retik zear Mondrago'runtz abiatu zan. Eukan amorruak kixkalduta, oso bizkor zoian aldapaz behera direktan, erre-buelta ta biurgunetan tximista bezela sartzen zala txilioka, zein etorren be begiratzeke.

Alako batian zelan Mondrago'ko kalea dana batxez beteta dagon, «Pegaso» bat ez jotearren zulo batian sartu zan, motorra kalau egin jakon, jausi egin zan ta burua apurtu. Jende guztia ikaratuta geratu zan atara zeban karraxiarekin, ta ke biurturik, izugarrizko sulbur usaia botatzen zebala, betiko galdu zan Anboto'ko señoia.

Une artako izualdia pasa zanean Edurne Zuri'k bere base-rrira konbidatu zituan zazpi ipotxak, ollasko erreta jatera, eskeñi

zotzen babesagati. Telebisitua Edurne Zuriren amandriari erregalau zotzen, ta oso pozik ikusten zeben «Los intocables» ta «El Santo» batez be, Coca-cola'n anunzioak eta guzti.

Arrezkero danak zoriontsu bizi ziran.

Ta au ola ba-zan, sartu dedilla kalabazan.

Letamendia, J. A.: in *Aránzazu*, 1966, 266-267.

17. IÑIGO TA MARI (ipuina)

Aitaren ez!

Don Diego Lopez de Haro eiztari trebea zan.

Bein baten, basurdeari itxaroten egoala, atx baten gaiñean neska bat ikusi eban eta bere abesti zoliak entzun zituan.

Beragana urreratu eta guztiz ederra zan eta gaiñera ondo jantzia egoan.

—Nor zara zu? —itandu eutson bizi-bizi.

—Ni... etxe onetako alabea!

—Ba... ni lurralde onetako jauna... Gura dozu nigaz ez-kondu?

—Bai! Bein be aitarenik ez dozula egingo berbea emoten ba'daustazu.

—Tira ba, emoten dautzut berba ori!

Eta biak alkarregaz joan ziran. Neskea ederra zan, baiña ankea eukan auntzaren antzekoa.

Luzaro alkarregaz bizi eta seme-alaba bi izan ebezan. Iñigo, semearen izena.

* * *

Txakur-asarrea! Aitaren!

Don Diego basora joan zan baten. Basurde bat eizatu eta etxera ekarri eban.

Eta basurde ori jaten ebillela, azur bat jausi jakon lurrera.

Inguruko txakurrak ori ikusi ebanean, guztiak urreratu ziran tximistea lez eta sekulako asarrealdia egin ondoren, alkarri aginka geratu ziran.

Don Diego'k ori ikusi ebanean, aitaren eginda, oiuka esan eban:

—Ene, Andra Maria! Ez dagidala nik olakorik ikusi!

Egin ba eban egin eban aitaren ori!

Bere emaztea beingo baten zutundu eta bere seme-alabai tiraka asi zan. Baiña aita bere Iñigo oratu ta beragaz gorde eban. Andreak bere alabatxua altzoan artu, gora jaso eta leiotik urten ondoren, mendian betiko galdu zan.

Toledo'ra

Andik urte batzutara, D. Diego moroakaz burrukan ebillan eta moroak azpiratu, atxillotu eta Toledo'ra eroan eban.

Eta semeak ez eukan ori eroateko beste eroapen. Batu zituan Bizkai'ko semeak eta aita zelan salbau leiken itandu eutsen. Eta oneitariko zarrenak esan eutsan:

—Zoaz basora eta eskatu egiozu laguntza zure amari!

Eta Iñigo, zaldi batera igon eta mendi-tontor batera joan zan. Antxe bakar-bakarrik egoala amaren berbea entzun eban:

—Erdu, erdu nigana, seme! Zure aita zelan salbau jakin gura dozu, ez?

—Bai, ama, bai!

—Itxaron!... «Nabar!» «Nabar!» Arin ona!

Eta zaldi eder bat etorri zan arriñeketan baso baltzetik. Andreak zaldiari jaten emon eta esan eutson semeari:

—Ez dagizula, seme, iñoz nire zaldi au ugal edo zela barik itzi. Zugaz izan egizu betiko eta zure burruka guztietan nagusi urtengo dozu.

—Benetan ama?

—Bai. Artu orain zaldi ori eta zoaz arin Toledo'ra eta an egon illuntzeraiño. Gero urreratu aita dagon etxera. Sartu bertara. Artu aita besapetik. Urten kanpora. Igon biok zaldi gaitiera. Eta gaberako etxean izango zaree.

Dana jazo zan amak esan eutson lez.

* * *

Anboto'ko Mari?

Andik urte batzutara il zan D. Diego eta Bizkai'tarrak Iñigo artu eben jauntzat.

Arrezkero esan eben, eta gaur be esaten dabe, Anboto'ko sorgiña zala Iñigo'ren ama.

Estonba'tar, M.: in *Zer*, n.º 1, uztailla, 1977, 3.

18. AZERIAREN BETEKADEA (ipuína)

Goiz aretan bai urten ebala pozik azeriak bere abiatik! Siniñstuko deustazue? Urdaila baloi bat bera baiño be putzituago ekarteko asmotan urten eban.

—«Gaur? —iñoan kolkorako—; gaur egin bear yoat ba egunoko betekadea. Zegaz edo agaz; besterik ez-pada, inguruko ardirik zarrena berbera janaz. Baiña goserik etorri ni neure abiara? Ezta, ezta erri-mutil guztiak arrika urtetan badeustie be. Ez orixel!»...

Ta betekadearen itxaropenak kili-kili egiten eutson urdaillean. Ta kili-kili onek ia barre eragin be bai.

Arrapalada baten, laster eldu zan beko trokatik tontortxu bateraño. Bai pozik begiratu ebala gure azeriak inguruetako baserrietarantz! Dantzan asi etxakunean! Ta, pozaren-pozez barre antzeko bategaz agiñak erakusten ebazalarik, or joan yakun salto-saltoka baserri orretarantz.

Gitxien uste ebanean, arako moltzo antzeko bat aurkitu eban bidean.

—Zer ete dok berau? Jatekoen bat ete dok? Izan be, koipea, koipea dok! Nire betekadearen ederra!

Ta aoa zabaldu ta aginkadea emotera yoyakon. Baiña gogamen batek atzerantz eragin eutson:

—Koipe au jaten bayoat —esan eban kolkorako—, urdaila tanbor bat bera baiño be putzituago ipiñiko yoat, eta gero etxoat besterik jan al izango. Oba izango yoat berton itxi.

Ta kokoloak alakoak, koipea lengo lekuan ipiñita, aurrera jarraitu eban.

* * *

Baserri baten ondora eldu zanean, kurrin-kurrin batzuk entzun ebazan.

—Norenak ete dozak zaratok? —esan eutsan kolkoari.

Ta, orma ganera igota, ikusi eban norenak zirean. Zazpi txarri, zazpi txarri-kume eukazan begien aurrean!!! Azeriaren poza!

Iru saltotan eldu zan txarriak egozan lekuraiño, ta abots indartsuz esan eutsen:

—Geldi emen, mutillek! Neureak zarie! Jan egin bear zaituedaze!

—Gu jan? Gagozan loiakaz! Oba izango dozu lenengo or pozu orretan garbituten bagozuz.

—Tira, ba, tira, baiña ia ariñ ibiltan garean, gosez nago-ta.

Ta azeria, txarri-kumeak pozura eroanda, banan-banan garbituten asi zan. Txarri-kume koitaduori ezagun yaken bil-durra: dardarka egozan gaxuok!

Jan ete ebazan? Gura bai, gura! Bien bitartean txarri-kumeon ama etorri, eta jo musturregaz ta ankaz gora ez eban bota ba azeria pozura? Bertan ito ezanean!

Urten ebaneko, txarri-kumeak, iges eginda, an eukazan kortako ate ondoan barre-algaran eta burlezka.

—Ederra egin yaustiek! —esan eban azeriak guztiz minduta—. Ori bai dala ifloren lepotik barre egitea! Baiña... zertarako ernegau? Ondiño eguna luzea yoat. Eukiko dok, txotxo, ugari zegaz urdaillea bete.

* * *

Esan ebanez, gertatu yakon. Beko zelaira eldu zanean, beor bat aurkitu eban iru umegaz.

—Neureak zaituedaze! —esan eutsen azeriak, aurreko kadera bategaz lurra jotan ebalarik.

—Ni? Azurra besterik ez nazan au, ni zureztat janari? —erantzun eutsan beorrak—. Gozoagoak izango yatzuz neure umeok.

—Zu edo umeok, bardin deust. Baiña laster zarie neure urdaillean.

—Mesede bat egingo al zeuskit? —itaundu eutsan beorrak—. Arantza bat daukat atzeko kadera orretan, bai?, ta joan-etorri luze bat egin bear dodanez ba, arantza ori ataratea gura neuke.

—Lotsea beintzat ez daukona larregi ik. Tira, jaso egiztana kadera ori! Ta asi yakon azeria arantzea ataraten. Baiña, azeria urtena ta buru-zorrotza izango zan baiña, beorra geiago, antza.

—Au dot nirea! —esan eban barrurako. Ta bere indar guztiak batuta, itzelezko ostikadea agin-agifietan emon, eta luze itxi eban azeria, konorte barik ta aotik odola eriola.

Seneratu zaneko, beorrak bere umekaz anka egin eban.

Kendu ete yakozan azeri barrabanari betekada-naiak? Arraio-arraioa alakoa ondiño prest egoan baten bateri narrua kentzeko.

—Orain arte adarra jo yaustak polito jende-modu onek. Baiña ikusiko yoguk nork urtetan yoken azkenean garaille!

Ta, sutan begiak ta aotik bitza ta odola nastean eriozala, beko errotarantz jo eban.

—Ni gaur goserik neure abiara? Ez orixe! Beste piztirik aurkituten bayoat aurkitu, orratifio, beingoan yoat ba neure ortz-artean. Bai arraiotan...!

Pausu gitxi barru, zarata bat entzun eban aratxuagoko arantza artean. Begiratu, ta auntz bat zan; iges egin gurean egoan auntz zar bat.

—Igeska, e, igeska? Ez dona ba alde egiterik, ez orixe! Neurea auanat!

Auntz koitadearen larri ta istuak nork esan? Belauniko jarrita, negar-apulotan, ia barbarik be egin eziñik, asi yakon esaten:

—Ez naizu jan, arren. Zetarako jan gero? Ez dozu ikusten ba zein zarra ta okela bakoa nagoan? Askotaz gozoagoak izango yatzuz etxean daukadazan kume biak. Iru illebetekoak dodaz.

Azeria, auntzaren arrazoi onekaz, zer egin ezean geratu zan. Etxeratea itxiten baeutsan, bildur zan okerrekoen bat egin ezegion. Itxiten ezpaetsan, ostera, betekada aundirik ez eukan auntz aregaz.

—Ia ba, joan da ekarri egiztazan umeok. Baiña okerrekoen bat egiten baeustana egin, jakingo dona gero nor nonan. Artez ibilli bada-ezpadan be!

Ta auntza, zarra zan baiña, beingoan eldu zan etxera. Baiña ain maite ebazan umeak azeriari emoteko? Bai ondo be! Orretarako egoan!

Deitu eutsan jaubeari, ta al ebanik ariñen kontau eutsan jazoriko guztia.

—Azeri madarikatu ori ondiño be emendik dabil? Neuk garbituko yoat ba!

Ta geiagoko barik, artu eskopetea ta urten eban kanpora jaubeak.

—Or ago, e, arraio ori? Plum... Plum...!, bota tiro bi, ta siku itxi eban etxe-ondoko sasi-artetik begira egoan azeria.

* * *

Nork bota ete eban, beraz, egun atan betekadea: azeriak ala jaubearen eskopeteak?

Bilbao, F.: *Ipuin-barreka*, Bilbao, 1959, 127-131.

19. XATURDITXO-ren SAN JOAN EGUNEKO EGUN-SENTIA (ume txikientzako ipuia)

San Joan-suak egin ziran auzoan atzo illuntzian, eta ez eben ikoti-saltu gitxi egin Xaturdi txikiak eta bere txakur bal-tzak! Amesetan be egin dau bart gabeen San Joan-suakaz.

*San Joan, San Joan
Besterik ez dago goguan, goguan,
Lapurrek eta sorgiñek erre, erre,
Artuek eta gariyek gorde, gorde,
Gora San Joan Bagillian!*

Goizetik iratzartu da gaur Saturdi. Begiratu, begiratu or nun doiazan txakurra ta biak etxe osteko altzarteruntza.

Euri aundiak egin dauz joan dan astean, baiña egun ederrak daukaguz egunokaz. Gaur be egun ederra datorrela dirudi.

Kukua entzun dabee, eta San Joan idaeñ billa doia altzar-teko oxifondora.

Basoaren soiñu maitagarria entzun dabee, sarratu ertzeko aritz zarraren ingurura eldu diranean. Aix e da kukuaren aritz-tantaia.

Zer ikusi dabee? Agoa zabalik gelditu da Xaturditxu, eta ausirik ez dau egin baiña ondo luzatu ditu belarriak txakurtxo baltzak.

Ene! Olako arrigarririk!!

Kantu-kantari eta jantzari-jantzan dabiz altzarteko erreka-
txoaren zelaiunan gizon txiki batzuk. San Joan-gizontxoak dira.
Eun bat bai, gitxienez. Gure Saturditxu baiño txikiagoak danak.
Zelako bizar zuri-zuri eta luze-luzeak daukeezan: ia-ia lurre-
rañokoak.

Damboliña eta txistua joten dabee gizontxo bik. Zelan jo
be gero! Aurreku-atzezkuak, banako-biñakuak, zortzikua, ezpa-
ta-dantzia, txontxongilluena, eta beste asko.

Gizontxo danak gelditzen dira ixillik: «*Or, nun datorren etxe
onetako umerik txikiena, eskekuiei aginke egiten ez deutsien txaku-
rragaz. Mutil ona da Santurditxu, eta etorri deitela gugaz gure
San Joan goizeko jaira*».

Ez da bildurtu, baiña agoa zabalik gelditzen da Saturdi,
eta gizontxo danak barriro be: «*Etorri, etorri gugaz, Saturdiñ,
eta zure txakurra be bai*».

Pozik doia gizontxoan artera, eta eurekaz batera egiten dau
jantzari-jantzan. Eta txakurtxoa be pozik dabil bere ondoan
ikotika, saltuka, eta arifieketan batetik bestera.

Anbototik gorantza berotzen asi da eguzkia. Zidar-kolorez
biztu da Mugarrako atxa, eta ba-datoz eguzkiaren dizdirazko
argitasunak altzarteko basotxora.

—*Agur, Saturdintxu. Datorren urterarte.*

Eta Saturdik:

—*Ez'eittie juen. Ez'eittie juen.*

Eta gizontxoak:

—*Euskidxe dator, eta juen eññ bie'du. Aitteri eta amari esa-
nak eññ zuk, eta datorren urterarte, Saturdiñ.*

Eta amatau egin dira eguzkia etorri danean.

—*«Agur Saturdiñ, agur Saturdiñ..., agur Saturdiñ..., agur...
datorren urterarte...».*

Eta aurekaz batera ixildu da basoko soññu maitagarria.

Datorren urterarte! Datorren urterarte? Baiña eskolara joan
barko dau Saturditxok datorren urtean.

Goizean goizetik jaikitzen bada San Joan egunsentian, barriro be ikusiko ditu orrek biotz oneko gizontxu-jantzari bizkorrok.

Aita eta amari esanak ondo egin bearko dautseez orretarako, oraiñarteko moduan.

Mutil ona izango zara aurrera-antzean be, Xaturditxu?

«Bitaño»

Alzola, N., «Bitaño»: in *Aránzazu*, 1970, 355.

ikoti = brinco; *ida* = ira, garo; *sarratu* = esi, cercado.

20. BATA ZU TA BESTIA NI (Zirikadak)

Ipuin au Esopo'ri be irakorri netsan. Baña, Gertzia'ko ipuinlari arek nun jasoko eban, ba, Plaentxia'n izan ezik? Inbestigaziño bat eingo balitz, jakingo genduke Esopo Plaentxia'n ziar ibilli zala, ipuin batzen; bai orixe. Izan be, erri zelebren onetan gertatzen eztanik ezta beste iñun be gertatzen. Ala da izan be, eta plaentxiatarak arro-arro azaltzen dira mundu aurrarian, eurak diñuenez ez ei da edozein plaentxiarra, bestela ikusi besterik ez dagola, lur onetan ainbeste milla-milloi bizi dirala ta plazentzitarak lau milla be eztirala. Orixen bai edozein ez dirana.

Baña, orraitxiok, emen be ezta dana poza ta barria, bestela ikusi deigun andra-gizon onen gertaera. Esopo'k beretzako artu ba-eban be, au Plaentxia'kua beintzat; eibartarori umiak giñala gure auzokotzat erakutsi zeskuen, eta olan izango da. Edo, Esopo plaentxiatarra ez ete zan gero? Colon be emengua zala diñue ta...

Noian kontatzera zitz ta bitz. Eta, emakumiok parkatu oin be zuek txar laga biarra. Nik al dakit zergaitik, baña beti andrak dozue kulpia; Mejiku'n be gizonezkueri «txarro» deitzen detse ta emakumieri «txarra». Diñuenian zerbaitegaitik izango da...

Kaxkurrio ta bere andria, bata zu ta bestia ni, beti zebizen eztabaidan. Gizonak zerbaite edan be eitxen eban-da; bestiari berriz axaxa emoteko ezertxo be biar ez.

Andriak gizonari, mozkortuta zoian bakotxian eiñalako erro-sarixo baten asten jakon: «Ori da xaxaria..., au ezta etxekeo jiria..., ori al da ba etxekeo gizonan ganoria ta errespetua..., zuk ein

biar dozu, etxia ustu ta tabernia aberastu. Baña, ez, olan ezta; egunen baten ein biar dot eitzekoren bat. Bai. Egunen batian botako dot nere burua ibaira ta kitto».

Beti olan zebillen, baña Kaxkurrio be ezan mutua, onek pe mingaiña ez eban geldirik eukitzeko ta berak pe esaten zetsazen sekulakuak. Olixua ta binagria, botilla batian sartuarren ezin alkartu. Orrelakua zan Kaxkurrio ta Antoni'ren ezkondu biarraren ondorena.

Egun batian, sarri bezala, Kaxkurrio etxian sartu zan egundoko laupardiakin (1), da andriak ikusi orduko:

—Mozkor! Mozkor! Alako mozkor!...

—Ixildu zaitetz; txoliñori —esan zetsan Kaxkurriok.

—Zer? Neu ixiltzeko gañera? Zu mozkorti bat besterik ezara ta neu ixildu? Baña, egunen batian ixilduko naiz ba egundoko.

—Olan gertauko ba-litz, orduan bai izango nintzala ni zorionsu.

—Zorionsu diñozu, zorionsu? Berialaxe bota biar dot nere burua ibaira...

—Jardun bai.

Geiagoko barik, bentania zabalduta, bota eban bere burua ibaira.

—Iño! —diño Kaxkurriok berekautan—; esan da ein gañera! Ez najuan uste. Andra txarra zuan baña olan ezingo juat abandonau.

Artu eban farola ta billa urten zan. Bitxarte ta ezkutuna guztiak ikusiaz, ba-zoian ibai baztarretik gora. Orretan, tope ein dau Peru ta Txomin'ekin eta preguntau detse:

—Zer arraiio darabik, Kaxkurrio? Angulatan ez orraitioik!

—Ixildu zakidaz! Nere andra ziztriñak bere burua bota jok ibaira eta emen nabik topatzen ete dodan.

—Baña, Kaxkurrio... Osintxu'rutz oia? Eztakik ala ibaia Maltza'rutz doiala ta ur-korrontak berutz eruango ebala?

(1) Mozkorra.

—Bai zera! Ezaun dok nere andria eztozuena ezautzen. Ez dakizue ondotxo aren «kontrako joera». Oien be, ziur naok, neri kontra egitiarren gora eingo ebala.

San Martín, J.: *Zirikadak*, Zarautz, 1960, 119-121.

txolin = berbalapiko, itzontzi.

21. G A Z I - G A Z A K

Emazte zoriontsuak

Aspaldi ikusi etziran andra-gazte bik, alkar topo egin dabe.
Mosukatuz:

—Aspaldiko Margarita, beti lez txantxangorri polita! Ezkondu al intzanan?

—Bai neska, ta ondo!

—Ta... i?

—Baita

—Zetariko senarra artu ebanan ba?

—Diru-etxe baten yaukan bere ogibidea. Kukurrukuka ibiltzeko aña etxona irabazten, baña atzera begiratzen be bai yakiñagu-ta... alkar maite-maite gaitun da... polito baten bizi gaitun. Zoriontsu! Eta eu, zertariko mutillakin ezkondu intzanan?

—Itxas-gizonarekin. Pillotua dona; itxas-ontzi andi baten dabillana. Dirurik asko bialtzen yaustana.

—Ta... noiz alkar ikusten zarie?

—Urtean bein amabost egun egiten yonaguz alkarrekin.

—Urtean a-ma-bost egun? Gaxoa! Supridu bear don ba!

—Bai zera! Amabost egun bereala pasatzen ditun!

Mr. Smith euskera ikasten

Mister Smith'ek euskeraz ikasi nai izan eban. Ortarako, bai irakasle bakana aurkitu be: Peru Makur.

Eztakigu ikastaroa zelan amaitu eban, baña bai lesiñoetarikoriko bat zelakoa izan zan.

—Ara —esan eutson egun artan Peru Makur'ek—; zuk euskeraz errez ikasiko dozu. Gaur asi gaitazan «uan»-ekin amaitzen diran itz batzuekaz, geyenak alan amaitzen dira-ta; laster konturatuko zara, diñotzudana egia dala. Adibidez: Zeruan, inpernuan, munduan, buruan, kolkuan, ardauan...

«Ardauan» entzun ebanekoxe, gure ingelesa botelliaz gogoratu zan kontixu, ta galdetu eutson bere irakasle bardinbakoari:

—Ta... botellak... nun euki «uan»?

—Kortxuan —erantzun eutson Peru Makur'ek.

On Kerolimo

On Kerolimo'k etxe barria egiteko lur-zatia erosi eban. Muna andia egoan bertan, ta, a bardindu egin bear zan oñarri bideak egiteko. Bere kontura egin nai eban lan ori, ta tresna-erosketak egiteko asmoz deitu eutson Txanton etxegiñari, cretxi eske, esanaz:

—Txanton; zenbat atxur da zenbat otzara bearko dodaz muna orren lurrak aldatzeko?

—Atxurak txikiak badira, asko. Otzarea andia bada, batekin naikoa izango dozu —erantzun eutson Txanton'ek—.

* * *

Tripazai tremena zan Kerolimo. Ospe ori eban, beintzat. Etxe batera konbidau eben bazkaitara ta aragi-patatazko kazuela andia mairatu ebanean etxekandreak, asi zan bere azpilla betetzen astiro-astiro, ganez egin arte. Mai-zapia loitu bear ebala ikusirik, bai diñotso etxekandreak:

—Kerolimo, gero be, barriz artu daikezu.

—Asmo orretan nabiltzu.

Ziarsolo, M., «Abeletxe»: *Gazi-gazak*, Edili, San Sebastián (urte barik).

22. DON NIKO'ren GIZONA

«Oilloak oillo dira ta oillarrak oillar,
Oillar batzuk ostera galdu dabe gangar,
Oillo bat ikusirik ikaratzen dira,
Obe litzakioe oillotxo ba'lira.»

—Bai, Anton, kantu au entzun naioan eta zer dala ta zer dala jakin gura yoat.

—Zer jakin, Peru?

—Oillo ta oillo barriak, kontxo. Kantu ori ez zoan gure oillotegiko kontuak kantuz erabilteko, senar-emazteai adarra joteko baiño.

—Zer, ba? Jaungoikoak be ekibokaziñoen bat euki ete yok ala?

—Ene, bada. Zer diñok? Ik esateko ez dok asko.

—Ba, ba; an nire auzoan, ume nintzala, agure bat bizi zoan eta Manu gixajo aitaturten yokanean —euli bat baiño epe-lagoa zoan, izan be, Manu au— ta Jaungoikoa euli bat egiten asi zala ta ekibokaziñoz gizonak urten ei eutsen.

—Jaungoikoaren gauzak lotsa aundiagoz erabili bear dozak, mutil.

—Bai, baiña gure Nikolas eta bere emazte Monika ezagutu ba'yoazan, zerbait esango joan gure agureak.

—Orrexek dozak, ba, nik entzun naioan kantuan agertzen dozakanak.

—A, bai! orain agureak dozak; baiña ezkonbarri ziranean baten batek asmauriko bertsoen batzuk dozak orreik.

—Zer pasau zoan, ba, Anton?

—Entzun ba, Peru. Nikolas Ameriketara ibilitakoa dok. Eta, jakiña, Ameriketa'tik etorri ezkerok *sakela astin, dirua txin-txin* eta gaiñetikoak.

—Ta *neskak begira ta amak suiña gura*.

—Orixe, Peru. Ta Nikolas au Monika etxagun baten ala-beagaz ezkondu zoan.

—Olan dala: *Obeto etxaguntza, Amerikanu boltsa, ondasun ta dirutza*.

—Bai, Peru. Nikolas, orraitio, korta ta abere goraberetan ez zoan aitu-aitua be. Beiak buztertuten ez zoan ibiltzen ondo. Bei zapak be ez yoazan ba aldrebes ipiñi?

—Olakorik! Zer ikasi joan, ba, Ameriketa'n?

—Ardiak zainduten edo. Idiak buztertuten eta larakoa bear dan lekuan ipinten ez beintzat. Akulluagaz sakatuten be bildur zoan abelgorrien errukiz: «Aida, Gorri! Aida, Txurri!», deadar

egiten joan, baiña beiak geldi. Barrero be akullua jaso, altzau bai; sakatu? Bai zera! «Aida! Ia beiak, bai!», ekin eta ekin. Alperrik, baiña; beiak burua jaso ta arro-arro atzerantza egiten yoen, Niko mekoari barre egiñaz.

—Zer egiten yoan Monika'k?

—Zer egiten yoan? Kendu akullua eskutik Niko'ri, ta «kendu zaite aurretik, zapalduko zaitue-ta» iñotsan gizonari. Bai gero beiak aurrera egin; tximistea baiño bizkorrago igoten yoezan aldatzak be. Egun areitakoak dozak, ba, ik entzundako bertso orreik eta beste onetariko batzuk:

«Don Niko ez da Don,
Andrea bai da gizon,
Monika andrean
Ezkontza ostein,
Andrea dala oillar
Agirian dago lar.
DON NIKO'REN GIZONA
DALA MONIKA ONA.
Olan be ondo dabiz
Alkar baten begiz.
Asmo batek batzen dauz
t'etxerako dira gauz.
Ikusi zeinkez ikusi
Laguntzen alkarri.
Gitxi barru *Don Niko*
Izango *Nausiko*.»

Agirre, D., «Landaxu»: in *Karmel*, 1960, 175.

aitu = entendido; *abelgorri* = ganado; *larako* = clavija.

23. EZKONDU TA KITXU

Erri-erriko jazoera barregarriak jaso ta idatziz zabaltzen berebiziko mutilla agertu jaku Juan Joxe Arrizabalaga («Markiña Zarra»): Bizkaiko umore ospetsuaren bidetik, bere Markinako euskera sendo errikoiegixuan.

Lenengo gerra-european, kanpotik, gure errixeta agertzen zien mutil sasokuek, euron nasiñotako burruka aldetik ezer ezabela jakiñ nai eskapan. Geixenak alemanak zien.

Onako mutil bat, Gunter izenekue, agertu zan gure errixen. Arotza opisio, piñ-piñe za'lez, laster katitu zan Joxe Joakiñ'en tallerrien. Bai, piñe bene-benetan; bapotie ta gizon ederra bera, gure neska gaztiok begixe bota otsen laster...!

Joxepa, neska eder, biergifñe, arpegi argi ederraz, bere urre koloreko ule luziok kopeta bifi menpe kokotetik bera diezela, errotatik astotxu koskorraz, zorrue onen lepo gaiñ dala, beti, egunero, arratsaldeko zortziretako inguruen, preskuran juen eran etxerutz, tope-tope egite'ba Gunter alemanaz. Au, barritz, bere estudixoko liburu lodixe eskuetan dabela, alkartzze'zien beko erromadan.

Joxepa'k, irribarre; Gunter'ek, bardiñ. Gerotxua, alemanak laguntz'otsen apur baten goiko pagarire arte. Andik gora, orrai-txiñoik, lotsie galdu barik, Joxepa bakar-bakarrrik etxeratze'zan.

Egun onetaiko baten, alemana etxien sartu ei-zan.

Joxepa'k bere aitzari, Ixidro; eta amari, Manuela, diñotse:

—Ara emen, nire betiko izengo dan gizona.

Ixidro'k: —Gizon ederra.

Manuela'k: —Itxuran, pormala...

Andik iru edo lau illabetera, alkartu zitxun Don Andres'ek, parrokkuek, ezkontza kutun baten.

Laster izen zan Gunter laixetan Ixidro bera baiño geixa. Azpixek atatzten be bai. Beixek batzen, «unue». Eta «karniseruai» txala zaltzean, tratante-tratante...

Euskeraz, beti mendi-mendikue izan ba'litze beste.

Egun baten, Pepe, kinkaillerue ta erdal-dune bera, urtien-urtien lez, praka telak, alkondara ta abar eskintzen agertu de basarri ingurure, da entzun dau ezkontzie izen dabela Joxepa'k bere lagun aleman orregaz.

—Pero cómo, Joxepa, tú sabes alemán o que...?

—No, Albares, no. Mi marido Gunter casar y no saber nada bascuense ni erderaz... Agora, sabe baskuense...

—Y, cómo os entendísteis para llegar a la boda...?

—Pues, sensillo, sensillo:

«Begitxu, begitxu; Barretxu, barretxu; Ezkondu ta kitxu...».

Arrizabalaga, J. J., «Markiña»: *Markiña Zarra Kontu Kontari*, Ermua, 1978, 121.

errixeta = errietara; *otsen* = eutsoen; *geixa* = geiago; *atatzten* = ataraten; *begitxu* = begitu, begiratu.

BERTSOLARIAK

Erri-literatura baten barruan, bertsolaritzeak aparteko lekua merezidu dau, erri baten biozkada ta asmoen espillu garbi dalako, eta zer ez? Euskalki guztiak izan dira, eta gaur ere ba dira, bertsoetarako gai; bertsolariak, gitxi asko, Euskalerra osoan aurkitzen doguz, eta, jakina, geure Bizkaian ere bai. Bizkaiko bertsolaritzak abia bero bat ezagutu dau, batez ere: Muxikako Areatza auzoa, eta, berton, Enbeitarren familia, Kepa aitaitagandik asi eta gaurko Jontxu Enbeita aaztu barik (Gaurko Euskalerra guztiko txapelduna bera ere —Xabier Amuritza— ez da Areatzatik urrun jaioa). Esan daigun au ere: Bizkaiko bertsolari askok gipuzkeraz egin nai izaten dituela euren bertsoak, ez beti orren zuzen; baiña ba dira bizkaierea lantzen dakienak ere, Enbeitarrak aurrengo dirala.

Guk emen iru zati baino ez doguz eskeintzen: leenengoa, umoretsua, Kepa Enbeita-rena; bigarrena, lirikotasun samurrez bete, Balendinek bere aitaren eriotza orduan egina; irugarrena, «bertso berri» bat, aita Martzel Andrinua-ren asmamen zorrotz ugariak egina eta gure arteko fraide oso ezagun baten biziera ta eriotzea ederto baten adiezaroten deuskuna.

24. MUJIKAN GERTATUA

Etxe baten egozan lau aita-seme bertsolariak beste otseñ edo serbitzari bat eukeela eurakaz.

Gau baten joan zan otseñia korta edo okollura eznea batzeko ustean, baiña alperrik, bei zarrak ostikoagaz jo ta pitxarra ausi eutsalako. Orduan dana asarreturik joan zan eskaratzera, eta esaten deutse:

—Gure beiazaz eztago gauza onik, katillu bete ezne ezin eratzi leio iñok; ostikoagaz jo ta pitxarra apurtu deust, eta geiago enoia aregaiña.

Orduan erantzuten deutso albotik Manuelek:

—Ni joan banintz eznea batzera, pitxerrik etzan ausiko gure etxean.

Beste aldetik esaten deutso Pedrok:

—Mutill, noz egin az olako abilla? Goiazan pitxerra ta katillua artuta eznean billa.

Joaten dira bata pitxerragaz ta katilluagaz, eta bestea argia-
gaz; asi zan eznea batzen Manuel, baiña alperrik, bei zarrak jo
eban ostikoagaz belaun-buruan, eta albora bota eban.

Orduan guztiz asarre joan zan barrura, ekarri eban akullua,
eta asi zan bei zarra joten gogotik, eta Pedrok kantetan deutso
albotik onelan:

PEDROK: Komeditokia da
Gure okoillua,
Beiak adarra dantzan
Ta ik akullua,
Gaur bigarren aldian,
Mutill kankallua,
Eznez bete eziñik
Eure katillua.

MANUELEK: Ni baiño geiago dok
Bei zar au indarrez,
Ostikoka egiten iok
Gañera adarrez,
Eznerik ezin kendu
Ta i ortik barrez,
Pazientzia artzen
Eztok errez-errez.

PEDROK: Eznea zelan kendu
Dauden guztientzat
Eskatzian euki dok
Plana bestientzat,
Orain neure ustean
Falta dot euretzat,
Ori dok itxuria
Mutill gaztientzat!

MANUELEK: Matusalen baiño be
Zarrago dan beia,
Trabes ipinten ieustak
Gaur neuri begia,
Askan enkiagaitik
Naiko janaria
Atzeko ostikoa
Dauko dantzaria.

PEDROK: Txit dotore asi az
Eznea kentzien

Baiña katillu ori
Dok erdi utzien,
I baiño abillaurik
Ezpadok etzien,
Dantzan ingo iok orrek
Okoillu ertzien.

MANUELEK: Argi-mutill on barik
Postien onduan
Ator ikusitera
Zer moduz naguan,
Urreratu ezpanintz
Askoz obe nuan
Ostikuaz jo naiok
Belaunen buruan.

PEDROK: Beizar ori lotuta
Or daukak serio,
Baiña eznerik berez
Apenas dario,
Iñori emon deutsak
Ainbat desprezio,
Orain urreratzeko
Euk eztok balio.

MANUELEK: Eznerikan oneri
Ezin kendu leio
Ia beizarrak asko
Ezteusku balio
Daukon jenio txarrak
Negar eraiñ leio,
Amaikatxu entzun dot
Au dala merio.

PEDROK: Ezne kentzen asi az
Arro eta maiñes,
Iñori burletako
Uste ta alegiñez,
I az mutill abilla
Bakarrik mingaiñez,
Beizarren ostikuak
Eraiteko iñes.

MANUELEK: Segurutik eiten dok
Berbia naikua,
Aprobatu nai badok

Emen iaok lekua;
Eroan ezketiño
Errora eskua
Adarrak dantzan dabiz
Zoli ostikua.

PEDROK: Mutillen fiñesia
Gutziz andia dok,
Eznez mantentzia nai
Etxeko guztiok;
Ia gaiñeztu dozak
Direan ontziok,
Lar kendu barik, mutill,
Puska bat itxiok.

MANUELEK: Seguruan jarrita
Gaur edozer diñok,
'Neuk eratziko deutsal'
Alan bere eztiñok,
Mantxatu ez daiazan
Eure esku fiñok,
Emen lan egiterik
Etxok gura iñok.

PEDROK: Neure anaje maite
Manuel Enbeita,
Gaur danak eraztea
Derrigorra ezta,
Beñepeñ lanerako
I az mutill presta
Bakik nola daukean
Pitxarra beteta?

MANUELEK: Gazteak ezin leike
Ezer zarrarekiñ,
Ernegau erain deustak
Gaur eure koplakiñ,
Banaioak katillu
Ta pitxarrarekiñ,
Isiltzera naitoak
Euk nai badok ekiñ.

Peru ta Manu Enbeitarrak

Ibaizabal, n.º 98, 1903, 2-3.

25. AITA BERTSOLARIAREN ERIOTZA

(Aita 1942-eko Abenduaren 11an il zan: ordukoxe bertsoak dira).

1. Ludi-bizitza abesti gogoz,
biotz-abesti samurrez,
jakintsuaren gauzak azaltzen
naiz-ta jakitun izan ez.
Bertsolariak egin daroa,
goi-irudimen indarrez,
jakintsu askok ezin dabena
bere erriaren aldez.
2. Zorioneko erri batentzat
bertsolarien jaiotza,
erri-maitale baldin badakar
ongille bere biotza.
Orra nun dagon bertsolari bat
Jaunari eska laguntza,
bere erriari emon daiola
egizko zeru-bizitza.
3. Erri osoa euki zenduan
adi zeure inguruan,
belarriak zur azken orduan
zer esango ote zenduan.
Gizona ez da inoiz goratu
bizi dan arte munduan,
bera goratzen asi oi dira
eriotzako orduan.
4. Maite zituzan oitura onak,
batez be euskera zarra,
bere eriotzan erakusten dau
maitasun orren indarra:
adore aundiz abestuagaz
errikoi bertso samurra,
ain maite eban bere erriari
damotso azken agurra.
5. Azken agurra biotz barruan
betiko dago josita,
ordutik ona umezurtz nago
maixu onena galduta.
Nik gaur dakidan apur au daukat

beragandikan artuta,
eneban jakin zer falta neban
galdu arte neure aita.

6. Uri, baserri, baso, zelaien
zoragarrizko abotsa,
amaika aldiz poztu ebana
entzuliaren biotza.
Erriak guren eban orduan
bere lanaren laguntza,
orra nun dagon zerraldo baten
ill-otzik bere gorputza.

Enbeita, B.: *Nere apurra*, Auspoa, 117-118, Tolosa, 1974, 98-99.

26. AGUR, AITA PATXI

Bertso barri batzuek
gura neukez jarri,
zeruko Aita ona
egidazu argi.
«Aita Patxi il yaku»
esanaz alkarri,
pena aundiagorik
ez da artu sarri.

Arrieta'ko Libo'n
jaio ta ezia,
beragaz izan eben
Jaunaren grazia.
Pasiotarren legez
ondo ikasia,
oraindik ez da galdu
santu-errazia.

Irurogeita lau urte
kumatik obira,
bitartian emon dau
milla jira-bira.
Ekiñaren ekiñez
ez dago begira,
jentiak diñozanak
guzurrak ez dira.

Atsedeen barik ekin
bide gogorrian,
zer ete eukan arek
biotz-motorrian!
Zeruan sartzen bada
neke-zigorrian,
Aita Patxi an dago
goiko tontorrian.

Gauza biren artian
beti gogorrena,
maitasunez eginda
zer aukeramenal
Errezena ez ei da
geienbat onena,
ori da jokatzea
kristau-siñismena!

Begiak lurrean ta
biotza zeruan,
Jaungoikoa besterik
ez eukan buruan.
Auxe zabaltzen eban
bere inguruan,
guztiak indartuaz
siñismen beruan.

Aita Patxi'ren grifia
«Errosarioa»,
nunbait ondo ekian
bere balioa.
Dana zan otoi'tza ta
bedeinkazioa,
alper askoren orde'z
erremedioa...

Beti ebillen Patxi
pekatari-billa,
beragaz autortuak
zenbat, zenbat milla!
Ez zan ez jakituna,
bai gizon umilla,
bere jakituria:
Jesus Gurutz-illa:

Gaixo minduak ziran
bere urko lagun,
euren billa ebillen
beti gau ta egun.
Ortxe galdu ebazan
bizi ta osasun,
berbaz barik, egitez
maixua nun dogun!

Ez da kalte izango
au be esatia,
Astero Arrati'ra
nai eban joatia.
Zenbat izerdi, neke
otoitz-zaratia...
Ondo bedeinkatuta
dago Arratia!

Gerratian gizon bat
ei zan il bearra,
«agur andra, umetxu...»
ai, aren negarra!
«Neu nago orren orde'z»
Patxi'ren dearra;
otoitz egin ondoren,
«Jo neure paparra».

Anai-arteko gudan
Patxi zan kapillau,
ordun egindakoak
dardar ipinten dau.
Euskaldun anaiekaz
zer negar, alarau...
Bere lagun ziranak
ez dabe aitzuten au.

Jainkozale izan zan
euskaldun gaiñera,
biok bene-benetan
ta biok batera.
Bat edo beste bein be
ez eban aukera,
onezkero zeruan
ba dakie euskera!

Jokatu dozu, Patxi
joko ederrenian,
zenbat on egin dozun
zeure aberrian!
Ez al zendun ereingo
leku okerrian,
Fru'tu emongo al dau
gaur Euskalerrian!


Ekiñalean ekin
al dan dana bota,
aste bete baiño-len
il-zorian jota.
Zure jokabidea
agiri dago-ta:
Kurutz-bidea egin,
ondoren Golgota.

Atzamarrak jasota
bidertzian eske,
norbaitek eroango
arin eta merke.
Gaur zuri eske gagoz
txoper eta beste:
«Orruntz eroan gaizuz,
al dozu ainbeste!»


Zorionak gaur zuri,
gure Erriko pitxi!
Zeugaz poztuten gara
ta ez gero gitxi...

Naiko egin dozu ta
ortik ondo bizi!
Agur ta laster arte,
GEURE AITA PATXI!

A. Martzel Andrinua: in *Agur*.



BIGARREN ZATIA:
IDAZLE ZAAR edo KLASIKOAK
(xvii-xixgarren gizaldiak)



RAFAEL DE MIKOLETA (1611- ?)

Mikoleta abade bilbotarrak Bilbon egin eban, 1653 urtean, bere Modo breve de aprender la lengua vizcaina, baiña 1880 urtean argitaratu zan. Bizkaiera zaarra eta orduko oitura batzuk ezagutzeko bana-banako liburutzua. Ona emen zati bat, gaurko grafiaz.

27. PLATIKA LELENGOA

(Peru Xauna, bere otsein Alonso, bere adiskide Joane Xauna eta atso bat)

(. . .)

PERU XAUNA: Zure bisitza esadozu zein da, d. J. xauna.

JOANE XAUNA: Esan eroela legez d. Juan Manuelek, txapinen ostxidi bat.

P. X.: Adituten dot; emaztegaiti diño berrörek.

J. X.: Ori ta berrori.

P. X.: Enetzat daukan obena da ain бага egotea.

J. X.: Xauna, ez begi ori esan, ze gauza baltza da bakartasuna.

P. X.: Banagok oni, diñoanari obe dala bakarrik egotea, lagun deungegaz baño.

J. X.: Eñanik dago eztala deungea izango.

P. X.: Ta non idorokogu ona izandin bat?

J. X.: Asko dago onak direanik.

P. X.: Egia da, beaturik dagozanak.

J. X.: Or(r)elan esan gura dau, emaztea dala ona, beaturik dagoan orduan.

P. X.: Diñot, xauna, ero bakotxa bere erasuñagaz, nik emon dot orain onetan.

J. X.: Ia urtengo dozu orregaz, Erregek bere alkaualakaz nola.

P. X.: Esan daroe, mandako on bat, auntsz on bat, eta emazte on bat, iru kuka gaizto direala.

- ATSOA: Maya iminirik dago, erasti xarri ditez zeure mesedeok almorzetan.
- P. X.: Juan xauna, xarri bidi mapuruan.
- J. X.: Ondo litzate ori, orrek gura dau esan, zarra nazala.
- P. X.: Ez, ezpada errazoegaz kunplietako.
- J. X.: Artu begi berrerek berre lekua, ze neuk artuko dot neurea.
- P. X.: Ondo litzate datorrela ene etzera neuk baño (geyago) agindu dayana.
- J. X.: Orti badaroa zire mesede orrek, nik obediten dot etzean ta ateti.
- P. X.: Ni naz serbiduko dodana, dana legez errazoea. Mutil, betoz platerok.
- ALONSO: Emen dagoz, xauna.
- P. X.: Norik ekarri dozu pastelgok?
- A.: Urian dan pastelerea garbienerean.
- P. X.: Bira gure auzo ederrenean?
- A.: Bai, xauna.
- P. X.: Errasti xan daiz itzal baga, ze andra garbienak dira.
- J. X.: Ta ezpadira bere ez naz ni adituten orelako gauzetara.
- P. X.: Ba eta gitxiago adituko zinate, bazina aen adiskidea onena, zein ni naza.
- J. X.: Sapore ona dauke ta idaraiten dodan ohea da direala aen xateko presta ze edozein ordutan idoro daiz gizonak gisadorik.
- P. X.: Mutil, iguk edaten, ze piperrak piketan xok.
- A.: Zein atzezin dau, zuria ala gorria?
- P. X.: Ekartuz zurirean, zerren da beroago goxetarako.
- J. X.: Ta osasuntsuago da gorria baño.
- P. X.: Brindetan deusat, don Juan xauna.
- J. X.: Eskuetan emon eiten deusat, errazoea egiten dot.
- P. X.: Zein tazatan atsegin dau edan: launti ala sarkontxu onetati?

- J. X.: Alonso, adiskidea, xakin egizu nazala ni ordi ona, ta dakidala zer edaten doda, ta alan essari egidazu arako taza launti.
- P. X.: Nik gura dot edan vidriozko kopa onetati, ze beste taza guztietati.
- J. X.: Xauna, gustuetan ezta disputarik.
- P. X.: Alan da egia, onako auntzen xamoe onegaz edango dau berrorek ostera; ekartuz azeituna batzuk irugarrenerako.
- J. X.: Ori errasti gei emon dite xatekoa ta ez almorzua.
- P. X.: Zegaiti?
- J. X.: Zerren esan daroe xateko onari edo deungeari iru bider edango dala.
- P. X.: Or, diño gure ama Zelestinak, dagoala letrea korunpidurik, zerren amairugaiti diñoala iru.
- J. X.: Ea, xauna, aun ondo egin da, ez geyago, zerren galdu geiñ xateko gurea.

Modo Breue de aprender la lengua vizcayna, compuesto por el Ldo. Rafael Micoleta, presbyt.º de la muy leal y noble villa de Bilbao, 1653. Sevilla, 1897, 26-29.

beatu = lurperatu, eortzi; *errasti* = ya, naturalmente; *ateti* = kanpo-tik; *-rean* = -tik; *laun* = plano.

BARRUTIA, PEDRO (1682-1759)

Erdi Aroko burruka-eresi zaarren antzera, gure leenengo teatro lana ere Leitx aldekoa dogu, bizkaitera egiten dan Gipuzkoa aldekoa. Egilea, Pedro Barrutia, Arrasateko eskribaua. Egitura, izkera ta umore aldetik balio andikoa «misterio» au. «...oraintsurarta allunetan eta autsartean euki dogun teatro-pitxi lederra... euskaldumentzat euskaldun erara egindako misterioa! Amazazpi-garren gizaldiko euskaldunak ezagutzeko egoki-egokia» (Mikel ZARATE. BEI, 29-30).

28. GABONETAKO IKUSIKIZUNA

(Acto para la Nochebuena)

SAN JOSE: Jaunari demaguzan graziak, Maria.

Orra nun agertu dan Belengo uria.

BIRJINA: Eperik ezta, Josef, kumplitzen eztanik,

Laster jaiko da Jesusa niganik.

Kontenturik biotz au kabidu ezin jat:

Neuk sentitzen dot paradisu bat.

S. J.: Pentsamentuan nator, zerren dan berandu,

Izango ote dogun Belenen ostatu.

B.: Ostaturik ezpada Belengo errian,

Zeruko Jauna dago leku guztian.

Ordua etorri da, esposo maitea,

Sein onek jaio bear dau. Jokudi atea.

(Tocan a la puerta) (Cantan dentro)

«Llamando está San José
A las puertas de un mesón,
Con la Reina de los cielos,
Virgen y Madre de Dios».

(Dentro el mesonero y el criado).

TOMAS: (da voces) Mutill, aditzen dok, mutill?

CHATO: Beti arran eginik,
Naduka adikaturik.

- Erri bateko kanpaetzat
Eztau bere parerik.
- T.: Ez al nok aditu?
Zori gaiztoan artu indudan
Neure etxean kriadu.
- CH.: Lo egiten izkizu;
Goiza etorri etxazu.
Puntu onetan oera naiz da
Enaiz ondo berotu.
- T.: Ara: norbait da atean.
- CH.: Gu ondo gauza oean.
- T.: Mutil nagia, jagi adi.
- CH.: Jagi nendi, al banegi.
- T.: Arraka!
Gura al dok ibili nadin
Makilaka ta agaka?
- CH.: Ar zaraz beti gure nagusi?
Ala menean ezteuz itxi!
Olla nola iskintokian
Gizentzen jaku lotsagerian.
- T.: Aguro!
Ondo ikasteko bear neuskio
Zanka-zanak ebagi,
Bera datzan oearekin
Su emon prestu ezari.
- CH.: Eso sí!
Orrelako orazinoak
Zure aoan ugari.
- T.: Txato, mutil lotsagabe,
Desbergozadu perroa,
Jagi banadi, itxiko deustat
Moltsuarekin aoa.
Aik gora, mutill!
- CH.: Flema oberik ekusi dozu.
Urtetzen daben zerekin.
- S. J.: Ostatu eske gabilz, ez arren beatu,
Zeuoroen trabajua pagatuko jazu.
- CH.: Zuentzat ostaturik eztago emen
Akomoda zaitetz bazterren baten.

S. J.: Belenen ostaturik guretzat ezpada,
Arren, erakuskuzu nun irago gaua.

CH.: Or dago portale bat uriaz ateti,
Izkuzu lo egiten, zoaz emeti. (*Váse*).

B.: Besterik ezin bada, guazen bada ara;
Jaungoikoa dan lekuan ezer ezta falta.
(*Entran en el portal*).

(*Aparece el ángel y canta «Gloria in excelsis Deo». Túrbanse los pastores y dicen en su orden:»*)

LORENZO: Ene lagunak, zer ete dogu
Arako misterioa?
Txoriak legez egoak dakarz,
Dultzea bere aoa.
Zori onian juntatu gara
Guztiok leku batera.
Angeruzko exerzituak
Jatsi dira lurrera.

T.: Ala sarde, eztok agertu
Ene denpora guztian
Onelako gizon ederrik
Gure Belengo mendian.
Agana beti begira dago
Kontentu askoz begia,
Beragaterren trukadu nei
Pozik mundu guztia.

GRACIOSO: Aserik orain franko dago
Onela esanagaitik.
Kaltxapotak eman leizke
Bokadu on bategaiti.

BELTRAN: Angerua dok, ez dok gizona!
Aren abegi ederrak
Duda baga bentzitzen ditu
Kanpoetako eperrak.
Kantore asko arkitzen dira
Jerusalengo tenploan;
Musika dultzeagoa dago
Angeru onen agoan.

GR.: Beltranikotxo, eleizako
Esaminadorea,

No se hizo para los asnos
Ezti makatz dultzea.

ARITXABAL: Berau ikusi nuen ezker
Da ene pentsamentua,
Zeruetako gloriagaiti
Iritzeari mundua.
Desiertura juango naiz ni
Egiten penitentzia,
Ene jana ta ene edana
Urarekin ogia.

GR.: Gure mutil au izango jaku
Santu guztiz andia,
Alboan falta dakionian
Kuartilloko ontzia.
Aritxabaltxo gurea,
Zezen-toreadorea,
Penitentzia egite ori
Ez dok intsaur-saltsea.

CH.: Antejoak ibini eizke,
Txarlesikotxo laztana;
Esan egidak zer misterio
Etorri jakun geugana.

GA.: Aren aoko berba dultzea
Aditu neban puntuan,
Sentidu neban argi andi bat
Neure biotz barruan.
Artzain ignorantea nintzan,
Biurtu naiz sabio,
Ene ustez, mundu guztiak
Eztau zuri bat balio.

GR.: Parabolok esan franko
Gabrieliko gureak;
Biar goizeko beste alderuntz
Itzuliko jok aizeak.
Beistegiko Gabriel,
Kañaberan kaskabel,
Lindo mozo despatxatzeko
De vino blanco un pichel.
Sekula inok eztau ikusi
Onereango konturik.
Ezta posible⁹ eztaodela

Ene lagunak ordirik,
 Ez al dezu dijeridu
 Arratsaldeko saltsea?
 Txakolin orrek turbadu deutsu
 Begietako bistea.
 Sermonadore barri orri
 Egon naizako begira;
 Ori da «Buru-motz», Oñatiko
 Peru Jainkoen mutila.
 Kasi buruan ilerik etxok,
 Diranak ere bakarrak.
 Mosu linduan argitzen dira
 Begi eder gorri bi;
 Goizean bein ematen dabe
 Ezti makatza ugari.
 Gidalbi-gidal gozoagorik
 Eztira jamas ikusi;
 Badirudie izan dirala
 Durangon errementari.
 Arpegiko narru ederrak
 Pergaminoa dirudi,
 Pergaminoa busti ta gero
 Erakutsia suari.
 Berba baten esan dagidan
 Nolakoa dan mutila;
 Egin eginik aren gorputza
 Natibitate subila,
 Izan etzidin gauza guztian
 Mutil au desgraziadu
 Zerren dauen kantu ederra
 Egingo degu angeru,
 Milla grazia emon eutsan
 Jaun zerukoak aoan;
 Milla maña on erakusten dau
 Bere ofizioan.
 Gure burloi itxita, orain
 Biurtu gaitazan atzera,
 Zertara jakin gura genduke
 Zatozen gure artera.

GA.: Bateti ene biotza poz da,
 Besteti dabil ikara,
 Ezkutaria, konbeni bada,
 Esan egizu: Nor zara?

ANGEL: Ni naiz zeruetako
 Jaunaren angerua,
 Dakardena zeruti
 Barria deseadaua.
 Atsegin ara ezazu,
 Belengo pastoreak,
 Iditen asi dira
 Zeruko portaleak.
 Donzella bateganik
 jaio dan infanteak
 Zeruko Jaunarekin
 egin ditu bakeak.

angelu zeruetan
 Jaunaren angerua,
 Dakardena zeruti
 Barria deseadaua.
 Atsegin ara ezazu,
 Belengo pastoreak,
 Iditen asi dira
 Zeruko portaleak.
 Donzella bateganik
 jaio dan infanteak
 Zeruko Jaunarekin
 egin ditu bakeak.

Donzella santa onek
 izena dau Maria.

Erakutsiko deutsu
 jaio dan eguzkia.
 Belengo portalean,
 baturik oxalean,

Kumearen ordeaz
 daratza pesebrean.
 Sortu zan infante au
 Amaren sabelean
 Adanen bekatuti
 ezebela arean.
 Berau da Jangoikoa,
 Ama dau Birjiñea;
 Ori da marabilla
 andi pare bagea.
 Josephe ditxosoa,
 Amaren esposoa,
 Ezta Jesusen aita,
 baña bai ordekoa.
 Aberre mutu biren
 erdian jaio dana,
 Bera adoztzeraz
 zeruti jatsi gara.
 Iru Errege Mago
 izar baten atzean
 Bisitatzeraz datoz
 Dromedario gainean.
 Desegingo ditu
 Jaun onen graziak
 Pekatu oraingifio

egiñiko guztiak.
Da gure Infantea
Biotz garbi zalea,
Apareja bekio
esne nata bagea. (*Vanse todos*)

(*Dice la Virgen*)

B.: Adoratzen zaitut
Jangoikoa legez,
Laztan egiten deutsut
Semeari legez.

Barrutia, P.: *Gabonetako Ikuskizuna*, en *Teatro Zaarra*, Auspoa
Liburutegia, Tolosa, 1965, 23-25, 34-39.

damazagun = emon deioguzan; *adikatu* = nekearen nekez indargetu;
gauza = gagoz; *prestuez* = villano; *izkuzu* = itzi (utzi) eiguzu; *ala*
sarde = exclam...; *beragaterren* = beragaitik; *iritzeari* = uzteari (?);
onereango = onelango; *gidalbi-gidal* = (?); *subil* = mukur; *iditen* = ede-
giten, irikiten; *daratza* = datza, yace; *arean* = ezer.

BASTERRETxea, AGUSTIN (1700-1761)

Gure kristau erriak buruz jakin ditu eta sarritan abestu «Jesukristo gure Jaunaren Pasinoia» urkultzen deuskuen bertso ederrok, maminez eta teknikaz gogoangarriak. Guk emen bertso banaka bat baiño ez dogu emongo.

29. JESUKRISTO GEURE JAUNAREN PASINOIA

1
Jesukristori kendu ezker
Pekatubagaz bizija,
Baldin ezpadot negar egiten
Arrizkua dot bijotza;
Guztijok lagun
Kantadu daigun
Bere penazko erijotza.

19
Suba eguan eskepian, ta
Pedro su atan berotzen,
Zerren bijotzak amodijuan
Otz asko eutzan sentitzen:
Su orren kiak
Bere begijak
Negarrez bete eutsazen.

42
—«Alper alperrik, Presidentia,
Garbietan dozak eskubak,
Juez justotzat euki egijan
Hipokritori mundubak?
Loituta ago,
Baña geijago
Hi baño bere Judegubak».

46
Bide onetan joanian
Kalbarioko mendira,

Bere Semia kontenpletako
Ama eguan begira:
An dira penak,
An tormentubak,
Martirijuak an dira!

47

—«Ama Birjiña penaz betia,
Itxi egizuz begijak,
Estaldu zaite, ain бага bere
Asko darua Semiak
Miñez jantzirik
Berba egiterik
Ez deutso itxiko negarrak».

48

Biurtuten dituz Amak begijak
Semia ikusitera,
Baia bijotzak sufridu ezin, ta
Biurtzen dira atzera:
Datoz argaiti
Begijetati
Bijotzak berba egitera.

49

Semiaenak esaten deutse:
«Bakizu, Ama maitia,
Asko sentietan badozu bere
Onan ni ikusitia,

Bestelan ezin
Zerubarekin
Egingo dala bakia.

Baija zelan ni itxiten nozu
Bakartade ain tristian?
O zelan bai nik,
Eta ondo pozik
Jarraituteko (sic) neukian».

50

Neure Aitaen borondatian
Zeuria beti daukazu:

Aen esanak narua, Agur.

Bendeziñoia indazu;

Neure ordiaz

Pekatarijaz

Kontuba zeuk eukazu».

51

Amiak diño: «Ai! neure Jesus,
Zuaz, bai, ordu onian».

Basterretxea, A.: in Olachea, B. *Cristinauben Doctrina*, To-
losan¹³, 1894, 290-306.

eskepe = estalpe, portal, tejavana; *garbietan* = garbitzen; *indazu* =
emoidazu.

13
12
11
10
9
8
7
6
5
4
3
2
1

13
12
11
10
9
8
7
6
5
4
3
2
1

13
12
11
10
9
8
7
6
5
4
3
2
1

Nok dituz esku ta on orrek
Burdiniagaz idigi?

Gorrotuak edo amodijuak

Odolezko lau iturri.

Bai bularreti,

Ate idigiti

Amoria da agiri...

56

13
12
11
10
9
8
7
6
5
4
3
2
1

13
12
11
10
9
8
7
6
5
4
3
2
1

13
12
11
10
9
8
7
6
5
4
3
2
1

13
12
11
10
9
8
7
6
5
4
3
2
1

MOGEL, JUAN ANTONIO (1745-1804)

«Bera dogu gure bizkaitarazko euskal literaturaren zimendua; bera dogu, ametszko Euskalerrian barik, egiazko Euskalerrian bizi izan zan Maisu ona, garbikeri bako garbizalea, sakona, zabalak, umoretsua...» (Mikel ZARATE, BEI, 46).

Iru txatal autatu doguz: 1) Berba-aurrekua: *Moguelen euskaltzaletasun sutsuaren espillu garbia*; 2) Txakur bijak: *alegi edo fabula polita*; 3) *Moguelen eta Anibarroren arteko alkarrizketa ederra: goi-maillako idazle bion pentsakera, jokabide, berezitasinak eta euskal biotz gorria ezagutzeko berebizikoa.*

30. BERBA-AURREKUA IRAKURLE BIZKAITARRARI

Orra nos agertuten natxatzun aspaldi onetan eskatuten zendubana emotera, ta zan kiputz euskeran argitu dodan konfesiñoaren gañeko Liburuba. Nik ikusi banau bizkaitarretan euskeriaren zaletasun kiputzetan nekusana, ez nintzan ain esker dongakua izango, zein da itxiko nituban barurik neure bizkaitarrak, Jaungoikoaren berbiaren ogi ederra zabaldurik atzeko, ta arrotz legez egiten jatazanetan.

Ez dot damu artu neban asmo ta nekia. Neure biotzeko pozik andijenagaz ikusi dot, zelan zabaldu dirian milla bat liburu Naparroa, Gipuzkoa ta Bizkaijan. Jakin dot Abade Jaun askok irakurten ditubezala Elestetan, ta nekezale ez gitxik euren etxeetan; ez niri eskerririk, ta bai Jaungoiko doe guztien emoliari.

Bazaut, autor dot, ta ez daukat aztuta bizkaitar barrukuentzat gatx izango dala Kiputz euskeria ondo aditutia. Baña verba askatu adituten ez dirianak, aditu oi dira lotu ta katetuta dagozan bestiakaz batera.

Alan bere, atsegin emoterren, ta gauza ain biarrak itsatsi ditezen obeto bizkaitarren biotzetan, ipiñi dot Liburu bera Bizkaiko euskeran, ta zerbait laburtu ditur luziak zirudijezan Irakaste, edo Doktrinak. Au egiñaz, liburuak urtengo dau eskuor, ta txikarraguak, merkiaguaz ostian. Ze poza niria entzuten badot bizkaitarrak alkarren leijan dendatuten diriala erostera liburu au! Ez biotza iminirik daukadalako saldu-erosijetako irabaztetan, ta bai diruba aurretatuten dabeenak

liburu onen agermenerako, kalterik izan ez dagijen, oztu ta atzeratu ez ditezan urrenguetarako.

Bai, ta dinot tolestura бага, nire urtiak izango ez badira bere luziak, gura neukez irago enparetan jatazan egunak atearaten on izango dirian liburuak, ni illda bere, verbaz irakatsi ezin dodanian, irakasteko Zeruko bidia euskaldun guztiai Liburu onen videz. Zeinbat arimak igon daben Zerura gauza onak irakurrita, ain gatx da zeinbatu edo kontetia, zelan litzatian esatia zeinbat dirian gure gañeko izarrak. ¿Nok ekarri zituban Santu ain andi izatera San Anton Abata, San Agustin, ta geure San Ignazio Loyolako? Liburu onen berba ixil, baña itzaltsubak.

Esaten dabee gitxien esan biar leukeen askok, euseria baldresa, traskilla ta soñako zantarduna dala: ezin iñok apaindu leikiala. Nik gura banau apaindu bere etxe ta utxaan daukazan bitxi ta jantzi ederrakaz, apindubaguak urtengo leuke erdera askok baño; baña ezagutuko ez leukee etxekotzat, dongaro jantzita beti ikusi dabeenak. Orregaitino ez dot jantziko jaiegunetako soñekuakaz: esan gura dot, ez dodala irakatsiko norañño elduten dan bere ugaritasuna berbeetan.

Gura dabenak sinistu Bizkaiko euseriak ez deutsalala ezer zor kiputzenai, irakurri begi onek baño leenago urtengo daben neure adiskide andi ta, gauza onetan, neure biarlagun legez egiten dan Aita Fray Pedro Antonio Añibarro, Zarauzko Kolegio A. San Frantzizkoko Ordean Misionarijak bizkaitarrentzat atera daben liburu txikar, baña urre guztiak baño geijago balio dabena. Ediroko dau «Esku Liburu» onetan Bizkaiko euseran ederto adierazo leitezala esan biar dirian gauzak, berba nekezaleen aoetan darabiltzanakaz. Bizkai barru-barruko semia da bera, ta bere euskera garbi ta ederrak ezagutu eragingo dau, nun nai ikasi leitiala ondo berba egiten, buruba zerbait nekatu gura bada. Alperren soluak beti egongo dira bedar txaarrez betiak. Bizkaitar guztiak erosi biar leukee Liburutxu esan dodan au.

Ikusiko da ez ditugula bardin erabagiten berbaak aitatu dodan neure adiskide onek eta nik; ta emendi aterako da, zetan dagan Bizkaiko euseriaren desbardintasuna. Ak diño «maitea, neurea, zoroa, gozoa, burua, Kristinaua...»; nik, barriz, Markiña inguruan legez, «maitia, neuria, gozua, zorua, buruba, Kristinauba». Zein batera, zein bestera esan, ez dau ezer galduten euseriak.

Moguel, J. A.: *Confesino Ona...*, Vitorijan, 1803.

nekusana = ikusten nebana; *atze(ko)* = arrotz, persona extraña a la familia; *bazaut* = ezagutzen dot; *eskuor* = manual; *tolestura* = doblez; *enparetan* = geratuten, gelditzen; *traskil* = desarrapado; *ediro* = idoro, aurkitu; *nekezale* = nekazari, lugin, baserritar; *erabagi* = oguztu, pronunciar.

31. TXAKUR BIJAK

«Txuri» txakur salo ta azartubak
Ezarri etsazan bere agin zorroztabak
Ariki mamiñari bere etxian
Iñok ez ekusalako ustian.
«Pinto» txakurtzar saluaguak
Entzun zituzanian urru soñuak
Bajuako, ta dau aurkituten
Ariki oña *urruz* txikituten,
Begi ezkel, agiñak odolduak
Urruka ta mosuak astinduak.

— ¿Zer da ori, Txuri zorigaiztokua,
ez al zara zu txakur etxekua?
Ah, bai! Ta zein eskerbagia
Gure ugazabarentzat! Zeñek etxia
Itxiten deuskun guri uste onez
Zaindu daigun gabaz eta egunez.

O etxegaltzallia!

Lapur andija zara, ez gordetzallia.
¿Ostuko zeuntzan ariki zatija?
¿Ez al da au izatia lapur andija?
Ogija deusku guri emoten,
Ta gugaz da sarri olgetan ibilten.

Ostu deutzazu arikija

Zeñegaz egingo eban bazkarija.
O esker txarreko ta sabel gaistokua?
Saldu dozu zeure ugazaba gizajua.
Itxi egiozu aragijari,
Ez jan бага биурту ugazabari.

Ez geijago zapaldu

Beragaz dagijan bazkaldu.
Ni naz zure adiskidia,
Urte askotan lagun maitia.

— Ondo diñozu, Pinto leijala,
 Egingo neuke nik beriala
 Zure esana, ez baneki
 Bakarrik diñozula kanpoti.
 ¿Itxiten badeutsat nik arikijari
 Ez al deutzazu zuk emongo sabelari?
 ¿Zetarako dira zure barriketak,
 Egin badituzu zeuk lapurretak
 Nik baño sarrijagotan?
 Onegaz ni orain ondo nago.
 Ordijari dirautsa ordijak:
 «Ez dok biar orrela mozkortu,
 Ez ardaoz guztiz konkortu.»
 O ze egija andijak
 Ta edozeñentzat argijak!
 Irakaslak ipuin onetan
 Daukeek ikasbidea;
 Dago ondo irakastia
 Egitada zuzenetan.

Moguel, J. A.: *Poesía Bascongada. Dialecto vizcaino.* Ms. inédito. Arantzazuko Arkibuan.

salo = jatun, *glotón*; *azartu* = ausart(a), atrevido; *ariki* = aari-okela; *ezkel* = revirado.

32. «DIALOGO ENTRE DOS AMIGOS ECLESIASTICOS, EL P. FR. PEDRO DE URLIJA Y D. JUAN DE ZANDIJA»

FRAILE: Adiskidea, eldu jat nos edo nos arpegia agertuko une txito ona. Sarri alkarregaz berba egin dogu, Bizkaiko jaun, abade ta nik legezko soñokoa darabillen askoren nagitasun, alperreteria ta ardurarik eza, euskerea ikasteko liburubakaz bururik ausi бага, bada ez daukeek liburu Bizka euskerea irakatsi leienik. Eta, ¿noren erruz? Eurren erruz. Ni nabil bazterrik bazter, erririk erri, Bizkaiko uri ta elizaterik geienak irago ditudala. Abade askok nazaude, ta gitxi gitxi batzuk baño aurkitu ez ditut euskera zaleak. Gura leukeek jakin, baño neke бага, atxurlari alperrak legez, zefien soloa dagoan laarrez, mugitaz, azkiz, garduz, zalgaz, zóragariz beterik.

ABADIA: Neure Aita Pedro. Egingo dozu aurrera, gura dozun beste berba, baña ebagi biar deutsut beinik bein esatera zinuazana. Zuk egingo dozu Bizkaiko euskera berba zeure erri ta aldereetan ebaten dan legez, ta nik neureetan ikasi dodanaz. Zein batera zein bestera, dendatu biar gara, erdera usaiñak itxirik, nekezari euskaldun utsak irakatsi deuskuben gisaan berba egitera garbiro, ta autortu eragin biar deutsegu, obeto aituko gaitubela geure olagizon, arotz, argiñ, errementari eta baserritarrak, elessaan agertuten garianian ikasi biar ditubenak irakasten, erdi erdera ta erdi euskera, beste euskaldun txar askok diadarrez diardubenian baño. Ondo egiña dago elessiak beretu, ta erdera guztietara zabaldu dituban bere berbak, guk bere gordetia; baña bestelango berba arrotzak kendu biar dira, dagozarian izen euskerazko garbi ta nekezarijen artian artu ta aotubak. Gari solo bateti atera biar dira zalga, olo, zoragari ta bedar dongaak; ezpabere azpiratu, zapaldu ta itoko dabee galbedar garbija, ta itxiko ez dabee biar dan garaurik arturen. Baña, ¿zer jazo da gure artian? Erein ditube askok zalga, olo ta zoragari azi txatarrak, esan gura dot izen arrotzak, erderiari ostubak. Itxi dabee euskera gaissua naastuba. Lo egin dabee, iratzarririk egon biar ebeenak, erein etzedin azi txarrik. Orain garbituko bada solo au, ta artu garau garbija, nekatu biar da ateraten bedar dongaak, kendu biar dira erderati premina бага iraatsi jakozan berbaak; batu euskera izen baztertu ta zokonduta dagozanan, ta imini biar da garbituta, zan legez antxina erdal-dunakaz artu-emonik etzan denporetan. ¿Ez da alan, Aita Pedro?

FRAILE: Alan da; baña ¿nok buruban sartu au euskaldun txarra? Ekin dot eztarria sikatu ta garrastu artean, ori sinistu gura izan deutseedala askori. Baña alper da Maria makillatu. Gu languai dagokee batutea euskera baztertua. Gu gabilz nekazariakaz; enzun bear deutsegu zer dinuen, ta gorde ondo, gero agirian iminteko izen eder asko, ta geldika geldika ekarriko deusaguz euskera billostuari bere janzi edo soñokoak, ta agertuko da apaindurik, iñoren soñokoak eranzita. ¿Zer zan gaztela erdera orain milla bat urte? Gaur aituko ez litzatean maaste bat. Nekearen nekez, apaindu gurearen apainduz, iñoren bitxiakaz bada bere, janzi da ederto, nor dan bere guraso garbia igarten erraz ez izana gaiti. Erromar, Euskaldun, Arabiar, Godo ta beste jende giro arrotzetati artu ditu ezin esan beste luma; ta bakotxak eskatu ta kenduko baleutsa beria, ¿zetan geratuko litzate? Euskereak ez dau iñoren biarrik edozein gauza esateko.

¿Ez dozu enzuten, zelan gure baserritar ta beste nekazari askok diarduben berbeetan, labandu ta ezetan katigatu baga? Baña zuaz praile, abade ta beste andiki askogana. ¿Zelango estura ta larritasunak, kontu luzetxu bat esan biar bada?

Ez da oraindino egun asko eldu nintzala abade gazte baten etxera. Aurkitu neban uleai tiraka, ostikoka, zinuala erderaz: «¿Quién me ha metido en este empeño?» Ikusi nendubaneko jaso jakon biotza, ta esaustan: «Aita Pedro neurea, ordu onean dator». Esan neutsan, neure agurrak eginda: «¿Zegaiti ori, D. Kalisto?» (alan eban izena). «Enkargau jat —zinuan—, S. Pedro geure Elesako Patroiaren sermoa; etorriko da jente asko, ta emen nabil erderati euskerara traduzidu ezinda».

Onlan berba egiteban euskaldun eder onek. Erakutsi eustan bere biarraren zati bat, eta asten zan onelan: «Empeñu andia por cierto, neure auditorio noblia, neure predikazioaren prinzipioan predikau bearra, zerubetako gilzak Jesu Kristok konfiau eutsazan santu andi baten ganean. Ditzosua ni, zuei gusto emon al baneizu. ¿Nok igualau eban S. Pedroren fedia? ¿Zein santuk esperanza andiagua?..» Etzenduke sinistuko, zelango erdera mordolluak egozan iminita, ez euskaldunak, ez erdaldunak aitu eikezanak; eta illabetean egon zan buru austen, eta oraindino ez eban bearraren erdirik egin. Esan eustan, zuzendu nengiola. Erantzun neutsan, errazago zala zimentuti etxe barri bat jasoten, etxe okertu, obendu ta abe erdi usteldunen artean zur barri ta orma barriak egitea baño. Esan neutsan, erre egiala sermo erdi egiña, ta lenengotik gura nebala bear egin. Irakurri neban berak aurrian eukan liburuba, ta geiago jaramon baga, asi nintzan neure bearrean. Etzan neure eskuba geratuten; eragozpen baga joian lumia, iminten gogora etortana, ta ordu bete igaro baño leenago, neukan bear geiago eginda, abade gazte ak ill osuan baño, ta guztia euskera garbi baten. Ezin sinistu eban ekusana, ta alango baten esan eustan: «¿Zelan ain erraz bear egiten neban?». «D. Kalisto —nirautsan—; igongo neuke biar gossian elesako irakastegira, lumarik leenaz artu baga, ta euskerearen aldeti ez neuke eragozpenik eukiko, ordu betean jarduteko. Itxi egiozu erderati euskerara biurtu guriari; neurdin gauza garbirik egingo ez dozu. Enzun egiezuz nekazariari euren esakuneak; ikasi egizu euskeria eurak ganik; egin zaite euskera irakurten eta urte bete barru urtengo dozu euskaldun».

Emon neutsan neure bearra amaituta, geratu zan pozik, ta bota eban sermoia, guztiai ederto eritxen legez.

ABADIA: ¿Zeinbat orrelango Bizkaiko erri askotan? Negargarriena da urte guztijan Jaungoikoaren berbia azaldu baga iragotea batek baño geiagok, sarri sarri irakasteko loturik dagozanak. «Ezin dot —dinue— euskeraz ezer irakatsi: lotuten naz beriala; ikara gogor batek artuten nau; izerdi larriyak urteten deust; geratuko nintzaate». ¿Au sinistu leite? ¿Amaren bularreti ikasi eban berbeetan, ezin berbarik egin? ¿Eta ikasi bere gura ez, bere elestar nekazariyak dakijen berbetea bakarra? ¿Ze bide artu, Aita Pedro?

FRACLE: Atera ugari liburu euskerazkuak. Oneei ekin gau ta egun legez; dendatu irakurtera lotutasun baga, ta denpora gitxi barru ikasiko litzate euskera ondo berba egiten. Emendi ¿zeinbat mesede?

ABADIA: ¡Zein ondo dinozun! Liburu euskera garbikuak irakasten dabee onduen, zelan jokatu izen ta berbuetan. Euskeriak daukaz berba joko, bestek ez legekuak. Erromar, Pranzas, Gaztelar ta beste berbakuntzetan ez dago euskeran legezko jira birarik. Ez dagizubela esan urrezko mendi bate gaiti berba baten, «nator o banator». Au esateko biar ditube berba asko, ta esan «ya voy ahí». Ona zein ederto jokauten dan euskeraz: «Banator, bazatoz, banuako, bagatoz, badator, bajatorkuz, bajatorzuz, bajatortaz, badatorkaz, bajatorkeez». Erdaldunak gaztelarren artian iraunsi luziak biar ditube, berba joko oneetan daguana esateko.

«Ya voy» esatia ezta asko, bada ez dino nora doian. Euskeraz, «ya voy»-ren ordian esaten dau «banua»; bafia ez da ondo eranzuna norbaiten deira. Esan biar da «banator», esango baleu legez «banua orra, edo zagozan tokira». Ona bada zelan gaztelatu biar dirian goiko berba joko aek: «Yo ya voy ahí: tú ya vienes aquí: yo ya te voy. Nosotros ya os venimos ahí. Ya viene aquí él: ya se nos vienen ellos: ya se os vienen ellos: ya se me vienen ellos. Ya se le vienen ellos Ya se les vienen ellos». ¿Zeinbat onelango edergarri euskeriak.

Berbuan bertan sartuten dira ainbeste gauza, ta erdaldunak barriketa askogaz esan biar ditube, ta eurak makal ta gatz baga.

Izen-ordekuak eztira izentau biar. Ona zein ederto baturen dirian: «Nua, zuaz, dua, guaz, zuaze, duaz». «Ni» edo «neu» sartuta dago N lenengo letran. Alan bestiak.

Esateko «ya yo te los traía», asko dau euskeriak esatia «banekarzuzan». ¿Nosko amaitu bein banana, aitatu gura banitu gure euskeriaren apaindurijak?

FRAILE: Ori orrelan da; baña aspertzaka esango deuskube erdaldunak ta euskaldun dongaak, ez dala gauza euskerea gauza goratubetarako, ez da bere eskuor darabilguzanetarako. ¿Nok esan euskeraz «sombbrero, tabaco, tabaquera, bastón, capa, taja-pluma?».

ABADIA: Asi gaitian emendi, Aita Pedro. Gure euskaldunen buru estalkija zan, da, ta izango da txapela edo kapelia. Izen au geuria da, zelan dan buru janzi au. Sombrellubaren izena ta izatia dira asmo barrikuak, ta ez antxiñako Españarrenak. Gauza barrijak izen barrijak biar ditube. Eta izen barrijak emoteko, ez dau iñoren biarrik euskeriak. «Sombbrero» da keriz-garrija, edo buru-tellatuba. «Tabaco» da sur-autsa; «tabakeria» sur-auts-onzija; «bastón» esku-makilla, «capa» korputz-estalkija; «taja-pluma» luma-epallea, ta euskera berba iraatsi oneek adierazoten dabe gauzia zer ta zetarako dan.

¿Gura dozu orain isildu dagidazan bigarren esetsi edo salazinuaren gañian?

FRAILE: Bai arren, ta orretarako igaro egizuz euskerara Erromarrak itxi deuskubezan berbeeta goratu ta apaindubenak, jakin daien guztiak, guztirakua dala euskerea.

ABADIA: Banua bada beriala orretara, ta eragin daijuegun euskeraz berba Q. Curcio, Salustio, Tito Libio, Tacito ta Ciceroni, zeintzuk dirian enzunenak, ta alan ikusiko da euskeriak baditubala berba bizkor, apaindu, zoli ta adiutubak gauza goratubak azaldetako.

Alejandroren berbakuntzia bere gaisotasunian adiskide ta osagillai

«Badakutsube zelango esturan, zelango atsakabeetan ta zein larri ipini nabere neure gauzeen oker urtetiak. Deritxat danzudala arerijuen esku-budinen ospe ta barallia. Iragoriko egun dontsu ta zoriobagetan neu nintzan emon nitubana gerrarako bidiak; neuk deituten nituban, neuk puztu eskubetara etorri zitezana. Baña orain, upadaka danzudaz, diadar ta ajuika dabilz neure billa, nire bildur ez dirianak legez. Dariok ego ta barnasa beste batzuk arturik, baldu deustaz karta arro ta lotsabagiak, zematuten nabela jaubetuko dala neure gauzaakaz. Guztia litzate alperrik, dana paparkerija aisiak daruana, neure eskuban baneuka gaisotasun au urrin botatia, neure osasunaren

jaube banintz. Osagarri makal, indarbagako luzabidiak daka-rrezanak, ta bardin osagille nagj, baldan ta ardura gitxikuak, ez dira benetan egoki ta adiutubak neure gatxarentzat. Obeto legoket, dontsuabago nintzate eriotziak beingo baten eruango banendu neure biotzaren jaube nazala, eta ez bizi eriotza beluko baten zain, ezer egin baga. Alan bada, sendagilleetan laguntasunik arkituten bada, euren lanak alperrak ezpadira, jakin bekije, geijago billatuten dodala, ta leenago autu gerrako egikizunen zuzenbidia, neure osasuna ekartia baño. (EX. Q. CURT. LIB. III CAP. V). (Ondoren, beste latin-idazleen zati batzuk euskeratzen ditu).

Moguel, J. A.: *El Doctor Peru Abarca...*, Durango, 1881, 195-203.

urlija eta zandija = fulano y mengano; *irago* = igaro; *nazaude* = eza-gutzen nabe; *azki* = grama; *zalga* = arvejana; *zoragari* = cizaña; *iraatsi* = geitu, añaadir; *obendu* = inclinar; *neurdin* = ya que (arc.); *dendatu* = saiatu, afanarse; *irauntsi* = parrafada; *adiutu* = egoki; *ajui-ka* = pozez irrintzika.

ÑIBARRO, FR. PEDRO ANTONIO (1748-1830)

Gure idazle klasikoen artean, euskera aldetik beintzat, maisurik onenetarikoa: zeatza, argia, ugaria, zuzena... «Neurribako ondasuntegi bat da Aita Añibarro gure euskera sustrai-sustraitik ezagutu ta ikasi gura dauanarentzat» (Mikel ZARATE, BEI, 62).

Lau zati emoten doguz: 1) *Jaunaren Legeko 5. aginduaren ganeko azterketa aberats bat*; 2) *«Andra Mariaren nekeak»*: sermoi antzekoa; 3) *Latinezko Pange, lingua-ren itzulpen arrigarria*; 4) *Axular-en Gero-ko Gero-ren atalburu bat (jarraian Axular berarena dozu, biak alkarren ondoan izanik obeto aztertu daitezuzan)*.

33. BOST-garren AGINDUAREN GANEAN

Gogora egizu, ea ñori gorrotorik, kurrugarik, edo ikusi ezin andirik izan: agurra ta berbea kendu edo gatzik opa izan deutzazunez: edo etorri izan yakan okerragaz biotza argitu, edo onagaz ilundu yatzunez.

Ea errieltea, edo aserre-aldia izan, eta berba aztunak esan, edo irauak ñori emon deutzazunez.

Besteren arteko bakea, edo adiskidetasun ona edo ezkontza egiña edo igaro barriakaz eta zeure miin gaiztoagaz galdu dozunez.

Ea ñor il, ebagi, edo yo dozunez, eta, atarik gero, edo berari edo besteri beste kalteren batzuk etorri yakezanez.

Eriotzarik edo beste kalte andirik zeure buruari opa, edo emon gura izan deutzazunez.

Ea sabeleko seña galduteko aleginik egin, edo besteren bat atan imini izan dozunez: edo ain bagarik, zeure erruz galdu, edo galduteko bidean yarri izan tzareanez.

Íñoz katutu, edo yakinaren ganera lar edan, edo kalte andia egingo eutzuna artu izan dozunez: edo ñori alangorik eragin deutzazunez.

Ea orditutea ekanduz izan daroazunez: eta yakinik tabernara, ilectara, ezteguetara, eta fiestetara yoan da, ardoan yauste

zarela, orregaiti bere alango lekuetara eldu izan zareanez: eta esan bear dozu, zeimbat bider izan zatekean, beti yausi-ezagaiti. Eta alper dozu: orrei lekuoi betiko agurra egin bagarik, etzara zeure bizian ondo konfesatuko.

Bide bagako ausirik iñori emon, edo kerellarik ekarri deutzazunez: edo besteak zuri emonari, lege eztan legez eutsi eta yarraitu deutzazunez. Ea zeure erruz bear eztan ausiren bat Erriak edo besteren batek darabilenez.

Norbaiteri bekatu egiten agindu, lagundu, edo orretarako burutasun txarrik emon badeutsazu, edo zeure deungaro eginagaz orretan imini, edo orretarako biderik emon badeutsazu.

Ea bekatu mortalean egonik, zeure burua ilteko pelleburuan edo bidean imini dozunez.

Añibarro, Fr. P. A.: *Escu liburua*, Tolosa, 1852^s, 117-119.

kurruka = gorroto; *iraun* = irain; *katutu* = mozkortu, orditu; *pelleburu* = arrisku, peril; *yausten* = jausten, erortzen.

34. ANDRA MARIAREN NEKEAK

Yesukristo-ren nekeak zelanbait gogotan erabili ezkeru, ekazuz burutara bere Amarenak bere; ¡Ay bada, zelango atzakabea izango zan berea: arako seme eder orrek, iltera yoan bear-ta, azkenengo agur samurrak egin eutsazanean! Eta, zer izango zan ikusten ebanean, Seme ori bere eskolako batek saldu ebala, beste batek maisu ebala ukatu, eta guztiak, bera itxita, iges egiten eutsela?

Zer gero ikusi ebanean Seme laztan bera guztien gorroto-garri eginik, eta direanak eбилkozala, lenbait-len munduti kendu gurarik, eta kenduteko aleginak egiten: darabildela batak irri, besteak barre, besteak kifu, onek deungaroak esan, ak irauna astunak: eta geyenak yo ta yo barregarri? ¿Zer azkenez ikusi ebanean Seme au azotez birrindurik, bere buru ederra arantzazko koroe itzalaz dana galdurik, eta iya bere ganean yo ebala kurutze lotsagarrian ilteko sententzia gogorrak?

Baya eldu gaitezán «Larri-kalea» deritxon Yerusalengo kalera: antxe ikusiko doguz Amà-Semeok alkarren aurrez aurre, larriaren andiz barbarik egin ezinik. Dakus Amak bere errayetako semea, eta alango semea kurutze astunaz lepoan, lapur biren erdian: guztia odoldurik, aurpegia baltziturik, anditurik,

eta ezaindurik: indargeturik, ozta ozta oñen ganean dagoala: eta aserre, ta errukiaren apur bagarik daroiela yoka, ta deungaroak esaka, kurutze atan iltera. ¿Zelango naibakoak ta damuak, zelango alen ur yoleak artuko ez eutzan Ama bigunari biotza? ¡Ay, ay! Eztago au esateko mifirik, ez au ulertuko daben buru argirik.

Alan bere, ezta ori guztia: geyago ta geyago, eta askoz geyago ikusi bear izan eban Kalbario-ko mendian. Bai beintzat: antxe dakus Ama errukior onek, eguño munduan izan dan Semerik onena, bere biotzeko zatia, bere Yaungoikoa eban Semea, kurutzean untze gogorraz yosirik... odola esku-oñetako zilloetati zara zara geldi bagarik eriola... egarriz ito bearrez... guztien satz, zarama, eta gorroto eginik... azkenengo arnasakaz... ilten... ta il otzik.

Eguzkia ilunduten da: irargia odoldu: lurra ikaratu, ta atxak apurtu: baya ez Amari, ez Semeari ezteutze gizonak errukirik arean artuten, eta ilta gero bere, Ama minez ganeztu onek dakusala, Semeari albo lantza gogorraz urratuten deutse. Bai beintzat, Ama, bai: oraintxe, aurki, esan lei, itxasoa baxen andia dala zeure larritasuna.

Añibarro, Fr. P. A.: *Escu liburua*, Tolosa, 1852⁶.

direanak = danak, guztiak; *iraun* = irain; *ala* = min bizi, tormento; *uryola* = uriola, ujolde, riada; *eguño* = egundo, egundaino; *zara-zara* = ugari (onom.); *zarama* = zazkara, lotsagarri; *irargi* = iretargi, illargi; *baxen* = baizen, bezain.

35. SAKRAMENTU SANTUARI ESATEKO KANT-ONAK («Pange linguaren» antzekoa)

Nire mifia, kanta yozu,
nire Yaun yaubeari,
ni-gaiti Sakramentuan
niretzat dagoanari,
ni odolaz erosteko
ni-gaiti il tzanari.

Guri emon yakun Yauna,
guretzako yaio zan:
gugaz bizi izan ezkéro,
guretzat il egin tzán:
gu-ganik yoat' ordúan
gugaz bertan geldi zán.

Berbo Yauna gizondurik
Berboa aragi da:
Berboak berba egin-da,
Berboa da yan-gauza.
Berbaz bada gora daigun
Berbo Yaungoiko Yauná.

O Sakramentu andia!
O ze Yauna an dagoan!
O ze ikara, ze bildúrra!
O ze lotsa zor yakán!
O Angeruen ogia!
O nok gose zeinkezán!

Bere belurengo gaúban
bere gorputz-odolá,
bere diszipulu ónai
berak eskuz emona,
beragaz gu bat gaitézan
bera da gure yaná.

Andia Aita Yainkóá,
andia da Semea,
andia Espiritúa,
andia gure zorrá.
Andia beraz dayógun
Andiari eskerrá. Amen.

Añibarro, F. P. A.: *Escu liburua*, Tolosa, 1852^o, 148-149.

belurengo = azkenengo; *beraz* = bada.

36 a. ZELAN DAN GEROAGO GATXAGO, BEKATURIK JAGI TA URTETEA (6. Burua)

Sarri askotan Eskritura Santan irudidu ta bardinduten da bekataria, bidea galdurik dabillen ardiáz. Eta errazoiaz. Bada gauza askotan dirudie alkar. Ardia bere lagunetatik alderatu ta atzeratuten danean, alako moduz bide onetik ta bere lagunetatik deslaitu ta atzeratuten da non geroago urrinago, galduago, ta deslaiago dago.

Diru bat edo eleztun bat galtzen dozunean, an non galdu zenduan gelditzen da, ta bai idoro bere, ezta bera andik mugitzen, aldatuten. Baña ardia ordutik ordura urrinduten da, basoan barrurago sartuten da, geroago galduago egiten da. Alan bada, bekataria bere geroago galduago, ta bere ekandu gaisoetan barrurago sartzen da. Agaitik esan eban David Erregeak (psal. 118): «uts egin neban eta galdu nintzan, ardia galdu deslaitu legez». Zerren bekatu bat egin ebanean, bertatik beste baten jausi ta zorigaistotu zan.

Ardia, galdu barria danean, erraz da arkitutea, billatutea, ta idoroatea; eta bai kandela bat bere barriz eressegitea, amatau barria, oraindiño oztu bagea danean. Alan da bekataria bekatu egin barrian; gai, prest dago bekatu rik jagiteko.

Kirikioak bere nekez ateretan dituz sabeleko ume latzak, baña nekezago bere erruz. Bada izanik bere narrua latza, ta gaztaiña lakatza legez aranza zorrotzez betea, eta umeak bere, bera legez latzak eta aranzatsuak; sabeletik umeak atera bear dituenen, euren aranzak ta lakatzak min egiten deutse; ta minaren minez atzeratuten dau umeen jaiotza, sartzen dituz

barrura ta an daukez al daian denpora guztian. Eta zelan, alan dituzan bitartean, azi, anditu ta gogortuten dirian aek umeak; eta besteti atera bear, edo il andik azkenean, arri baten kontra estuturik, len egingo zana baño nekezago ta penazago erdituten ditu. Bada au berau, bizitza on bat egiteko luzemendutan dabillen bekatariaz jazoten da. Zergaitik ze, zelan Jaungoikoa-gana biurtzea ta obra onak egitea dan umegite bat legez, alan zenbat geiago itxadon ta luzetuten daben, ainbat nekezago onetara abiatuko da. Eta beragaitik obe ta etrazago izango da len bait len obra onak egitea ta bekatutik jagitea.

Zeure lurrean, zure baimena ta lizenzia baga etxe bat asten deusuean, ordenaturik dauko legeak, eragotzi al ziñeikezala obra barria: bada baldin obra akabatzer a itxiten ba-deutsazu, eraso leikezue jabetasun bat daukela lur atan. Alan egin bear da, bada, bekatuetan ta bekatarien obretan; barriak dirian artean kendu ta bota bear dira: bestela gurako dau dea-bruak eraso ta esetsi, obrea zartu dala, ta atan jabetasuna dabela.

Añibarro, Fr. P. A.: *Gueroco Guero...*, RIEV, XIV, 1923, 297-299; XV, 1924, 245-246.

iruridu = iruditu, asemejar; *deslaitu* = bidea galdu; *elesten* = eretzun, anillo; *eressegin* = ixiotu, piztu; *erditu* = umea egin; *eragotzi* = debekatu; *eraso* = atakar; *esetsi* = acometer.

36 b. NOLA DEN GEROAGO GAITZAGO, BEKHATUTIK ILKITZEA (Kap. VI)

Anhitzetan ere Eskritura Sainduan, konparatzen da bekhatorea, ardi errebelatuarekin. Eta arrazoiñekin. Zeren anhitz gauzatan baitirudite elkhar. Ardia bere lagunei azkentzen zaie-nean, halako moldez bide onetik eta bere ardi lagunen alhapi-detik aldaratzen, eta hastantzen da, non geroago, urruntzenago, galtzenago eta errebelatzenago baita.

Diru bat edo erhaztun bat galtzen duzunean, han berean galdu zenduen lekhuari gelditzen da, eta bai edireiten ere, ezta bera handik higitzen. Baiña ardia orenetik orenera, lekhuari aldutzen da, oihanean barrénago sartzen da, behi eta galtzenago eta errebelatzenago da. Hala bada bekhatorea ere, gero eta gero galtzenago, errebelatzenago eta bere aztura gaixtoetan barrena sartzenago da. Hargatik erran zuen errege Davitek: «Erravi

sicut ovis quae periit» (Ps. 118). Errebelatu nintzen eta galdu, ardia bezala. Zeren bekhatu bat egin zuenean, berehala, bertze batetan, behaztopatu eta erori baitzen.

Ardia errebelatu berrian da erraxenik edireiteko eta inkontratzeko, eta bai kandela ere, iraungi berrian, oraino hotztu gabea denean, berriz lotzeko eta iratxekitzeko: hala da bada bekhatorea ere bekhatu egin berrian, gaienik eta prestenik bekhaturik ilkitzeko.

Sagarroia, bere egitez ere nekez erditzen da, baina are, bere faltaz nekezago. Zeren nola larruan baita latz, eta gaztaina karloa bezala, puntaz eta arrantzez bethea, eta umeak ere bera bezala latzak, eta arantzetsuak baititu; ume hek erdi behar duenean bere arantzeez, eta karloez min egiten diote, eta halatan minari errendaturik, erditzeko meneratzen denean, barrenat sartzeintu eta han ahal bezanbat edukitzeintu. Eta nola hala dadutzan bitartean ere, handitzen eta gogortzen baitira ume hek; eta halabaiña erdi behar, edo hil: handik azkenean, harri baten kontra permaturik lehen eginen zen baino nekezago, eta penazago erditzen da. Bada haur beror obra onen egiteko, luzamendutan dabillan bekhatorea baithan ere gerthatzen da. Zeren nola konbertitzea eta obra onen egitea erditze bat bezala baita, halatan, zenbatenez eta gehiago baitago, hanbatenez obra on hetzaz, nekezago erditzen da. Beraz hunelatan, lehen baiño lehen izanen da hoberenik, eta erraxenik obra onen egitea, eta bekhatuatarik ilkitzea.

Zeure lurrean, zure baimendua eta lizenzia gabe, etxe bat hasten deratzutenean, zeren baldin obraren akhabatzera utz bazinitza peril bailluke, akhometaz liazazuten zuzen dutela lur haren gainean, hartarakotzat, aitzindurik bezala, ordenatzen du legeak, egotz ahal dezakezula obra berria (ff. de novi operis nuntia. L. Praetor). Hala egin behar da bada bekhatuetan, eta bekhatuzko obretan ere; berri direino egotzi behar dira, zeren bertzela nahiko du deabruak akhometatu eta alegatu, obra zahartu dela, eta hartan zuzen duela.

Axular, P.: *Gero*, Arantzazu, 1976, 83-85.

ZABALA, JUAN MATEO (1777-1840)

Frantziskotarra. Jakituna, euskaltzale beroa: Bizkaiko euskal aditza sakon aztertu euskun. Idazlanen artean, Fábulas en dialecto vizcaino da ezagunena: gatz larregi bako euskera aberratsean eginak.

37. OGETA BEDERATZIGARREN IPUÑA

II baten ganeko ama aizteen negarrak, ta erostarienak

Ama bateri
alaba bat
il egin yakan
gaixoagaz.
Erostariak,
oi dan legez,
negar egiten
badakardez.

Lau andra dira
ta iletak
egiten davez,
ta galantak.
Beste alaba
ilen aitzak
ikaraturik
diño: «Ama,
¿zelan elduok
negar ezin:
ta aldau atzeak
ainbeste egin?»

Dirautso amak:

«Ay, alaba!
bien negarrak
eztozan bat.
Gureak ditun
biotzetik:
baita zindoak
orregaitik.
Orren erostak
azal utsak:
ta beragaitik
gauza ezak.»

Nai gizonakaz
nai Yainkoaz
zeuk biotzetik
egin gauzak.
Kanpo ederra
biotz бага
da bitzuentzat
gauz ustela.

Zabala, J. M.: *Fábulas en dialecto vizcaino*, RIEV, III, 1909, 32.

erostari = plañidera; *ileta* = lamentación; *elduok* = allegados; *atzeak* = arrotzak, etxeakoartekoak ez diranak.

AITA PRAI BARTOLOME DE STA. TERESA

(1768-1835)

Sermolari sutsu garratza karmeldar au, euskal idazle giartsu ta guztiz argia... «Borborka ura darion iturria dirudin etorri oneko sermolari ospetsua; euskal idazle sakon, argi ta jatorra» (Mikel ZARATE, BEI. 74).

Guk emen bere Euskal-errietako olgeeta ta dantzeen neurrizko gatz ozpinduba-ren zati luzetxu bat eskeintzen dogu: orduko ekandu-oiturak, eretxiak eta euskera bizi errikoia ezagutzeko autu-autukoa.

38. PLAZAKO PIESTIA ZELAN EGITEN DAN

Avemarijetan tanbolina ixilduta geratuteko piestia da, emen examineetan dana. «Oh! Au piesta santuba da»: esango dabee dantza zalliak. Ta pensau legi zerbait, geijago ez dakijanak. Baina Bizkaiko ta Probintziako piesteetan au ta utsa bat dira. Bideetako etxiak, zelaijak ta sasi onduak ateraten dabee plaziaren paltia. Ta neska baten tronpiak edo soinubak tanbolinarena. Ezpabere, esan dagijeela: Tanbolina avemarijeetan isildu arren, zeinbat juaten dirian etxera, gabak denporaak emon bagarik? Geijenez bere, inok kasurik egin ez deutsan neska epel bat, edo mutil makal bat. Beste gitxi. ¿Ta nos palta dira piesta egunian plazan, gabak ordubak emonda bere, gizonak eta emakumiak? ¿Nun daukeez etxiak, ta noragino juan biar dabee, avemarijetan tanbolina ixildu arren? ¡Ah! Au edozeinek daki. Estalgi txarra da, piestia ontzat emoteko, avemarijeetan tanbolina ixilduten dala esatia, Bizkaian ta Probintzian. Justizijak bere au erremedijau ezin legi. Etxeetan bai asarre andijak, ta pekatu mortalera elduten dirian okasinoiak ta eskandalubak, askotan, auzuak igarten deutseen terzijuan, gurasuen ta umeen artian, piestati berandu etxera juan dirialako.

Gomuta onegaz guazan plazako piestiari begiratutera. Ez jente pilluari mordo baten. Ezbada gauza onerako edo txarrerako jzoten dan moduban. Teologija Sagradubak gizonaren bo-rondatezko egitate baktxari begiratuten deutsan moduban, begiratu daijegun baktxari banaan, edo binaan, edo irunaan,

dagozan moduban, ta dabiltzan moduban. ¿Ia zer egiten da-been? ¿ia zer esaten dabeen? ¿ta zer ikutsiko dogu plazako jente pilluaren artian? Dinot arima arimati, lotsa nazala eskribiduten. Baina agiriko pekatubak dira, ta esan biar dira. An ikusten da, edade arriskukuak, arduak, apaindurijak, konzienzija nasijak ta oitura desonestubak daukan luxurija osua. Ikusten da: dantzia ez dabilen denporaan, neska bat, bi edo iru mutil bategaz, bigaz edo irugaz alkarri eskubak sorbaldaan, edo... iminita, berbeetan ta maitekerijeetan dagozala. ¿Baina zer berba? Arimiari ondo gura deutsanak, alboti bere entzun biar ez ditubanak. ¿Ta ze maitekerija? Eskubakin, begijakin, ta arpegiko geriagaz guztia luxurijaren suba darijona. Ikusten da: dantzia asi dedinian, neskaak armatuta dagozala, abijan goserik daguan txorija amaren janarijaren zain legez, nos nok dantzara eruango ete dituban, goguan daukeen leunkerija ondo erakusten dabeela. Erri batzubetan neskaak asten dabee ta kunpliduten dabee mutilez edo gizonez dantzia. Itxusijago ta lotsa galdukuago baino ez da. Ikusten da: dantzarako eske juakozan andriari edo neskiari egiten deutzazala milla azinoe ta menio indezente, daroianak, bai eskuti oratuten deutsanian, ta bai dantzariari entregeetan deutsanian, neskiaren edo andriaren aurrian saltoka, txiko ezi bagako edo baso asto batzuk dirudijeela. Ta zeinbat indezenzija geiajo egiten deutseen, ainbat dago neskia pozagorik, labankerijaren ta likinkerijaren bitsa darijola.

Modu onetan plazaan dantzia kunpliduten da. Dantzia kunpliduta laster, tanbolinak esaten dau: «Nai dabenak nai dabena egin dagijala», naastia, arin aringia, arrebatua ta pandangua joten ditubanian. Ia dagoz dantza atan gizonezkorik, edo emakume edo mutilik, edo neska. Guztiak, esan dan legez, onestidadia galduteko ondo prestauta, eskuz esku alkarri oratuta, naaste mutil biren erdian neska bat dala, noren seme edo alaba dirian asko gomuta ez dabeela.

Tanbolinak dino: gura dabenak, gura dabena egiteko, orduba dala. Ta egüia esateko, eguzkijari begira bertan pekatu egingo ez badabe, beste desonestidade guztia lotsa bagarik airian darabilee dantza atan. Naaste atan entzuten dan ta ikusten dan guztia, da luxurijaren suba ta keia. Batian dantza luzian arin aringa gorputzakín alkar jotén. Bestian pandanguan, nos arpegijakin, nos besuakin, nos sabeleekin, nos albuakin alkar ez joko, bai joko, neska ta mutil, menio desonestubak ta lotsarizkuak geratu bagarik egiten deutseezala alkarri. Ta bestian kazubelaan, erlia legez, mordo baten gizon ta andra naaste. Ni esaten azartuten ez nazan ezaintasunak alkarri egiten deutsee-

zala. Neskak eurak bere, alakuak izan arren, askotan koloriak gorrituta urteten dabeela, andiskotiak dirialako mordo atako pekatubak jente arterako. Dantza atan esaten dirian ta entzuten dirian berba banaak desonestubak. Begirakuniak eta alkarren geraak desonestubak. Mosu egiteko ta oratuteko menuiak, ta oratutiak desonestubak. Gorputzak in alkar jotiak desonestubak. Esku eskututiak desonestubak... Ta au guztiau dantza bakotxian geratu bagarik neskaak mutilai, ta mutilak neskai.

Zeinbat gabaren urrago, ainbat ezainago, nasaijago, ta zatarrago dantza bakotxa. Dantzati urteen dabee sarritan neskaak, eureen iruneko zapijak askatuta, ta burubak okertuta, ikusi bagarik sinistu ezi legijan moduban. Askotan dantza arinian, oin bijak laban eginda, plaziaren erdijan jausita, geratuten dira andrazkuak, inok begiratu biar ez deutseen moduban, eskuti dautsanak kolpez jaso artian; ta jente guztia arixe begira txaloka.

Dantzan sartuten ez dirianak, edo dira lutubak daukeezanak; ta areek bere gogoz an dagoz. Edo dira, zaar ibilli ezin dirianak. Oneen kondezinoia esanda geratu da. Aguraak badira, ordituta dagoz. Atsuak badira, ta endemas seme alabaak an daukeezanak, azerija ollua jaaten baino pozagorik dagoz plaza bazter bateti edo bentana zulo bateti dantziari begira arrastegi guztian kansau bagarik. Edo dira, seinia egiteko andi dagozanak. Oneek bere borondatez dantzaan dagoz. Baita batzuk gorputzez bere okotzeraginoko sabelagaz, Justizijaren lotsa arin onian ta naturalezaren desondraan. Edo dira, dantzara inok eruan ez ditubanak. Oneek enbidijaz ta zeloz murmuretan ta ernegetan dagoz, inok aintzat artu ez ditubalako. Ez dabee bein bakarrik topau neskaak dirubagaz, dantzara nok eruan. Edo dira, adiskide maite bategaz bakarrian astirotxubago egon gura dabeenak, bestiak dantzan dabiltzan artian. Oneek bere ija ezautubak dira, zer dirian. Beste guztiak dantzan dabiltz.

Dantziaren despeidaan edo amaijan, askotan edo geijenian, mutila dua, dantzan erabili daben neskiagaz, ta dagoz alkarregaz beste dantzara artian, endemas bere debozionekeua bada, prutia edo erroskaak artuta. Areek dantzaan berotuta, karinua alkarri erakutsita, dantzara eruan dabeelako, neskiak mutilari esker ona karinoz emonda, bakarrian zer esango dabeen, ta zer iragoko dabeen, begi, alako ordubeen barri obeto dakijanak. Avemarijeetan geratu dedilla tanbolina. Ez, geratu oi dalako piesta egunik erdijeetan, ta gitxijagotan bere. Baina izan dedilla alan. Bada despeidako jentiaeren urteneria da guztien aazkarrija.

Guztiak dakuseela, ta dantzubeela, egiten dira urtenera zikin atan neskeen ta mutilen artian, nok nori asko ez dakijala naastian, tokamentu loijak, oratute loijak, mosuka loijak, eskuka loijak, pekaturako konbit erabagijak, ta beste luxurijaren asmuak topau dituban ta esan legizan berdekerija altubak, klarubak, ta zarrak. Neska batek egiten dau garraasi bat. Bestiak silijo bat. Bestia asarratuta, asten da lotsagalduko diadarka. Bestiak bardin egiten deutsa bidao bat, oratu deutsan mutilari, edo gizonari, ordukua ija guztizkua dalako. Alan duaz plazati etxeruz, aldi baten naastian ta morduan ajuika, diadarka, barreka, ta oratuka, luxurijaren pestia ta atsa darijuela, bakotxa bere lagunagana ta bidera batu artian. Etxia urrinago daukeenak, urteten dabee, oi danez, leenago plazati. Urraago daukeenak, berandubago. Baina gabak ordubak emonda bere, ez dira palta, ez plazaan ta ez bideetan neskaak eta mutilak. Piestati etxeruz nekez dua inor bakarrik, ordiren bat ez bada. Geijenian neska bat ta mutil bat alkarri eskuti edo samati oratuta. Edo neska bat mutil biren erdijan; edo mutil bat neska biren erdijan, alkarri deutseela, esan dan moduban. Ta geijeena, aurrekuak ondorenguai, ta ondorik duazanak aurrerago duazanai. burla desonestubak alkarri egiten. Neska bat, mutil bat albuan ez dabela, piestati etxera nekez. Areek bidian illunian (bada ave-marijeetan tanbolina ixildu zanian, plazati urten ebeen leenenaz) edo legua bat bidian, edo legua erdijan, edo geijaguan etxeetara artian zer egin al dagijeen, amar urteko umiak bere ba dakijee.

Kale barruko dantzarijak ez dira segurubago geratuten aureen tanbolin egunetan, bestiak baino. Ta onen errazoa emongo da zortzigarren errespuestaan, emen esaten danaz gainera, itsuba ta gorra ez daguanak aituteko ta ezaututeko terzijuan.

Ara emen, zelan egiten dirian plazeetako piestaak. Ezer bere ez dot esan geituta. Bai asko gitxituta, zatarkerija desonestu guztiak paperian ez imintiarren. Geure errijeetako piesta bat edo bi, asi ta amaitu kontuz ikusi ditubanak, ta euskal errijeetako jentiaeren ta etheen barri dakijanak, ez deust ukatuko esan dodan berba bat. Piestetan sarri gogoz ibili dana bada, esango dau: daukeen baino etxura obia emon deutseedala. Ta ez dira emen kontuban sartuten, dantzia emon jakuelako, edo emon ez jakuelako, Kopradijeetako ta albo-errijeetako jentiaak atera oi dituban okasinoiak, gorrotuak, bengantzaak, burrukak, makilakaak, ta gizon illtiak bere bai, izan arren kasik piesta guztietan gitxiago edo geijago. Itxi dagijeeun

bada tertzijo onetan Plazako Dantzari. Ta ikusi daigun, Espiritu Santubak ta Eleisiaren Gurasuak zer dinuen naasteko dantzaak gaiti.

Prai Bartolomé de Sta. Teresa: *Euscal errijetaco olguceta ta dantzeen neurrizco gatz ospinduba*, Iruña, 1816, 61-75.

txiko = potro; *likinkerija* = lascivia; *irun* = idun, sama; *arrastegi* = arratsalde; *azkarri* = colmo; *siliyo* = txilio, griterío; *ajuka* = poz irrintzika.

JUAN JOSE MOGUEL (1781-1849)

Moguel andiaren loba onen euskal liburuen artean, Baserritar Jakitunaren Echecho Escolia da ezagunena. Gai aldetik ez bada ere, «euskal folklore ta euskera aldetik, balio andiko liburua da» (Mikel ZARATE, BEI, 86).

39. NASAIKERIJA

Zelan lagun geijago batuten dan biargintza batzubetara, alan eurentan izan oi da ugarijagua nasaikerija. Gal jotiak, ira edo garo ebatiak, orbel batzee, lino apaintze edo ezpatetaak, arto zuritze, ta beste onelako lan batzuk, egin oi ditubee al dabean gazteerija batuta, geijeenez Nekazari alper beti atzeratu oi dabilzanak. Etxeko andria alper lotija, ta alabaak amaren ozpalekuak badira, asmeetan dabee gau gorubetia. Egunezko gaistakerija askori gitxi eretxirik, etxe batzubetan, batez bere arto zuritze, ezpateeta, gorubeta ta neke gitxiko lancen ondoren, egin oi dira gau jolas «Vigiria» esaten jakeenak.

Euren biarra nolainai amaituta asten ditubee dantzarik naastu ta nasaijeenak. Oi dira atxakijaz argija amateetan dabee-nak. Dantza ostian edo leenago, etxe baten baiño geijagotan, egiten ditubee amar amarka, ardijak aparteeta, amoriak egite, alkar jasote, ta aitatutiak lotsatu leijan gauzarik ezain, ero, ta nabarmeneenak. Gurasuak begira barrez, edo lotara. Baña Jangoikuak ez dau lorik egiten. Ez dago beretzat illunik ta guztija dakus.

¿Zer penseetan dabee alako emakumeen lan onduetara juaten diran mutillak? Jangoikuaren bildurra batera itxirik, ¿ez dira lotsatuko emakumeen esklabo eureen burubak egitiaz; ta areek nora, eurak ara, mundubari eureen argaltasunak erakustiaz? Nora begira dagoz neskatillaak? Nun da eurei jaokeen modestija, garbitasun, gorputz ta arimako edergarririk maiteena? Zer da au? Umetxubak lotsagarritzat esan oi deutsee alkarri: «Neska zale, mutil zale»; ta gero, biarren danian galdu inozen-zijati jatorkun lotsia? Vigiria amaiturik duaz gabaz mutil, gizon ta neskatilla euren exetara. Ay! eureen Aingerubak emongo dabee egunen baten bidian esan eta egiten ditubeen gauza guztien testigantzia!

40. OTSEIÑAK

Guraso oneen arduria ez zan bakarrik seme alabaakaz, baita bere otseñakaz. Doktrina erakutsijaz gañera emoten eutseen Eleisbidia ta eukiten ebeen aureen vizimodubaren ardurarik andijeena. Ondo begiraturik artu orduko zelakua zan otseñia, leenaz adierazoten eutseezan izango zituban obligazinuak, ta aureen artian bat, ez ebeela iños juan biarko Fiesta, Erromerija, Dantza, Vigira, ez beste okasiño jakifetako lekutara. Ostian, ziran txito errukiarrak eurakaz; pageetan eutseen soldatia zuzen ta agillanduakaz, ta alkarren leijan oi ziran servidu gura zitubeenak. Astegunian emoten eutseen astija erropaak konponduteko, edo egiten eutseezan etxeko alabaak. Ez ebiltzan etxe onetako otseñiak beti arrastaka, esklabo edo erosijak legez. Ezagututen ebeen ez zirala ostikopetu biar pobriaguak ziralako, ta bai errukarriago izan. Askok ondo goguan josirik euki biar leukiana. Ugazaba alper edo zeken batzuk, albalejee, bota eragingo leuskijuee odola izeditan otseñiei. Erruki geijago daukee txalakaz eurakaz baño. Jana nolaalakua; gois jagi, belu oera, ta bitartian beti arrastaka. Ez deutsee emoten astirik erropak konponduteko, jaijetan ezpada. Meza nausi, sermoe, ta konfeseetara, albait gitxien. Bakarrik emoten deutsee libertadia biar ez leukenerako, au da, batzaar ta okasinoe gaistuetarako. Guraso pobre, euren seme edo alabaak servietara aterateko premiñaan aurkituten diranak: Gomuntau ditiala, iñok baño neke edo pena geijagogaz azi zitubeela euren seme alabaak, sartu ez daijeezan buztarri ain gogorrean azpijan. Gomuntau ditiala, pobriak izan arren Jesusen odolagaz erosijak dirala, ugazaba gogor ta ardura bageen mendian imiñi ez daijeezan.

Moguel, J. J.: *Baserritaar jakitunaren Etxeko Eskolia...*, Vitorijan, 1845, 122-124, 172-174.

jaokeen = dagokien; *alkarren leijan* = a porfia; *mendian* = mendean, menpean.

PEDRO J. PATRIZIO ASTARLOA (1751-1821)

Urrengo idazlan onek aldi bateko apologismu sutsu ta itsu-samarra (Larramenditarren girokoa) eta euskal kondairaren une estu larri bat («frantsezadea») erakusten deuskuz... Sermolariaren izkera argi, errez, ugaria darabil Astarloak, noizik beñean Larramendiren Iztegitiko berba ta guzti; aditza oso aberatsa...

41. BIZKAITARRAK ANTIXINAKO KANTA-URITARREN SEME

Orra zelan jaon eben gure antxinako asabak euren jaijotz lurra Erromarren indar eskerga guztijen kontra. Bardin egin eben onen ondorengo guztijak bere: beti izan dira ezagun gerrari errutsu eta irmetzat, eta mundu guztijak ikusi dau ze laztan izan dabeen euren lur, erliginoe, lege, eta euskeria. Eztaigun uste eurakaz amaitu zala sendotasun eta amodijo au. Geure egunetan ikusi dogu gaurko Bizkaitarrak antxinako Kanta-uritarren seme diriala, alan gerrari indarssu izatian, zein da, euren erri, Kristinautza, lege, eta eskubide, edo libertadien maitetasunian.

Bai, don Francisco Longa Jauna, argi argitan ifini dau mundu guztijen begijetan, berorren zanetan irakiten daben odola antxinako Kanta-uritarrena dala. Bost urte iraun eban Octaviano Augustok gure erri onetan egin eban gerriak; eta bost urte iraun dau Napoleonek egin deuskunak; eta orduban areek Erromako Agintarijaren kontra sendo egon ziriana legez, alaintxe berori ifini da murru irme bat legez Napoleonen aleginen kontra. Batuten dituz al daizan martitzak, eta irakatzirik onei ze gerra modu egin biar jaken Franzesai, abijetan da eurai ekiten, antxina gure gurasuak Erromatarrai legez. Ezaguturik etziriala berorregaz eukazanak apur puska bat baño arerijuen albuana, ezta eurakaz arpegiz arpegi ifinten, eztituz berorrenak ateraten ibar zabal, landa zelai, eta aran andijetara; eskutetan da mendi, muru, atxarte eta oijanetan; aintxe dago zelataka Franzesik agiri bada, eta ikusirik etziriala igaroten dirianak berorrenak baño guztiz geijago, etxuten da beingo beinguan euren gañian,

birrintuten ditu, banatuten ditu, eta kenzen deutze daroiena. Jakinik zenbat konbeni dan gerran arerijuen asmu eta goguak ezagututia, ifinten da bide ondoko okelu eskutubetan zelata, eta ikusirik Franzesen bialdu, mandatari edo korreoren bat irago biar dala, urteten deutza uste bage bidera, ilten dituz jaoliak, edo eskoltia, arzen ditu katigu postarijak, kenzen deutzez dakarrezan paperak, eta bialdurik nagusi eta agintarijai, dakusez argitan Franzesen gogo eta asmubak.

Eta zenbat arerijo il, zätitu, eta katigatu eztitu modu onetan? Eun da iru izan zirian Friasko zubijan birrintu zitubanak: irurogeta bat Deskargan: eun da larogei Cabezónen: berreun da berrogeta amar Portugalete eta Somorrostron: laureun irurogeta amazapi Pancorbo eta Briviesca artian: zazpireun Sedanon: bosteun berrogeta iru Asperiletan: irureun eta amaeka Pozan.

Baña nora nua? Zelan nik aituten emon neikez Franzesakaz euki dituzan errijeta guztijak, il deutzezan gizonak, kendu deutzezan ondasunak, eta egin deutzezan kaltiak? Zelan, onetarako erabili dituzan bidiak, galdu dituzan gauak, aratu dituzan mendi, baso, larra, sasitza, aldatz, meaka, eta bide zigorrak? Arraijo bizi bat eginik dabil batetik bestera; ain laster Bizkaijan, ain laster Gipuzkuan, ain laster Araban, ain laster Gastelan, arin laster Montañan, ain laster Tobalina, Losa, Cabuerniga, eta beste leku askotan; jakin al bage arerijuak nun dan, edo mundik nora dabilen. Alanbere, ezin esan bage itxi neike Urduñoko atxeko zelatakadia.

Jakin eban berorrek andik irago biar ziriala berrogeta amairu burdi Franzesen ondasunez beterik: nai leuzkijuezan kendu, baño ez jakan erraz, ez eukazalako berorregaz eun da amar zaldizko, eta irurogei oñezko baño; burdijak jaoten etozanak, barriz, zirian bosteun eta berrogeta amar. Zer egiten dau, bada, berorren zurtasunak, berorren goguagaz urteteko? Batuten dituz albait isilen mendigurenian, eta bidian parian, arri eta atx pilo andijak, eta dago zelataka nos iragoten dirian Franzesak burdijakaz. Elzen dira oneek atx eta arri pilo parera, eta abijetan dira berorrenak atx eta arri urtika. Arri eskergak eta atx ikaragarrijak datoz mendija beera bilinboloka. Eztakije Franzesak, ez zer jazoten jaken, ez mundik datozen arri eta atxak, ez nok jaurtigiten dituzan, ez mendijak sustraitik urten ete dabeen ala ez, ez luikararen bat izan ete dan ala ez. Eztakije zer egin, nora juan, edo ze modu artu, eta dagoz geldi geldi, subil bat eginik. Atx andi batek iruliten dituz burdi bat edo bi, eta ilten dituz

euren idijak: arri bildurgarri batek daruaz beragaz mendija beera zortzi edo bederatzi zaldi euren zaldizkuakaz. Emen datzaz zaldi batzuk estiak darijuezala, an idi batzuk zapaldurik. Batetik ikusten dira gizonen gorputz il buru, oin, beso, eta istar bagak; bestetik gizon, zaldi, eta idi trimendu eta zapaldubak, dirianen anzik bere бага. Guztija da negarra, garrasija, uluba, zispuruba, aijarija, inzirija, eta diadarra. Nai leukee iges egin Franzesak, baña eztauke nundik, bada alde guztijetatik dirautza esetsijaz arri eta atx urtikiari, ain zarratu, ze bizirik urten eben puskak ez eben euki beste iges egiteko modurik, euren burubak aldatz beera amilka eta jirabiraka botatia baño. Laureun eta larogei Franzes geratu zirian ilik, eta itxi zitubezan berorren eskubetan zazpi milla pare zapata, bost milla martitz-soñeko, eta lau kutxa urre-galoe eta gerrari apaingarriz beterik. Zelatkada oneekaz, bertatiko agertute, erijotza, katigatute, eta eroiena kendute oneekaz ain eukazan olloturik arerijuak, ze etzirian azartuten inora juaten, ez bidian ibilten, jendadi guztiz andijak ezpazirian, antxinako Kanta-uritarrak Octavianoren Soldadubak bildurturik eukezana legez...

Astarloa, P.: *Urteco Domeca gustijetarako Berbaldi Icasbide-cuak...*, bigarren liburua, Bilbon, 1818, VIII-XI. Itzaurrea.

aon = jagon, zaindu; *eskerga* = guztiz andi; *irme* = errime, gogor; *martitz* = ejército; *aran* = valle; *oian* = basobaltz, selva; *zelataka* = espiano; *beingo beinguan* = bertatik, berealaxe; *okelu* = bazker ezkutu; *postari* = correo; *dakusez* = ikusten dabez; *meaka* = bide estu, desfiladero; *urtika* = jaurtika; *subil* = tronco; *aijari* = barre-santso, carcajada; *esetsi* = acometer; *amilka* = despenándose, rodando; *jendadi* = aldra, talde.

42. KARLISTENAK (Egilea: ezezaguna)

Bertso egokiak, karlisten aldiko gerra-giroa biziro erakusten deuskuelako.

1	2
Zabaldu belarrijak,	Egija esateko
Euskaldun maitiak,	Ez da erraz sinisten,
Entzuteko gozaro	Begiz ikusi arren
Zuben albistiak:	Jakuna jazoten:
Ez da beste soñurik	Lau urte luzeetan
Mundu zabaletan,	Beti gerra baten;
Zuben izena baiño	Mundubak arriturik
Aspaldi onetan.	Zaitube ikusten.

3

Zubek asi zenduben
 Gerra odoltsuba
 Bakarrik lagun zala
 Jaungoiko altsuba:
 Lurreko indar baga
 Gizonen ustian,
 Geijago argituteko
 Zeuben entzutian.

4

Barria ta burlia
 Arerijuetan:
 Ez zan beste gauzarik
 Lelengo egunetan;
 Ekin bategaz legez
 Izanik gudia,
 Uste eben bertatik
 Zubek goitutia.

5

Milla osuetako
 Talde ugarijak
 Alde guztijetatik
 Ona etorrijak:
 Arma, diru, ta soñez
 Osaro jantzizak,
 Ingalterratik daukez
 Kañoe barrijak.

6

Gitxi balira legez
 Millazko eunak,
 Kristiñuak ditubez
 Billatzen lagunak:
 Gente arrotzai deutse
 Bertara deituten,
 Gozatuten dirala
 Bazterrak ondatzen.

7

Franzes, Ingles, Polako,
 Portuges galdubak
 Kristiñu malmutsakaz
 Emonik eskubak;
 Alde guztijetatik
 Talda ugarijak
 Betetan ditubez gaur
 Euskaldun errijak.

8

«Mendi basuetara»,
 Diñue euskaldunak:
 «Elduko dira nozbait
 Ibarren egunak:
 Bakotxak al dabena
 Lepuan arturik,
 Guazan ardura baga,
 Ez euki bildurrik.

9

Ez ziran Euskaldunak
 Bein bere menpetu;
 Erroma bera ez zan
 Eurakaz jabetu:
 Gure Asaba onakaz
 Ez gara iñoz aztu;
 Talda arro orrekaz
 Gura dogu neurtu».

10

Suba eta odola
 Bazter guztijetan,
 Alperrik da zabaltzen
 Euskal errijetan:
 Egunik egunera
 Indarrak barrijak
 Erakusten ditube
 Euskaldun argijak.

11

Batzubek amaitu, ta
Bestiak etorri...
¡Ba zan arerijua
Nunbaita ugari...!
Itxasoz ta liorrez,
¿Nok leike zenbatu,
zenbat buru gaiztoko
Emen jakun sartu?

12

Euren soin ta armakaz
Dira orniduten.
Menditarrak ez ditu
Askuak bildurtzen.
Zelai ibarretara
Asi dira jasten:
Nunnai arerijuak
azartu billatzen.

13

«Emen gara mutillok»,
Dirautse euskaldunak,
«Igaro ziran nozbait
Lelengo egunak.
Urten errijetatik,
Guria da lurra;
Bestelan ganian da
Suba ta egurra».

14

Orma artetan dira
Kristiñuak sartzen;
Baiña keia emonik
Ditube ateraten.
¡Zenbat triskantza gogor
Ingles azurretan,
Baita bere ez gitxia
Euren lagunetan!

15

Euskal erriak dira
Arrotzen izuba;
Agaitik arriturik
Geijago munduba;
Banaka gelditubak
Dakusez igesi;
Len arro, apaindubak,
Arlote ta itxusi.

16

Franzesak batera, ta
Inglesak bestera,
Duaz euren lekuban
Barri emotera:
Polako, portugesak,
Lagunak itxirik,
Ta ona etorrijaz
Ondo damaturik.

17

Amaitu ziran, bada,
Burla ta barriak,
Bildurrak artu ditu
Zanzuen ordiak;
Billatu, Kristiñuak,
Goruntzko bidiak,
Ez zaituz lotsatuko
Iges egitiak.

18

Baiña atzian dira
Euskaldun sendiak,
Guztiz amaituteko
Arturik goguak;
Bein asitako sailla
Nai dabe aurrera;
Garaitza iziagaz
Orduban etxera.

19

¿Zelan ez da zurtuko
 Gaur mundu guztija,
 Ta erakutsi argiro
 Bere mirarija?
 Ezpadau iñoz izan
 Gerra onek besterik,
 Lurraren azalian
 Bardindutekorik?

20

Zerubari eskerrak,
 Euskaldun maitiak;
 Berak sendatu ditu
 Zuben egitiak.
 Beragan daukazubez
 Garaitza guztijak;
 Daben legez esango
 Guda onen anaijak.

21

Goratuko zaituben
 Jatorri guztijak;
 Ta benetan dontsutu
 Uri ta erriajak:
 Belaunik belaunera
 Zuben entzutiak
 Pozez beteko ditu
 Zarrak ta gaztiak.

22

Baita bere eskerrak
 Errege Jaunari,
 Karlos bostgarrenko ta
 Zuben burubari:
 Bera izan dozube
 Guztijan laguna,
 Zubekaz igarorik
 Gaba ta eguna.

23

¿Nok dau iñoz ikusi
 Alan erregerik
 Gose egarrijetan,
 Sarritan ez lorik?
 ¿Bala artetan bere
 Bat bere bildurrik
 Ikusten ez jakola...
 ¿Nun da irudirik?

24

Imiñi, bada, laster
 Bere jarlekuban,
 Eskribidurik dago
 Alantxe zeruban:
 Alperrik amorratu
 Guztiz infernuba,
 Etsi daike benetan
 Auzija galduba.

Anónimo: *Carlitenac* in *Poesia Bascongada*. Dialecto vizcaino.
 Ms. inédito. Archivo de PP. Franciscanos, Aránzazu.

kristinu = María Cristina erreginearen aldekoak, cristino; *malmutz* = taimado; *triskantz*a = destrozo; *gixia* = gitxiago; *izu* = ikara; *garaitza* = victoria; *zurtu* = arritu; *sendatu* = sendo egin; *guda* = gerra; *etsi* = itxaropena galdu.

43. EUSKALDUN MUTILLAK MORUEN
KONTRA GERRAN (Egilea: ezezaguna)

Indarkeri-giroz eta badaezpadako erlejino-gurariz betetako bertso gogorrok joan dan gizaldiko Euskal kondaira ta pentsakera baten espillu garbi dira.

1

Guazan, guazan, mutillak,
Guazan Afrikara
Moruakaz indarrak
Antxe neurtutera:
Agertu biar dogu
Marruekos aldian
Antxiñako euskaldunen
Seme ete garian..!

2

Gaztelako mutillak
Moruakaz gerran
¿Ta euskaldunak geldirik
Etixian jan ta edan?
Ez, ez orrelakorik!
Biar dogu izan
Beti aurrerenguak
Afrikako gerran.

3

Ikusten dan orduko
Morua aurrian,
Sartu baijonetia
bere bularrian:
Ta ez barriz gelditu
Imifiñ artian
Danak luze luzerik
Lurraren ganian.

4

Zelako triskantzia
Moruen artian
Iminten bogu oñik
Guk ango lurrian!

Itxirik bazterretan
Moro aldrak illak
Diadar egin sendo:
«Aurrera, mutillak!»

5

Ez begijo besterik
Entzun gaur iñori,
Berba bakar au baiño:
«Gerra Moruari!»
Ta ez baijonetia
Iñok sartu lekan
Mororen bat bizirik
Daguan artian.

6

Ez dau biar atzera
Iñok begiratu,
Ezpada danok antxe:
Ill, edo garaitu.
Milla arraijuetan
Oraingo aldijan...
Nagusi izango gaituk
Europa guztijan.

7

Frantziako zuabuak
Balegoz Afrikan!
Ikasteko gugandik
Zelan egin gerran!
Vincennesko eiztari
Sendo ta arrutsubak
Gelditu biar juek
Orain baztertubak..!

8

Gure ganian daukaz
Sendaro josijak
Begijak ta gogua
Gaur mundu guztijak:
Afrikako aldian
Zer jazoko ete dan,
asten garanian
Moruakaz gerran.

9

Ez gaitian bildurtu
Euskaldun senduak;
Bada laster daukaguz
Goiturik Moruak.
Areek baño soldadu
Errutsubagorik
Bost bidar itxi dogu
Lurrian etxunik.

10

Baldin gure artian
Badago koldarrik,
Bijua bere etxera
Armia itxirik...
Ez dogu emen biar
Mutil ollokirik
Morua ikusita
Bildurtuko danik.

11

Baña ez da egin biar
gerria gorrotoz
Ezpada mesediak
Egiteko asmoz.
Orregaitik goiturik
Afrikan Moruak
Egin bear ditugu
Zorijonekuak

12

Erakutsirik eurai
Jesusen legia
Nun aurkituko dabeen
Zeruko bidia.
Au egiten badogu
Orain Moruakaz
Laster ditugu esker
ta eskumuñakaz.

13

Denpora gitxi barru
Moruak goiturik
Etxeetara gatoz
Arro eta pozik,
Geure garaitza andijak
Kontetara etxian
Etxeko ta auzokuai
Geure eskaratzian.

14

Zetarako da bada,
Neure ama maitia,
Ni juatigaitik
Negar egitia?
Laster izango dozu
semia etxian,
Jaungoikuak nai badau
Unore onian.

15

Alambere ez aztu
Iñoz bere nigaz,
Bada nik beste ainbeste
Egingo dot zugaz:
Sarri Jaungoikuari
Nigaitik eskatu
Len baño len gaizala
Alkarregaz batu.

Agur, Euskalerrija,
 Baguaz emendik
 Etortia uste dogu
 Garaitzaz beterik,

Ementxe biziteko
 Geure lur maitian
 Pozik, gozaro, eta
 Bake ederrian.

«Euskaldun mutillen bijotzak moruen kontra / Gerran egiteko gurarijetan sendatu eta sututeko euskerazko bersuak», in **Uriarte, J. A.:** *Poesía Bascongada*, Dialecto vizcaino. Ms. inédito. Archivo de Aránzazu.

bogu = badogu; *leka* = vaina; *errutsu* = brioso; *koldar* = cobarde; *garaitza* = victoria.

EUSEBIO MARIA AZKUE (1813-1873)

Resurrección Maria de Azkue-ren aita: «bertsolari eskolatua baiño geitxoago da; baiña olerkari jatorra izateko bere zer bat falta jako» (M. ZARATE, BEI, 97).

Urrengo olerki au amodiozkoa da, deskrizino ugariz ornidua, mitologiaren ikutua ere or-emen daukana.

44. ZALDUN BATEN MANDATUA DAMA BATI

1

Ez dakit zer dan, neure maitia,
Neure aspaldiko bizija;
Koipia sutan urtzen dan legez
Urtu jat gorputz guztija.

2

Ai, leengo egunak odei bakuak
Zituzan nire bijotzak,
Orainguak barriz dituz illunak,
Odeitsuak eta motzak.

3

Dama eder batek gorputz ta arima
Nauka orain atsegin barik,
Neure bijotzak beragan beti
Ez dauka bake, ez kalmarik.

4

Zelakua dan dama galant au
Dago irakurten bakarrik,
Bestetarako gaurko egunian
Ez dauka gogo, ez indarrik.

5

Gorputz zuzena dama eder onek
Dauka, ta bere gerrija
Ereztun batek artuko leuke
Orratzak legez arija.

6

Bere ule ederra seda biguna
da baltza, erroija lakua;
Ta bekokija zerua legez
Izur unerik bakua.

7

Bezinta uliak dira ustarkuak,
Eta euren bijen azpijan,
Dagoz erretan zaldun gaztiak
Mitxeletak lez argijan.

8

Arpegi baten bizi ditezen
Matralla bijak bakian,
Baketzallia da sur eder bat
Aizta bijen bitartian.

9

Ao txikiko ate gorri bijak
Dira ezpan gorri, koralak,
Zaldun gazte matrallentzako
Suge eztena lez mortalak.

10

Agin txikijak, zuri bardiñak,
Guzarateko perlak lez,
Daukaz auan, beti daukanak
Nire bijotza negarrez.

11

Iduna dauka dama eder onek
Tornuan legez egiñik,
Sinistuten dot ez daguala
Munduan bere bardiñik.

12

Bere atzamarrak luze ta meiak
O Ziol argi gorriakaz,
Iges ez daijen zerura, dagoz
Loturik ereztunakaz.

13

Oin txikitxuak dituz politik,
Estuak eta laburrak,
Seda zurizko zapataz daukez
Gorderik mamin ta azurrak.

14

¿Bakizu nor dan, Elisa ederra,
Dama eder bardin bako au?
Itandu eijozu ispilluari,
Ta zuzen erantzungo dau.

15

Zagozarian, neure bijotza,
Ispilluaren aurrian,
Orduan dauka nire bakarrak
Bera lako bat aurrian.

16

Irakurrizu maitetasuna
Nire barruko libruan,
Ikasi daizun ez daguala
Andijagorik munduan.

17

Baldin baneki gura dozula
Inglaterrako koroia,
Kenduko neukez Prinzipe Alberto
Ta bere emazte perloia.

18

Euren lekuan poz andijagaz
Zu iminteko bertatik,
Nai ez dabenik Londresen bada
Esegi ezkerro samatik.

19

Gura badozu zartuta bere
Luzatutia bizija,
Ekarriko dot paradisuatik
Onetarako jakija.

20

Eta osagillak euki daizuen
Orain ta beti lotsia,
Eurakaz naste dakardenian
Ilgo dot erijotzia.

21

Ugarte baten, zeuk nai badozu,
Atsegin utsen tokija,
Zeru zati bat ekarriko dot
Ta bijuentzat gloria.

22

Ez dot nik ezer munduan gura
Ez osasuna, ez bizija,
Zugaz ezpada, ai neure Elisa..!
Zu zara neure guztija.

23

Zu baga naz ni, neure maitia,
Gorputz arima bakua,
Neguan dan lez Norte errijetan
Eguzki arratsaldekoa.

24

Zu zara, Elisa, munduan Jaunak
Neuretzat daukan laguna.
Elduko al jaku albait lasterren
Ain gura dogun eguna!!!

Azkue, E.: Zaldun baten mandatua dama bati in Uriarte: Poesia Bascongada. Dialecto vizcaino. Ms. inédito. Archivo Aránzazu.

erroi = bela, cuervo; *ustarku* = arco iris; *Guzarat* = Gujerat; *jaki* = janari.

FELIPE ARRESE-BEITIA (1841-1906)

Foru zaarrak galdu dituezan euskaltzale zintzoen biotz-min bizia adierazoten dabe Otxandioko «santugin» ospetsuaren illeta-bertso ezagunok.

«Biotzondoa ba du, izkuntza aberatsa ere bai; egiazko lirikoa osatzen duen zera, ordea, euskeraz geroztik agertu den zer berezi ori, falta zaio» (L. MITXELENA).

45. AMA EUSKERIARI AZKEN AURRAK

Neure biotzeko Amatxo zarra.
Antxiñako ama Euskera,
Seme leyal bat oraiñ datortzu
Azken agurra emotera;
Ainbeste gerra goitu ezinda
Danori atsotu zara,
Zaurien zauriz galdu galduta,
Amatxo, zuaz illtera.

Zori gaiztoan negargarri ta
Dot sentimentu andia,
Geure lur maite dakustalako
Gaztelatuta jarria;
Bestela erdu, erdu ikustera,
Tubal euskeralaria;
Baña, ez dozu ezagutuko
Oraiñ zure jatorria.

¿Nun dira bada zure semiak
Foru ta euskera zaliak?
¿Nun dira bada, Tubal, gure aita,
Zure ondorengo garbiak?
¿Nun dira bada zure ume zintzo
Eta leyalen legiak?
¿Nun dira orain, orain negarrak.
Nun dira nire begiak?

Agur illun bat egin deuskue
Guraso zarren legiak.

Umezurtz batzuk gelditu gara
Billosik foru bagiak;
Izan bagaña eurak legetxe
Euskeriaren zaliak
Oso ta garbi gordeko ziran
Oitura aiiñ miragarriak.

Errazoiagaz esango dabe
Gure urrengo umiak,
Izan gñala duda bagarik
Ero ta zoro garbiak;
Jakingo dabez euskeriagaz
Genduzan eskubidiak,
Erdera zale gñalako egin
Galdu zirala guztiak.

Zorioneko arkaitzak eta
Zorioneko mendiak,
Oraiñ artian zuek zare izan
Foruen gordelariak;
Zuek goyetan beti euskeldun,
Ez alan beian erriak,
Orra zer gero ekarri deuskun
Azkenian erderiak.

Beietan iya ez dot ikusten
Tubalen ume zintzorik,
Ez dalako gaur emen entzuten
Erderaz baño besterik;
Onexek dauka nire biotza
Naibagez erdibiturik,
Ez dodalako gure euskera
Osatuko dan usterik.

Euskeriari gorroto eta
Gozau nai bere foruak,
Dirala uste dot barru barrutik
Auterestia zoruak;
Izan leiteke ori alan baña,
Niri ezetz diñost goguak;
Baldin euskera bizten ezpada
Illtztat daukadaz foruak.

Geure erruz bada, ekarri dogu
Eriotzako unera,
Berebeta eder gozo ta leun au

Beste munduko atera;
Norbait ezpada laster minduten
Osasuna emotera,
Mundutik laster juan bear dau
Ama Euskerak bestera.

Ainbeste seme emon zituzan
Itxasorako zoliak,
Liorrerako ez gitxiago
Gerrari bildurgarriak;
Liburuetan ta izkuntzetan
Ugari miragarriak,
Ill ziran danak, ta oraiñ ill biar
Euskera maitegarriak.

Or, Gernikako arboliaren
Oñian dago etziñik,
Estu ta larri iya illian
Arnasaz bete ezziñik;
Au ikusita ¿ez ete deutsa
Iñok artuko errukirik,
Ez ete datoz bere semiak
Osagarriak arturik?

¡Ai neure Ama, gaurko semiak
Deritsat dagoz aztuta,
Estura onetan lagundutera
Iñor ez da agertuta;
Ill zaite bada, bakar ta soillik,
Paradisuko izketa,
Sei milla urtian ainbeste damu
Garratz mingotz iruntsita.

¿Zer al daiketzut, Ama, bakarrik
Agonia estu orretan?
Zotin, zizpuru, negarrez urtu
Etziñik zure oñetan;
Parka eskatu seme danentzat
Biotzez bene benetan,
Zure arimia lagun ipinten
Jainkoaren eskuetan.

Zuaz mundutik orban bagarik,
Zuaz mundutik garbia,
Zuaz mundutik adoratu baga
Ez idi eta ez beya;

Beti gorrotau, beti zapaldu
Zenduan idolatria,
Ta otaiñ zagoz Jaunari emoten
Fedian zintzo bizia.

¡Ill da Euskera! ill da Euskera!
¡Betiko itxi dauz begiak!
¡Negar Arabak! ¡negar Gipuzkoak!
¡Negar egin bei Bizkayak!
¡Negar arkaitzak! ¡negar mendiak!
Agortu arte iturriak,
Ainbeste geiso, ainbeste gatxen
Osasun emongarriak.

¡Negar Naparrak, geure anayak,
Ta euskaldun Frantziakuak!
Neugaz batera danok urratu
Sentimentuz sofiekuak;
Aztu istoria edo kondairak
Emengo antxiñakuak,
Ta euren lekuan asi barriak
Aurrera erderazkuak.

Eta ¿nun dozuz, zeruko arbola,
Zuk bere jantzi berdiak?
Zure erramok billos dakustaz
Igar ta ezkur bagiak.
¡Ai mingarria! Gaztelako arrak
Jan deutsuz sustrai guztiak.
Baita biotza, baita barruak,
Azala itxita bestiak.

¿Zagoze oraindik zutik, arkaitzak?
¿Dollortu бага, mendiak?
¿Samur emoten Somorrostrogaz
Zeuen ondasuntegiak?
Errotak klan klan, taun taunka olak.
Eta pill pill iturriak,
Biziro errekek baita itxasuak
Opaka arraintza ugariak?

Geyegi da ta ausi, arkaitzak.
Onegi ez izan, mendiak,
Lurpetuteko Euskera illa ta
Bere ondasun biziak;
Bera tontorrak, bete arruak;

Erdue Gaztel-lau igarrak,
Agortu, errekek; lurtu, itxasuak,
Agur, euskeldun ibarrak.

Geure Erria, gizaldi danak
Zugaz dira gomutauko,
Ez dabelako beste erri bat
Zu duiñ garbi aurkituko;
Etsai batzuek alper alperrik
Zure izena zikinduko,
Zeure Jaungoiko egi bakarrak
Dau oso garbi gordeko.

Arrese ta Beitia, F.: *Ama Euskeriaren liburu kantaria*, Bilbon,
1900, 3-8.

auterestia = pretensión; *orban* = mancha; *dollortu* = avillanarse; *opa-ka* = eskeinka.

BAERTEL MIOTA, DANIEL (1854)

On Antonio d'Abbadie jaunak sekulako euskal zaletasuna sortu eban ango ta emengo Euskalerrian, erririk erri Lore Jokoak ospatuz. Gure sermolari asko bere, euren aldiko eretxiz eta jokabidez, euskal gogoaren iratzarle sutsuak izan dira, Durangoko seme ta sermolari ospatsu izandako Aita Prai Daniel Baertel-en antzera.

46. EUSKAL «LORE JOKO»-etako JAI ALDIKO SERMOIA

Uri onetako Agintaritzea daukazuen Jaun prestubak; Jai-aldi Euskerazko onen Aldiemontzadun jakintzuba; Tavira-Durangoko seme zintzo, eta entzuten nozuben entzula maitiak: Irakastegi onetatik goratu gure neuke geure berbakuntza, betzuñak baño maitiago dodana: eta onetarako, zer gauza egokijagorik Batzakuntza guztijaren aurrian esker aundijak emotia baño On Antonio Abbadie Jaun azkarrari, bere mesedia dan ezkeru solas edo Jai-aldi Euzkerazko onen Asmatzallea? Adiuntzaz, bai, asmau dituzu solas oneek; bada kendu gura deuskube geure berbakuntza ederra, zergaitik onek, askuntza onetan bakarrik bada bere, emon deutze iraupena geure usadijo eta oitura onai. Bizi zaitte, bada, luzaro, gure gurazorik zintzo eta onena, bada zu lako gizon prestubak ez bageunkaz, ¡Agur geure Euskerial! eta Arrese Jaunak esan eban gisara, esaten dogu Euskaldun zintzo guztijak, akiakulak alde batera itxita: «EUSKERIA ILL EZKERO, EZ DOGU BIZI GURA!».

Zer jazo oi da Araban? Ah! euren zorigogorrian itxi eutzen amaren bularragaz batian artu eben berbeta gozo eta ederrari; beste onenbeste jazo da Balmaseda eta Enkartaziño guztijan; eta ez neuke esan bere biar, baño lotsaz ta negar-malkoz beterik baño ezpada bere, au berau jazo da Bilbon, Euskal-erriko Aita nagusijaren buru dan Erri polit eta aberatsian, eta negargarri-jena da, Eunkada édo gizaldi onetan bertan, egin da berba euskeraz izentauko leku guztijetan. Beste erri batzuetan, barriz, maluskauba dago egiten dan apurra. Etxadi askotan artu dabe oitura gaizto bat, erderaz berba egiteko; eta egija diñot, entzuten

nozun Euskaldun guztijak: Jaungoikuak berak iminten ez badeutza osagarriren bat gaiso oni, ez dakit zer izango dan gugaz: bada, geldi-geldi aztuko da gure berbakuntzia; bada gaur bertan, eta biar bada baserrijetan, sartu dira len ezagutu bere eziran berba asko. Ah! ero andijak, Bizkaitar asko, beintzat; urkatuko lituke askok euren buruak Poruko legerik txikarrena galdu ez dediñ; barriz, antxinagotik jatorkun Euskeria galdu dedilla ordu onian gura dozube? Ez, Bikaitarrak, ez; eta Aita Cardaberaz jakintsubak esan eban gisara, esan biar dogu geuk bere: «EUSKERIAK BURUA JASOTIA, JAUNGOIKUAK BERAK GURA DAU».

Nik onetarako —au da, geure berbetiak irauñ daijan bere garbitasun guztijan— erregu bat egin biar deutzet Agintaritzia daukeen Jaun guztijai, batez bere Meriomendekuai, eta da: Katalanak egin daben gisara, eta baita bere Napar eta Gipuzkoatarrak Donostian daukeen Batzarraren bidez: erregutu Eskola-Maisubaren Agintaririk nagusi edo Buru danari, jakiturija bardifiñan beintzat, bialdu daizala Euskal errira Eskola-Maisu Euskaldunak. Erderazko Maisu jaunak, euren ogi kopaua ondo irabazija dauke; baña... onen ganian berba geijago eta agirijago egin gura izan arren, arantza asko daukaz lan onek; eta onenbestegaz amaituten dot. Zer izango zan gure berbete zoragarrijagaz Abade Jaunak irakastegijetatik euskeraz berba egingo ez baleuskube? Arimazai onek era onian ardura andi bat artu dabe geure berbakuntzia zabalduetako alde guztijetara euskerazko liburuen bidez, eta bakotzak euren Eleizetako irakastegijetan euskera garbija egiñagaz euren eleiztarrai. Eta danen aurrian eskerrak emon biar deutzubedaz emengo Uri eta albo-errijetako Abade Jaun Argitsubak oraiñ artian egin dozuben lan andijagaitik; baña ez aspertu. Atara ugari Euskerazko liburubak, eta jarraitu gau eta egun lan bedeinkatu orri; dendatu irakurtera lotutasun baga, ta denpora gitxi barru euskera ondo berba egingo da. Liburu euskera garbikuak irakasten dabee onduen, zelan jokatu izen ta berbuetan.

Baertel, D., Aita Pray: «1886. garreneko garagarriaren 24 garrenian Durangoco Urijan eguin eban SERMOIA ospatu cirianian Jai-Aldi Eusquerascuac». Durango, 1895, 5-7.

irakastegi = cátedra; *betzuña* = betsein; *begi-nimi* = pupila; *adiuntzaz* = sasoez, garaiz; *akiaakula* = atxakia, excusa = *maluskauba* = alperrik galdu, estropear; *osagarri* = remedio, curación; *ero* = zoro.

DOMINGO DE KANALA ETXEBARRIA (1828-1897)

Bizkaiko erri-erriko euskera apainduria bakoa erakusten deusku Gernikako josla (sastre) onek bere liburu bietan («Fr. Balentin de Berrio-Ochoa» eta «Jesukristo Jaunaren Legue Santia», biak Gernikan argitaratuak, 1890 eta 1893 urteetan). Errigizona izan arren, sermolari baten antzera idazten dau sarritan. (Gizon onen bizitzea ta lanak. J. A. Arana Martijak aztertu ditu).


47. IRU MARTIRI SANTUBAK

Kristiñaubak: ara emen iru gizon alper, Jesukristo Jaunaren arerijuak diñoen moduban, iñoren lepotik bizi gura izan ebeenak. Ara emen iru gizon alper illunpekuak Tonkiñen; Tonkiñitaar odolgiruak illunpian euki gura izan zitubezanak; eta euren lepotik mai edeerretan (lur santubaren gañian) sarri bedar sustraijak, eta, biar bada, gauza zantarrauak jaten zitubezanak. Ara emen, azkenez, iru gizon alper, Tonkiñ-tarrai eutseen amodijua gaitik aiiñ-beste neke igaro zitubeenak, eta azkenez euren eskubetatik martirijo ikara-garrija artu ebeenak, eta au... zer gaitik? Eurak gizon artian zer modutan bizi biar eben irakatsi gura izatia gaitik, eta euren arimak Jesukristo Jaunarentzat irabazi gura izatia gaitik. Au zan, bada, iru errelijioso martirijak Tonkiñ-tarreen artian egieben pekatuba; eta orregaitik ebai eutseezan euren buru benera-garrijak.


Jesukristo Jaunaren arerijuak dirauskue ze eurak projimoarentzat daukeela amodijo ta karidade andija. Gauza ederra da ori: orrela bada ba, zergaitik ezoaze salbaje artera (bide batez bizi ederra igaroten auren lepotik) misiolari katolikuak doiazan moduban, eta ateraten ez dozubez, eurak legez, esklabotuta daukeezan gizon triste areek euren berdeguaen eskubetatik? Au da, bada, egiten dabeena Sazerdote Katolikuak, neke andijak igarota, Asijan, Afrikan, eta salbaje pobriak dagozan leku guztijetan; eta au egiten dabe, propagandako esaten deutseen diruagaz; au da, limosna moduban bialduten deutseen diruagaz, eta gisa orretan erakasten deutsee gizon eta ume triste arci, geu legez Jaungoikoaren semiak dirianai, zer modutan bizi biar dabeen Jaungoikoagaz eta gizonakaz: au da, bada,

misiolari katolikuak erri urrunetara joan, eta salbaje artian egiten dabeena; eta dagoz ondiño gizonak, gizon santu oneek gaitik deungaro berba egiten dabeenak: eta asko, kristiñauak diriala esaten dabeenak. Orregaitik, bada, kontu andija artungo deutsee eguneen baten Jesukristo Jaunak, bere ministroak gaitik deungaro berba egiten dabeen kristiñauai: au da, lagunduten deutseeelako orregaz bere arerijuai.

Canala Echevarría, D. de: *Fr. Balentin de Berrio-Ochoa...*, Gernikan, 1890, 33-35.



IRUGARREN ZATIA: GERRA-AURREKOAK
(XIX-XX gizaldiak)



ARANA-GOIRI'tar SABIN (1865-1903)

«Euskera gaixoa salbau gura dau Aranak... Euskera garbitu, apaindu, landu, ta gorengo mailla batera jaso gura dau Aranak; berba baten esateko, euskera barriztau egin nai dau. Asmo ederra, benetan! Baiña okerreko bidea artzen dau. Erriaren eta idazle zaarren iturriak ez ei dau ur ona emoten eta irugarren iturri barri bat egiten asten da Arana bere lojikearen laboratorioan. Eta ekin eta ekin, egin egiten dau euskera barri ta garbiaren iturri ori... Utsak uts, bultzada itzala emon eutson Aranak gure euskal-literatureari, igongura andi bat, euskera gorengo maillara jasoteko gogo bizi bat» (M. Zárate, BEI, 115-6. 117).

48. GEURE EDESTIJA

Antziñeko españafak askotan geure aberija, Bizkaya, bezau, azpiratu, ostu ta eurendu gura ixan eben. Baiña antziñeko bizkafafak zinduak ziran eta beti jaiki yakezan eta atara edo kanpora jauñti ebezan.

Oñetariko aldi bat zan 1470'gafen urteko jofalako 27'an.

Bizkai onen beronen Jaun bat (Bizkaya bere Jaunak eurek suziñu, galdu ta il dabelako) batera zan España'ko errege edo bakalduna: 1379'gafen urtian Bizkai'ko Jaunak bere buruban España'ren koroe edo burestuna ezarri ebalako.

Añatutako Jauna (urte ofetatik auñian guztijak letxe) Bizkaya'ren Jauna baiña geyago España'ren errege edo bakalduna zan; eta berak Bizkaya España'rentzako ostu ta menbetuteko asmua añtu eban, eta bere asmua egizteko bidaldu ona eban gudarozte edo ekerzitu españaf andi bat.

Au sañtu zan Bizkayan ixendautako urteko jofalako 26'an. Eñiko mugafilik bafurantz igaro zan; ordu askotan auñera egin eban, mendijetara igon eta ibañera jatzi ta ibayetarik igaro zan... iñoz ezeban bizkafarik topau edo idoroten.

Guñean, eguzkija mendijetako ostera jausten zala, gudarozte españafa igon zan Biskafgitik Bafika'rantz zabaltzen dan mendi-estuntza edo kateko ganera, ta andik ikusi eban,

Mungia eritxon eta deritxon elexateko zabaletan, gudarozte nabar bat, geldi ta ixilik eguana.

Bizkaya'ren gudaroztia bera zan: bizkañarak, España'ko gudarozte andi bat, euren abefija azpiratuteko, entofala ekijen, eta batzaldu ziran saitzen ofetako zanari jafkiteko.

Egun atan ez eben otsik egin arma edo izkilubak: gudaroztiak alkar ikusi ebenian, aratsa bere zapi baltzaz mendijak eta aranak estaltzen egualako.

Baña bijaramon, zeru edo ortzia naikua argitu zala, erabili ziran gudarozte bijak eta, izkilubak atauririk, alkafi jafkiten asi ziran. Ixukoya zan gudaldija: etxe-jaunai bere etxia aldezen eban lapuñaren kaltez. Luzia zan gudaldija: eguzkijaren lenengo argijan asi zan etzan amatu galazo eban gaberate.

Orduko bizkañarak, baña (bigarenez diñogu), zindo ta abertzaliak ziran, eta Jaungoikuak beti laguntzen, urgatzen eta indartzen dau efi bere egizko zorijonaren zalia dana. Eta bizkañarak ausi eben gudarozte españara, ta efitik atara edo kanpora jauñti eben, olan Bizkaya bere lege edo lagi ta zorijon zarakin geraturik.

Baña... Jaungoikua'k eztau urgatzen otseingerija ta arotz gaiztua mañetan eta aitzen dauzan efija; baña...

Arana-Goiri'tar, S.: *Lenengo Egutegi Bizkañara* 1898, in *Obras completas*, Buenos Aires, 1965, 1.486-1.488.

bezau = ezi, menderatu; *jarki* = aurrean jarri, oponerse; *guenean* = azkenean; *batzaldu* = batu, bildu; *ixukoja* = izukoia, izugarria (ikaragarria); *urgazi* = lagundu.

49. ABERTZALE EZKONDUBA ESPETXIAN

Ezkon samura,
Ezti gozua,
Ufe-bijotza.
Akusanat atsege,
Bakar, gautegun negatez.
Uxa min utza. Ez afen! ein negar.
Eugaz lotu don of nire bijotza.

Aberi Ama,
Artu gogo onez

Malko ederok.
Ofen ganez nik eztot
Zer besterik zeuri emon.
Bozu buruban erinotz-estunik,
Ofek loratzat oritik eskegi.

Arana-Goiri'tar, S.: in *Patria*, 1904, Azilla'ren 12'garrenean.
Auxe dozu Arana-Goiri'ren azkenengo olerkia, espetxean idatzia, 1902.
urtean.

akusanat = ikusten aunat, zaitut; *atsege* = atsegin barik; *bozu* = ba-
dozu; *erinoz-estun* = ereinoz-koroe, corona de laurel.

DOMINGO AGIRRE (1864-1920)

Ondarruko Txomin Agirre andiaren idazlan bi emoten doguz:

1) «Añemendiko Lorea»: «*Auxe da Agirrereren leenengo idazlan luze ta ederra. Nobela bat da, kondairazko nobela bat... Bai gai aldetik, bai euskera aldetik, ondo josita dago. Aranakeririk ez darabil, baiña larramendikeri batzuk bai, ostera*» (M. Zárate, BEI, 126).

2) «Kresala»ren kapitulu oso bat. *Berau ei dogu bizkaitarrok «euskal libururik onenetako bat, onena ez bada... Indarra, bizitazuna, gatz, jatortasuna dario Kresalari... Bai nobela legez, bai izkuntzaren aldetik, gorengo maillako idazlana dogu; bana-banako, apartekoa»* (M. Zárate, BEI, 127).

50. EUSKAL EMAKUMEAK ABERTZALE

RIKTRUDIS-ek: O! Zer negargarria dan, Ama, gizonak, anaiak izanik, alkarregaz beti gudetan ibiltea.

AMAK: Eztakin ondo, Riktrudis, zenbateraiño dan negargarria; eztakin zein otza, zein bakarra gelditzen dan etxea, etxeko iauna gudetan dabillen bitartean! Zein luze ta tristeak izaten diran guda-eretiko orduak bakartadean dagoanarentzat! Baiña nai ta naiezkoa da gu azpiratzen datozenen kontra guda egitea. Zek dakarz gure mendietara iente arrotzak? Zer galdu iake basoan? Zer deutsegu zor? Ezer galdu badabe, emongo iake billatzen dogunean: ezeren zorrik badaukagu, emongo deusagu arpegia zorrari; baiña gure ekandu zar, oitura on da txaboletako ienteai itxi daiocla bakean: bego geldirik arrano goitarren abia, arpegiko narrua bere erpe gogorraren artean itxi gura ezpadabe ikuitzailleak; itxi geldirik arkaitz-zuloetan bizi dan otsoari, bere agin-arteaz zatitua izan gura ezpadau prankotarrak. Bizi bitez arrotzak ordu onean euren erri beietan nai daben erara; baiña itxi daiguela guri gure baso-errian. Beian betarrak, goitarrak goietan; bakoitza bere tokian.

Emongo emakume bakotxa leoi eme aserratua baiño ase-
rreago iarten da erbestetar gudariak ikustean. Biotzean nai-
gabea ta begietan malkoa dodazala, neuk, Riktrudis, neuk

berotu ditut askotan etxe onetako gizonak erbestetarren kontra ioan eitezan; neuk, emakumea, emaztea, gurasoa, Ama izanik!, neuk biraldu ditut prankotarren kontra neure senar maitea ta neure seme kutunak.

RIKTRUDIS-ek: Arriturik nauka, Ama, zuk Euskal-Erriari izan deutzazun maitetasunak.

* * *

RIKTRUDIS-ek: (...) Guda bat beti da txarra, ta askozaz txarra-goa zuzenbidetik eztatorrean.

AMAK: Da ik, beastun bagako usakumetxoa, zelan dakiñ guda bat bide zuzenetik noiz datorren? Ori gizonak erabagi bear daben gauzea da, ta emakumeen iritxia iakin bear balitz, irea baiño lenago da eure Amarena, ta neuk esaten deunat bein bere eztala bide txarrekoa euskaldunak prankotarren kontra asten daben gudea. Riktrudis, ik gaur egin donan lango gauzarik eztau beste emakume euskaldun batek bere bizian egin. Esango daroe eztaukanala ik eure zanetan erako gure mendiak, gure izate ta izkuntza zarraren alde il ziran anaia erri-zaleen odola.

Andre Luziaren itz-zaparrada guztia irri-barre gozo bategaz entzun eban Mendiolako alaba bakarrak. Baiña bere amak azkenengo itzak esan zituanean, aingeru zora-garriaren arpegia gorritu zan bat-batera, bere begiak mal-koz bete ziran, bere biotza mugidaldu zan, da leiñargitasun benetakoaren esanakaz erantzun eutsan bere Amari:

—Ama, ori esaten badabe, eztabe ondo esango. Beste edozeiñ emakume bestean euskalduna naz ni: neure zanetan neure anaia maiteen odola daroat, Mendiolako etxeo andrearen odola: ez neuke bildurrik izango euskaldun guztien aurretik, Aitaren orde zedo Aitagaz batean, neure erriko etsaien kontra, aizkora bat eskuan dodala ioateko, gure lurra, gura izkuntza edo gure izatea zematuz baletoz; etsai ugariak ikusiarren nire aurrean, ezlitzateke orduan ikaratuko nire biotza, ez neuke dardararik izango nire besoan iende arrotzaren buruak erdibituteko: nire gorputz edo arimako bizia kentzera baletoz, nik geien maite nai ditudan arimako ondasunak ostuteko gogoak balekarrez, guda zuzenean iokatuko genduke; baiña eztago gaur, Ama, olango gauzarik: gizon gaizto batzuen bidebagako andi-nai

izateak edo beste batzuen kurruka-egarriak, aspaldietako ikusi-eziñiak, edo norbaiten umekeriazko ezta-baidak, autsar-tean ia estaldurik egoan su kaltegarria barriro biztu nai dabe. Ta ori ezta ondo: gudara ioan bear da, guda egin bearra nai ta naiezkoa danean, da ez batek edo bik bere griña zatar guztiai asete bat emon gura deuseelako. Orre-gaitik, Pedro Mari-ren bitartez esan deusat Aitari, gure arimen bakeagaitik, anaia prankotarren kontra eztedilla asi, oraingoan beintzat.

Bere alaba ederraren begi ederrak malkoz beterik ikusi zituanean, andra Luziari biotza samurtu iakon, damutu iakozan esanak guztiak, laztanka asteko gogoa iator-kon, bere zeregiña alde batera itxi eban, da, arturik bere iarrilekua, narraska Riktrudisenganaifio eroan eban.

Aguirre, D.: *Auñamendi-ko Lorea*⁸, San Sebastián, 1966, 20-22, 26-28. Leenengo argitalpena Bilbon egin zan, *Buskalzale* aldizkarian, 1898.urtean.

ereti = une egoki; *beaztun* = hiel; *mugidaldu* = errukitu; *leñargitasun* = nobleza; *kurruka* = gorroto.

51. BEDAR TXARRAK

Kitolis, Mikol, Peru ta beste lagunak egozan aterpetik urretxoan, nasa gañean zutinik, ondo jantziriko bost gizon ego-zan, alkarregaz autuan, eguzki epela artuaz batera.

Iskillos edo *armadura* zan bat, *kontrabandoa* galerazoteko Arranondon egozan beste armadunen burutzakoa, ta erdalerrikoa bera, zer esanik be eztagota; bizardun baserritarra beste bat (*Indianoa* esaten eutsien), Ameriketari aberastua, ez erderarik eta ez euskerarik ezekian mutil zarra, zerren aztu egin jakon bata ta bestea ezaban ikasi, baña bere buruari asko eritxon arro andia, siñiskorra ta siñisgaiztokoa, beren esakera nastau, mordollo ta gatzbakoak gauzarik adiutu ta zapalgarrienak legez astiro esaten zituana; Arranondoko dendetan oialak saltzera, lantzian bein, Bilbotik etorten zan gazte polit, guri, buruarin-txua beste bat; itxasoetan luzaro ibilliriko ontziagintari azkor zintzo ta bizia beste bat, kondaira onen asieran itxas aurrean ezagutu genduana; ta bostgarrena, besigu, atun, sardiña ta enparauak maneaten zituen lantegiko nagusia, erdalduna au be.

Arranondon lanik gitxien eukienak legez, or da emen alkar billatu oieben da alkarregaz egoten zirean sarri, oial saltzallea ez besteak, eta au be bai areikaz, Arranondon zanean.

Gure Itxasgizona bekoki baltz samarrekoa zan, itz latzekoa batzuetan, biotzean eukan guztia erraz kanpora botaten ekian gizona, edozeñi egia andiak esaten eutsazana, bear zanean; baña oso arima leñargi ta onekoa. Aserre zalea izan ezarren, Euskal-erriari edo Elizeari ikuturen bat iñok egin ezkerro, aserretik urriñean etzan ibiltan.

Lelo, zio edo gai orregaitik, au da, Elizeari ta Euskal erriari bakean ezin itxi eutsielako, Itxasgizonak askoetan emon eutsen min beragaz batuten zirean erbestetar edo erbesturiko batzuei; baña alan da guztiz be ezeben beragandik iges egiten, maite ebielako, edo dirutsua, Arranondon guztiz ondo ikusia ta esku-bide andikoa zalako.

Bost gizonok erderaz ziarduen, baña nik euskaldunentzat egiten dot neure lantxo au ta euskeraz ipiñiko dot beren jardun guztia.

—Nik eztakit —ziñoan Ezpatadunak, zeñen aurrean egoan azturik nunbait— ze *deabrusko* eresiak esaten dituen or barruko astuok euren txakur-izkuntza orretan.

Itxasgizonak, arpegia beingoan illundurik:

—Etzeunkan ona etorri baño lenago euskerea ikastea bai-zen: dana ulertuko zenduan orduan ederto: Nik, erbestetan ibilli izan nazanean, euren izketan itz egin dautsiet erbestetarrai, erdizka ta motel bada be. Etxat egundo gogoratu eurak euskeraz itz egin bear deustiela neuri.

Iskillosdunak: —Baña, gizona, zer diñostazu? Gogoratuizu, alde batetik, zuen euskera ori, erdi-izkera *ezkel* zatar bat dala, ta beste aldetik españatar guztiok gaztelarrez ikastera naita naiez-tuak gagozala. Gaztelarrez bakarrik itz egin bear da Españian da beste izkera danak osoro ta betiko kendu.

Itxasgizonak, berotuten asita: —Eztiñozu ondo, zalduna. Euskerea antxiñetako izkera-guraso, eder, mamintsu ta sakona da, atzerritar jakitun askok dakien legez, zuek jakin ezarren. Da gañera, zeñiek esan deutsu zuri nai ta naiez ikasi bear dogula guk Gaztelako izkuntzea? Eztiñot gura dabiñak ikasi eztaiel, ikasia beti dator ondo ta; eztiñot gaztelar agintariakaz Euskal erriko gauzen gañean zerbait erabagi bear daben euskaldun nagusiak eztaiel, ikasi bearko; baña euskaldun guztiok? Zeñiek

nai ta naiez itz eragingo deusku gura eztogun eran? Zer dala ta? Zeñek dauka Españian gu orretara ipinteko eskubidea? Ezkara gu izan geurekorrak eta askatuak, geure gurariz da geuk ipiñiriko zerzelada batzukaz, Españiaren laguntzat, ez mendekotzat, jarri giñan artean? Nok dauka gu makurtuteko eskubidea, diñot ostera be? Indarrak? Indarra dozue eskubidien iturburua? Bada orduan ondo egin eban Napoleonek España menderatutera etorri zanean. Baña itxi daiogun alde batera euskaldunen geurekortasun da askatasunari. Zegaitik kendu bear jako gizon, etxadi edo erri bati beren endako itxurea, beren aberastasuna, iñoren on barik? Zegaitik kendu bear jaku guri geurea? Ezta naikoa norbere lurrean daukagun ondasuna ez ezagututea; ezta naikoa, alperleri ta nagitasunagaitik izkuntzarik zarren da maitegarriena ez ikastea, arrotzak ikasi oi daben legez; ezta naikoa bazterturik eukitea, enzun bere ez gura izatea; il da lurperatu egin bear da gañera? Eztozue zeuek bandera oial da burdin zarrak gordeten gertaera on batzuen gomutagarri legez, edo zeuen asabienak diralako beste barik? Bada zegaitik itxi ez guri zeuen da geure asabien izkuntz ederra mendi tartean gordeten?

Iskillosdunak: —Etzaite aserratu, gizona; baña jakin eikezu euskereak ezabela zuk uste dozun aña edertasun.

Itxasgizonak: —Zuk zelan dakizu, euskerarik ikasi ezpa-dozu?

Oial saltzalleak: —Neuk be eztot ikasi. Bilbotarra izanarren, gurasoak ezeusten erakutsita; baña eztot damurik be. Euskalerritik kanpora euskerea ezta ezertarako, ta Euskalerrian bertan edozeñek daki gaur gaztelarrez.

Itxasgizonak: —Zuk euskerea ezjakiñagaitik damurik ez zatea, mirarituteko ipuñia ezta. Zuek, bilbotarrok, antxiña galdu zenduen asabien izkera biguna ta antxiñatik zagozie erdaldundurik; eta gañera, zuretzat, sal-erosketarako ona eztan gauzea ezta iñoiz be ona izango (Zeuk saltzeko gauzea balitz, ederrenetakoa dala be laster esango zenduke zuk). Baña jakin eikezu, lenengo, saltzailientzat onak eztiran gauzarik asko badagola lurrean, da bigarren, geure euskerea eztaukagula saltzeko. Euskal-errian barriz edozeñek itz egiten badeutsu erderaz, ainbat gaiztoago: neu *dendaria* banitz, ikasi bearko zendukie euskeraz, oialak eta enparauak eskiñika zatozentxuok.

Indianoak, kukurruku egitera doian ollarrak legez burua jasota, sudur azpiko bizarrak kiskurtuaz, guztiz astiro ta benatsu:

—Neuk esan neike iñok baño obeto, lur asko ikusi ditut eta: euskereak eztau ogia irabazteko *balio* (Yo puedo *desir* mejor que nadie, porque *ha visto muchos* tierras: *bascuentze* no vale para ganar pan).

—Zelan irabazi dozu ba zuk geldotzar orrek? Erderaz jardun ederren batzuk egin da? Ezagun dozu.

—Nik neure ogia lan gogorrean da ondo irabazita daukat.

—Eztiñot ezetz, baño lanean egiteko eztoz uste euskereak kalterik egingo eutsunik, eta erdereak indar andirik emongo eutsunik bez.

Baserritar bizardun edo *Indianoari* zer erantzunik etxakon .
otu, Ezpatadunak eta Oialsaltzalleak ezeben ezer esan gura Itxasgizona aserratu etzedin, da guztiak ixillik gelditu zirean apur baten. Bitartean aterpekoak baziarduen eginaletan Berrio-Otxoaren bizitzea erestuten, da lantegiko nagusiak gure Itxasgizonari itandu eutsan:

—Jakin leike zer diñoen or barrukoak?

—Bai, gizona, bai: len Amar Aginduak erestu ditue, itz neurtuetan; orain, Berrio-Otxoaren bizitzea.

—Zein zan Berrio-Otxoa ori?

—Abade egin da laster pralletegian sartu zan elorriotar gizon done bat. Apezpiko edo Abadeartzain izatera eldu zan gero, ta Jesusen siñistea zabalduten ebillela, Tonkinien kendu eutsien burua, ezpateagaz.

Lantegiko nagusia: —Ba, ba; abadien gauzak.

Baserritar-bizardunak: —Orixe bera, emen eztago besterik.

Ezpatadunak eta Oial-saltzalleak: —Egia da.

Itxasgizonak: —Eztakit abadienak diran edo ez aterpekuok erestuten dituen itz-neurtuak. Emen, euskeraz, edonok eta edozer gauzen gañean daki itz neurketan, buruz da erre; guztiz egoki ezpada be, erestuteko erara beintzat: naiz Elizako erakutsien gañean, naiz errian izan dan gertaera bategaitik, naiz erramuetea, idikitea, aizkoraketea edo pelota jolasa galdu edo irabazi dalako. Ta edozelan be abadeak egindako itz neurtuak erestuteari obeto deritxot erdalerritik erakarten dituen itz zikin nazkagarriak dea-darka jarduteari baño. Ezteritxazue?

Indianoak: —Bai, baño eztabie gauza danak abadeak era-kutsitakoak bakarrik izan bear.

Itxasgizonak: —Eresiakaitik badiñozu, len be esan dot eta bigarrenean diñot edozeñiek *atereak* izan oidirala: arrantzale bat da naikoa, beragaz ezkontzeko egoan neskatillea beste bategaz ezkondu bajako, itz neurtu batzuk neskatilla orren kontra berealako baten egiteko.

Indianoak, Itxasgizonaren esanari jaramonik egin bage: —Jakituriak iturburu on asko daukaz.

Itxasgizonak: —Estu estuan ezetz esango neuskizu. Orain, ikasbide asko dagozala esan nai badozu, ori egia da. Baña, abadien etsai zarean ezkeru, erantzuidazu: zeñiek daki eurak baño geiago Arranondo lango erritxuetan? Nok erakutsiko deusku zerurako bidea eurak ezpada?

Indianoak: —Niri ezteustie egundo ezer erakutsi.

Itxasgizonak: —Siñistuten dot: zuri ezteutsu iñok ezer erakutsi, ta gañera zeuk be eztozu egundo ezer ikasteko burubiderik artu. Alan zara zarean langoa.

—Txarra, ezta? Kanpoetan zerbait ikasi dogun guztiok gara txarrak zuentzat.

—Ori ez, txotxo, ori ez. Kanpoetan ikasiak ezagutzen ditut amaika, ondo Jaungoikozkoak eta euskerazaleak. Zu ibilli zarean lurlean, Ameriketan bertan, badira Begoñako Amari elizki ederrak egiten deusiezan euskaldunak, eta euren jaioterriko mintzoerea guztiz maite dabilenak. Ez gitxi gero, asko baño. Bizibearrak eruan zituan urriñetara, baña euskaldun bizi dira ta euren biotza Euskal-errian daukie.

Ezpatadunak: —Baña egia esan gura badeuskuzu, gu be zuk gaiztotzat gaukazuz.

—Nik ezteutsuet zeuenetik ezer kendu gura, ta orregaitik esango dot zerbaiterako onak izango zariela. Batori, legezkoa dana (edo legezkotzat daukazuena bada Euskalerrian egiten dozuen ori ezta legezkoa) legeak diñoana ornidu barik iñok ezer ekarri eztaien, errien mugarri ta itxas inguruak zaintzeko; besteori diru pilloak ortik edo emendik laster irabazteko; besteori, or nunbaiten egiñiko oial mengelak ingeles oial sendotzat emoteko; beste au, erriko arrañik merkiena oriotan zerbait erre ta erbestean diru andiagaitik saltzeko. Orretarako onak zarie, baña ez Eliza Donearentzat eta Euskalerrarentzako. Siñisterik eztaukien gizonak, izketa, ekandu ta erakuste gaiztoak erakarri oi ditue errietara; ta zuek, *gizon argi jakintsuok*, eztaukazue siñiste onaren izpirik. Beste aldetik barriz, gure izkuntza, oitura ta

izateko crearen arerio diranak, geure areriotzat daukaguz, da zuek ezin entzun dozue gure izkuntzea, gure oiturak ta izakerea ezin dozuez ikusi: orregaitik begiratuten deuntsuegu gure arerioari lez. Erbestetik ekarririko aziagaz emen ernetako bedar txarrak zarie zuek.

—Danok?

—Zuek bai, zuetarikoak ez, Jaunari eskerrak.

Era onetako esate gogorrak bere aotik entzunarren, itxasgizon zarraren lau entzuleak koipekeri andian da irribarrez egozan. Irribarrez kanpotik, barruan zer erabillen ezta kigu baña.

—Zure gauzak —zirautsien *zigarro* bana eskeñiaz.

Urren egoanari bat artuta obeto lotuten egoan bitartean, arras tixiotuaz joan jakon *Indianoa*, ta Itxasgizonari esan eutsan belarrondora, euskeraz:

—Zu abadeakaz abadetuta zagoz.

Da besteak Indianoari:

—Ta zu abereakaz aberetuta.

Itxasgizonaren zirikadea ezaban Indianoak ulertu. Aberea zer zan ezekian. *Animalia* esango eukean berak eta...

Agirre, D.: *Kresala*, Arantzazu, 1976^s, 99-106. Leenengo aldiz *Euskalerrria* aldizkarian argitaratu zan, 1901 urtean.

nasa = muelle; *autu* = barriketa, alkarrizketa; *adiutu* = egoki; *azkor* = bizkor, zoli; *maneatu* = gertau, prestatu; *leñargi* = noble; *lelo* = estribillo; *zio* = motivo; *beren* = euren; *ezkel* = oker, torcido; *zerzelada* = detalle; *enda* = casta; *benatsu* = formal, serio; *elizki* = elizkizun; *mintzoera* = berbeta, izkera; *mengel* = efimero; *izpi* = rayo, pizca; *arrasta* = fósforo (Ondárroa).

JUAN MANUEL ETXEITA (1842-1915)

«*Etxeitak darabilzan gaiak eta euskera errikoiak dira eta ulerterrezak. Urte asko kanpoan egin ditulako edo, erderaren jostakera darabil, noizik-bein. Garbikeri txipristin batzuk bere agiri dira bere idazlanetan*» (M. Zarate, BEI, 119).

Jose txo eta Jayoterri maitia-ren zati bana eskeintzen doguz: bion arteko antza ta ezbardintasuna argi ikusten da; bigarrenaren alkarrizketea ere aztergarria dozu.

52. JOSETXO UMETAN

Ondartzarik urre-samar egoan Lamiaran eritxon baso-etxe bat, eta etxe onetan egozan Jose txo-ren adin inguru mutikotxo bat eta onen arreba zerbait zarragoa: onek joaten zirean sarri Ondartza-ra, Jose txo-gaz olgetara edo jolastutera. Mutiko biak kaltzak jantzi ebezanean, joaten zirean urruntxo, bide, solo ta basoetatik, euren jolasaldietan, Axeri txakurtxo lagun ebela: askotan, jatorduetan, etzirean agertuten etxera, ta billatu bear izaten zirean etxeratzeko. Bost urte igaro jakezanean, asi zirean joaten itxasertzeko atxetara ta batuten ebezan itxas-marraskillo polittak eta karramarroak: sarritxo joan oi zirean etxera, itxasertzean da atxarteko osifietan soñeko guztia bustirik: jaten ebezan zugatzetatik jausten zirean sagar gordin gogorak, gastañak edo intxaurrak eta edozer janari osasuna galtzekoak, eta alpe-riik zirean Txomiñ-ek eta emazteak egitten eutsezan agirakak.

Jose txo egoan ekanduta berak nai eban guztia egitten, da aserre-aldi gogorak izaten ebazan bere gogamenak egin ezik; baña agiraka egitten jakan, osasuna galduteko arazoetan da arriskueta ebillenean. Txomiñ-ek maitte eban, baña noizik-beiñean berotuten eutsazan eperdi aldeak eta zuzenduten eban zerbait egun batzuetarako, baña umeak beti ume, ta Jose txo laster joaten zan ostera lengo arazoetara.

Okerkerien urrengo, Txomiñ-ek nekaldu nai ebanean, lenengo besoan artuta abesauten eutsan:

«Zeu zara laztanena,
 Josetxo gurea,
 Negarti eta geizto
 Zatozan umea.
 Eztotzut parkatuko
 Olan izatea,
 Sarri berotukotzut
 Eperdi aldea.
 Alper izango dozu
 Negar egitea,
 Ederrak artukozuz,
 Bai, neure maittea.»

Abesti onen urrengo astinduten eutsan eperdia zigorrada-
 txo bategaz, zerbait zuzendu eittean.

Bekian Josetxo-k, aittak abesti ori abesau ezkerro, zigorra
 ebana ganean, da era batera asten zirean biak; bata abes-egitten,
 da bestea negarrez; baña geiztokeri andiren bat egin ezik, aittak
 ez eban iñoiz joten. Ikasbideaz biurtuko zan goiz edo belu
 apaltasunera.

Juana Mari-be, senarrak Josetxo-ri abesti ori abesauten
 eutsanean, biotza taupadaka ebala jarriten zan bilddurrez la-
 rregi nekalduko ete-eban, da esaten eutsan:

—Txomin, Jaungoikoa-gaitik ezeyozu miñik egin: orrek
 egitten dittuan gauza guztiak umekeriak dira, ta umeak ezin
 leike egin besterik: bakizu mutiko ori guztiz ona dana, ta erruki
 dot zigortuten dozun bakotxean: neu joko baninduzu-be, eli-
 tzakit min geyago egingo. Bakit, Txomin, berorren onerako di-
 reana orrek nekaltasunok, eta ikasbideak gaztetan irakatsi bear
 direana, baña biguntxoago erabilli bear dozu, Txomin, zigor ori.

—Juana Mari, berbalari zagoz goizeon, mutikoari eperdia
 berotu deusadalako: ondo dakizu zelan zugatzak gaztetan zu-
 zendu bear izaten direana; gero ezin leitekez zuzendu, ausi baga.
 Nire zigorradak ezteutse miñik egitten, ezpabere okerkeriak
 egiteko bildurra artu-eragin. Artuizu eroapena, ta egon zaitte
 ardura barik, Juana Mari, nire burubideak eztabe iñoiz naiba-
 gerik ekarriko: bakit mutikoau guztizko ona dana, baña, olan
 da guzti-be, gaztetan artu bear jako ardurea ekandu onetatik
 aldendu ezteitean, da egunen baten atxetatik edo zugatzen ba-
 tetik jausitta il ezteitean. Zelanbait kendu bear jakaz ekandu
 txarrak, etxera naibagerik ekarri eztayen beretzat eta geuretzat:

beste jolasetan, berari ez ifiori atsekaberik ekarri ezin leitekeanetan, ibilli deitteala berak nai daben legez.

Etxeita, J. M.: *Josecho*, F. Elosu, Durango, 1909, 29-32.

marraskillo = caracol; *nekaldu* = zigortu, castigar; *abesau* = abestu.

53. AGATON-KORKOTX ETA DOROTE

Badaki irakurliak Agaton'ek maite ebala Dorote gaztai-saltzaillia, ta onek ez ebala nai ezkondu mutil orregaz, korkotxa zalako: gogaituten egoten zan beti Agaton, bere lepoko tontorra ta Dorote'ren eratzupena gomuta ixaten ebazanian. «Zer ikus-teko nago, emazte ez ume barik, mutil-zar zartzara eltzen banaz?» esaten eban bere artian. Baña onek gogamen itzalok buruban erabilli arren, artaldiaz mendira juanian, zoli joten eban alboka-soñuba, bere artzain lagunen zantzuai erantzuteko.

Dorote, sapatu guztijetan juaten zan Besterretxe'ra gaztanyak erostera: Agaton zan otzaragillia, ta etzeko atarte edo atarijan egoten zan geyenian otzaragiñen, Dorote agertuten zanian; eta ara eldu zan baten esaeutzan guztizko gogargijaz:

—Kaixio, Agaton! zelan abil, mutil?

—Ni, eure erantzupenak goguan yuadazala nayabiln; eta zetan ago, Dorote, bayetzian ala ezetzian?

—Etxakijat, Korkotx, zer esan-be; leunduik apur bat tontori, ta orduban erantzunguat.

—Gangoiti mendija leundutia errezago don, nire lepua egitia baño. I gaztayan eta ni otzaren salerostiakaz, diru asko irabazi, ta ondo bixiko gozan: datorren astian egingonat otzara polit bat; polit-polita gero, gaztanyak erabilteko, ta beti ezetzian egon бага, ikusi biar yonat bayetzera biurtuten-azan obari orregaz.

—Zer? Biurtu zetara? Jakin eikek nire gogamenak eztirala aldatzen otzara bategaitik, ez korkotx baten leunketa gozoakaz!

—Dorote, eztozan gauzak neurtu ez gogoratzen; bijok ezkondu ezkeru, Ardibasò onetan dagozan etxe guztijetako gaztanyak geuri salduko yeuskubezan, eta beti eukiko yogun gaztanyak saleroste ona. Ganera, nik egingo yuadazan otzara, otar eta zimerak, emongo yeuskuben dirubagaz, alagala bixiko gozan;

batez-bere, alkar-maite bayuagu. Korkotxak maitetasun zintzuagua euki oi yuben emaztiagana; guztizko baketsubak ixaten dozan, eta obari orrek gogoratubaz, ezadi egon atzera begira; artuin nigaz ezkontzeko burubidia.

—Ez, Agaton, etxubat biar korkotxik.

—Damututia txarra ixangon gero.

—Niri damutu? bai-zera!

—Juan adi, bada, Jaungoikua'gaz, ta ezadi etorri geyago gaztai-billa, ez ezetan etxe onetara.

—Ire gurasuak emoten ezpayeustezak, beste baserritar batzuk emongo yeustezak.

—Bai-ba, juañ-adi nai donan lekura: etxonat iñoiz jakin iñor abuyatzeko ekandubak daukanazanik: korkotx gora ta korkotx bera, berba guztijetan, ni abuyatzen ixan non eure berbetea irrigarrijaz.

—Ez adi aserratu, Agaton berba orrekaitik; «txantxetan» esan yuadaz-ta.

* * *

Guztiz aserre lotu zan Korkotx, Dorote'ren berbakaz; nai-bage andijaz, geyago beragaz berba egiteko gogo бага. Agur egin eutsen alkarri gogillunakaz, ta juañ zan Dorote bere bidian.

Agaton'ek jarraitu eban egunaro artaldia mendiratzten, eta beste artzañen zantzuai alboka-soñubaz erantzuten: Dorote-ri eutsan maitetasunari burutik alde eragiteko alegiñak egiten ebazan; bein alboketa jotzen, bestian Artzain-abestijak abesauten eta etxian otzara-giñen; edozein lan edo asmu artzen eban, Dorote aztutiarren.

Baña Dorote urrengo sapatuban-be Basterretxe'ra juañ zan gaztai-billa, ta Agaton'ek esaeutsan:

—Dorote, emen etxagon gaztairik, korkotxa baño, ta juañ adi nai donan lekura.

—Ene semia, ondo aserre jarri az, nik «txantxetan» esan neuazan berbakaitik.

—Ago ixillik, eskubetan daukadan otar au burutik-bera sartutia nai ezpon.

Echeita'tar, J. I.: *fayoterri mailia*, Durangon, 1910, 58-61.

korkotx = jorobado; *zartza* = zaartzaro; *otar* = cesto. *zimera* = cestilla; *alagala* = oso ondo; *obari* = bezuza, erregalia; *burubide* = erabagi, resolución; *abuyatu* = despreciar; *abesau* = abestu.

BUSTINTZA'tar EBAISTA «KIRIKIÑO» (1866-1929)

«KIRIKIÑO dogu gure bizkaierazko euskal literaturearen gatza, umorea; berau dogu gure euskaldun izatearen alderdi barregarria erakutsi deuskuna, gure erriaren zuertasuna ta zorroztasuna agertu deuskuna, erritik bertatik artuta... Zelako alkar-izketa bizi ta jatorrak darabilzan!» (M. Zarate, BEI, 149. 151). «... bere aldiko euskaldun analfabetoak irakurtzen jarri zituen idazlea» (M. Zarate, E. L., II, 61).

Iru «abar» autatu doguz, Kirikiñoren idazle-nortasuna erakusteko berebizikoak, etnografia aldetik ere aintzat artzeoak.

54. ARATOSTE

Mutiko soster pillotxo bat agiri da, obeto esateko, eskutaten da berezi-barruko ikeztoui-zuluan.

—Mutillak, gaur aratoste dok, eta koko jantzita juan biar yuagu errira.

—Ederto asmau dok.

—Ori, ori!

—Aupa mutillak!

An da poza koko janzteko. Zuzendu dabez nundik edo andik zapi zar batzuk eta papel zati andi batzuk; norbaitek, etxera-ostera bat eginda, ekarri dau aril bat amari ostuta edo.

Zapi zar ta papelok banandu dabez, amaika agiraka ta asarre alkarri eginda gero; begijetarako zulotxo biña egiten dautsez, ta kokote-aldian ari puzkategaz lotuta, egin eta jantzi dabez karatula dotoriak.

Gero, arkondarea praken ganetik imiñi, txapela ta jakia itxulijetara jantzi, praka barrenak toloztu ta jaso ija belauneta-raño... ta orra kokomarro jantzita nire erriko mutiko koskorrok.

Eurok baño obeto marrotuko dira urijetakuak; baña iñor ezta ixango pozago, jantzi polit-ederrak erabilli-arren.

Arek egiten dabez barre algarak alkarri begiratuta!

—Mutillak, ikusiyozube oni arkondarea. Laster ezautuko abe i, txarrito ori.

—Euk al daukok garbiyagua, zotza lakoxe txanka me orrekaz?

—Oni barriz karatuleak ezin yautsok artu arpegijaren erdija be ain yaukok aldaba andija!

—Aituok, i, barritsu? Eñeukek trukauko ba ik dauton gaztaña txikol orregaitik.

—Barriketak itxita tirozube, gayuazan errira.

—Gaur atso gustijak ikaratu biar yuaguz.

Piperpote utsitu batzubetan arri koskorrak sartu ta zarata eragiñaz abijau dira noz-edo-noz oyuka ta santsoka.

Euren bidian lenengo aurkitxen daben etxe-ondoko errekatxubaren ertzian eskaratz-tresna batzuk dagoz legortzen, garbituta gero; artzen dabez andik sarten bi ta mazkillu bat, onek be zarata egiteko, ta abarrots andijagaz sartzen dira errijan.

Iñun katurik ikusten ba'dabe arrika egiten dautsoe, katu-karraixi andijak eurak egiten dabezala. Txakur gustijak arrapaladan duaz igesi etxe-ostietara edo etxe-barrubetara, al daben lekura, andik asten dirala ausika ixildu barik bildurrez. Batu yakez etxe-artian olgetan ibilli diran erriko ume txiki gustijak, eta danak batera jarraitzen dabe.

Arrapau dabe, geruago, errota-osteko gaztañadijan belarri andidun asto zar-zar bat; igon yako bat bizkarrera, ta bai-dabilz poz-pozik alde batera ta bestera, itxita aurkitxen dabezan ate gustijetan arrika ta makillaka zarata andijak atararik.

Atso gustijak barre santso baten dagoz eurai begira, bixi-bixi ta pozik daukezela euren begi tximurrak, eta agin lokaren bat edo beste agiri yakezala euren abo sartubetan.

Baña ludi onetan poz iraunkorrik eztago, eta an dabillan pozak be egundoko arriñen alde egiten dau.

Iñok igarri barik bertaratu dira, alde batetik errotarija bere astuaren billa, beste aldetik sartanak eta mazkillua artu dabezan etxeke gixona bere tresnaen eske.

Kokoteko bi galantak artzen dauz asto-ganian arro-arro dabillan *saldunak*; eta tresnakaz dabiltzanak, baita beste enpa-

rauak be, artzen dabez ostikada ta zapladako *desentiak*... eta ortxe amaitu da gure erriko aratostietako poz gustija.

Uxatu ta sakabanatu dira mutiko koskortxuok erri baste-rretara, imiñi dabez jantzizak egunoro lez, ta kitu.

Itandu egiyozube mutiko onei aratostietan olgau diran ala ez, ta erantzungo dautzube albuak minduta daukezala ondiño barriaren barriaz.

Ez Bilbao'n, ez Paris'en, ez Niza'n, ez, iñun eztira olgau mutiko koskor orrek baño geyago.

Gixon egin daitezanian be gomutauko dabez eurok aratoste egunetako jazokunak. Errotarijaren kokotekuak eta beste gixonaren ostikadak eta zapladakuak euren bixitxa gustijan pozarren gogoratu yakez.

Poztasuna eztago onetara edo orretara jantzitian, asko edo gitxi eukitian; poztasuna norbere barruban dago; norbere go-guan.

Bustintza'tar Ebaista: «Kirikiño»: *Abarrak*, Abando, 1918, 56-58.

aratoste = iñauteri, carnaval; *mutiko soster* = chicuelo; *koko jantzi* = marrotu, disfrazarse; *aril* = ovillo; *karatula* = máscara; *itzulijetara* = itzulietara, al revés; *txikol* = erizo hueco de las castañas; *mazkillu* = esnea egosteko galdara; *abarrots* = zarata, zalaparta andi; *arrapaladan* = galapan, korrika; *sakabanatu* = dispersarse; *jazokuna* = gertaera.

55. URTEBARRI BARRI

Ene irakurliak, azaldu gura dautzuket nire baserriko ekan-dutxu bat, ara:

Or duaz estartea gora mutil koskor batzuk, txor-txor-txor, gustijak batera barriketan, une bakartxu baten be ixiltzen ezti-rala, musturrak gorri-gorri otzaren otzaz, ofietakuak eta praka-barrenak loi-loi eginda lupetzez.

Eltzen dira basetxe baten aurrera ta:

—Emen kantauko ete yuagu, mutillak?

—Bai bein! igaz be emon yeskubean da...

—Tirozube ba.

Erreskadan jarten dira, ta ben-ben, gauza andiren bat egiten ba'liñardube lez asten dira:

«Urtebarri barri
daukonak eztaukonari
nik eztaukot eta niri
emoten eztaustana...
¡txarri-belarri!»

Orain arteko abesti au euzkeraz dago, ta zer-edo-zer esan gura dau; baña emendik aurrerakuak erdi euzkeraz erdi erderaz esaten dabez, ta zentzunaren apurrik eztauke, tentelkeri utsa.

«Don Nikolas caramelo
konpesore Mariandrés,
alarguna dontzellia
cantaremos alegria.

Lau ventana bost ate
sei etxe ta subete
si si si
no no no
otzara bete solomo.

Aingeruak gara
zerutik gatoz
una limosñita
porramor de Dios,
aquí estamos cuatro
cantaremos dos
¡¡agillando agillando!!
¡¡Matxin-arrando!!»

Abesti onek asmau ebazana zororen bat ixan biar; baña ezebazan iñok asmauko, abesti askoren zatijak edo-dira, mutikuak erabilli-ta-erabilli, alkarregaz nastu ta itxulastu dabezanak.

Ondo ixango litxake barrijak egin polito ta egoki, ta mutil txikijei irakatsi, ta saritxuak emon ugari eurak abestuten yator-kuzanian, poztu daitezcan, eta ekandu zar ori bere loyetarik garbituta ipiñi.

Nire erriko mutikuak eztabe ondo abestuten, baña sari andirik be eztabe artzen; gaztaña txikolen batzuk, sagar txatxarren bat, intxaurren batzuk, tremes-ogi zatiren bat... dirurik ez, orixe bai ez! an diruba baño lenago belarri bat emongo leukie. Esaten dabe, iñoz, ta eztaikit zein etxetako etxandereak bein

lukainka-mutur bat emon ebala. Orain jakixu noz ixan zan jazonen arrigarri ori; ba, ni mutiko sostorra nintzala *Urtebarri* abesten ibilli oi nintzanean, eta jamaika zaparrada jausi da ordutik on! gu baño andijaguak ziranak esaten eben eurak be entzun ebela lukainka-mutur orren ipuin ori.

Oraintsu, lengo urte baten jazo zan gauza arrigarrija, iñoz amesetan be uste ixan ezebena nire erriko mutikuak: *karameluak* emon eutsiezan basetxe baten.

Bai, eldu zan mutiko-aldratxua *Zinko* deitzen yakon base-rritar baten etxera, ta oi dan lez, abesten ekin eutsen gogorik onenagaz *Urtebarri barri*.

Euren abeskundia amaitu ebenian, agertu zan *Zinko* etxe-ko atian, barreka-barreka, ta esan eban:

—Mutillak ba... ezkozubez arrapu gauza andirik emote-ko moduan; orraitio, gura ba'zendubez, atzo Durango'tik eka-rrita ortxe daukoguzan karamelo batzuk emongo geunskixubez.

—Bai bai, artukuz bai pozik be.

Karameloen billa *Zinko* barruratu zan bitartian, mutikuak ikotika pozaren pozaz noz artu eben ba iñoz alako saririk gixajuak? ¡¡Karameluak!!

Urten zan *Zinko* esku bijak bete karameloz, ingi zuri-zurijetan ederto bilduta bakotxa, ta iruna emon eutsiezan mutikoei, barreka-barreka esanik:

—Gauza merkiak eztozak onek eta bakotxari iru emonda be, pozik ixango zarie.

Ixango etziran ba! Ondo pozik artu eutsoezan! Estartea bera bitxabalerantz joyazala esaten eben:

—Orixe *Zinko* lako gixonik garaunik be etxagok errijan.

—Olakoxe gixonak gura ñeukezak.

—Sekuleko *Zinko* dok ori gero.

—*Dies* ixatia be merezidu yok.

Onetan euretajko batek zabaldu eban karamelo-ingija ta... ¡zer zan a!... barruban marraskillo-masala eukan; bestiak au ikusirik, zabaldu ebezan ingijak, eta gustijetan eguan marraskillo-masala.

Asi ziran barre-purruztadaka alkarri begira, ta erabagi eben errijan ezeguala *Zinko* baño gixon burletijagorik.

Bitartian an agiri zan bera, muna-goyenan, mutikoeri begira barreka.

Gabonzar gabean jandako marraskilloen masakal ingi-txatal zurijetan bilduten egon ei zan luzaro, mutikoei trankart egi-tiaren.

Bustinza'tar Ebaista, «Kirikiño»: *Abarrak*, Abando, 1918, 60-63.

erreskada = fila; *ben-ben* = muy serio; *itxulastu* = dar vuelta, poner al revés; *tremes-ogi* = pan bazo; *ikotika* = saltoka.

56. TXIMISTARGI BARRIJA (Jazorikua)

Emen irakurriko dozubena lengo urte baten Durango'n jazo zan.

Merkatu-eguna zan, eguraldija illun-illun eguan; emakumetxu bat sartu zan Artekale'ko saloki edo denda baten, eta ikusirik tximistargi-makatza, apur baten argijari begira-begira egon eta esan eutsen etxeko-andreari.

—¡Ene! ¡Au da argien ederra! ¡Egundo onakorik!

—¿Gustetan yatzu, Ana-Mari?

—... bai. Polito dao kristalezko bere ontzitxo orretan. ¿Zenbat kostetan da onako bat?

—Bost errial.

—Bat erosiko neuke. ¿Nun saltzen ete-dira?

—Neuk daukodaz ementxe. ¿Gurozu bat ala?

—Bai, iministazu bat. Sekuleko ikarea artu bear daure Kosanton gureak eta mutilek, gaur gabean argi dotore au imini daidanean gure subetean.

Imini eban argi-makatza polito-polito bere zimeratxuan (zestellatxuan) eta agur esanaz juan zan Ana-Mari ona, lau urteko umiak baño gaiztotasun geyago ezeukon emakumetxu zintzuba.

Urrengo merkatu-eguna zanian, orra nun agertzen dan bera Artekale'ko denda artan, eta bai-dinotso etxeko-andreari:

—Ara ba, lengo egunean eroan-neban argi-ontzitzua etzan ona ixan edo...

—¿Ez?

—Neu pozarren eldu nintzan etzera, ta estuen nengoa gaba noz etorriko zan gure gizonok ikaratute isteko, ta esakerea dan lez «nire poza pozure» yoan zan. Imini neban argitxu au ta... len beste ilun. Burle egin eusten sano gure gizonok, esaten eurrela erretzinean alderako eztaola argirik ondioko ta... ene, enel...

—¿Fundiduta egon ete zan ba? ¿Ekarri dozu bonbillia?

—¿Zera? ¿Argi eitekoa? Bai... zara...

Saloki-andreak artu ta imiñi eban beste makatzaren leku-ban, berau kenduta, eta ederto argi egin eban.

—¿Ikustozu, Ana-Mari, zein polito?

—¡Andie da gero!

—¿Zelan imiñi zendun ba?

—Nik ba... ortxe daon lez, goiko kuartoeko untze batetik abarka-kordelaz dingilizke...

—¡Baña, Ana-Mari, Jaungoikuak parkatu daistala, letrizidaderik ezpa'daukozube, onek eztautzube balijo!

Artu eutson argi-makatza saloskari edo denderiak, eta emon eutsozan atzera bost erlak, eta iñun diran atzalgundiak (esprika-ziñuak) be egin eutsozan aditu erazoteko tximista barik, edo *letrizidade* barik denderiak esateban lez, etzala gauza argi egi-teko etxera eruandako makatza.

Ezeban ezer ulertu, ta len bestian juan zan, edo len baño txartuago, buru-barruban naste illun bat eroyalako.

Bustintza'tar Ebaista, «Kirikiño»: *Abarrak*, Abando, 1918, 70-71.

daure = dabee, dute; *subete* = sukalde; *alderako* = en comparación de.

EGUZKITZA'tar JON B. (1875-1939)

Euskal idazle ta jakintsu izan zan Eguzkitza; baña, ezagutu ebenak, izlari ta sermolari anditzat euken, batez ere. Orrexe-gaitik aukeratu dogu sermoe-zati au: eleizgizon euskaltzale sutsu baten izkera zeatz eta ardura andiz landu-garbitua, pentsakerea ta biozkadak erakusteko asmoz.

57. DURANGOKO EUSKALEGUNETAKO SERMOE-ZATIA

(...) Euskal-jai oneik Durango'n lenengoak ez dira. Orain ogeta amabost urte euskal-jai andi, eder, ospatsu, bikain eta gorenengoak egin ziran emen. Euskeraren alde ainbeste neke aitu ta ainbeste lan egin ebazan bertoko seme Astarloa, euskaltzale andi ta euskalari ospetsuari bere jayoteñi onek, or Ezkuñdi'n, aitzurdiñezko irudia eregi eutsan eta gizon argi ta langile onen gomuta onak euskaldunen gogoetan beti iraun egian, durangoañak Astarloa'ren deduz eta opaz jayak jai egin ebezan. Orain euskal-jayak batiro egin doguz eta euskerea geure siñesteant sendo, geure ekandu onetan zindo ta garbi irauteko lagun eta jagola ona izango yakula adierazo nai neuskizue.

Gauza efeza dala deritxat. Geure asabakandik aitu dogun siñiste au okeña ba'litz; jarauntziz itxi dauskuezan oitura ta ekanduak gaizto, ustel eta zikiñak ba'lira, gure eñi onek, bere euskerea galduaz, siñiste ta ekanduetan ausaz irabazi egingo leuke; baña siñeste ori egiazkoa ta ekandu oñeki zindo ta garbiak diran ezkeru, euskerea galduaz gure siñeste ta oitura onai be kaltea letoñkie. Begira zegaitik. Gogo edo arimearen ispilua arpegia dala sañitan entzun eta esan dogu; baña antziñako elendañak, grezitañ jakitunak, guk baño zuzenago, gogoaren ispilua, arpegia ez, izkuntza bai, izkuntza zala esaten eben. Gogoaren itz eta abotsen, bañeneko izkuntza ta azalekoaren aiteko inkunde ta aitu-emonak zeatz adieraztea egiñen zailtxua da, ziñez; baña bata-besteaz alkañtasun estua ta zerikusi andia daukela iñork be ezin ukatu legi.

Eta egiz, entz. mait., gure gogoak soñtutako gogapen, irudi, antz, asmo ta gurariak izkuntzaren bidez agertu ta azaltzen doguz;

baña izkuntzak berak be, gure batenean sartzen diran gogorapen, asmo ta gurari oréi berarizko jas eta tayua, izakera ta egidamu berezia aherazten dautse: augaitik edozein izkuntza ta berau darabilan eria alkafekin estu-estu lotuta dagoz, eta alkafekin estu ta eria lotuak dagozalako, izkuntza aldatzea edozein efitentzat bere gogoaren izakera berezi ori aldatzea izan oida; baña aldaketa onek, eriak asabakandik aitu dituan siñiste ta oiturai kalte baño besterik ezin egin legioela, itsua ez dan edonok dakus eta edonok daki.

Eri bakoitzak, ez beingoan, baña urteak joan, urteak etofri bere ayufi, mendu ta izakera berezia aitzen ditu. Eri bakoitzaren arpegia orixe, bere izakera berezi ori da, eta bateneko bizia izkuntzaren bidez agertu ta azaltzen dogulako, eri bakoitzaren izkuntza bere arpegi ori iragari ta erakusten dauskun ispilua da. Ispilu au kendu ezkeru, efiaren arpegia estaldu egiten da-ta, arpegi ori ikusterik ez dago; baña arpegia estaltzea siñestu ta ekandu onentzat kaltegarri dala nok ukatu daike?

Aratuztez marmo janzten diranak, arpegia zamofoz estaltzen dabenak zer egiten daben ondo dakigu. Bein arpegia estaldu ezkeru, norberak bere buruari ta aurfekoei zor dautsen lotsea, bertatik galtzen dau: augaitik aratuzte egunetan siñestedunak siñestebako dirudie eta ekandu onetakoak diran efitetan be griña gaizto, donge, zantaf, ustel eta zikin guztiak azalera, agirira urteten dira. Bardin, euren eria itxi, ta urifietara doazanak, geyenez beintzat, siñismenean otzitu ta ekanduetan gaiztotu egiten dirala ondoegi be bai-dakigu. Gure efitik Ameriketara joaten diran asko ta askok esan dodan ori on egiten dabe. Zer jazo ete-da? euren arpegia aldatu egin ete-dabe?

¡Aldatu asko, entz. mait., estaldu egin dabe-ta! Toki bari aetan nortzuk diran inok ez daki: noren seme ta senide diran, euren erian zer egiten eben, nogaz batzen ziran, zelako ekanduak eukezan inok ez daki, edo beintzat, guztiz gitxik dakie. Ez ezaunak dira-ta, arpegia estaldu dabela dirudi; onela euren efitetan bizi ziraneko lotsa ona be galdu dabelako, asaben siñesteari jaramon gitxi ta ekandu onai gitxiago egiten dautse.

Naiz zamofoz jantziaz naiz urifietara joanaz arpegia estaltzea, gizon bakoitzaren siñeste ta ekandu onentzat kaltegarri dala bere senean dagoanek ezin ukatu daike: baña gizon bakoitzagaz jazoten dan ori eri osoaz be bardin jazo oi da, eria gizon askoren batza edo alkafgoa baño besterik ez da-ta. Eri osoak bere arpegia eskutau ba-dagi, gizon bakoizak lez bere lotsea galduko dau. Efiaren arpegia zein da? Bere mendu, bere iza-

kera berezia dala esan dogu eta izakera onen ispilua efiak dabilan izkuntza dala ondo dakigu; augaitik izkuntza galdu ta galtze onegaz arpegia ezkutau, bere izakarea aldatu naiz estaldu dauan efiá, berarizko laguntzaren bat euki ezik, asabandik, izkuntzaz batera, áftu dituan siñeste ta oitura onak be galtzeko arísku andian dago. Asaben izkuntza galdu dau: asaben izakerea be aldatu edo beintzat estaldu dau: asabai lotsea galdu dau: ta euren siñeste ta ekanduak laga ta izteko be gauza gitxi, guztiz gitxi beaf izango dau.

Izkuntza galtzeak edozein eri bere siñesmen eta ekandu onak be galtzeko zorian ipinten dauala bai-dirudi; baña ori ofelan jazoten ete-da? Zoritxafez bai, entz. mait., ofelantxe izan oi da. Entzun ezpabe. Irlandafak euren siñesmenari eutsiten mutilak dirala; sinestean oneik baño sendoroago irauten dakianik ifiortxu be ez dagoala Ameriketán izan diran neure abade lagunai safi entzun dautset. Siñesmenez ain sendoak direan irlandaf oneikin Goiko-Ameriketán zer jazo dan entzun egizue. Orain esango dodan au *Sal Terrae*'n 1914 garreneko Urtatila'ri dagokion zenbakian irakuñi neban. Goiko-Ameriketán gure siñestea ariñen eta efezen itxi ta laga dabenak, diño *Sal Terrae*'k, euren izkuntza galdu ta ingelesena ikasi eben irlandafak izan dira. Ingeles ikasi ta gero be, euren oguzkera berezia jagon eta gorde eben bitartean, siñestean be naiko sendo iraun eben; baña euren oguzkerea be galdu, ingelesena áftu eta onein erara oguzi, esan eta idazten asi ziranean, aúfez, tutafez, irutatik bik gitxienez euren siñiskintza be laga, itxi, jaurti ta bertakoena, naste andiko guzur siñestea áftu eben. Ipañ-Amerikako irlandaf guztiak asaben siñestean sendoro iraun ba'lebe, gaur ogei miloe gitxienez izango ziran; baña izkuntzaz batera asaben siñestea be asko galdu ebelako, gaur ango irlandafen artean gure Ama Eleizeak, ogei miloen ordez, sei miloe seme baño ez daukaz.

Ipañ-Ameriketán euren izkuntzari sendoroen eutsi dautsenak, an bizi diran pantzetafak izan dira: beste arazo batzuetan englandera, ingeles-izkuntza, erabili áfen, euren artean beti pantzeraz egin dabe; euren eleizetan itzaldi, otoi, eskari, bederatzíufen, abesti edo kantuak be beti pantzeraz egin dira: izkuntza ardura andiz jagon dabe ta siñestari be beste iñok baño zintzoro ta sendoroago eutsi dautse. Gertaera ta jazopen oneik adierazo ondoren, len aitatu dodan *Sal Terrae*'k auxe diño: «Edozein efik bere izkuntza galdu ezker, bere sineste ta oiturak be efez aldatu ta galtzen ditu; izkuntzari sendoroago eutsi

ta bere asabakandiko sineste ta ekanduai be luzaroago eutsiten dautse»; baña ori egia ba-da; edozein etik bere izkuntzari sendoroago eutsi ta asabakandiko sifeskintza ta oiturai be zalago, gogofago, luzaroago eutsiten ba-dautse, Euskaleñian euskereari eutsitea, gure eri onek asabakandik daukazan sifieste ta ekandu onai eutsitea dala autoiftu bear dogu: euskerearen alde lan egitea, gure sifeskintza ta oitura garbien alde lan egitea dala bere senean dagoan gizonek ezin ukatu daike. Euskerea zeatz, osoro galdu daben erietara begiratu ezkerro, galtze au sifieste ta ekanduentzat kaltegarí izan dala berez gauza argia da-ta, inok esan bearik ez daukazue; toki ofeitan ekanduak be asko aldatu dirala; euskereak dirauan alderdian baño latz, gafatz, mergatz eta biufiangoak dirala ta griña dongeak indar geyago daukela geure begiz dakusgu.

Au egi garbia dan afen, gure arteko batzuk ez dakuse edo beintzat, ez dabe autoiftu nai; baña begietan lausoa daukagula-ko-edo, guk ez dakusgun ori, gure sinestearen arerioak argiro dakuse. Jaunak esan eban eta egia da: *Filius hujus saeculi prudentiores filiis lucis in generatione sua sunt* (Luc XVI, 8) «mundu zaleak euren asmo, garatz eta arazoetan argiaren (ebangelioaren) semeak baño zoli, zúr eta bizkoñagoak izaten dira». Euren asmo dongeetan gu baño zoli ta bizkoñagoak diran munduzale ta sifestearen etsai oneik, bat kendu barik, euskerearen arerioak izaten dira ta al daben guztian, euskereari euren gofotoa erakusita gudu gogofa egiten dautse.

Lenengo Euskalegunetako Itzaldiak, Bilbao, 1922, 123-126:
Durangoko Euskalegunetan Andra Maria'ren Jayotz egunean ospatutako eleiz-yaian Eguzkitza Jaunak egiñiko itzaldia.

aitzurdin = mármol; *jarauntzi* = heredar; *ausaz* = por ventura; *inkunde* = maitasunezko artuemon; *ziñez* = egitan, benetan; *gogapen* = pentsamentu; *egitamu* = egitura, estructure; *ertsi* = estu; *ayurri* = izakera, carácter; *mendu* = izakera, carácter; *aratuzte* = carnestolendas, carnaval; *marro* = disfraz; *zamorro* = karatuka, máscara; *oguzkera* = pronunciación; *aurrez* = eurrez, ugari; *tutarrez* = osoro, guztiz; *mergatx* = desabrido (arc.); *garatz* = negocio; *oro* = guztiak; *eortzi* = lurperatu.

RESURRECCION MARIA DE AZKUE (1864-1951)

Euskal jakintsu (orra or, beste lan askoren artean, bere Iztegia, Morfologia, Euskalerrriaren Yakintza...), euskal idazle (bizkaieraz eta «gipuzkera osotuan»), Euskaltzainburu il zan arte... Lorategi onetan, emen, Euskaltzainburu lez egindako Itzaldi baten eta gaztetako ipuin eder baten zatiak eskeintzen doguz: ondo gazterik agertu euskun Azkuek bere euskal sena ta euskera errikoi aberatsa, gerora geiegizko aberastasunez astunegitxo biurtu bajakon ere...

Bizkaierazko idazlanetan «itxi euskuzan Azkuek gure bizkaierazko literatura pitxirik ederrenetarikoak; orreitan darabilen euskerea erreza, ugaria, bizia, errikoa da; berba baten, jatorra. Izan bear, erriaren eta idazle zaarren iturritik ura edan ezkeru!» (M. Zárate, BEI, 143-4).

58. DURANGOKO EUSKALEGUNEN AMAIRAKO ITZALDIA

Euskaldunak:

Goizean Meza bitarteko itzaldi edera entzueran, neure bañuan ninoan nik: «ai nok leukean eskueran gramofonu uts bat, bera ementxe erabilteko eskubidea ta yasa! Neure lankide maite onen itzaldi auxe artuta estualdi onetan erara nasaituko nintzateke». Bene-benetan dirautsuet: bigira onen ta euskalegun onen amaitzat bere bizikoa izango genduan. Nik «euskaldunak» esanda gero, neure gramofonu beteari zotza kendu ta ederto entzungo zenduezan bañiro Eguzkiza yaunaren itzak. Tenor bati bere gora-goraka luzeak entzunda gero frantzesak *bis*, alemanak *Wieder*, erdaldunak *que se repita* esanda, bigafenez oiuragiten dautse. Iztun bati (sermolari bati) zegaitik ez? Oiturarrik eztogu ta nik gauñ bere neurez ekin bearko.

Eskeñak emotetik asiko dot neure arlo au. Biotz biotzetik zor dautsedaz, neure lagunen izenean, Bizkaiko aldundiari, auren ta azken-egunetan bere maipurukoa, lagun ta guzti, agertu dauskulako. Bigafen, Gipuzkoari, bere gizonik agiriena, Elortza jauna, geuretu nai izan dausku-ta. Irugafen, Duran-

goko udalari (ayuntamientuari) beragandik izan doguzan efaztasun ta laguntasun andien alderako. Laugarren, Jesuiten etxe onetako nagosi ta lagunai, atzo ta gaurko bigirok gizategi eder onetan izatea ontzat artuaz ganera, geuri euskalzainoi egin dauskuen abegi txeratsuaren alderako. Boskaten, mintzalari izan ditugun len aitaturiko Elortza ta Etxegarai, Manterola, Barandiaran, Ormaetxea, Aranzadi ta Belaustegigoitiari. Etxe-bafukoai eskef-itx au, ezpanetan sarien darabilen eñian (Frantzian) bere, etxake entzun eragiten. Eskerrak ganera onetan lagun egin daukuzuen musikalari duin, gai ta onetarako ta andiagoe-tarakoak zarên ofei. Eskeñak azkenez zuei guganatuaz gure asmo oni, gogo utsezkoa zala, soina (gorputza) emon dautsezuen entzule guztioi. Urte birik baten, euskalegun onek ospatuko doguzan urietan, ementxe izan dogun atera on, samur ta adikoña izan daigula.

Goizeko iztunak (sermolariak) egoki Ulibarriko Andra Mari, Durango ta Durangalde zoragañi au magalpean daukazan Ama samuñari, Euskalzaindiaren arlo amai bako au ezafi dautso. Elizgizon bati dagokion itzez bafu-bafutik dirautsuet arimargino sartua daukagula Jauna, bere Amaren bitartez, geure alde izango dogula ta gure eginenak eta gure asmo ta lan ta aleginak atze ona izango dabela.

Etxegaraik lenengo egunean Cardaberaz agurgariaren esanen au gomutarazo euskun: *Jaungoikoak euskeraren alde lan egitea nai du*. Ezagutzen nabenak baikortzat (optimistatzat) nauke. Lanean etentzaka diarduenak baikor ezpadira ¿nor besterik izan daiteke? Nagiak, alpeñak, baikor izateko eskubiderik eztauke. Ezkor izatea dagokio «eguna beioa, gaua betor» bizi danari. Bai, baikortzat nauke. Ona emen nire baikortasun onen oin bat. Aurten, neure lagun onek bialduta, Bagilaren erdi-inguruan Eñoman nintzan. Etrusko, Osko, Samnita ta inguru aretako beste eñi zar batzuen oinatzak sumatu, kusatu, yafaigi ta aztertu gurarik. Bein araezkero, Aitasantua ikusi eztauanak Eñoma ezeidau ikusten eta, Kardenal yafaigi ta ulaide baten bidez (*ulaide* Lekeitiar zarak eta *elhaire* Bayonaldeko euskaldunak ezaguna baino geiago ta adiskidea baño gitxiago dan batez esan daroe) Kardenal-ulaide baten bidez Aita santua bakarean ta aurrez aur ikusteko zoria izan neuan. Nor nintzan ta geure asmona bafi emon neñtsanean, esku biak neure buru-ganean ebazala, Jaungoiko maitearen onedaspina (bendezinoa) geure arazoetarako añarazo eustan. Gaur zortzi-añatsaldean, orduan bere lagunak bultz eginda, Aita santu-ordeagana Zarautzera

izan nintzan, euskalegun onetantxe bera, astirik baldin baeukan, berbera ikusteko guraria erakustera. Asti-urri ebilela esanaz ganera, ak bere bere nagusiak beinola legez, euskerea sendatu ta sendotu ta zabaldu daitean egiten doguzan aleginok onetsi ta bedeinkatuaz biotz-biotzez ta gogo osoz egun onetan geure artean egongo zala agindu eustan. Aita santua ta bere Nuntzioa geure alde daukaguzala, lanari zaletasun-puskatxo bat izanezkero ¿baitkor nor izan ez?

Arlo au neketsua dana, gaitza dana, izerdien izerdiz lantze-koa dana badakigu. Efaza balitz, gu euskaltzainok intzentsu-usaina artzera yoanaz, Euskaltzaindiko aulki onek emakume astitsuentzat itziko geukez. Gaiztasunik andiena ezatorkio euskereari albefietako erderetatik, ez; zâr-zâfa, urtez makurtua izatetik bere ez; liburu onez urri-uria izatetik bere ez; ez ta goietan daukaguzan, munduan bakaña dogulako ofoafen egon beafean, sasiko umea bailitzan ezkerka ta mutufez begirutzen dautsenengandik bere. Gaiztasunik andiena geu euskaldunen artekoa dau gure izkereak. Alde askotan txakur-katu bizi gara. Katuak sutan txingar-artean efearin dagoan sardinea erpeka andik atara ta zokondotxo batera badaroa, an doakio txitxi atzetik, musututs itzi nairik. Gizon ta gizon bizi bear geukea-nok tamal andia da gixon ta gixon (batzuetan, abere ta abere) alkañ gofotatzen bizi izatea. *Civis romanus sum* esanaz antxinako efomafak beste edozein gizon, zan endakoa zala, efomafa izanezik, edozein gizon gitxietsi (aintzat artu ez) ta euren biotzean baztertu egiten euen. Guñ *euskalduna naz* esanda ez tinot inor gitxietsi bear dogunik; baiña geure burua ta batez bere geutarrena maitatu bai. Uriak mugarik muga negurtzen dira efiak ez tira ofelan negurtzen. Eta Euskaleria, obeto esateko euskal luña, tofetxori batek egaz egun erdi baten zein labuña ta edauria dan erakutsiafen, Euskaleria ta euskaldunen izatera ez txorik egaz ez tramankuluk lanez, ezta *istoriak* berak bere ofi ugari ta guñti ezin negurtu daikee.

Gizonak, edozein aldetakoak, izan ta izaten dabez euren arteko asefeak. Gure efi onek len izan ebazan ta gero bere izango dauz, oraintxe dituanaz, alkafen arteko goibe, ezta-baida, atralaka ta noizbait baita ikusi ezinak bere.

Gure aurfetikoak, euren arteko auzka ofek gora-bera, ezeben euren izakerea galtzen; alkafen arteko bultzada ta mutur-joka arek (ez eizue bañe geiegi egin) euskerazkoak zirean.

Latinaren ondakintxo baino ez tirean izkeratxoak (esate-

rako, Katalana, Portugesa ta beste ainbat eta ainbat) yatorizko direan itz euren eurenik eztauken ofek efi-izkeratzat daukezan gizonak ain maiterik erabilten ikusi ta guk gure izkuntza au, naste apur batzuk eukiaren, Jaungoikoa baino beste aitarik ezagutzen etxakan izkuntza au euskaldun askoren sastartzat ikusteak arpegia suak baino bere gofiago egiten daust. Eztot onezaz esan gura erderarik eztogula buruan sartu bear. Erderarik yakin ezpagendu euskaltzaindi au etzan sortuko, munduan Akademiarik zanik bere eztakit yakingo genduan. Sartu beiz gizonak izkera asko bere buruan, zeinbat geiago oba: alkar ondo artzen dabe. Sei izkera dakizanak ezazago ikasiko dau japon-tafena, bat soil-soilik dakianak baino. Sartuizueze zeuen buruetan izkerak zeinbatgura, baina euren artean zeuen erriarena eta onek, garun-arteana bizi dala, sustriaiak biotzean izan beiz.

Edefak dira Durangaldeko mendi eskerga tontortsu ofek baiña edefagoak nonbait badazauguz: Kataluñiako Canigó ta Monsefat bai beintzat. ¿Nun ediro daikezue, ostera, gure izkera zar au baino edefagorik, bakartsuagorik, bere buruaren yaubeago danik? Atzeñietako izkelari (lingüista), onetan gure bafi dakienak, ao betean esan oi dauskue niri orain lau bat ilebete Georgiako yakitun batek ziraustan au: *Le probleme actuel au monde, le plus interessant de la linguistique c'est celui du basque.* Euskera da gaur egunean mundu zabalean izkelarientzat ikasgairik goratsuena. Eta guk gure ondasun au izkelaririk yakitunak afiturik goratzen dauskuen au ¿guk ilten itxi? Jaunak arako munduaren asieran izate guztiak ezerezetik sortu ebazanean, batzuk geien-geienak igarokor ta ilkor egin euskuzan; batzuk, ofegaitiño, oriotzearen eskuetatik atera zituan: aingeruak, gizonaren arimea ta arima oni bera, Jauna bera, goratuteko emon cutsan-izkerea. Izkerak euren ez aldakoñak doguz, ilkorak. Ilten dira bai izkerak, baina ez euren ez, gizonak itz egin ezaz il daroez. Uri ta basauri askotan il da Euskaleñian eñiari bere izena ta eus:aldunari bere mendu ta aiuri (carácter) agiriarena emoten dautsan euskera maitagaría. Etxe batzuetan efi eder onetantxe bere il da. ¿Zelan izan daiteke ori, itanduko daustazue, zelan izan daiteke alegin gitxitxogaz, eskoletan saferaginaz bizkor ta azkar ikusi daikegun izkera ori iltea? ¿Zelan izan daitekean? Badira gizon, euren gurasoai lotsea galtzen dautsenak; badira euren buruak il daroezanak; badira Jaungoikoak zerurako bide bakartzat sorturiko Elizeari iguin andia ta amuru gofia dautsenak. Ezta afigafia beraz euren yatorizko berbeteari gofoto mina dautsen euskaldunak izatea. Eztakie zer dan egiten dabena. Onelango euskaldunak eztau bere efi au maite, eztauz

bere asabak maite; ta euren izakerea ondo aztertu badaigu, eztaue maite ez izen ona ez ta euren burua bere.

Azkue, R. M. de: *Durangoko Euskalegunen Amairako, in Lenengo Euskalegunetako Itzaldiak*, Bilbao, 1922.

bigira = batzar, billera; *aldundi* = diputación; *gizategi* = areto, salón; *mintzalari* = izlari; *adikor* = afable; *etentzaka* = etenbarik; *oinatz* = lorratz, aztarna, huella; *sumatu* = barruntar; *kusatu* = billa ta billa ibili; *jarraigi* = jarraitu; *edaurri* = zabalera gitxikoa; *atrakala* = aserre, riña; *auzka* = burruka; *sastar* = basura; *badazauguz* = ezagutzen doguz; *mendu* = izakera, carácter.

59. BATXI GUZUR

Aizurdi-mendi-sorbalda-ganean luze luze etzunda, artadi itzaltsu edo gerizpetsu baten adarpean, txori baketsu askon txioakaz pozkor pozkortxu, aldauri bai dago, oillo loka batek txitak euki daroazan antzera, lau etxe beren magalpean daukazana. Aldauriari *Satika* deritxo. Beren lau etxeak *Satika goseaskoa*, *Satika beaskoa*, *Satika nagosia ta Satikatxu* dabez izenak. Uda ta negu, zein euri zein aterri, nai eguzki galdatan nai lei-antziarra buruan dabela, bai soloak galgarau-eske dagozanean da bai soloetako galburuak etxera begira egotorduan, Satikak beren leio illunak, begi baltz eder batzun gisan, itxasaldera begira euki daukaz; eta itxas-ertzean, Aizurdipeko *Santa Kata-liñak* argi-mutilla eskuetan daukala, erri polit polit polit bat dakuse: erri garbia, arraintsua baiña arrain-sunda bagakoa; *leku itua* baiña arnasaz da adorez betea: erdaldunen begikoa, baiña bizkaitar utsa; erri ikusgarri, Elizarakoi, erri maitagarria: neu iaio nintzan erria.

Labandu beiez gizonak euren miiñak, iaio terria bururatu-tuten iakenean; euki beiz bakotxak beren erriko mendietako karatxak urre-mamintzat, erroiak usakumetzat, urretxindorren kanta zolitzat beren erriko asto zaarren arrantza gortugarriak. *Bakotxak* ordu onean *beren opilari su* egin beio. Ta nik neureari su egin dauksadala iñok esan-orduko, noan noan ur-ertzetik aldatzean zear, gora ta gora. Aizurdi-mendi-sorbalda-ganean.

Sei edo zazpi umekondo egozan artadipean: batean txilioka, bestean soifuren bat ioten, bestean orra edo ona... beti iolascan da zerbait egiten. Zaarrena zazpizortzi urte-inguruko neskatilatxu bat zan, eragiña ta bizkorra, edo, beren Amak esan eroana

esateko, mutilla egiten asia. Onen urrengoa bost urte ta erdiko mutil bat zan, beronen nebea, Kose Kusto izentzat eukana: au zan Aman kutuna. Aitak neskatilla zaarrentxuari egiten eutsan begi argiena. Esatea da, Aitan antzeko alabaak eta Aman antzeko semeak izaten direala seme-alabarik zintzo ta men da zoritsuenak. Au egia bada, Kose Kusto ta arrebea bene benetan zintzoak eta menak eta zoritsuak izan bear eben: alabea Aita bera zan; semea, Ama lakoxe arpegi-zabalkote, begi-urdirin, buru-andi, arto-zale utsa. Neskatillea izaten zan beti nagosi: nai etxean Aitan aurrean, nai artadian aparika edo mainaka euren kontura iarduenean. Mutillak ezaban gogoz eroaten bera nagosi ez izan bearra. Egun bi edo iru aurrerago negarrez Amagana ioan zan baten, isilduta gero, Amari esan eutsan ea andi eginda nor izango zan zaarrago: bera ala Iñesatxu (au zan neskatillean izena). Amak barreka «Astokilo, esan eutsan, bera beti zaarrago».

—¿Eskolara dxuaten banaz be bai?

—Eskolara dxuanezkero, ez.

Eztakigu aurrerantzean zer gerta edo iazoko zan. Ordu-rarte beiñik beiñ Iñesatxu zan Satikako ume guztien nagosia: dendaka edo dendarika iolastu bear baeben, bera izango zan saltzaillea; oillo oilloka iñarduezkero, bera izaten zan oillo lokea edo Amalokea; idika, bera zan itzaifia ta itauralaria; Eliz-inguruka, Abadea; aureskuka, Piela. Berba baten: neskatillea izaten zan edozein iolasalditan guztien Buru; Kose Kusto urrengo, ta beste ume gaztetxuagoak batean burdi, bestean oillo, bestean *erroskera*... Iñesatxuk nai ebana.

Kose Kustok Eliz-inguruka *Txomin* y *Kolente* kanta edo eresten buru-utsik ibilli baiño naiago izaten eban aureskua egiten iardu. Dantzan ezaban iñoiz gogait egiten: gogoa aspertu baiño askozaz lenago gorputza eio edo nekatu ta ankaak sortuten iakazan. Ta bera zenbait gogotsuago, beren arrebea ainbat nakarrago edo gogo bageago egoten zan. Aureskua egitea zanean, Iñesatxu izaten zan Piela ta ganera txistularia. Aureskurako deia asiaz batera, nebea ain gogoz artasika ikusirik, isilduten zan, naikoa zala esan-da. Mutilak orduantxe, len baiño bere alegintsuago, berak soifua io ta berak dantzan egiten eban. Arratsalde atan beste onenbeste iazo iaken. Aureskulariaren ekiñaz asarratu zan neskatillea; ta, arako ota-suskurrak sutan txinpartak ataraten dabezan baiño bere sarratuago, asi zirean biak alkarri esaten:

—Arro putza.

—Gangarra.

—Mokoti.

—Negarti.

—Beeko zale.

—Baita i barriz Atorra zaar.

Au entzun ebanean, atorra zaardunak seiña beeganean itxi ta ederrak emon eutsazan neba dantzariari. Onek besteari atorrako dindirri batetik oratu ta tarratada andi bat egin eutsanean, «ene kaderaak ariñ egizu» esanda, arrapataka iges egin eban, arrebea atzetik iarraika ebala.

Eldu zirean onetan soloetako langileak; eta barre gogoz egin eben, ume biak alkarren leian arin aringa ikuseran. «Maridxena, atzetik dandarra daridxena» esan eutsan Amak Iñesari; ta onek kurrukaz da amurruz, atorrea erdi erditatik etenda, Aitari belarrira esan eutsan: «Aita, Kose Kustok matxingarratza dxan dau».

Aitak orduan «Txotxo» dei egin eutsan dantzariari «Kose Kusto, ator ona. Kose Kusto, gero bidzar gero ezaiz etorriko gero Ipestarrea, Santidxago-eguna da baiña».

Noiz edo noizko baten agertu zan Kose Kusto: atzekatxu, nakar, gozaga, gogo barik eta esku biak sakeletan sartuta. Aitak urreratu zanean, irri-barrezka kaiskarreko txiki bat emonda, ukabilla surretara eroanaz, «ik, txotxo, matxingarratzak dxan dozak», esan eutsan.

Au entzueran asi zan barriro Kose Kusto igesi, ta etzan gelditu, beren osaba Batxi, solotik gora etorrena, ikusiarte. Onen esanen esanaz sartu zan aparitara.

Azkue, R. M. de: *Batxi Guzur*, I, Apalaurrean, in *Euskaltzale*, 1897, 131-132.

aldauri = arrabal, barri; *euki daroazan* = euki oi dituan; *lei-antziarra* = izotza; *erroi* = bela, cuervo; *men* = esaneko, dócil; *dxuaten* = joaten (Lek.); *nakar* = gogobako; *artasi* = tijera, pirueta; *dindirri* = colgajo; *kurruka* = gorroto; *atzeka* = retraído.

IZURRATEGI^{tar} YON (1863-1938)

Elorrion parroko izandako abade onek, Balentin Berriotxoaren antzera, euskeraz egiten eutsazan bere eskuitzak ama lastanari eta, euron bidez, Jerusalemara egindako ostera baten kronika polita itxi euskun.

60. TABOR MENDITIK (VI Idazkia)

Neure amatxo maite: Lumia artzeko gogo gitxi daukot, bero izugarrija egiten dau, eta eltxuak ez dauste baketan itxiten; baña jakin daizun zure semetxoa ez dala iñoz aztuten, zugandik urin egon afen, or duaz ziriñofo batzuk.

Goizian goiz jaiki, eta zaldi gañetan zuzendu giñian Tabor mendiruntz, batian aldapan gora, bestian bera, ontxe baso artetik, gerotxuago aritza artetik, batzuek asto gañetan ezin jaraituta, beste batzuek ariñegi, zaldi bizijak ezin geratuta; nire zaldija ontxua da, jarlekua dauko estua, baña txamafia sartu dot azpijan, eta aufera noia; nire onduan datofen zaldi jaubia, ogeta lau urteko mutila, kamisa antzeko jantzi zuri bategaz dator, bernutsik, burua zapi bategaz estalduta eta kordelagaz lotuta, Eloitijoko Apostoluan antzera; nozian bein eskua luzaturik diraust «baxis», baña ez dausat jaramonik egiten, ba Juntako jaunak zaldi ordaña emon deutse. Lorentzo Dragomana eta bere semia zaldi bizkorretan batera eta bestera dabiz, zelan goazan ikusten. «Señog, ¿va usted bien? Señogita ¿se le ofrece algo?» eta batian euzkeraz, bestian erderaz erantzuten deutsegu ondo goazala, eta aufera beti eguzki galdatan. Emen topetan doguz Beduino pilo bat, arutzago beste bat, danak itxura gaiztokuak, izkilo eta puñalez armauta; beduino onek ez dauke eñirik, ez etxerik, beti dabiz ora eta ona, or ibilten diran ijitu edo motzalen antzera; ilunak edo gabak afapetan dauzan tokijan lau makila eta zapi zar batzukaz, jasoten dabe txabola bat, eta antxe atsedean egiten dabe jerukarija leku bakar aretan onen eskuan jausten dana! laster biloiztuko dabe, eta sañi il bera bai; guri ez euskuen ezer egin, asko giñialako, baña euren begirakune itzalagaz erakusten eben zelako asmuak ebezan.

Lautada bat igarota gero sartu giñian atxarte, baten, baña nire zaldija «anticlerical» egin zan, ba ezagutu eban abade bat joyala bere gañean eta ez eban zirkiñik egin gura. Afeee!.. dirautsat, eta zirkiñik bez; bai ba, ez daki euzkeraz eta ez dau zirkiñik be egiten; esaten deusat bafiro ixooooo!.. ia aituten daben, baña itz gogor eta gafatz au be ez dau aituten, eta zartada bat emoten zaldi jaubiak ez deust itxiten ¿zer egin ba? lagunak aufera duaz, bakañik ezin neiteke geratu, asafatuten naz, eta orduan zaldi jaubiak esaten dau «jhu, hu, hul» eta beste baga asten da zaldija kañadan Tabor mendi oñera arte. Emen asten da aldape luzia, aritsua, neketsua, baña ondo noia zaldi gañean.

Jesukristo'k be aldapa auxe igo eban, baña oñez eta eguzki galdatan, bere ondoren igo eben Kepak, Santiagok eta Jonek, pentsetan zetarako eroiezan mendi tontofera, edo ze asmoz eroiezan Jesusek leku bakartar aretara.

Astiro astiro emen geratu eta an jafaitu, igo neban gora. Benetan da Tabor mendi andija, biribila eta bakara, inguruan ez dauko mendirik; ba, lautada andi baten erdijan bera bakañik dago, eta ikuspen eder edefa dauko alde gustietara.

Beste eskutitzan esango deuzut emen zer dagoan eta zenbat gauza emendik ikusten dirian. Orain mezia emoten noia. Agur.

Izurategi'tar, J.: *Jerusalen osterean. Semeak amari*, Zornotza, 1923, 23-25.

izugarri = ikaragarri; *zirriborro* = apunte, borrador.

PAULO ZAMARRIPA (1877-1950)

Beste iñok baiño obeto erakutsi deusku Bizkaiko Txorierrri aldeko berbetearen berarizko usain gozoa. Izkeraz argi jatorra, esaeretan aberats eta errikoia; idazlanetan laua, gatx andi bako umoretsua... «Txibizkeriak txibizkeri, Zamarripa langoak gitxi, nai badozu euskera ikasi!» (M. ZARATE, BEI, 171).

61. BAKEA DALA BAKE

—I, Txandres, eztok entzun ezer? Alemanak bakea eskatu yok seguru be.

—Etxaok olangorik. Alemanak etxok bakerik eskatu; opetsi, bai.

—Bardin joten yok.

—Ez, etxok bardin joten. Bakea eskatuten yoanagaitik esan leik azpitik yagoala; baña bakea opetsiten yoanagaitik ez. I ta ni, esate baterako, asarratuten gozak...

—Neuk ez nayeunkeek gura, ez ni baño geyagotzat aukadala lako baña...

—Itxi eidak esaten. I ta ni, esate baterako, asarratuten gozak, eta burruka gogorrean alkarrerri elduta, jaurtiten nok azpira, ta olantxe gayagozak, i ganean ta ni azpian, ordu baten, bian, iruan, lauan... Baña beti olan ezin egon geintikozak, eta ik diñostak olango baten: «Mutil, apalordua be badok, eta ire ganean egonda ez yaukat afaririk jaterik, euk be ez gizajo orrek baña. Auzoak be ardurea artuta yaukaguzak ganera, ta euk baderitxak, burruka au amaitutzat itxiko yoaguk». Au zer dok? bakea eskatutea ala bakea opetsitea?

—Bakea opetsitea.

—Ba auxe dok alemanak egin yoana.

—¿Baña urtengo ete yeutsak ba ondo bakea opetsiteak? ¿Ez leyoek erantzun besteak bakerik ezabela gura, arik eta bera azpiratu ta indargatu artean?

—Olan erantzun yoela dok zaratea. Baña auzoak asi dozak emen be ardurea artuten, eta izan leitekeek, auzook, gudatik al-

denduta dagozan erreñuok, erantzuerari ingelesari ta lagunai jan -eragitea. Ta auzook au jadtixiten ezpayoek, alemana geratuko dok leku ederrean esateko: ¿«*Bakea*» eztozue gura? *Ba* «*kea*» atarako deuntsuet.

—Itxi egin bear kea ataraten.

—Bai, itxi egin bearko yeutsiek, bakerik gura ezpayeudiek, ba etxaukiek alemana lotuteko besteko indarrrik.

—Nik ez nayeuskiok itxiko.

—Ik ez, baña i ez ago an.

—Errusiak yaukazan mutillak, Frantziak yaukan dirua ta Ingalaterrak yaukazan tretxuak edo erramientak euki ezkerok, ¡Josus!, ¿nik itx ezer egiten orreri *salvaje* tzarrori?

—Eik berba obeto, mutil.

—Berba nik ondo egiten yoat, Jainkoari eskerrak, berba-arturik be etxaukat eta.

—Alemanai *salvajeak* deitu deuntsiek eta ori eztok ondo berba egitea, ez euskeraz ez erderaz. Alemanak eztozak *salvajeak*.

—Bai, *salvajeak* dozak.

—¡Eztozak!

—Badozak, eta euron alde berbarik egiten yoenak be *salvaje* batzuk dozak.

—Eztok esango beste bein. Obeto berba egiten ikasi dagian, eutso. ¡Dipi-dapal!...

.....
—¿Zer izan da emen, Emasi?

—¿Zer izango zan, Kontze? ¡Olangorik... ikusteko bel... ¡Zure gizona ta nirea eztira asarratu ba!... Baña, alan obeto ta, adizkidetu be laster egin dira. Orra or Martzelenean dagoz orain, bake ta adizkidetasun galantean, txikerditxu bana ardau edaten. Ezta izan ezer, Kontze. ¡Baña ikusi egiteko be olangorik!... ¡¡Andia da gerol!...

—¿Zer, Emasi?

—Bakea dala bake, burrukan egin-bearra. Esan bear deuntsat neure gizonari, bakearren, eztagiala aitatu be egin gerrako bakerik, gerrea amaitu artean...

Zamarripa, P.: *Zaparradak eta*, Bilbon, 1926, 55-57.

berba-artu = totel, tartamudo; *eutso!* = artu egik, toril = *txikerdi* = txikito erdi.

HIPOLITO LARRAKOETXEA (1892-1978)

Zeamuriko aita karmeldar onek «ederto be ederto darabil Bizkaiko euskerea, bere Arratiako usain gozo ta guzti» (M. ZARATE, BEI, 241).

Leenengo zatia, bere errian egindako sermoe batetik artuta dago, Zeamuriko izkera ta ekanduen espillu garbi; bigarrena, Erromatik bialtzen zituan kroniketarik bat dozu, bizi-bizia, orduko ta gaurko fazismoen salatzaile zorrotza.

62. GURE BASERRITARRAK

Bearra, lana, on-ona da, Yaungoikoak berak agindukoa da-ta; ona ez bakarrik *arimea*'rentzat, baita gorputzarentzat be; ur geldia lez; eragiten etxakon gorputza be usteldu egiten da. Al-perreria gaiztakeri guztien iturrie ei da; alperragana gaiztakeriek, eluliek eztire lez, yoten ei dabe.

Yaungoikoari eskerrak, alper gitxi dire erri onetan. Gitxi ordurik geyenak ardantegi ta orreitako etxeetan emoten dabezanak, ondasun eta osasunek ondaturik; gitxi etxeko ataldeetan egune emoten dabenak, bidetik doan edonogaz alper-barriketan ekiteko. Geyenak zoliek, bearginek dire, baye sarriten bear dan baño neurri geyagoan be bai urrean. Or ikusten zaituet na geyenok gau ta egun, zar ta gazte, gizon eta emakume ito-bearrean, arnas-estuke, edo zeuok esaten dozuen lez, bearren-bearrez *tragaute*. Yana, barriz, goxetan ezetariko inderrik eztauken koipe-tsue, ogi edo arto zati bategaz; gabetan sarriten beste ainbeste, ta iñoiz baño geyago eguerdien be bai, lapikokoa egiteko astirik izan eztalako. Esnerik ez, beirik eztagoalako, edo diru apurren bat aurreratutearren saldu dalako; arrautzek diru lar egiten ei dabe norberak yateko; orreik yaunen mizkeriek ei dire. Ain yan-bear andie daukien umeak be ogi-arto ta urdai-zati bategaz darabizuez *eskolara*. ¿Orrenbeste lan ta olango yanagaz ostera be erkinduko ezzarie ba?

Andie da gero zuokaz yazoten dana; kortako abereai ardure andiegorz begiratuten dautsezue zeuon burueri baño. Begiratu egie eztan. Nai ta bearren-bearrez ebaindute egon, eztozuez

zuok ifioiz itxiko abereak gosez; euren orduetan yaten emongo dautzezue; ganera, nai lodituteko nai indartsu eukiteko garaue bear badabe, garaue emongo dautsezue, karu ala merke dagoan begiratu barik. Begiratu, ba; abereak yaten ondo emoten ezpayake ez okelarik ez indarrik ezpadaukie, bardin yazoten dala gizonagaz be, ta ezteritxot bidezkoa, zuzena danik, aberea yaun eta gizona morroi izatea; eztago ondo bear bada gosez makaldutako emakumetxoak bere bizkarrean kortan mizke-mizke ta alperreri utsean dagoan astoarentzat yatekoa urrineko mune bate-tik eroatea; txalak lodi ta umeak gosakilik eukitea.

¿Baye zegaitik zabize olan? «Diru apurren bat aurreratutea-rran ba», erantzungo daustazue. Ondo da al dala aurreratutea; baleiteke edo gexorik edo zarren-zarraz bear ezin eginik egotea, ta ordureko ezer aurreratute euki ezik, egun gorriek ikusi bear; al dan giñoen seme-alabentzat be gurasoak aurreratu bear dabe. Baye guztiori zeuon osasunaren eta indarren kalte barik izan daitela. Ostantxean, edo zeuon edo ume erkiñen gexoak ain nekez aurreratuko diru guztiok beingo baten uxatuko dautsuez. Ganera gauzek azpikoz ganera ebaitea litzake, nai ta nai ez emen itxi bearko dozuezan diruekaitik osasune galtzea, bizitza onetako ondasunik andiena bera danezkero. Entzun dodanez, erri onetako gizon batek amar mile ogerleko aurreratuteko erabagie artu eban; aurreratu be egin ei ebazan, baye bere osasune ondatute; amar mile ogerlekook egin ebazanakoxe, bularretiko gatxak yota eroan eban gixajoa.

Baye ainbesteko bearrokaz eztozuela bear litzaken beste irabazten uste dot, sarriten ganoraz ta buruz bear egiten eztozuelako. Ara; bearra buruz egiteko, bearrrik gitxienagaz geyen irabaztera egin bear da. Iru orduen egin leiteken bearra iru egunean edo lau orduen egiten bada, buru barik egitea da. Oindiño buru gitxiego agertuten dau, arin ta neke barik egin leiteken lana, luzaroan eta nekez egiten dauanak. Esate baterako, aspaldien, beste gauzetarako lez, lurrek landuteko be makine egokiek asmatu dire; eurok erabili ezkerro, solo-lanak askozaz be arinego ta neke gitxiegoz egiten dire. Baleiteke norbere lurrek burruzegi egotea makiñok ebalteko; baye ostantxean, makiñok *faltsoak* asmauko zerak direala-ta, eurokazko bearrak *faltso*-bearrak direala-ta, beñolako lai ta beste tresnakaz gitxiego edo bardin irabazteko amar bider geyago egiten dabenak, buru barik egiten dabe. Baita buru barik egiten dabe bear, ganorazko barrutitxo bat eztaukielako, mune erre baten zaran bete bedar ebagiteko ordu bete ta geyago emoten dabenak be. Ta, ¿zer buru izango dabe,

kodañez aitearen baten ebagi leikien bedarra egiteiz egun erdien ebagiten daudenak? Orixe da bearra bear barik eta onure barik geitutea; oindiño mokilek *mazuekaz* birrindutea da ori. Gauzea ez txartzat emon, barrie dala-ta beste barik, gauze barrien artean be badire onak eta...

Larrakoeta'tar, I. Aba: *Zeanuri'ko Andra Mari yayetan...*
Izaldia, Donostia, 1927, 7-8.

mizkeri = regalamiento; *ebaindu* = rendirse de fatiga; *giñoan* = neurrian; *burrus* = terreno costanero; *ebali* = erabili; *faltso* = alper; *zaran* = cesto; *egitei* = igitai, hoz.

63. FAXISTAK

¡Mutilak! ¿Nora yoan bearko ete-yoagu? Aspaldi onetan abade-fraileok edonon txibiteagaz artzen gaitue. «¡Sakristire, sakristire! Etxe ta efietako gora-berak konponduteko naikoa gozak geu be ta ¡ox!, atzera, sakristire, danean sartu ta dana agindu nai dozuen abade-fraileok».

Onan ots egiten daukue, ez bakarrik ofeik arima-goriok, baita euren burua katolikotzat dauken amaikatxok be. Ta, tira, eurok andik aterako ezpagenduez, gu geurez geldi-geldi ta txitik egin barik be bagengokez, baña onak dagoz eurok ifior bakean izteko. Edozein lanerako lagun edo asto gura gaitue, baña agintzerako, sarirako... «¡kanpora, demontreok, sakristire, dana zeuon azpian euki nai dozuenok!»

Onango ots zakar, iraingariok orain artean nekez ta meatz entzuten zirean euskaldunen artean, gaur baña safitxo ta geroago ta gañatzago ta, tamalgaiena dana, euren burua eleizkoitzat daukenen agotik urtenda.

¿Oren gaizto ta eskar-txarekoak izan ete gara ba abefiarentzat? ¿Nori zor dautse erlejiñoari baño ta erlejiñoa ain azufetaraño sartu dautsen eleizgizonai baño euskotarak geyen baten daben gizontasuna, zintzotasuna, garbitasuna ta sena? Euskeraren alde be, ¿nok egin dau eleizgizonak baño lan geyago? Euskalzaletasuna lelengoz gure artean sortuazo ta zabaldu eben Lafamendi, Kardaberaz, Mendiburu, Mogel, Bartolo, Añibafo, Lardizabal da, ¿nortzuk izan zirean abade-fraileak baño? ¿Non zirean ba orduan frakadunak arein alegiñai ez erantzuteko? ¿Zek eta nok galazoten eutsen euren eusko ta abertzaletasuna era-

kusterik? Ta gaur be euskal-landetan ¿ez ete dakusguz aurenen Azkue, Eguskitza, Olabide, Gabirel, Zamañipa, Bera, Arigarai, Agife, Garitaonandia, Intza, Jauregi, Ariztimuño, Ibargutxi, Arue ta abar ta abar abade-fraileak? ¿Nortzuk atera eben lelengo euskal-aldizkingia, «Jaungoiko-Zale», abadeak baño? ¿Nortzuk egiñak ete doguz «Jesus'en Biotzaren Deya», «Zeruko Agia», «Karmen'ko Argia» ta direan beste euskal-aldizkari batzuk, fraileak baño? Ta «Euzkadi», «Argia», ta beste euskal-izpafingietan agertzen yakuzan idazle punterengoak ¿ez ete doguz fraile-abadeak? Txakur txikiaren irabazi barik euskereari ta euskotafai dautsen maitasunak eraginda euron alde dakiena ta dagikiena egiten eragon ta dirua irabazteafen edo norbere burua erakusteafen baño ezer egiten eztabenen irañak entzun-beaña bear gofia da gero. Euskotañak ez izan okeñak, eskar-txafeakoak.

Abade-fraileok eztoгу asmurik, ezta izango be, zuok bide zuzenetik zakusguezan artean zuon etxeetako zeretari nastu ta politika gora-beretan artezean eta agintari sartzeko, baña abefia maite izateko ta aren alde lan egiteko beste edonok aña eskubide geuk be badogu; bai orixe. Orixe ezin leiskegu iñok ukatu. Au ta bestea esan beie gugaitik, baña egingo neuskioe abefiaren esku-bideen alde be beste edonok aña baietz gutañak egin. ¿Nortzutaikoak izan ete dira zer ofegaitik geyago baztertuak, atzetira-tuak?

Abade-fraileak zokondoratu ta erlejiñoa politikatik baztertu gura leukiezanak zer nai daben gizaldi guztietako edestiak eta oraintxe an, or, emen yazoten danak argiro dirausku eurak nai dabena ezetariko legeen neutri barik etietan egin eta gero, agintzearen gozoaren gozoak eraginda, abade-fraileen ostean sakristira sartu ta antxe be agintari yañi; eliz-gizonak ezita eukiaren atxakiz, danean euren menpeko egin.

Uñifera barik ondo darakuskue ori emen nagusi doguzan «faxistok». Oneik, eurok diñoenez, katolikoak ei-yatzuz, ori bai, ta ukatuko leuskioenari laster berotuko leuskioe nañua. ¡Katolikoak izan ez eurok! ¡Pentzetea be! Baña ¡zelango katolikotasuna!

Euron erizkide edo faxista eztanari eztautse ezetariko esku-biderik ezagutzen, eztagike iñok aurka ezer idatzi ez txitik egin, uñengo egunean ugarteen baterako bidea artu nai ezpadau, ikasketetan be ezta uñifera elduko euron batzarkide egin ezpadadi. Agintaritza osoa eurena ei-dabe ta, iñok eztau iñorako zirkiñik egiteko eskubiderik, euron oldez baño. Agintaritza oso

ori efiaren on osoaren alde lan egiteko be ei-dabe-ta, eurok eta eurok soilik dabe eskubidea efiaren onerako litzaken edozer ta guztia yaurri ta zuzentzeko, baita erlejiño-zerak be. Faxista-irakaskintzea Jesukristo berberarena osotu ta obetuteko etofi ei-da, ta alan ez ei dauke eurok iñogandik ezer ikasi-beafik, ta ara be gitxiago iñori ezertan men egin beafik. Ona non yari yakuzan, ba, erlejiño-gaietan be irakasle ta agintari... (...)

Larrakoetxea, H.: *Erroma'tik*, in *Karmen'go Argia*, Bagilla, 1931, 166-168.

txibita = vara larga y flexible; *zakar* = rudo; *meatz* = ralo, escaso; *aldizkingi* = aldizkari, periódico; *eragon* = jardun, ari izan. *zakusguezan* = ikusten zaituegun; *edesti* = historia; *erizkide* = eritxi bateko; *olde* = borondate; *soilik* = bakarrik; *yaurri* = gobernar, patrocinar.

LARRAKOETXEA'tar BEDITA (1894)

Aita Hipolitoren anaia onek W. Shakespeare-ren teatro-lan guztiak euskeratu deuskuz, erbestean egoala: lan ikaragarria! Gorbea-ko artzainen bizimodua ere ondo egoki emon deusku, bere Zeamuriko euskera koloretsuan.

64. GORBAIE'ko GAZTAGINTZEA

I ATALA

Gaztaya egiteko Gertakuntzak

Uda-iluntzan, eguzkia sarkalderantza yausten danean Gorbaie'ko artzaña gaberako ituñiko ura ekañita, ala eraz ba'datorko ura bide batez ekarteko ontzia esku batean eta urutx-makila sendoa bestean artuta, badoa mendia gora bere artalderantza txistuka, ala artzai-lagunekaz autuan, mendiari goyak aftzen dautsoz, eta ardien atzetik yafitakoan txistu zofotz batzuk egiten dauz, eta ardi ux oak aringa mendia bera eñeskadaka bidezidofak-zear txabola-alderako bidea artzen dabe. Ardiak ilunabafagaz bat eltzen dira txabola-aldera Aldaminpe'ko sakonera, ta emen, onañio artzai guztienak batera etofiafen, eñez-eñez bereztuten dira ta bakotxa bere artesira doa, atxarizko ormadun artesira, batzekoak artesi batera ta umedunak *etsalekua* deritxon beste artesi legor-nasaiego batera. Bein ardiak artesian, artzañak isten dau arantza-mota bategaz artesi-atakea, artzen dau lenagoko *kaiñuen* ordezko *kantin* deritxoan zinkezko ontzia, ta ardiak batzen asten da, auzetik bere uzkurtzaletasuna agertzen daun «aitea'ren» eginda. Ontzia istaf-ar-tean dauela kukurumio yarten da, urñ daukon ardiari iztafetik oratzen dautso, eñapea ontzi-ganeratuterañio ardia beraganantza dakar atzeraka, ta orduan esku biekaz efo banatatik elduta *ziri-zata* beingo baten batzen dau ardia, naiz ta uxoen ta urdurien a izan. Batzeorduan ardi otzana geldi, ausnarka, samea okertuta, atzealdea makurtuta egoten da, ta batzuk berez etorten dira artzañaren ondora. Lelengoa lez batzean dauz enparauak be ta, zubei siñiskaitz egingo yatzena fen, batuak eta batzeko ardiak batera egona fen,

artzañak nekez itxiko dau ardirik batzeke, batzekoak eunez gora izanda be. Bakotzak bere antzea dauko, ta artzañak berea. Ardi batzuk ofaitio zereginiik eta loirik asko emoten dabe batzeorduan, gilberatiak diralako-edo: bein yauzika, bein korotz-txisgifiñan (azketsi itzen gogofitasuna) artzañari gogait-eragiten dautsoe, ta (¿Zer egiten dauela uste dozue artzañak onango ardi gogaikafiagaz? Len-baño-len antzutu, ta ostantxean ulea eta umeak azten onen bat ezpa'da, udagoiengan artaldetik kendu).

Esneak batuezkero artzañak artesiko atakea idigiten dau ta ardiak ondo dazaben txistu agintzalea eginda ta batera besoa eragita, ardiak artesitik aterata lafarantza abitzen dauz, eta bera esneak artuta bere yauregian, zoi-telatuzko etxetxoan, bere antza emen dakuskezuen txabolan sartzen da, argia ixetuten dau, iriskia artzen dau ta esneak beste ontzi aundiego batera iristen dauz, artzen dau bertatik legafa, ta aiztoagaz txataltxo bat ebagita katilu baten uretan befindu ta urtuten dau, ta ur legarduna be iriskitik bera ixurtzen dau, daukozan loiapuñak iriskian gelditu daitezantzat, eta legafa iriskian bertan gelditu eztaiten, legafaren ganetik len irisi barik itxi daun esnea botaten dau iriskia bera, berak yateko aña itxita, legar-ondafak aurrean eroan dagizantzat: au egindakoan iriskiaren beko mokoagaz ontzitzo esne irisian eraiten dautso, legafa ondo nastu dadin, ontzia oyal zuri ala margozkoagaz estaltzen dau loitu eztaidin, eta suaren ondora epeletara eroanda artzañak etzategiko zubilean yezarita aparria gertetan diñardu. Eta ¿zer dala uste dozue Gorbaie'ko artzañaren aparria? ¿Okela-zefendada edefak Eñioja'ko ardao bizi-edakeratsuagaz? Esnea ta gaztaya: esnea ta gaztaya gaur, esnea ta gaztaya atzo, esnea ta gaztaya eguberdian eta gabeen. ¿Eta goxaltzen? Gorbaie'ko artzañak yataldi bi bakafik egiten dauz. Gorbaie'ko artzañaren yakiak ardiak esnea daukien artean esnea, gaztaya ta taloa dira, ta eurok yanda moñosko edefa dago.

Eta orain zuben aditasuna lar ez nekatzearen aufera yañaitu-aufetik Gorbaie'ko artzañaren esne-iriskia zelangoa dan esango dautzuet. Artzañak bear dauzan tefesnak berak egin al ba'dauz, eztau erosiko eginda saltzan danik, eta au dala-ta esne-iriskia berak egiten dau. Dakusgun bere antzea ta tefbetasuna. Azkorakada bi emoten dautsoz gaztaña-adar azal-leun eta sendo samafari, or udabarian azala urtsu ta beraz kentzen samur daukonean; bilalde ala *inguruan* azalari epai bi emoten dautsoz alkafen artean neurkin-iruren ($\frac{1}{3}$ n.) bateko bitartea itxita; gero adafaren erara ta lengo epai bien bitartean eta eurok alkafezagaz

batzeko irugañen epaya dagi, ta epai aunetatik oratuta eñez-eñez azala oso-osorik ateraten dau, adañean batutako ingi-oria adañaren erako ertzetik elduta aterako geunken lez; gero leundu ondo ganaldeatik, tontofik ala lakatzik ba'dauko, bean estu ta goyen zabal onil-antzean yafi, artzain-makila-sendoerako gaztaña-adar bat moko batean kakoduna kakorik eztaukon mokotik bera biñintzatu ta gaztañazal onilantzekoaren ertz biak biñintzan sartu onila manatu eztaiten azalaren aurka-indañagaz, eta biñintzan sartutakoan biñinga biak goyan eta bean ari sendo-samañagaz estu (lotu), ta aor esne-iriskia eginda bealdeko mokoan onilaren zulo ondoan kakoagaz. ¿Zetarako dan kako au? Bear eztanean esne iriskia txabolaiko kako *batetik* eskegiteko; kako batetik diñot beren-beregi, txabolea kakoz beterik egoten dalako. Batek baño geyagok egingo dau berekautan: «¿eta iriski ofetatik irisita esnea garbi gelditu, naizta iriski-zulo bakar ori estuena izan?». Ezta ez itaun au ain bidebako itauna be, ta ofegaitik esango dautzuet artzañak zer asmau dauen iriski onetatik esnea garbi-garbi iristeko. Edonok daki asunak bixartsuak diriana ta bixar kezkatuok nainon eta safatu daukiezana; ba artzañak esnea irisi bear daun bakotxean iriskian esku bete asun sartzen dau eta loiei eurokaz safatzen dautse zuloa, esnari igeroten itxita; eta, siñistu egistazue, eztago saldokietan iriskirik artzañen gaztañazalezko asundun iriskia langorik; iriski aunetatik zear ezta igeroten loi-bildertxo bat bera be, ezta ulerik be; saldokietan erosten diranai bafiz loi asko igeroten yakena ¿nok eztaki? ¡Gero artzaña atzeratu ta basatizat etsiko dabe askok! Artzañen eta lugiñen lepotik bañe egin baño oba legokigu geure asabak artzain-lugiñak izan doguzan euzkotaroi, euroi auferatzeiko, eñirik auferatuenetako lugin-artzayen malara, ta bial ba'da gorago igoteko, idigi ta lagunduko ba'geuntse batezbe yakintsuak eta... txindidunak; bai txindidunak, baña aonetzaz oingoz bego, lar eta egoki eztan lekuan berotu enadin. Esneak sutondoan itxita yarduketa luzeegia ebali ete-dogun nago-ta, esneagana ostera be; dakusgun legafak artu daunez, gitxiegi botaezkero artu ez be egiten dau-ta. Au dala-ta norbaitek itandu legisku «¿zenbat legar bota bear yako, ba, esnari gogortu daiten?» Amen itaun auneri Bizkaiko mendirik goitsuenean 23 urte artzaintzan igaro dauzan gizon gaste-buru-argi batek emoten dau-tson erantzuna; safitan argiztauko nau idazkai aunetan eta añastartean diminkedaz bere itzak. Entzun: «... Gorbaie'n onetaxaxe egiten dok: atara esnea ta bertatik legafa emon, baye asko ez, esne epelak legar gitxiengo bear dauelako... Legafa norberak ikusi bear yok: gaur geiegi ba'yaukek, bier gitxiegi. Gitxienez,

legafa emonda ordu bet bear yok (esneak gogortuteko) eta lenago gogortuten ba'dok, eztok gaztai ona izango, ta gitxiego bota bear-ko yakok...» Itz onaik dagerskuenez, artzañak legafa eretxi baten botaten dautsoe esnari, ta eztaukie aonetan neuñi egin-egifiñk: norberaren yakitura neuñi. Ganera itz ofeixetatik agiri dancz, legar gitxiego ta gaztai obea, gaztai gozoagoa, apitzegoa; beraz legafa bear-beařekoa bakariñ bota bear zako esnari, gaztaya ona, gozoa ta epitza izango ba'da; gitxiegi botaten ba'da, bařiz, esnerik ezta gogortzen. Itz ofeitán daukagun irugařen ikaskixuna esne epelak oțzak baño legar gitxiego bear daula da. Dagizun, ba, gure esneak gogortu dirala, legafa artu dabela, ta dakusgun zer dagian orain gure artzañak apalostean. Entzun dogunez, esneak —legar lar bota ezpa'yako— gitxienez ordu bete bear dau gogortzeko; artzañak, ba, esneak gogortu dirala dakusanean artzen dau *maletxa* ta *mamia*. Asko, baña, ezta zapaldu bear: «zapaldu apur bet», entzun dogu abo aituagandik (...).

Larrakoetxea'tar, B. J.: *Gorbaie'ko Gaztagintzea*, in *Itzaldia*k (Euskal Esnalea), Donostia, 1928, 141-151.

gertakuntza = prestaera, preparaci3n; *urrutx* = urretx, avellano; *uxo* = uzu, izu, espantadizo; *bereztu* = berezi, separar; *artesi* = aprisco; *ataka* = ate txiki; *uzkurtz* = erlejino; *kukurumio* = en cuclillas; *beingo baten* = berealaxe; *batu* = jetzi, ordeñar; *urduri* = artega, nervioso; *antza* = arte; *lor* = pena, tribulaci3n; *gilberati* = cosquilloso; *yauzika* = saltoka; *azketsi* = parkatu; *antzutu* = volverse estéril; *dazaben* = ezagutzen daben; *zoi* = tepe; *ixetu* = ixiotu, piztu; *iriski* = colador; *legar* = cuajo; *aizto* = cuchillo; *berrindu* = birrindu, triturar; *ixuri* = derramar; *moko* = punta, pico; *etzategi* = lo egiteko lekua; *zubil* = subil, tronco; *zerrendada* = franja; *edakeratsu* = edateko gozoa; *jaki* = janari; *aditasun* = atenci3n; *terresna* = tresna, tretxu; *terbetasun* = trebetasun, habilidad; *epai* = ebagi, corte; *neurkin* = metro; *ingi* = paper; *lakatz* = nudo; *onil* = embudo; *birrintzatu* = brintzatu, rajar(se); *birrintz* = brintza, raja; *manatu* = alperrik galdu; *birringa* = bringa, astilla larga; *beren-beregi* = adrede; *saldoki* = denda; *bilder* = brizna, mota; *lugin* = nekazari, labrador; *txindi* = diru; *ebali* = erabili; *amen* = ara emen; *arrastartean* = entre comillas; *diminkedaz* = iminiko ditut; *apitz* = bigun eta artoa; *zako* = jako, zaio; *maletx* = malatx, batidor.

BERNARDO M. GARRO, «OTXOLUA» (1891-1960)

Itzultzaile bana-banakoa, «euskeratuten bakarrik barik euskaldunduten ekialako... Joskeran, aditzean eta esakeretan bere —esakeretan, batez bere— maisua dogu...» (M. Zarate, BEI, 207-208), aren grafia ta garbikeria aldi bateko aize-bolada lez artzen badakigu.

65. BIJAR DONIBANE'ra!

(...) ¿Zer jazo dan? Urtian-urtian, gitxijen uste danian jazo oi-dana. Zorigogoreko itxasua bafiren-bafi!

Goxian eguraldi ezin obiaz afañetan urteniko txalupak, galafenak jo dituz gaur be. Eguberdi-osteratxurartian barebare egon dan itxasua, bat-batian sortu dan ikaragarritzko axiaren orubai erantzun bai'legijon, ixugarritzko uñak, erakusmeneko olatuak atara dituz bere bafutik, eta esan leteke itxasoganian dabillen gustija iruntsi-gurarik dabillega amufuaren amufuz.

Portuko molletan austen diran uñak be, bata baño bestia andijaguak dira, eta bafako istunea ta porturako saferearen jaube egitiik, molliari baño ikara-dardar geyago eragitten dautse etiko bizantliai.

Zeruba, oskarbi ta eder goxian, edoi illunez bete da, eta edoyok bata bestiaren atzian darabillen arrapaladiak, itxasuan egon etekezan arantzale gaxuai azper-egin edo *bengauteko* dauken esturia dirudi.

—¿Nortzuk dagoz etorteko oindiño —da abo baterik bestera dabillen itaun larija. Afantzalien emaztiak eta alabak, begijakaz baño bijotzaz portura banan-banan eta ozta-ozta datozen txalupak ikusi-gurarik, arantza bafi bat nabarittuten dabe edo sentiduten dabe bijotzetan, euren senara edo afa dabillen txalupia-barik, beste batzuena ixan dalako orduxian portuan sartu dan txalupia.

—Artikeneko txalupia eldu ei-da! Txotxobator'enak be ointxe-ointxe igaro ei-dau bafia...! ¿Eta gure attarenak ez?

Bai-dator Semeitufikuena be...! gora eurak! ¿Eta gure senafarena ez-ete-da agiriko? Begoña'ko Jaungoikuaren Ama: ekari egidazuz etxera!—, eta Jaungoikuak dakijan lez, bai-datoz etoñi txalupak, eta emaztiak era seme-alabak gitxi deritxoe beso biri euren mattiak besarkatuteko.

—¿Iñor palta da oindiño?

—Bai; Azkar'eneko txalupia, ařantzale zařakaz urten dauana; barra-onduan ei-dago, portuan sartzeko adore-barik!

Eta ekatxak eztau amitzeko itxurarik. Olatua olatuaren ganian, bitsa baño ezta itxaso osua.

*Señerua*k Talagotti'tik, bai-diñardu Azkar'enekuai txapelaz *señak* egitten baretaldi bat agertzen danian, porturantz egin leikiela esan gurarik. Baña, alpeřik; baretaldijak unetxu bat baño eztau irauten, eta Azkar'eneko txalupakuak eztabe besuetan indařik baretaldi ain labuřian txalupia portura erakarteko. Nai-kua egiten dabe gixagaxuak untzija orekan eukittiaz bakarrik!

Baña itxaski aregaz orekan txalupia eukitteko be, sendo egin biar da eřemuetan, eta Azkar'enekuai igarten yake indařak galtzen yakezala. Olatu ta axiaren indařari eutsin-eziñik, bari-ko gixonak aulduta dagoz eta ezin adoretu dituz Azkar zařak bizkortu eragitteko jaurtitten deutsezan eupadakaz, eta orain bata, gero bestia, pizka baten atsedeen-egiteko, ene gixonak lereginga eřemu-ganian buruba makurtuten dabe.

¿Zer egitten dabe artiatan portuan dagozan ařantzaliak, galdugordian dabilzan txalupakuai lagundu-barik? Portuan dagozan ařantzaliak eurak be ondo eyota dagoz, eta ezтира азартутен баřиро итхасоратутен eta lengo istura-lariřak bafiren-baři igaroten.

Baña, ¿ixango ete-dira ain bijotz gogofekuak, beste ařantzale zařaguak —biarba euren ařa, osaba edo lengusuak— eřijaren afez-aur laguntza-barik iřoten izteko? Antza, bai; iñor ezta igittuten eta.

Baña, ¿zerena da zaratia? ¿Andrak dira? Bai; eta Edur aurrenengua. Juan Anton eta beste amar-amalu ařantzale gaste dagozan lekura duaz. Txalupa bat artu ta ařantzale zařai lagunduten juateko eskatuten deutse gogor. Baña ařantzale gastiak ezetz diñue; ukatu egin deutse laguntzia. Guzura dirudi!

—Epeltzařok! —diñotse gařaxika Edur'ek— Jantzi gonak! Zuek bilddur ba-zarie, geu androk juango gara!

Eta aldian ekatezan iru puntako mantoixuak lepotik kendu

ta gafikotzat lez ondo loturik, an duaz andrak, Katalin buru dabela, Txotxobator'eneko txalupara. Imiñi dittuez erremuak toletetan. Bai-duaz txalupako txikot eta katiak azkatuten...

Andren egikun onek igittu-erazo dittuz ařantzale gastiak. Andren adoriak lotsatu eragiñik, arrantzale zarrai lagundutia euren biarkuna dala igarri dabe. Ta andrai lioferatu eragiñiaz, bai-duaz txalupara, Baltzamo lemazain edo patroe dabela.

Eri osua dago gastien txalupiaren urtekeriaren adi, ta batzuen gařaxiakaz eta bestetzuen txaluakaz bizkorturik, arin artzen dabe bařia, ixugařizko olatuen bildur-barik, eta beingo baten eldu dira Azkar'eneko txalupara. Txikota emon zařai, eurok bizkortuteko eupada batzuk jaurti eta an dagoz adi, seřeruak baretaldijaren seřia noiz egingo.

Etoři da azkenian baretalditxu bat eta abijau dira ene Baltzamo ta lagunak porturantz eřemuetan bizkor. Ezin dabe, ofattiño, eurak gura leukien baxen arin egin. Porturantz egittia gatxago da, ta euren txalupiez ganera, Azkar'eneko txalupa zařa be ekartia, aztun bařio aztunago yake. Baretaldijak eztau luzaruan iraungo, ta bařako istuna-istunian, lekurik txafenian dagozala, itxaski bařieztuaren auřeko olatu zoro batek jo dau Baltzamo'n txalupia ta bařako atxetara jaurti dau ija. Ekiñalaren ekiñalez zuzendu dau Baltzamo'k txalupia; bařia, řeragingo ete-deutso auřerantz, laster-laster bařieztuko dan itxaskija etoři-orduko?

Andra-talde bat dago molla zařian; batzuk negařez, bes-tiak zeruari laguntzia eskatuten. Katalin Edur eta Baltzamo'n ama be euren artian dira. Baltzamo'k ikusi dittuz bitzuok, eta geyago ezin eutsin ixango daunaren ustiaz, azkeneko agura jaurti gura bai'leutsen begiratuten deutse. Lafi dabiltz txalupa bijetako gixonak.

—Auřera! —diadar egitten deutse Katalin'ek— Bijar gustijok Doniane'ra!

Doniane ixen gozo ta gomutagařijak indar bařijak emon ixan bai'leutsezan, Baltzamo'n txalupakuak buruba jaso dabe, eta gustijak bat-batera bai-darantzube: —Bai; bijar Doniane'ra!

Eta azkeneko ekiñale inddartsu batez, bařia igaro ta portura sartukerako ařizku andi gustijak gottuta, Juan Anton Baltzamo'k portura ekafi zittuzan txalupa bijak, Doniane'ren gomutiak emoniko indařaz. Doniane'k zerutik bařiren-baři ařantzaliali bařiezturiko indařaz!

Txalupa bijetako gixonetarik Baltzamo ixan zan azkenekua oñak liofian iminten. Molla-goyan nok eta zek itxaroten eutzen irudittu be etxakan egitten, eta geldiro joyan eskillaraz gora. Eskillara-buruban, eta Baltzamo'n amaren onduan, Edur eguan, begijak malkoz beterik zittuzala, iñoiz baño edefago.

—Juan Anton, ene kuttun mattia! —esan eutsan Edur'ek—. Ointzek diñotzut bayetz! Zeugaz ezkonduko naz!

Eta mutilla, entzuten ebana ezin zifñisturik eguala, Katalin'ek, efi osuaz aufian —efi osuak jakin egijan mattaten be baekijala berak—, mosu zolija egin eutsan Juan Anton'i bekoki-bekokijan.

Gau atan iñoiz baño pozago ebillen efi osua Doniane'ko subetan. Aufesku asko egin ziran; baño Baltzamo'k egin ebana, eta laguntzat Edur atara eutsena, nekez aztuko da eñijan.

Garro'tar B. M., «Otxolua»: *Bijat Donibane'ral*, Bilbon, 1929, 8-12.

uin = бага, olatu; *istune* = canal, estrecho; *edoi* = odei; *orekan* = en equilibrio; *itxaski* = marejada; *ler egin* = reventar; *artiatan* = bien bi-tartean; *igitu* = moverse; *egikun* = egitada; *biarkun(a)* = betebear, eginbear; *tolet* = escalmo; *txikot(a)* = soka; *abijau* = abiatu; *goitu* = azpiratu.

66. BANEBAN NIK IZAN

(«Gaucho» baten erostak)

Baneban nik izan,
baneban:
zaldi bat
txikar-oriskea;
zaala ta mizkea;
«Petiso» edo dana-dala neritxon,
ifioiz ezin geldirik egon,
bizkorra zalako,
ta lasterra, oi ez lako;
«musuz-atze»-ren aldia emonda be
lasterketa guztiyetan bera zan yabe.
A zan zaldiyaren yayua,
neure zaldi-txiko «bayua»!

Baneban nik izan,
baneban:
baltzeran bat
begi zabala,
apal-apala.
A baño beste andrarik
eneban nik maite;
ak be ez gizonik
neue ezik:
¿obarik ba-al-daite?
Begiyyetan
igarten eustan gogua;
ezpanetan
asmatuten neutsan biyotz-sua.
¡A zan emakumiaren laztana,
neure baltzeran laztan-otzana!
Txabola abetalgarri bat be
baneban nik izan:
ormak zogiz,
tellatua lastoz
egifia;

baltzerana ta ni
lasai ta maiteki
bizitzeko diña.
Baña «pampero» edo dalako aize
izugarriya
bat-batez sorturik beñola
¡Agur betiko, neure txabola
maitagarriya!

Baneban nik izan...
¡Banituzan!
—obeto esan—
Eztodazanik sinistu be ezin dot baña,
¡alajaña!

Txabolea aiziak tutorrez galdu
ta aduak ninduan ni ziara saldu.
Neure baltzeran laztana...

¡a be eztot neure!
Beste norbaitengana
egin eustan alde
¡neure zaldi-txikuaz, atan be!

.....
Alde egin eustela, bada aspaldi,
eta oraindik
etxataz iñondik
agiri.

.....
Eztira etorri be egingo,
baña baletorz,
¡non itxaron be, nik eztot!

Garro, B. M., «Otxolua»: *Euzkadi* aldizkarian, 21-2-1932. Altu-
be'tar Seber-en: *El acento vasco-tik* artua: *Euskeva*, XIII, 1932, 303-305.

txikar = txiki; *zaal* = correoso; *mizke* = goloso; *baltzeran* = moreno;
abetalgarri = acogedor; *zogi* = tepe; *tutorrez* = de cuajo.

URKIAGA'tar ESTEPAN «LAUAXETA» (1905-1937)

Bizkaiko euskera zaarrantzat «Bide Barriak» ebagi gura izan ebazan LAUAXETA gazteak, erbesteko beste literatura batzuen jokabideari jarraituz; baiña «Arrats-Beran»-eko olerkiak bide ziurragotik joan ziralakotan gagoz. Olerkari sena, biotzondo samur sakona, gerorako itxaropen argia erakutsi euskuzan eskola barriko olerkari onek, baiña, zoritxarrez, gazteegi kendu euskuen gure artetik arerioak.

67. GASTE GEXUA

Mendi-ertzeko gastia arratsak dakar'geldiro:
udazken ori barnera sartuten yako leunkiro.
Zugatzen orri zimelak lurrera datorz axian
eta ametsezko zerrija zabaltzen dabe bidian.
«Samiñez nator zeugana, maite zaitudan basua:
orbelen jauste mindubak diraust erijotz arua.
Abi utz orreik zeuriak, zeuria zarba zimela,
baña neure soin gaxua luzaro bixi daitela.
Gastia nazan ezkeror oraindik eztot il-gura.
Bekoki onek dagerren maitasunezko lilura
ezin illundu dagike erijotzaren laztanak.
¡Ariñik duaz obira zerubak maite dauzanak!
Nik barriz nasai lo-dagit itxaruaren aspijan.
Itun dagozan bijotzak poztu egixuz ludijan
edo bixitzaz mindubai itzalez itxi begijak.
Ustege dagon batentzat eskei zugatzen, lokijak.
Mendiko magal ertzian dagan areitz zimela
aizkora kazka zorrotzaz lurrera jausi daitela,
baña iraun begi lerdentsu emaitz betezko zugatzak.
Bere orrijen itzalik ez bei apurtu ekatzak.
Mitxiletatxu sorgiñez eta larrosaz josita
orri-begijan baitago neure loragu polita.
Barne barnetik kantari, egun sentiko argira,
urrezko larratxoriak egaz dagije ortzira,
Enara batek bezela gastetasunak narua
eta eguak zabalik gorantza juat gogua.

¡Oraindik eztot il-gura, bixitzau yatan leguna!
 Maite dau bijotz gaxuak ene aberri kutuna;
 maitatzen ditu lagunak eta guraso tximurrak
 baita zeu bere, ene neskutza, ta zeure begi samurrak.
 Laguntza orrein eztiya mustau nai dot il-artian.
 Bildurrik gabe nor dua illobiko itzal bidian?
 Atsegiñen mai alaira didar dagiste gustijak;
 dastatu barik ostera itxiko dodaz jakijak?
 Esku arteko usuilla edariz daukot beterik,
 baña lorazko espanok eztodaz busti oraindik...
 Jolas saratak neugana dakar azetxu zolijak,
 maitati bere atiak zabaltzen daustaz ludijak.
 Mosuba erdi egiñik itxi biarra, bai ituna!
 Bijarkuak beti dakar geure zalian zoruna.
 Oraindik bixi gura dot, ludija yatan ederra.
 ¡Itunak poztu egiten bua arin gexo ankerra!
 Negarrak ondo dirudi aguren begi minduban,
 baña mosuba ederren maite diranen abuan.
 Zarrak il beitez, oroyak-arren eztogu ayolik,
 itxaropenak galtziak eztauko barriz neurririk.
 Negubai otzak yagokez, udabarrijai lilijak.
 Obijan soilik apurtu larrosa bageko ontzijak».
 Olan iñardun gastiak orbel betezko bidian;
 azken orrija dardarka hurreratu zan axian...
 Baso aldetik betiko jua zan mutil gexua
 ta itxaro illaren antzean itun lotu zan basua.
 Negarrak ez eben lotu gexo ankerran zaurija,
 ta lorak-arren, betiko apurtu zan lorontzija.
 Barriz eldu zan mendira udabarrijan lastana
 eta lilijen usañak alaitu eban oyana,
 Baña ostroen dardarak eta txorijen txijuak
 Iñor ez eben idoro alai egiten basuak.

Urkiaga'tar, E., «Lauaxeta»: *Bide-Barrijak*, Bilbao, 1931, 32-34.

zerri = alfombra; *zarba* = fronda; *ustege* = uste barik; *loki* = cuerda;
loragu = lorategi, jardín; *enara* = elai; *neskuts* = birjina; *usuilla* =
 copa; *bua* = doala, bijoa; *oyan* = baso baltz; *ostro* = orri.

68. JAUNAGAN ATSEDENA

*Zeugan lotu-arte, ene bijotzau
urduri dago...*

Zuretzaz jardun neban, zuur eskar otsari:
zeure baitan nenbillan, an etzan neurririk.
Ara eltzeko ez-nun burdi ta ontzirik,
nai bateri nenguan..., egiñak, nayari.
Goya zabal eguan larradi ganian
eta senti zindudan gauz oron bakian.
Dana ur-urrun zeunkazun: ixar, mendi ta lur,
ixate orren urrun, maitasun orren ur.
Banekijan zintzala, baña nun Jaun ori?
Argitan, eskutuba zeure egote ori.
Gustijetzaz azturik Zeugan jarri nintzan,
ikus nai zindudala gogoko ekintzan...
Griñetan ez zintzazan, ez atsegifñetan;
Samiña idoro neban laket gustijetan.
Lorarik etzan iñon arantzaxu barik,
arantzetan eztago zeure maitasunik.
Munduko otsen barruban ezta zeure gentzik.
Sartu nintzan barnera: Gogo au artega;
Zeure egonak oso leundu eustan baña...
Nabaitu neban gentza... zerutar usaña.
Menak ixildu ziran, eldu zan goznarra,
argitu yatan soña, ludi au aldatu.
Toki orotan zintzan eskarrez loratsu;
zeuri orri dardara ta iluntzeko ixarra.
Zeure oinkada barik ezer iñon etzan.
Argi ta eder dira egin dozuzanak,
neurritz gauza gustijak daukozuz jakintzan.
Lurreko gurenentan dager zeure indarra,
txikijentzako bere badozuz laztanak...
Batzuk dagerte ala, bestiak eskarra.
Ispillu barriz yakuz emeko gauz danak;
ikurrai soilik gagoz ikus zaituguzan.
Eta senti zindudan arren ludi ontan,
zeure maitasun ori urrun zan oraindik.
Oldozkor jarri nintzan idoro gurarik...
Bijotzari: —Badakik Urtzi jauna non dan?—
Ixatez ludi barna, maitez gixon baitan—.
Sakona argitu yatan..., oro ulerkorra;

igar neban gixonen barruko zadorra.
 Ulertu neban ondo umien begijak
 eskar orrek maitekor egiten dauzala.
 Abar ustelak, arren, zeuri yagotzunak
 loraz orrillai barre egingo dautsola.
 Baña urduri nenbillan, artega gogua;
 izkutu batek dana jakin-nai narua.
 Eta barru onetan zetan zaran ari
 ulertu nairik, lotu nintzan ameslari.
 —Argiz zagoz orotan, soñak barriz laño,
 zeurerik entzun ezin, oben otsak baño—.
 Nok igarri ondarrau? Ete nago itxurik?
 Neugan zagoz, ni barriz urrun zeuregandik.
 Badakit baña zeutzat autu dozuzanak
 bijotzeko urduriz, maite zagizala,
 zerorrek azkon bixiz egiten dozula.
 ¡Atseden neurrigian zeugan datzazanak!
 Zeure ate orretan emoyak artzia
 ots-egitia baño errezago dala:
 Billatzea baxen leun zeuri egotia.
 Zeugan maitatzen danik itxi biar eza;
 Oro zeu zaralako, muin eta azala.
 Yagotzuzan danentzat arru bako leza,
 labangarri dan laba oben jarraentzat,
 itxubentzat argija, illuna argijentzat.
 ¡Zeure onari nagon, larritasun barik!
 dana baita orrako argizko bidia.
 Zeure laztanik gabe eztago lorarik,
 esku orrenkandik at eztabil gizonik.
 Ludija dago zeure aintz-bidez betia.
 ¡Atseden bijotz orrek, ez ixan urduri!
 Jaunaren zabalean lei orok ixuri.
 Betiko poza bertan, maitasun osua.
 Arantz begira lotu, aron dan gogua.

Urkiaga'tar, E., «Lauaxeta»: *Bide-Barrijak*, Bilbao, 1931, 98-102.

baitan = -gan; *larradi* = pradera; *laket* = atsegin; *gentz* = bake. *men*
 = pasión; *goznar* = meditación; *dager* = agiri da; *ikur* = seinala; *ol-*
dozkor = pentsakor; *Urtzi* = Jainko; *zador* = misterio; *zerorrek* =
 zeuk; *azkon* = gezi, flecha; *arru* = barranco; *at* = kanpora; *aron* = ara
 ta ona.

69. ESPETXEKUARENA

I

¡Itxaso oñen nafu nabaña
pantera batena dirudil!
Espetxeko atezain zaña,
itxi nagik goxeko bidari.

—Tori giltzok, ufezko giltzok,
ta bete egikek itxas-miña.
¡Aixioin egal-puntan daukok
ifiork itxastau-bako lurrina!

—¡Noiz arte lagako nauk azke
zidafezko itxaso zabalan?
—Azke az gura dokan arte,
goiz edefoi mañe-dagijan!

II

¡Neure mañiaren oñotsak,
—ufeñxindoñ ori, ago izilik—
bide argijetaz yatoñzak!
¡Atezaña, azke laga nagik!

—Tori giltzok, ufezko giltzok,
mañasuna yabilk landetan.
Esku zurijan muin-egijok
eta laztan bat begijetan.

—Mañasun pozkafi oñentzat
azke nabilkek leñ-artian?
—¡Zintzoro mañe-dagijantzat
giltzik etxagok espetxian!

III

¡Abefi amaren negaña
neugana yatoñ mendijetatik!
Espetxeko atezain zaña,
bein solik azke laga nagik!

—¡Agur giltzok, urrezko giltzok,
guda-otsak dozak landetan!
Añen, itxi ondo atiok
eta galdu zañeze uñetan.

—Baña abefi ama aldezteko
enauk itxiko kate-barik?
—¡Eure eñi oñi azkatzeko
etxak iriko espetxerik!

Urkiaga'tar, E., «Lauaxeta»: *Arrats-beran*, 1935, Bilbon, 29-30.

bidari = caminante; *tori* = eutsi, artu; *aixioin* = aizeon; *lurrin* = perfume; *aldeztu* = defender; *iriko* = edegiko, irikiko.

70. ITXAS-ONDOKOENA

¡Itxas-eñtzeko mañe-miñak
zenbat itxaro-orduz egifiak!

Kai argijak margoz beterik
ta ontzizak dantzan uretan,
afaunak, ego-ordez, zabalik.

¡Eme azan itxas urdiña!
itxastar ofein begijetan
nork jafi yok afisku-miña?

Usain eta edari bakanak
batzen dabez kai gustijetan.
¡Muñentzat prest daukez ezpanak!

¡Itxas-ertzeko mañe-miñak
zenbat itxaro-orduz egiñak!

¡Portu-aldeko gastarua,
galtzori danen seme zara
ta ibilkofa dozu gogua!

Luñera zatoñzan orduban
bañiz zagoz uñai begira.
¡Deiren bat dantzuzu bañuban!

¡Oñ of berein zapi zuri!
Aguñ baten uso-dardara
euren gora-berak iduri.

¡Itxas-ertzeko mañe-miñak
zenbat itxaro-orduz egiñak!

Oñ ba-duaz urdin-ganian
baña kayan dagoz mañiak
zapi zurijak atz-añtian.

¡Alkafen zain egongo dira
itxaso ta liofekuak:
oneik ur, areik luñ-begira!

Bifartian portu-ertzetan
bakañik andra eta umiak
zintzo iraungo dira lanetan.

¡Itxas-ertzeko mañe-miñak
zenbat itxaro-orduz egiñak!

galtzori = arrisku, peril; *berein* = asko; *atz* = atzamar, beatz.

71. LANGILLE ERAILDU BATI

I

¡Ene Bizkai'ko miatze gofi
zauri zaree mendi ezian!
Aurpegi balzdun miatzarijoi
ato' pikotxa lepo-ganian.
Lepo-ganian pikotx zorrotza
eguzki-diz-diz ta mendiz bera.
Ator bideskaz —goxa sorbaldan—,
kezko zeruba yaukon olera.
Opo'otsa dok txaide zabalán,
—ukabil sendo, soñanzki urdin—.
Jaubiak, barriz, nasai etzunda,
laguntzat auke, i, urutizkin.
Aurpegi balzdun miatzarijoi
ari bitartez deyak yabiltzak.
Bideskan zelan dirdir-yagijek
txapel-okefen kapela baltzak!
¡Oreik yaukoen gaizkin-itxura
sispa luziak lepo-ganian!
¡Ene Bizkai'ko miatze gorri,
zauri zarae mendi ezian!

II

Mendiz bera lau txapel-okefez
aurpegi balzdun miatzarija.
Begi baltz ofeik sastakai dozak
baña zatitu ezin esija.
Noruntz aroe esku-lotuta
burni margodun gorputz gogofoi?
¡Sendua ba'intz, etsai-odolez
bustiko eünkek pikotx zofotxoi!
¡Nerbion-eftzok —tranbi-dardara—,
azkatu-nayez, zenbat alegin!
Baña olaen zarata-aftian

aren ayotsik aditu-ezin!
 Sispa luziak sutan yagozak,
 —opoi-zaratak txaide zabalán—.
 ¡Aurpegi balzdun miatzarijoi
 igeri adi eure odolán...!
 Txapel-okefak edango yabek
 ardao onena Gomez-etxian.
 ¡Ene Bizkai'ko miatze gofi,
 zauri zarae mendi ezian!

Urkiaga'tar, E., «Lauaxeta»: *Arrats-beran*, Bilbon, 1935, 79-81.

erail = asesinar; *eze* = húmedo, verde; *miatzarijoi* = meatzari ori, mi-
 nero; *pikotx* = pequeta; *bideska* = bidezidor, sendero; *ola* = lantegi,
 fábrica; *txaide* = kale; *soñanzki* = jantzi, soineko; *yagijek* = egiten
 dabe; *sispa* = fusil; *sastakai* = puñal; *esi* = cercado; *margodun* = ko-
 loredun; *ayots* = grito.

72. AGUR, AMA

Agur ene Erri, Jaunak naroa
 Aberri eder argira!
 Neure negarrak jarion naukan
 zeure mendiari begira.

Seme bat zeukan baiña etsaiak
 kendu eutsoen biotza,
 soin ederra ixuri jakon
 maietz bateko goiz otza.

Gurutz deunari musu egiñaz
 alde egin eutson mundutik;
 Kristoren gentza abo gañean
 loratu jakon gazterik.

Jaunaren maitez, Aberri maitez
 ez eban euki bildurrik;
 eta zeuretzat zorion utsa
 opaldú eutsun gogotik.

Ene Erri ona, zagoz betiko
 Kristoren fede betean!
 Olan, zoriona billatuko dozu
 emen ez-pada, zeruan.

Eriotz deuna aurrean daukot
sinistu bada, euzkoa!
Ene Erria azke izan artean
zaindu Josuren legea!

Eder jatazan euzko bazterrak,
eder itxaso zabala;
baiña oraintxe ederrago jat
eriotz onen itzala!

Gaztea nozu bizitz onetan
ta ez jatan palta gauzarik.
Ene Jaun, gogor aldi onetan
ez naizu itxi eskutik!

Ez bedi egin neure gogoa,
Zeure naia bai, ostera.
Gogoa doa zeru argira
gorputza lur illunera.

Urkiaga'tar, E., «Lauaxeta»: *Olerkiak*, Etor, Donostia, 1974,
178-179.

ARRIANDIAGA'tar IMANOL (1876-1947)

Aranaren bideari jarraituz, erreforma-zaletasuna azkenengo ertzeraino eroan eban idazle jakintsu onek. Jokabide baten eredu-tzat jarri geinke bera. Gauza askotan erri-usain andia dauka onen izkerek, baña, «garbitu» bearraren «garbitu» bearrez, illum eta iruntzi-ezin biurtzen dau Arriandiagak. Ona emen, esandakoaren argibidetzat, urrongo zatitxu au:

73. AMAR LEGENÁRDUNAİK

Jerosolin'era bidez, Samari ta Galilai-ziaf ligaruan. Eta aldauri ezeinbatera saitzen ziralarik, amaf gixon legenárdunaik aufez-aufe egin leutsen; oneik, baña, uruntxu lotu ziran. Eta didar-egin leutsaen: «Josu, Irakasle, efuki akigu» esanaz.

Eta Josu'k ikusi leuzalarikan, «zauze —iño leutsen—, eta jauparijari aufkeztu saikiaze». Eta luazanaftian, txautu egin ziran.

Eta euretariko batek, txautu egin zala eguaftuki, atzera egin leben aldañika eta Urtzi'ri goraka.

Eta Josu'ren ofietara auzpeztu zan eskañik-askoka; eta be-rori, ixan, be, samaritafa zan.

Eta Josu'k, erantzun eta «ez-al-doza, ba, amaf ixan txautu-baik —iño leban—; bederatziraik, ba, nun yagozak?

Auxe, atzeñiar au baño eztok ixan Urtzi aintzaltzen atzera etofi duanik». Eta «zutundu adi, eta uake —esan leutsan—; eure zifnesmenak txautu au».

Arriandiaga'tar, I.: *Goizparraik eta Beldubaik egiña, Zarautz, 1959, 294-295.*

ligaruan = igaroten zan; *aldauri* = arrabal; *ezein* = batzuk; *jaupari* = abade, apaiz; *txautu* = garbitu; *eguaftuki* = konturaturik, oartz; *al-darri(ka)* = oju(ka); *Urtzi* = Jainko; *aintzaldu* = goratu, glorificar; *goizpar* = barri on, ebanjelio; *beldu* = bialdu, apostolu.

JOSE ANTONIO OAR-ARTETA (1900-1978)

Beste euskal lantxu batzuk ere eskeini euskuzan Oar-arteta abadeak, baiña gerra-denporako nobela gitxi ezagun bat da, gure ustez, bere lanik gogoangarriena: Markiñako pelotarien bizimodua eskutitz bidez erakusten dauan nobela: «Miren'en senargeya».

74. IÑAKI BIDE OKERRETIK

Iñaki'ri, joakeran min emoten eutsen Bartzelona'n, bere pelotari lagunen abesti nasai ta bizikera ganorabako samafak. Baña nok siñistu, urte terdi baño len, bera be, igeñi barik lez, euren bideetan sartuko zana?

Bere pelotari lagunak gabaz «Ziñera» badoyaz, Iñaki be «Ziñera» joango da... Bere aiskidiak antzokira, bera be antzokira ta bere lagunak aldamenetik ibilteko neskatzan bat bilatzen badabe, berak be, beste kutuntxuren bat bilatzen dau. Aiztu egin ete da Miren'etzaz?

Ez, aiztu ez da egin, eta azkenez be, onexekin ezkontzeko ames ta asmoak daukoz, baña denporie pasetiafen bakafik-edo, onan..., maitekutuntxuen bat aldamenen ibili-bai-ez ibiliez deu uste Miren'ek «kalabasarik» emongo deutsenik. Onan, geyagoko barik, ain eñex, bertan-bera izteko baño geitxoago kostata euki oi dabe Basaibar'ko neskatiak senargeya.

Amaikatxu bideñez, fede andiz, soñekoak uratzeko afisku ikaragariz, gafiya ondo bigundute igaro izan dira, senargeya jadestearen, Afetxiñaga'ko Deun Mikel Goiangeruaren arkaizpetik. Eurak andik igaro izan badira be, olako sorginkeririk eztabela siñistuten esan daroe, txantxetan bakafik igaro izan direala; baña bada ezpadan be beintzat, andik, ames ofegaz sartun-urtenantxu bat egin bako gitxi. ¡Gitxi izango ez dira bal!

Iñoiz ikusi dogu berrogei urte inguruko neskazar-trunbil bat, beste zeregin barik kanpotik ona etofita, lodiyegeiya zalako arkaizpe ofetatik paseu eziniik. Eta beste bein, len safera aldeko zulotik igarota egoan kanpotar neskati la talde izugari bat,


oñestaria baño bizkoragoa, barien-bari, andik onantz sartzen Erminta-zaiñak txantxetan esan eutsela-ta beste barik, senar-geya lortuteko, baliyoko izateko, ate-ondoko zulotik orma ondorantz, nai-ta-ez, sartu bear zala.

Onenbeste senargei egañi, eta ainbeste alegin egin dabenak, beste norbaitegaz ibilialdi bat edo beste egin dala ta geyagoko barik ezetza emon? Au ezetara be ezin leiken gauzea deritxo. Ezta... ezta... Miren'ek berak baleki be. Baña... au zelan jakin? Pelotarien batek esan ezik ezetara bez. Eta au, bañiz, inñundik be ezin izan leiken gauzea da. Olan baño alkartasun geyago dago pelotarien artean, bata bestien «zerak» estaltzeko...

Oar-Arteta, J. A.: *Miren'en senar-geya*, Bermeo, 1936, 54-56.

antzoki = teatro; *trunbil* = lodikote.

LAUGARREN ZATIA: **GERROSTEKOAK**
(xxgarren gizaldia)



IBARGUTXI'tar JON GURUTZ (1883-1969)

«Jaungoiko-Zale» talde txalogarriko langille asperreziña Ubi-deko abade au. Izlari gozoa, idazle ugaria eliz gaiak erabiliz: Itzetan «garbiegia» da sarritan, eta orrek illundu ta astundu egiten dau Ibargutxiren euskera zeatz aberatsa.

75. AITA!

¡Aita! ao beteko itza jitz samur baizen atsegiña! Biotz zabal ta jarei, bai bein, Jesukristo Jauna, otoi-asieran olango itz eztsuaz gure biotzak gozatu ta nasaitzeko. Ikusi or ta txastatu gure Jaungoikoa'ren biozperetasun eta Bere Seme Bakafaren gugazko maitasun samuía. Aita! dei egiten irakasten dausku zeru-luñen Jabe ta Jaun dan Izaki Gurenari. Uste osoz, semekiro, baiña alako Aita'ri zor iakon itzal ta begirunez eldu gaitzean bere oiñetara. Aundiki-aberatsaren semeak, opa doguna erazago jaristeko, bere aitari jaita! dei egitea itxiko ba'leuskigu, seme ori esker-zor izango gintzakioz, ofenbesteko ongin-naia agertu dauskulako. Baiña guk «aita» deituañen, audiki ori ez litzake gure aita izango ta gu bere ezaren seme. Jaungoikoa, bai, benetan da gure aita.

a) Jauna'k sortu gaitu; ez izatetik izatera Alguztidunak ekañi gaitu; garan eta dogun guztia gure Aita'ren esku zabaletik artu izan dogu, ta ori, ez gure irabaziz, Bere efuki ta maitasunez baiño.

b) Jauna'k iraun-eragiten dausku. Ez gara gu geurez bizi, ezta gure gurasoen adorez bere. Gu erne-azoteko laguntzat artu izan ditu Jauna'k gure gurasoak. Baiña gu erabili, gu bizi-arazo, ori Jaungoikoa'k bakafik egin daroa. Amak umetxoa bere altzoan daroan legez, alantxe garoaz gu bere gure Goiko Aita'k.

z) Baiña au baiño semetzako bikaiñagoa emon izan dausku gure Aita'k Jesukristo'ren irabaziz. Giza-bizitza geurez dagokigu gizonoi. Gizona egitekotan, gogo ta soin, gorputz ta arima, egin bear eban Jaungoikoa'k. Ofen ondoan bikaina eta eder da semetzako bizitza. Goi-eskatez, eskar donetzaillez, Jaungoikoa'ren ideko, Jaungoikoa'ren erkide, egiten gaitu

semetzakoak. Bere izena siñestu eben guztiei, Jaungoikoa'ren seme biurtzeko eskubidea emon eutsen. Orain Jaungoikoa'ren seme gara, ta oraindik ez da ageri zer izango garan. Ba-dakigu, baiña, agiri orduko, Aren antzeko izango garala, Bera danez ikusiko bai dogu. Ikusi zeinbaterainoko maitasuna erakutsi dauskun Aitak; Jaungoikoa'ren seme izena ta izana emon dausku-ta. Gizon garanez, Jaungoikoa'ren motoi gara, Jaungoikoa'ren jopu ta menbeko. Motoitzatik semetzakora eregi gaitu Jaungoikoa'k maitasunez ta Jesukristo'ren irabaziz. Ez dozue motoi-biotza, bildur izateko artu; semetzako biotza artu dozue, «Aita» dear eragiten dauskun biotza.

Ibargutxi'tar, J. G.: *Kristau-Ikasbide-Atzalbena, IV, Otoia.* Bilbao-Begoña, 1955, 67-68.

jarei = libre; *txastatu* = gustar; *biozpera* = compasivo; *izaki* = ser; *guren* = santu; *itzal* = begirune, respeto; *egin daroa* = egin oi dau; *eskar* = grazia; *donetzaille* = santutzaille; *ideko* = proporcionado; *erkide* = partaide, partcipe; *jopu* = esclavo; *dear* = deadar, didar.

ANGEL MADARIAGA «AINGERU» (1893-1963)

Frantziskotarren aldizkarietan («Aránzazu» eta «Anaitasuna»-n, batez ere) asko idatzi eban fraile onek, euskera errikoi jatorrean beti, edozeinek errez ulertzeko moduko izkera argi ta garbian... Gerra osteko isilaldia urratuz, A. Imanol Berriatua-gaz batera, garbikeria bako izkera errikoa (orduan, askorentzat, mordoilloegia!) zabaltzen asko alegindu zan.

76. MAKALLAOZALEAK

Bermeoko Talan egon zara iñoiz? Bermeora bazoaz, Talara joan barik ez biurtu etxera. An jazarri zaitetz bertan dagozan zurezko bankuetarik baten. Ikuspegi zoragarri bat zabalduko jatzu begien aurrean: Matxitxako ezkerretara, Ogoño eskumatara, bien erdian Izaro islea, bakarrik eta ixilik, bere komentu zarraren orma apurtuak erakusten. Antxe nengoan, oraindiño asko ez dala. Alboan neukan-gizon mardul eta sendo batek zigarro bat eskiñi eustan.

—Eskerrik asko, ez dot erretan— nik erantzun, eta geiago barik verbetan asi giñean. Itxasoal ze gauza aundia dan itxasoal, gaiñeratu neutsan, neure burua apur bat romantiko egiñik. Zek emoten ete deutso geiago gizonari, lurra ala itxasoak?

—Ez neuke esango. Nik neuk, lureko barri gitxi dakit. Baiña vistan dago: Itxas ertzeko erriak aberatsagoak izaten dira lur barrukoak baiño.

—Ori olan da. Zeu, mariñela antza, e?

—Bai. Or Pisbeko makaillozaleetan neure urtetxuak emonda nago itxasoak austen.

—Makaillozale diñozu? Makaillozale nor ez, piperragaz edo tomateagaz ipiñita pil pil dagoanean? Gaziegi badago, botella bat ardu ekarri egarria kentzeko, ta geiago ez dozu bear makaillozale izateko.

—Bai, egia. Neu be orretan mutilla naiz, baiña nik oraingoan beste gauza bat esan gura neban. Euskalerrri guztian, arrantzuan dabillen gizonari, arrantzale esaten deusagu. Emen Bermeon beintzat, lebatzetan dabillen arrantzaleari ta txalupeari

lebatzale, mazitan edo karnadatan dabilenari mazizale. Makailaotan dabilenari zelan esango deutzagu ba?

—Makaillaozale, bete betean. Orain ba, onetan asi garean ezkeru, esaidazu: euskaldun asko zaree makaillaozaleak?

—Bai. Espainia guztiko konpainietan dabiltzanak ez dira gitxi. Geienean eurak izaten jatzuz barruan agintaritzako karguetan. Kapitan asi ta beerakoak, bai kuberta gainean pilotuak, eta kuberta azpian makinistak eta abar.

—Euskalerrian nondikoak?

—Bizkaitik eta Gipuzkoatik bardintsu. Beste provintzietarik inor be ez.

—Non ikasiak?

—Ofizialak eta edozein aginpide daukenak, Marina Merkantean ibilliak izaten dira. Gainerakoak baserrietarik etorten dira, geienak beintzat.

—Eta zelako zeregiña izaten da barrukoa?

—Esan deutzut. Barkuaren aginpidea beti edo geienetan euskaldunen eskuetan egoten da. Osterantzeko bearretan be ibiltzen dira, baiña koziñeru, gatzemoille ta onelakoetan. Beste lan astunik ez dabe egiten euskaldunak.

—Españian zenbat dira makaillao arrantzuan dabilzan konpainiak?

—Ez asko. Printzipalena iru: Pisbe, Pepsa ta Copiba. Pisbe, indartsuena ta aberatsena: amasei ontzi daukoz eta faktoria bi, bata Pasaian, bestea Ferrolen. Pepsa zortzi barkuren jabe da, eta faktoria bat dauko Vigon. Copiba, irugarrenak, lau ontzi ta faktoria eder bat Chapelan, Vigo ta Redondela bitartean, Pontevedra provintzian. Pepsakoak euren faktoria Coruñan egiteko asmoetan dabiltz. Orregaitik, ain barik dagozan bitartean Chapelara eroaten dabe arraiña. Ba-dira beste armadore batzuk, eurak euretara dabiltzanak. Euren arrasteko vaforak erabilten ditue, eta faktoriarik ez dauken lez, Pisberi edo beste konpainieri saltzen deutse.

—Extranjerutik ba-dabil makaillaozalerik?

—Seguru. Espainiatik baiño geiago.

—Euskaldunen kapitalik bai onelako negozioetan?

—Pisben bai, besteetan ez dakit, baiña ezetzean nago.

—Lege espezialen batzuk makaillao arrantzurako?

—Ba-dira. Naziño bakotxaren uretarako, berak ipinten ditu bere legeak. Naziño bakotxaren uretarik kanpora, lege internazionalak dagoz, eta guztiok ibilli bear lege orreen agindura.

—Makaillaoa bakarrik atrapetan dozue?

—Datorrena dana, ona izan ezkerro, batez-bere lupiñea, lotxea ta abar.

—Makaillao asko Terranova aldean? Esaten dabe makaillao eme bakotxak milloika arrautza ipinten dituala.

—Bai. Ori olan da, baiña zelako sasoiak dan eta zelako urtea. Zer pasetan da antxobeagaz, zer atunagaz? Urte batzuk ugariak, beste batzuk urriak. Gaiñera, ba-dakizu esakunea, arrain aundiak txikarra jaten dau. Ba-dira arraiñak makaillaozale direanak, makaillao arrautzak jaten dituenak eta makaillao kumeakaz bizi direanak.

—Ze modutako bearra izaten dabe gizonak barruan?

—Bakotxak bere eginkizuna. Kapitanak dauko barkuaren agindua, naiz itxasoan naiz arrantzuan naiz portuan. Pilotuak dauke euren kontura kuberta gaiñeko zeregin guztien ardurea. Eurak dira arrantzua dirigietan dabenak; zetan esan be ez, beti kapitanaren begirapean. Lenengo makinistearen kontura egoten da makiñetako arazo guztia. Bere menpean dagoz bigarren eta irugarren makinistak, fagoneru ta engrasadoreak, eta euren orduetan guardia egiten dabenak. Kuberta gaiñekoak edo mariñelak, bota bear dabe «arteak» itxasora. Au —«arteak» jaurtigitea— arrisku aundiko gauzea izaten da benetan, batez-bere Norteko itxasoetan, denporale apur bat dabillenean. Zenbat bidar jazo da, kuberta gaiñean bere lanean dabillen gizona olatu traidore batek kuberta gaiñetik garbitu ta itxasoak iruntsitea. Eta gizajoa, aletin guztiak eginda be, eskura ezin ekarri ez bizirik ez illik. Kuberta gaiñekoen ardurea izaten da makaillaori burua kendu, kanalean ebagi, uretan garbitu ta bodegara sartzea. Kuberta azpikoak gatzitu egiten dabe arraiña.

—Beste gauza bat. Erlegiño gauzetan zer diñozu ba?

—Gauza aundirik eta onik ez. Makaillaozale flota guztietan ez dago abade bat. Errian gagozanean, Canadako portuetan batez-bere, joaten gara eleizara; meza bat entzun edo Aita-gure batzuk erreza edo zeredozer egiten dogu; baiña konfesau ta komulgau ta onelakorik pentsau be ez. Ingeles edo frantses jakingo bagendu, tira!., baiña orrenbeste ez dakigu-ta, ezin egin.

—Lastima aundia da ori. Ta irabazte onik ataraten dozue?

—Ez ba. Barruan erabilten dogun bizimodu gogorrek beste pagu bat bear leuke. Kapitanari polito pagetan deutse, polito baiño geiagorik ez. Beste ofizialak, kontu egin *tripa truke* dagozala, erriak esaten dauan lez. Beeragokoak, kontuak atara.

—Urtean zenbat urtenaldi egiten dozuez itxasora?

—Pisbe ta Pepsakoak bi bidar. Copibakoak iru. Onen barkuak txikarragoak izanda, arrain geiago artzearren, iru bidar joaten dira. Guk, Pisbekoak beintzat, ia urte osoa egiten dogu itxasoan. Urtarrillaren erdi inguruan urten, eta Gabon aurreraifio.

—Osasuna zainduteko medikurik edo botikarik edo olakorik?

—Pisbek mediku bat dauko bere amasei barkuetarako. Besteak, nik dakidala, orrenbeste ez. Geien geien, praktikante bat ontzi bakotxerako. Norbait gaixorik grave jarri ezker, lenbailen urren dagoan portura eroaten dabe. Frantsesak eta portugesak barku hospitalak daukez. Iñor grave gaixotuten danean, dei egiten deutse radiotik inguruetan dabillen barku orreri, eta ordu gitxi barru gaixoa klinika baten lez atendiduta egoten da.

—Pentsau be ez neban egingo itxasgizonen bizimodua orren gogorra zanik.

—Ba esan deutsudan guztia egia da. Ni ez diñot ezetz: erriko langilleak euren esturasunak pasau bear ditue umeeri egunean eguneango ogia eroateko. Baiña itxasoa, itxaso da. An, esate baterako, Terranovako bankuetan ia urte guztian egoten da atmosfera itzala, klima ta temperatura otza, ez dira verbaz esatekoak. Ango itxaso asarretuak, murmoiak (lafiño bai-xuak) eta *iceberg* tontorrek ikusi egin bear dira, zer direan jakiteko.

—Baiña eguraldi ontzurik ez da iñoiz izaten?

—Eguraldi ontzuak txitean pitean ba-dakiz egiten Canadako kostetan, Labrador eta Groelandia inguruetan. Orreretarik kanpora beti da gogorra itxasoko lana Norteko itxasoetan.

—Ederto bai ederto igaro dogu ementxe ordu bete ta geiago. Ba-dakizu? Emen esan doguzan gauzatxuok nik ANAI-TASUNA'n atarako neukez, zeuk oker ez baderitxazu.

—Zeuk gura dozuna.

—Orduan esaidazu zeure izena.

—Niri Juan Etxebarri esaten deuste Bermeon, baiña ize-
nik ez agertu periodikoan.

Alantxe amaitu genduan Bermeoko Talan arratsalde aretako
alkarrizketa luzea.

Madariaga, A., «Aingeru»: in *Anaitasuna* (Bizkaia), 1956,
zenb. 35.

tala = atalaya; *ixitean pitean* = a cada paso.

JAUREGI'tar GABRIEL (1895-1945)

Euskerea irakaskintzan sartu-gurean, Fisika ta Kimika geure izkeran emon euskuzan («Pisia» eta «Kimia»): asmo eder ori euskera errikoi jatorrez zertu eban, baiña iztegi tekniko barriren barriz asmatuz, eta ez gaurko kultura zabaleko berbak erabiliz.

77. Aurítza

I

PISIA EUSKELDUNEN ARTEAN

—¡Eup! Ni emen nayatofk.

—Nor az, ba, i?

—Ni? Pisía.

—Pisia..? Ez-aut ezagun. Egundo, olako izenik etxoat entzun.

—Ni nor nazan, yakin gura ba'dok, ba, entzun, afen:

1-go. Orain urte batzuk dirala, lenengo aldiz Markiña'ra yoan intzanean, eta, an, asto txikia idi andiagaz buztatuta burdiñeari, biak bardiñean, bultz egiten eutsela ikusi euanean, astotxoak eta iditzafak indaf bardiñak eukezala, ik esaten euan. Ire esana ezeztu, ta atariko beste gauzak zelan yazoten diran esaten dauan iztia nok ni.

2-gn. Basefitxo baten efotea egiteko ur gutxi eukeela-ta, euren gari-zofoak eyoteko, ordubeteko bidean eroaten yoezan. Auzuna oftan ur gitxigaz, baiña goiera aundiagaz yauken efekea; ta, efotea, baita tximistolea be egin yakezanean, afituta gelditu zoazan. Lenago, eyoteko, ufutira yoan beaf izaten yoan; eta orain, eyo ta argia, bertan.

Uraren indafak zelan erabili leitekezan neuk azaltzen yoat.

3-gn. Orma zabalak, atx-afoak, mendi-aldapak... nor-berak zarataka ta uluka esaten dauana, erantzuten dauskuela,

yakiña yoagu. Ba, erantzun onen zergaitia be emen yakaft. Baita ots eta durunduaren gora-berak be.

4-gn. Aramayo'ko baseñitar batzuk, oraindiño urte asko eztirala, Afazola'ra yoan; an, suburdia ikusirik, esaten ei-yoen: «*Bultz-egiten dauksen zaldiak nun yaukazak burdi onek?*» Eta zaldi barik ibiltzen zala, esan eutsenean, ez ei-eben sifñisten. Ba, suburdia zelakoa dan eta zelan ibiltzen dan; egazkiñak eguratsetan zelan ibiltzen diran; eta amaika onelako yazokune ementxe erakusten yoadaz.

5-gn. Koko-Eriko mutil bat praile saftu zoan. Gaua eldu zanean, bere gelea erakutsi yautsen. Ogeratzeko, yantziak erantzi yoazan eta tximist-argontzia zelan itzungi ez ekielako, putz-egiten asi zoan, baña ezin itzungi; gero txapelagaz yo yoan eta alan be ezin itzungi. Orduan, egoanetan, kafajura urten eta tximist-argia itzungiteko beste baten laguntasuna eskatu yoan.

Tximist-argia zelan itzungiten dan, tximist-aria zelan ipinten diran, tximist-argia zelan softzen dan, eta tximisteagaz ze gauza egiten diran, neuk erakusten yoat...

II

PISIKO EUSKAREA TA IZTEGIA

—Baña, ik diñoana, euskaldunok aituko ete-yoagu?

—Bai, mutil. Nik euskeraz yagidanean, euskera leun eta garbian egiten yoat. Gañera, esakuntza labufak erabilten yoadaz. Nik esan beaf yoadazan gauzak esateko, itz-bafi asko asmau beaf izan yoadaz; baña irakuñten asi ezkeru, laster aituteko lakoak asmau yoadaz. Eta iztegia bertan yarabilat. Eta adigari asko ipiñi yoadaz; irudi-piloari begiratuaz bakarik uleñtzeko lez yakafdzak gauzak.

Euskeldunei euskeraz idazteko gatxen etoñten yakuna, auxe dok; gauza guztiak esateko itz zafik ez eukitea, eta dagozan guztiak ez yakitea. Baña, itxaron apuf baten. Aldi gitxi bafu gure gaztediak erdera baño, euskera obeto irakuñi, idatzi ta itz-egingo yok; eta orduan ikusiko dok, euskal-itz bafiak atonduten ibili gareanon aintza norañokoa izango dan. Eta egun ori laster yatofkuk.

Gazteak nai izatea baño eztok beaf; eta gaztediak gura yok:

*Lastei datof eguna;
Sofaldetik agiri da
Argi gozo biguna;
Bere aitean bildututa
Igesi doa iluna.*

Nire okerak, nire ostean datofzenak, zuzenduko yoezak.

Jauregi'tar, G.: *Pisia*, Bermeo, 1935, 7-10.

aurritz = prólogo; *pisia* = fisica; *ezeztu* = negar; *izti* = liburu; *txi-*
mistola = central eléctrica; *durundu* = oiartzun, eco; *suburbi* = tren;
egurats = aire; *itzungi* = amatau, itzali; *isuski* = escoba; *eratz* = des-
cubrir; *izadi* = naturaleza.

ARTEAGA'tar LON (1917-1980)

«Ai, urruti-miña | gaitz senda eziña, | baiña ala ere | ondo atsegiña!», abestu eban S. Mitxelena olerkariak. Urruti-miñez edo, euskaldun asko ta asko ibili izan dira mundu zabalean zear. Baiña, euskeraz beintzat, ikusi ta bizi izandakoaren barri askotzarik ez deuskue emon. Lon Arteaga-ren eskutitz eder onek bai, ostera, izkerarik jatorrenean emon ere...

78. K U Z K O

Katio'tar Alexander adiskideari

Larrea-Amorebieta

Aspaldiko adiskide: Luzaroegi euki nok ezertxo idatzi gabe. Asketsi, mesedez! Urrengoan...

Kuzko'tik dagiari oraingo au. Kuzko dok, antza, Amerika osoan uririk aintxiñakoena; ta aintxiñakoetan ederrena ta ikusgarriena. Olan jñoskuek beintzat jakitunak.

Lau-bost aldiz izan nok berton, eta beronegaz erdi-maite-minduta nagoala esan bear. Gero ta ederrago ta ikusgarriago egiten jatak. Zer sorginkeri ete jaukok, ba? Etxakiat. Zaarra dok, oso zaarra izatez, eta oraindiño zaaragoa itxuraz. Kalerik geienak, oraintsu zabaldutako banaka batzuk izan ezik, estuak, illun samarrak eta pikeak dozak. Atso zaar bat jirudik; bekokia ta arpegia tximurrez josita. Baiña, egia esan: askok bestetara uste izan arren, amamaren bekoki tximurra, neska petralen bekoki leuna baiño ederragoa ta maitegarriagoa dok beti.

Noz sortua ete dok Inka-erregeen Uriburu au? Batek ba-jakik! Jakiña, uri ta endarik geienen iturburuak illunetan geratu jakuzak, or, emen eta beste lurralde guztietan. Euron artean jagok Kuzko be. Iñok ez jakik noz eta zelan izan zoan bere sorrerea. Onakoetan ipuiñetara jo bear. Ba-jaukozak Kuzko'k be bereak, eta oso politak euki be. Ona emen euretariako bat; geien-geien kontatzen dana.

Aintxiña... Noz? Ludjaren asiera-ingurua ei zoan eta, beraz, aintxiña esan bear. Gure lur au illuntasun baltzez inguratuta egoala, Wirakotxa-Jainkoa bertorantza jatsi zoan errukiz

beterik. Illuntasunari putz egiñik, gure bizi-leku au garbi ta dizdiratsu ezarri joan. Ta Jainko-Eguzkiari begira jñiotsok: «Bialdu egizuz, arren, zure seme-alaba Manko Kapak eta Mama Okllo lurrera. Eurak izan bediz, neuretzat aukeratu dodan erriaren leen-gurasoak.»

Urre utsezko makilla dotore bat jamotsek Eguzkiak bere seme-alaba kutunai, esanez: *Zoaze, ene maiteok, lurbira zabala zear. Ikutu makilla onegaz bazter guztiak, eta edertasunez jantziko jatzuez. Joan aurrera ta aurrera. Lurra jo ta makilla ori esku-muturreraino sartuko jatzue tokian, antxe eregiko daustazue nire endaren leenengo uria. Neu izango naitzue alde guztietan zuon poz, argi ta berotasuna, eta neu zuon abere ta landaren indar ta osasuna. Zeuok eta zuon belainekoak izango zarie nire erriaren nagusi, zaindari ta gidari. Irakatxi danai, niri, Eguzki oni, egunero eskerrak emoten.*

Jatsi dozak lurrera Manko Kapak eta Mama Okllo; anai-arreba ta senar-emazteak dozak era berean. «Titikaka» deritxon zingira edo lagona zoan jatsi zoazan tokia. Berau dok, ondo dakik, ludi guztian goren aurkitzen dan zingira; itxas-neurritik iru milla metro baiño gorago. Larogei kilometro inguru jaukozak luzeeran, eta, batatz beste, ogei bat zabaleran. Ikusita jaukat lau-bost aldiz. Oso ederra dok, benetan; batez be goiz-aldetan, eguzkiaren kontra.

Titikaka'tik urrezko ontzi baten urten eta ba-joazak gure Eguzki-semeok Peru'ko menditzar, arru, baso ta zelaiak zear. Aurrera ta aurrera joazak Eguzki-Aitaren bitxiz jantzi ta dizdiraz inguratuta. Jenteak, abereak eta landarak arritua jagozak eurai begira; arrituta ta pozez gaiñezka. Jasan igarri jautsiek Eguzki-seme dirala ta euren zaindari izatera datozala.

«Wanakauri» deritxon mendiaren oiñetara eldu dozak. Eta urre-makilleagaz lurra jotean, orra non sartzen jaken makillea lur-barruan betiko. Iñork ez ei jok arrezkero barriro ikusi. Eguzki-aitaren esanera, bertan sortu ta jasoten joek euren Uriburua, Kuzko izenagaz. (Ba-dakik, bide batez, zer esan nai dauan *Kuzko* izen orrek? *Zilbot-txuntxurra*. Inkatarren ustez, toki orixe zoan ludi osoaren erdi-une ta ardatza).

Uriaren erdi-erdian Jauretze aundi eder bat jasoten jautsek, esker onez, Jainko-Eguzkiari: «Korikantxa». Eta Kuzko alboko menditxo baten gaiñean «Sakjsawaman» deritxon guda-uria. Orra Kuzko'ren sorrerea, ipuiñak diñoskunez.

Or jarraitu joen Inka-erregeak eundaka urtetan, espaiñarrak

onantza etorri aurretik. Uri eder, bikain eta oso aberatsa ei zoon. Bertora leenengo eldutako espainarrak arrituta geratu zoazan berari begira; arrituta bai, baiña urre-gosea be sakonagotuta. Kuzko menperatu ondoren, areik egin joezan egitekoak! Untze bat adigarritzat: milloe erditik gora ei zoazan Inka-denporan Kuzko'ko biztanleak; arrezkero ez dozak iñoz berrogetamar millatik igon.

Dana dala, urteak eta gizaldiak igaroak izan arren, Inka-tarren lorratzez beterik jagozak oraindiño bertoko jale, etxe, jauregi ta eleizak. Kale askotan etxerik geienak Inka-ormak jaukezak oiñarriztat, lurpean asi ta iru-lau metro gora. Oneik bai orma bikaiñiak, oneik! Garbi-garbiak; arri gorritzak apain-apain egiañak. Orma batzuetan arri guztiak neurri batekoak; danak bardiñiak. Beste batzuetan, ostera, danak neurri ez-bardiñekoak; azpiko arrien gora-beera guztiak gaiñekoenakaz ezin obeto artuta; josita lez; arritik arrira ezetariko utsunetxo barik. Argiñak zoazan, gero, Inka-mutillok!

Kuzko'ra natorren bakoitzean, ona igoten joat, arnas-estuka, bide pike-pike bat gora; amesetan egitera. Emen naiagok oraintxe be, bakar-bakarrik, goren aldean aurkitzen dan arrizko errege-aulki nasaian jezarrita. Bertotik dagiat eskutitz au. Berau amaitu baiño leen, ba-dakit zer emon daustan buruak? (Ixillik eukik). Auxe bururatu jatak:

—Gure Katio lako adiskide on bat ba'ñeukok ementxe... errege-aulki edo tronu onetan biok, nasai-nasai jarrita, amarretako gozo bat egiteko!..

—Ako zera! —esango daustak ik, barreka.

—Zer ba? Euskaldun izanik, ez ete gozak munduko edozein errege ta erregekume aiña?

Agur, adiskide! Beste bat arte!

Ire-Ire

Arteaga'tar Lon

Kuzko (Peru), 1957, IV, 28.

Arteaga'tar, L.: in *Karmel*, VII urtea, IV Atala, 23.

asketsi = parkatu, barka; *dagiat* = egiten deuat; *pike* = empinado; *jamotsek* = emoten deutsek; *bataz beste* = en promedio; *jas* = traza, porte; *jauretze* = templo; *lorratz* = oinatz, aztarna, huella.

EUSEBIO ERKIAGA (1912-)

Beste euskalki batzuk ere maisuki landu ditu gure lekeitiar onek, baiña Bizkaiko euskerea zeatz, aberats, zuzen erabilten gutxi lakoa dogu: iztegitz ondo ornidua —orniduegia?—, joskeraz eta morfologiaz zuzen beti, literatura mota asko landu izan ditu, eta, bere lanetan, jaioterriak berarizko leku kutum bat dauka.

79. ARRANEGI

Eguerdi-aldea zan, eta arrantzaleak goiz-bazkaria eginda, ba yoiazan banaka banaka euren untzietarantz, kaiaren kolkotik beingoan itsasorantz ekiteko.

Untzien tutuluak kee ta kee, lurrun eta txipar makiñak, nasa-ganeetan alako gizonteria ebillen, guztiak itsastarrak.

Moilla-ertzetan baporak azkenengo gizonen zain egozan, mutikoak lokarriak eskuetan zituela, noizbait zeatz askatatuteko gertu.

Or-emen andrazko taldeak, ume koskorrak, legortar ikusgura batzuk agiri ziran, arrantzaleen gertakizunak ikusiaz.

Antxen egoan guk dakigun txalupetxearen aurrez-aur, alai barri barriak, atsoaren buruko zapiaren belarriak bezela txairo ta otil zituala, «Otoiop» untzi ederra, urdinez oraintsu margoztua, lemazaiñaren etxeizkia letra zuri aundiz apaindua.

Baiña itsasora joakera artan, ainbeste bidar zuzendu eban gizona ez zan barrurako; betiro lemakaiña erabilli eben eskuak, ez eben oraingoan lan ori artuko; beste bat yoan yoian aren ordezeko. Ez zan illa, ez; bizi zan, baiña ez zan, ostera, egikizun ortarako gai, ez zan gauza.

Untzi liraiña jaiio zanik arrezkero agintari izan eban gizonik bage, urrunduko zan porturik. Bere patroirik barik, Txanton Baixa legorrean utzita. Amar-amabi urtetan bera baiño beste nagusirik ezagutu ez eban «Otoiop»-k ordezeko buruzagia erorian: ariñak arin ta itsasoraldi orretarako soil eta bakarrik arren bai arren zuritu eta limurtu eben beste arrantzale zaar jator bat yoian, «Laba» zintzoa, ona bera betekoa.

Aitaren untziari agur egiteko asmoz —agur atsekabetua—,

jatsi zan kalera Zuriñe, ogei urteko babalora zuri, liluragarri baizen maitagarria.

Ain zuzen ere, Atxabal-kalean beera etorren Xirido gazte eder, kokot-gorri, begi zuri, beti irribarretsua.

—Nora zoiaz, Zuriñe, eder ori?

—Orra ba; gaur, barruko mingostasunez, gure aitak, zeuk dakizunez, itsasoraterik ez daukan arren, nik neuk beintzat gure untziari agur egin bear deutsadala-ta, kairantz noia.

—Ondo esana, ta ondo egiña. Ta aitaren barri?

—Emon euskun ikaraldia iraganik, gero gaberago, gaberdirantz politoago jarri zan ta goizerartekoa ondo-edo emon dauala dirudi. Goizeon oberantza egin dau eta orain beste gizon dirudi, ta itz bat edo beste egiten deusku.

—Eta min andiak al ditu?

—Miñik? Esatekorik ez dauka euki. Oso nekatua dago, ostera; jausia, makal, erkin-itxura gelditu da. Ai, bartko estularria!

—Etxera orduko jakin neban. Talatik etxerantz gentozala.

—Nork esan eutsun, ba?

—Nork esan? Zera: Gorua ta Gorutxapela topau nituan beeko Botikatik urteten yoiazala, eta neure artean, «Nonor txarto dago» —esan neban, eta itandu neutsen. Jakinbarri zirala jardetsi eusten, baiña jarraian, auxe ta auxe zeaztasunez azaldu ere bai. Eneban alakoa makala artu zuen aitagaitik, eta ganera...

—Ganera, zer?

—Eee!.. An dabiltz gure untzikoak neuri deiez-edo. Ni ete naiz ba azkena, «Artizar»ekoenetatik? Bizkortu dagidazan oiñok; zuk ez daukazu olako arin-bearrik eta zoiaz geldiroago. Tira ba, Zuriñe; ondo ondo zaindu aita, ta...

Irribarre gozoagorik Xirdok erakutsi eutsana baiño!

Onen begi argietan zeruaren ozkarbietako baretasun bigigarria eta zerbait geiago sumau eban neskatileak. Aren ortzuri ederrak, ezpain artean isilostuka azalduaz, parreirri gozoaren sorleku atsegin zirala esan gura eben. Axe zan bai gazte jator, zal, egail, alagalakoa; ordurarte guztian iñoiz ere ikusi ez bai leuan, barri barriki begien aurrera etorkion mutil samur, mazal, xalo ta begibetegarria.

Zaarbidean egoan zugatz okertu, zirritodun ta makartsua

zan aitaren ondoan, landa txuxen, lerden, mardo ta zuta zirudian arrantzale gazte arek.

Etxetik larri ta naigabez urten eban neskatxaren barruan alako barriraztasun ta antzaldatze nabarmena erazo eban gizonetzko aren irudi berezi, irribarre gozo ta itz samurrak. Aita-gan gizon gaiso, itun, akitu ta zaarkitua zekusan; kalean topez egindako mutil ezagun argan, barriz, gizaki gazte, sendo, osasuntsu ta bizi-deikakoa musuz-musu aurkitu eban Zuriñe poz-egarrituak.

Arrantzale nekatuaren ordeztu, itsastar sasoikoa; aita urtetsuaren truke-edo, odol ezeko mutil azarria; gorputz leertuaren pare, beso sendoak.

Eta itzetik ortzera, bapatean, bere aitaren leenagoko irudia Xirdo-gan ikusi ebanez, aitaganako penaz ta atsekabez bete yakon gogoa.

Erkiaga, E.: *Arranegi*, Zarautz, 1958, 79-82.

arranegi = pescadería; *tutulu* = tximinia; *txipar* = chispa; *txairo* = airoso; *sotil* = noble, hermoso; *etxeizki* = matrícula; *zuritu* = convenecer; *iragan* = igaro; *nonor* = nor-edo-nor, norbait; *jardetsi* = erantzun, replicar; *sumau* = somatu; *ortzuri* = dentadura; *segail* = esbelto; *alagala(ko)* = egoki-egokia; *zirritodun* = zuloz betea; *makartsu* = legainoso; *txuxen* = zuzen; *zut* = esbelto; *barriraztasun* = renovación; *antzaldatze* = transfiguración; *zekusan* = ikusten eban; *azarri* = azartu, ausarta, atrevido.

80. ONTZI GORRI

(*Mundakako Juan Bautista ontziska, neure erriko kaian barruan iñor бага, ikustean, 1935-II-6an galdua.*)

Txalupa, gorritz jantzia
biotz odoltsu irudia,
kaian zakust geldi, ondar-jota;
ixilla dozu nausia,
mingaifia sor: its, irria.

Bost arrantzale barruan
zenduzalá jun ziñean,
eguzkia baiño len jaikita
itsasora goiz batean,
bost gizon aen menpean.

Ontzi-abarotegitik
atera ziñeanetik
sorterriak ez dau ikusi izan
seme aen gerizarik,
ez entzun neke-intziririk.

Etxera ordua jo, ta
etzian ager, txalupa;
leortar danen begintzako
lau aretan zu ezkuta,
eriotzeaz kukuka.

Ta egun barria astean
uts-utsik itsasganean
idoro zinduzen bakar, deslai;
urez inguru danean,
urdiña goian ta beian.

Txalupa biozkatua,
atoian kaira eldua,
gizonen barri jakin gura nik,
baiña ixillik zuk barrua,
zoritzarrez mingostua.

Ontzi gorri, margo bizi,
oiñaze-odol irudi;
ondartzan ixil zagozan arren,
bost etxetan negar zoli,
biotzen samin-iturri.

sor = torpe; *its* = triste; *abarotegi* = refugio; *intziri* = gemido; *deslai* = descarriado; *atoian* = a remolque.

81. BATETIK BESTERA

Barri ez atsegiña jakin-erazo deutsa ugazabak Nikanor-eri. Izan bere, aspaldion eztabaida garratzak izan ditu Gabontza-gaz. Onen emazte Mautsa, katu baltzaren jabea, a bere ez dago orain leen ainbatean Nikanor-en alde Senarraren esanera dago, eta kale gorrian beñola artu eben mutil umezurtza, esker txarrekoa dala autortu dau.

Albistea ez da besterik auxe baino, orain beñeon: Gabontza-k laster, garazkidea edo sozia izango dauala.

Nikanor, ausaz? Bai zera Nikanor! Ba yagok obarik!

Beste txatarreru bategaz bategingo dau ta bien diru zatia ta beste zerak batu ezkeru, aundiagoak izango dira zuren jardunak, arlo zabalagoak, sail edatsuagoak, eta orrezkeru, maintsua-goak irabaziak, oiñarrien laingotasuna lortzea baldin egingarri balitz. Langilleak, indarra alkartasunean dagola esan daroe-ta, Gabontzak bere, dotriña bardiñaren onurea eskuratu gura leuke. Ta Gabontza, ez da tentela. Gabontza ibilliko da, Nikanor-ek orrenbeste uste izan ez dauan arren.

Argi dakus gaur mutillak, leenago susmau bere egin ez dauana. Iñoren lepo, mantxunga jorian igari ibilteko txakur-amesak, bapatean izotzak joko deutsaz, urrean. Ortik emendik nagosiari «iru zaku» egiten asi zanik ona, ain polito isillean diru mortxakak eskuratzen eta...

Emoi gozagarria dakartsan iturburua, agortu egingo ete yaka lasterrean?

Legeak sortutako zerak, legepe ta legetsua izan bere-ta, laterriak ba ditu, jakiña, bereak eta bost. Aspaldian gogoan izaniko eguna, egun iguin ta gorrotagarria, eldu yaka Nikanor-eri. Esan deutsa esan, Ezekiel laguntzarrak, gorabeera zipotea.

Zera, soldautzarako garbitasunak, zertzeladak, azi-orraziak konpontzen, udaletxera joan bear dauala, arek. Eta Nikanor, jaiotze urtebarru bardiñekoa izanik, nunbait onek bere, dagoan urian agertu bearko dauala bere burua, naita dei berezirik ez jaso, erbestean jaiu zan-ta. Osterantzean, oi dan lez, itzuri edo igesletzat joko leukec-ta, bildurrari bere jaramon egin bear ba, Ezekielen berbetaz.

Urte-adin latz eta bapere ez pozgarria mutillarentzat. Gau aretako orduak, ordikeri bage emon ditu, apal, mandoak ilda lez. Buruko garunak urtu aifcan dabil, jo ta su gogoetan, pensamentuan.

Goiz batean, ba doa Udaletxera. Emen artu deutsez argitasunak. Beste egun jakin batean biurtu bearko dau barriro, lagun talde ugariaren geigarri. Neurriak bere izentau deutsoez, luzera, bular-ingurua edo saiets-uztaia, abelgorriei neurri-kordelaz egiten deuten antzera. Etenik bere, ez dauka, sarri askotan Gabontzak orrelako destaiñak arpegira jaurti arren.

Gaisorik ez dago, gatzik ez dauka, dirudiane; ardauaz edan-sarri izatea eriztat jotzen ez dabelako, adin orretan. Sendi gorabeerarik bere ez, umezurtz gordiña; jarei ta bere esku gelditzeko, ez dau agertu ezer indardunik.

Olarratz jaunaren irudi dotorea ikusi dau egunkarietan. Alduna izanaz ganera, kargu aundi bat emon deustoe laterri-
-arazoetan. Begira dagokio Nikanor, ta leen baizen zaldun eta
jauntxu deritxa.

Alan bere, oraingoan arenganik urrun dago, baiña ona
emen nundik nora dagoan liberal-kume baten menpean. Ga-
bontza, zorri il-biztua, liberalen saillean sarturik!

Gizartea, lur eta sorkari diran zer guztien jabe egitea,
orixe da mutillaren arau-burua. Gizarte-zaletasuna bear dau
langilleak, gitxiren menpe dagoana, askoren esku geldi dedin.
Baiña esanak esan, liberal izatea dirua izatea baldin bada, ez
leuke, ziur asko, beste ezer izatea gura izango Nikanor-ek,
orixe baiño: liberal. Zer esan bakoal!

Bertanbecera gelditu zan Zizili-gazkoa. Onek, bein eta
barriro, adiskide ta ezagun batzuen bitartez, eskatu deutsa
eskuturreko erloiua biurtu dagiola, aspaldion Nikanor aren begien
bistara bere, agertu ez dalako.

—Ankerra ta guzurtia! —diño Zizilik mutillagaitik. Erloiua
ostu deust zantar orrek. Nire begira ebillelakoan nengoan ni,
eta orra! Naiago izan dau, arean, nire orduari urrezkoa. Errizai-
ñari jakin-erazoko ete deustat? Baiña, nor daukat lekukorik?

Eta orretan geratu da erloiua ren auzia, eta Zizili, ain barik.
Ez orduari apañnik, ez senargei zatarrrik, ainbestean bere, tira!

Dakianak ba daki jakin, eta baita Nikanor-ek bere, ba dau
ezaguerea Gabontzari bere ondasunetan atximurkada txiki bat
zelan egin legion.

Asmo bikotxa agergarri da. Diruaren premiñaz dago mu-
tilla: edan, erre, ara-ona ibilli, neska billoiz arteratu alik sarrien...
Eta diru ori, nun aurkitu legian bere, ba daki.

Iñor konturatu bage, egin nai leuke azpijoko ori. Ta egingo
dau, okerrik ez bada.

Bankuetxean, Gabontzaren kontuan zenbat dagoan ba daki.
Or dago aska ona, jan-edanaren jabe egiteko; ortxe, eskuarte
ugaria, artu al izan ezkeru. Lenengo eretiaz baliauko dala, zin
egin deutsa bere buruari. Jaungoikoaren egia!

Eldu-barri dan korreotik artu dau, andik sei illabetero
bialdu oi deustsoen kontu-zeetasuna. Ta antxe, zenbaki bat aldatu
dau; ta ogei milla erreal beerago utzi, Gabontzaren alde azken
-lerroan agertzen dan oiñarri barria. Etxean bertan daukan
liburutxuan bere, aldaketa bardiña egin dau, ardura aundiz, eta

egiñikoa polito batean erabiauta utzi dau. Gabontzak ez dau ezer igarriko. Ez da agiri ezer oargarrik.

Ugazaba agertu danean, ezarian, beste kontu batzuekaz naaste, ikusi eragin deutsa areri mutillak, eldubarri dan kontu-bilbea. Eta Gabontzak, ustekabean, iraisez begiratu eta beste askok lez, Bankuetxeak iñoiz ez dabela okerrik egiten-ta, ainbestean onetsi dau ikusirikoa. Bai ba, meta aundian galburu batzuk gorabeera, igarri bere ez. Bai, orraitio, orain ogei urte izan balitz! Orduan, Gabontzak lurrezko lapikotxuan gordeten bere laukoak!..

Erkiaga, E.: *Batetik bestera*, Zarautz, 1962, 158-161.

beñeon = beñik bein, beintzat; *ausaz* = agian, acaso; *edatsu* = zabal; *maintsu* = ugari; *tentel* = lelo, zozo; *mantxunga* = chollo, ganga; *mortxaka* = zati, porción; *zipote* = hurafío; *azi-orraziak* = prácticas, métodos empleados; *abelgorri* = ganado; *eri* = gaiso; *jarei* = franco, generosos; *eskutur* = muñeca; *orduari* = erloju; *atximurkada* = pellizco; *erabiau* = disimular; *ezarian* = konturatu barik; *bilbe* = trama; *onetsi* = aprobar; *lauko* = «cuarto», txanpon.

ALFONSO IRIGOYEN (1929)

Gerra-ostetxuan, Bilboko euskal eremu latzean, Alfontso gazteak bultzada andia emon eutson euskereari: bertsolari txapelketak, liburu zaar eta barriak argitaratu ta zabaltzea, Euskaltzaindiko gela illumetako azterlanak, ikasketa luze sakonak... Bere lanik geientsuenak ez ditu bizkaieraz egin, baiña urrengo berbaldi onek Bizkaiko euskera jatorraren eta gure idazle zaarren usainik asko dauka; maminak, ostera, zentsun andiko pentsakera, aldi barri baten egunsentia euskal idazle asko ta askoren jokabideetan...

82. BERBAK ETA IZKUNTZA

Euskerearen batasun berezkoa

Jaun andrak:

Danok dakizue Euskalerriko azkenengo denporetan asko berba egin dala euskerearen batasunaren gainean. Ta alan da guztiz be emen nozue ni Bizkaiko euskera onetan zuori berba egiten, eta ez uste izan eztituela bere arrazoiak nire jokabide onek. Ni be batasun zalea naz aal dogun neurrian, baiña beste alderdi batetik begiratu ezkeru, eztago dudarik bapere, euskerearen sustrai asko toki guztietan edo geienetan bat izanagaitik, badagozala batetik bestera aldakuntza aspaldikoak be, literaturazko euskalki klasikoak argi ta garbi erakusten deuskuezanak. Egia da munduko gaur eguneko bizimoduak batasun bidera eragiten dauela berez, eta guk be bearrezkoa dogula geroago eta geiago batasuna, irauñ gura badogu. Baiña, diñodan legez, bizimodua da zuzendu bear doguna, berez egin daiten batasuna, eta ez bizimodua gogoan eztaukagula legeak emon, batasuna egingo danaren ustean. Euskera, eta ezta ezein izkuntza be, ezta gure buruan gure kontura ametsez egiñeko gauza bat; euskerea bizia da, urteak eta urteak Euskalerrian bizi izan dana, euskaldunen bearrianetara moldatuz, euskaldunak beragaz negar eta amets egin dabena, beragaz poztu direana, biotzaren barru barruan eroan dabena. Eta ezagutu gura badogu, eztaukagu beste erremediorik bere izana dan le-

gez estudiau baiño, bai bizi dan eremu zabalean eta bai denporan. Jakiña, gugandik ur dagoen denporan. Eta bere izana, gizon bat estudiauko geunkean gisa berberean, itxi dituen arrasto guztietan estudiau geinke, liburutan eta gaurko izkuntzak bere memorian gorde dituen arrasto bizietan. Eta izkuntzearen batasuna lortu gura dogula diñogunean, aal dala denporan bere lortu bear dogu, ez eremua gogoan dogula bakarrik. Eztago esan bearrik gaiñera, batasuna bardintasun lotu eta estatiko bat eztanik.

Batasunari begira imini gura badoguz gure begiak, lenengo lenengo egin bear doguna, ezelango duda barik, Euskalerrri osoan edo geienez bat direan sustraiak zeintzuk direan jakitea da, nondik datozen eta zelango kutsua daukien begiratu barik. Bide orretatik joten badogu batasun-zimentarri sakon eta zabal bat jarriko dogu, barruko muñetako batasun bat, aldakuntza azalekoak jarraituagaitik oraingoz, euskalkien aldakuntzak bizirik jarraituagaitik oraingoz. Baiña, esan dodan legez, nondik datozen eta zelango kutsua daukien sustrai komun orreik begiratu barik. Izan be, izkuntzearen bizia gura badogu, ezin asi geintekoz kutsu au edo bestea daukielako euskal-arbolako sustrairik sendoenak moztuten arbola osoaren arrisku barik, zerren alboan beste arbola askotaz bere sendoago batzuen sustraiak dituen. Gaiñera alboko arbola sendoak eurak bere eztabe egiten olangorik, eta alan ta guztiz be, eztau iñok dudan iminten sendoak eztireanik munduan.

Literatura, moduen gordetzaille eta batasunaren eragille

Argi dago literatura beti aozko izkerearen ostekoa izan dala, eta idazten dana aldatu barik bein eta barriro irakurri leitekean ezkerre, bere joera eta eginbear berezkoa berbak eta moduak gordetan daukala. Jakiña, bein, aldi batean izkuntzan bizi zirean erara, aldatu barik. Eta orretara, literatura berez-kuntza barriak sortu eztaitez an indar egiten egoten da, eta arretaz zaindu eta jagoan bear dogu bere eginbear nagusi ori, bear dan legez eta probetxutik andienagaz bete daien gura badogu.

Gogoan artu bear dogu, beraz, orainarteko literatura osoa, texto zaarrenetatik asita (...).

* * *

Esan dogu berba guztiak autobusean eztaukiela jatorri bardña, ezta ezarleku bardña be. Batzuk beste batzuk baiño lo-

diagoak dira, ezarleku zabalagoa daukie, eta ain tokitan igon dabe edo beste toki aretan, elexea izan da zabaldu eta indartu dituen edo merkatariak edo eremu bakoitzeko bizimoduak la-gundu deutsie, edo askotaz bere leenagotik bizi dira, orduko bi-zimoduaren erakusle eta jarraitzaile. Eta badagoz beste batzuk beste autobus zuzenbide bardifeko batzuetan nebarrebak eta senideak daukiezanak, eta jakifia, gaur egunean, autobusetan, gura bada erradioak be imini leitekez batetik bestera berba egiteko.

Begirada bat emon deiegun elexearen bidez indarra dau-kien berba batzuri, adibidetzat iminten doguzanak: «pekatu, apostolu, meza, grazia, sakramentu, paradisu kurutze, erleji-ño, fede, dotrina, ezkondu, Espiritu Santu, altara, algutzidun, Birjiña, arima eta anima, doe eta doai, santu eta saindu, par-katu eta barkatu, frutu eta fruitu, bedeinkatu eta benedikatu, elexa, eleiza eta eliza», eta beste asko eta asko. Elexeak Euskal-erri osoan artu-zituen sustraia eta orregaitik elexako berbarik geienak bat dira Euskal erri osoan, fonetikazko aldakuntza txiki batzuk gora beera. Or dozue, bada, batasun-indar andia dauen komunidadade bat, gaur egunean be sendo bizi dana eta biziko dana.

Or dozuez «errege, erreñu eta erresuma, soldadu, gerra eta gerla, gudu, familia, soldata, pixu, eskribau, estrata, galtzara, denpora, katigu, mueta eta mota, arrazoi eta arrazoin», esate baterako, beste mueta bateko artu-emonetatik sustraia artu dabenak eta gure burua eta izakera moldatu dabenak, aurreko pentsetako molde asko apurka apurka baztertuerazi arte bizi-moduaren aldakuntzeagaz batera. Eta au, momentu guztietan Europako gora beeretan parte artu dogun seiñiale argia da. Eta berba oneik be, asko eta asko bat dira Euskal erri osoan.

Or dozuez «ekarri, ikusi, esan eta erran, emon eta eman, mendi, bide, erri, itxaso, egun, argi», eta millaka geiago. Argi gitxi daukagu jakiteko zelan eta noz artu daben sustraia gure izkuntzan, baiña bat dira Euskal erri osoan.

Badoguz beste berba batzuk toki edo komunidadade txiki bateko oitura eta bizimoduaren adirazle direnak, eta bizi-modu mueta orrek Euskal erri osoan zabaldu eta indartzeko bidea baleuko, berbak be modu berean zabaldu eta indartuko litzakez.

Or dozuez proba, pelota-joko, postura, eta euskal-jokoetan erabilten direanak eta mundu berezia daukienak.

Badagoz beste batzuk Euskal erri osoan sustraia daukon

idea bat adierazten dabenak, baiña eremu batean berba bategaz eta beste eremu batean beste bategaz. Ez dudarik izan ifioz indar batasun-eragille sendo bat sortuten bada, euskaldunen bizimoduan euren arteko burrukak izango dabezala berbok», bakotzak bere kolore berezia eta ezarleku berezia artu arte, edo bata edo bestea, egoera txarragoan dagoena burrukan, erdi illik edo zelanbait baztertua gelditu arte.

Berba batean esan daigun, izkuntzan bizia daukien berba guztiak gizon arteko artu-emon, izakera, oitura eta aztura muenta bat edo bategaitik daukie. Bestela eleukie izkuntzan bizitzarik izango. Bakartadean dagoen persona bateri bein burura irudimen utsez etorritako amets bat izango litzake. Eta zelango eremua eta zabalera daukien eta euki daben artu-emonok, izakerok, oiturok eta azturok, alango sustraia daukie berbak izkuntzan.

Eta jakiña, Europako kultureari be euskereari begiratuten deutsagun modu berean zuzenduten badeutsaguz begiak, an be argi ikusiko dogu badagozala artu-emon, izakera, oitura eta aztura bertako izkuntza-taldeen gaiñetik dagozanak, eta guk bere areikaz parte artzen dogu. Parte artze ori, gaiñera, gure borondatetik kanpo dago, berezko talde guztien izakera, oitura eta aztura aurrekoengandik artuak dagozan modu berberean.

Gaiñera, gaur egunean Europa bere lokarriak geroago eta geiago sendotu bearrean aurkituten da, gaurko gizona geroago eta gitxiago bizi leitekealako norbere mundu estuan, eta or dogu, esate baterako, aurrera pausu seguruagaz doan merkatu komuna, ondo dakizuen legez (...)

* * *

Eta aipatu dan oiñarria dala-ta, nik be esan gura dot nire eretxia. Gero emen Altube jauna ta Euskaltzaindiko jaun guztiak bildurik erabagiko dabe.

Euskal berba eta eratzat artu geinkezanak dira: Usarioa, sustraia eta zabalereagaitik izkuntzan bizia daukienak, datozan tokitik datozala, eta ainbat erabilgarriago dira literaturan, zeinbat eta andiangoa dan euren sustraia eta zabalerea denporan eta eremuan, beti gogoan izanik berbea zuzenduten deutsagun irakurle edo entzulea.

Alan da ba, Bizkaiko jenteari zuzenduten bagatzakoz, ez-teutsagu Xuberoako itz ezezagunakaz berba egingo. Gogoan izan bear dogu gaur Bizkaian euskera kontuan jentea ez tala ikasia.

Bere kultura beste bide batetik jatorriko, eta guk berba egin bear deusagu, oraingoz, Bizkaiko euskeran sustraia daukien berbakaz eta ezagututen direanakaz.

Europako kulturaren bertako izkuntzen gaitetik bizia daukien kultura ta zivilizaziñozko berbak euskeran onartuak izan leitekez, baldin egoera onean badagoz gureganatuak izateko.

Artuten badogu berba bat gure bategaz burrukan dagoena, eztago arrazoirik artzeko. Bear danean bakarrik artu bear dogu.

Au diñot izkuntza arrunterako. Teknika gaitan —euskeraz idatzi be ezta egiten, baiña nozbait idatziko balitz— itz nazio-artekoak erabiliko litzakez. Ori izkuntza guztietan gertetan da. Izan be teknika gaitan espezialistetatik kanpo jente arruntak estaukaz zetan jakin bear itzak, oso ezagunak eta zabalduak ezpaldin badira arrazoiaren bategaitik.

Orain esan gura dot zegaitik idatzi dodan Bizkailo euskeraz nire itzaldi au. Olan idatzita nik badakit bizkaitar batek baiñu geiagok, euskera kontuan ezikasía danak, baiña ikasía zelanbait kultura gaitan, euskalduna bada ulertuko deustala. Alan da guztiz be nik beste modu baten egin neikean. Baiña beste alderdi batetik begiratu ezkeru, batasunari bape kalterik ezteutso egiten, gipuzkoar, lapurtar eta beste alderdietako jente ikasiak entzun edo irakurriagaitik zerren-eta Bizkaiko euskerea entzunik, euskerearen beste mueta bat ezagutuko daben eta euskerearen espiritu osoa bereganatuko daben obeto, eta orrek ezteutso kalterik bape egingo batasunari, ez iñori. Batasunak, gaitera, euskal-biziaren indarretik etorri bear dau, eta ez aurretik esanik euskalki au edo bestea onartu bear dogula. Euskalki bat besteak baiño geiago finkatuten bada izan daitela berez, indar egiazkoaren bidez aurrera urten dauelako. Orainarte, oso aspalditik izan dira euskalki literarioak Euskalerrian, bat baiño geiago izan be. Eta gitxi gora bera batasun bidean ebiltzan forma bardiñak gauza guztietan ez izanagaitik, zerren-eta alkarren barri baekien. Nik esango neunke gaitera, gaur baiño geiago ekiela alkarren barri.

Etorriko balitz iñoz euskalkiak nastuteko berezko indar eragille andi bat, orduan sortuko litzakez problemak eta erabagiko, askotan berez. Indar ori orainarte zelanbait egon da neurri txikian. Esate baterako, beti izan dau indar geiago Gipuzkoako literaturak, eta Lapurdikoak geiago oraindiño. Eta len be Gipuzkoako eta Lapurdiko autoreen artean artu emon estauak egozan eta gauza batzuetan geroago ta batuago egozan. Eta ain zuzen be Duvoisin-ek verboan *dio* ta olango formak erabil-

ten ditu, Gipuzkoako erara. Beraz, alegiñak egin bear doguz
espirituko batasun sendo eta sakon bat billatuten, zeaztasun
eta diferentzia berezkoeri kasu geiegi egin barik oraingoz eta
berak eragingo ditu apurka apurka gaiñerako guztiak igarri
barik.

Irigoyen, A.: *Euskera*, 1959, 173-179.

ezein = edozein; *arrasto* = lorratz, aztarna; *muin* = una, guna, tué-
tano; *aztura* = índole; *arrunt* = ordinario; *finkatu* = fijar.

GABRIEL ARESTI (1933-1975)

Bilbotar euskaldun barri onek Bizkaiko euskerea ikasi eban leenengo, molleko beargiñen ezpanetatik eta euskal idazle zaarren lanetan (Barrutiaren teatroan, batez ere); eta, ia asieratik euskera batuago batera jo baeban ere, urrengo olerki-zati onek (gaztetako lana dogu berau) Arestiren bein-da-betiko ideologia ta izakerea erakusten deuskuz. Mikel Zarate-rentzat, G. Aresti «kaleko arkaitz, aurkako bidazti kontentagaitz; gizarte kutsatuaren par-naso berriko aitzindari, hizkuntza urbanoaren sortzaille taldeko mailukari...» izan zan. Urrengo bertsuotan, «Gabrielek sinesmenaren eta abertzaletasunaren inguruan errotzen diren sentimenduak agertzen dizkigu» (A. Zelaieta).

83. BIZKAITARRA

18

(...) Nik ezpadot ikusten
Ta banas itsua
Begirik ezpadaukat
Ezta nire errua
Zelan jat etorriko
Barrura damua
Ezpadot ezaututen
Nire pekatua?

19

Jaungoiko ona eida justua
Artezidadea bera
Amodio utsa miserikordia
Maitasunezko platera
Onegaitikan bajatu eizan
Aragiz gizon artera
Ta egun danetan eukaristian
Gizona legez bete da.

20

Baña alan bere niri
Fedea kenduaz

Betiko kondenatzen
Izango da kapaz
Onegaitik kontuak
Artuten badeustaz
Ezeinau orniduko
Goiko gloriagaz.

21

Esango deusatz, *Danok dakigu*
Sententzia bat emoten
Kontuak artun gura deusudaz
Inpermutara baño len
Zelan enozun ipiñi beste
Bide zelaiago baten
Nire arima legoke orain
Zure oñetan ondoen.

22

Zeu zaraz Jangoikoa
Ni gizon pobrea
Zeu zaraz egillea
Ni kreaturea
Zeu juezik artezema
Ni kulpa bagea.
Zergaitan ukatu
Deustazu bakea?

23

Guerra luzea eroan neban
Nengoanean bizirik
Gauza latzgarri ta illunen kontra
Konprenitzeko zergaitik
Zarean altu zarean fuerte
Ta bear bada orregaitik
Apenas egon eida munduan
Neu baño gestoagorik (...)

24

Bera bada justua
Enau kondenauko
Ta kondenetan banau
Ezta Jangoiko
Zervirik inpernurik
Eztot ikusiko

Gizonaren semea
Da nire testigo.

25

Fede onegaz bizi nas orain
Geldituteko bakean
Mundu onetan ezin balegi
Izan daitela bestean
Nire gorputza nire arima
Sartuko dira ezerean
Eta orduan enas izango
Ezer ilten nasanean.

26

Sabin Berasaluze
Iñaki Irigoien
Melitxu Basurtuko
Aiengizko Balen
Robles Arangiz aitzak
Bego Mendiguren
Aita Berriatua
Eta Txomin Peillen.

27

Bilbo ganean bere tronuan
Dagoan Birjiñeari
Prantziskanoen Arantzazuko
Jesukristoren Amari
Euskalduntzea gordetan dauan
Mikel Arkanjeluari
Eta Loiolan bein jaio jakun
Aita San Iñaziori.

28

Mesedez eiezue
Neugatik erregu
Galdu neban fedea
Dakidan bjurtu
Bein bere banozue
Zeuek estimadu
Ezta izango nekoso
Neugatik eskatu.

29

Nire bizitza modu onetan
 Orain badaukat jarria
 Ta bardin bada nire arima
 Gaxoa ain errukaria
 Eta apurtu bajata alantxe
 Lenen lenengo oñarria
 Ze demoniño geratzen jata
 Ezpada jaioterrria?

30

Eztot besterik gura
 Tellatu bat baño
 Eta onen barruan
 Mai bat idazteko
 Andra maitagarri bat
 Niri laguntzeko
 Beste gauza gustiak
 Deabruentzako.

31

Baña egun baten deitzen badeuste
 Erria defendietan
 Prest arkituko nabe ni beti
 Euskerearen aldean
 Armarik eztot artun egingo
 Egundo nire eskuetan
 Nire plumea nire izerdia
 Eskeintzen deusat benetan.

32

Oneik bertso garratzok
 Julioko zortzian
 Gabrielelek Iñakiri
 Kantadu eutsazan
 Motzak direalako
 Aspertu gifean
 Zerbeza bat edaten
 Tabernara joan

Aresti, G.: *Poemak* (I), Kriselu, Donostia, 1976, 137-154. Leenengo aldiz *Egan* aldizkarian argitaratu ziran, 1959 urtean.

artezidade = zuzentasun; *gesto* = gaizto.

IMANOL BERRIATUA (1914)

Aspaldion «euskara batu» orren maisu ta zabalzaille sutsu dogun I. Berriatua bizkaiera errikoiaren jabe ere ba da; eta, Bizkaiko ANAITASUNA aldizkariaren bitartez, ainbat lekutako kronika bizi-biziak eskeini deuskuz, berberak ikusia ta ikasia aitzen emonez. «Erri biziagandik ur-ur dabil aita Berriatua. Eta erriko berba bizi-biziak (naiz «garbiak», naiz erderatikoak) nasaitasun osoagaz erabilten ditu» (Mikel ZARATE, BEI, 266); baiña morfologian zeatza, arteza, eta zorrotza dozu inor izatekotan.

84. DAKARRETIK

*«Donibanetik Dakarreraino
zer itsas-bide luzea!*

*.....
Harat joateko behar baitugu
bai indar eta bai bihotz» (IRATZEDER)*

Luzea, benetan, ANAITASUNA-ren irakurleok, Euskal-erritik Dakarrerainoko bidea. Emen gabiltza atunetan berrogeta bederatzi embarkaziño euskaldun. Geienak Frantzia aldekoak (32): Donibane Loitzun, Ziburu ta Sokoakoak. Beste amazapi enparaduak, Españia aldekoak: Ondarrabiko bi, Pasaiko bat, Orioko bat, Motrikoko iru, Ondarroako bost, Lekeitioko bat, Bermeoko lau. Bermeotik berrogei embarkaziño giñean etorteko, baiña gauzak ez euskuen ondo urten, eta azkenean lau bakarrik etorri gara.

Zemendiaren 25-ean, Santa Katalina egunean, urten genduan etxetik. Goitarrak baiño illabete beranduago. Amabost egun egin genduzan bertora eltzeko. Eta emen gabiltza ordutik ona, gau ta egun, gora ta beera, atunetan, batzuetan aizeraka, beste batzuetan poparean, beti jardun gogorrean. Egia aundia diño Aita Iratzederek bere bertsoetan: «Dakarrera etorteko, indarra ta biotza bear».

Arraiña

Emen atrapatetan dogun atuna ez da gure itxasoetakoak lakoa Ega luze ta ega laburraren erdikoa. Ba-dagoz aundiak eta txikiak: lau kilokoak eta berrogetamarrekoak. Aragia, zuriztea. Azala, adurtsua. Indarra, aundia.

Iru edo lau urte dira, itxaso onetan arraintzaleak atunetan asi zireala. Igaz eta igaz lenean polito atrapatu izan ei dabe arraiña. Aurten eskasago dabil, orain arte beiñik bein. Iru illabete igaro dira etorri giñana, eta oraindiño ez da agiri beste urteetako arrain ugaria. Ibilli, ba-dabil emen embarkaziñoa, gora ta beera, Esteraka ta Oesteraka, Ipar latitude 15-etik 10-erarte, baiña ez da agiri gauza andirik.

Arraintzaleak

Dakarreko itxasoan aurten dabilzan arraintzaleak eundalaroegi bat izango dira. Danak, bat edo beste izan ezik, kanpotarrak, Espaiñakoak eta Frantziakoak. Batez —bere, Frantziako iparraldekoak: Bretaiñikoak. Bizkaia ta Gipuzkoakoak lau grupo egiten doguz alkarren artean: Frontera, Gipuzkoa, Bizkai ta Matxixako. Grupo bakoitxeoak, embarkaziño bat bagiña lez, lan egiten dogu; irabaziak be danontzako dira. Orregaitik, danok bata besteari, norberaren grupokoeri legez, lagunduten deusagu. Gauza erreza da, embarkaziño laguna non dabillen jakitea, arraiñuntzi guztiak radio emisorea ta goniometroa daroezalako. Eten barik gabiltza radioz alkarri verba egiten, bear dan guztirako, batzuetan arraiña nun dagoan esateko; beste batzuetan norberari sobretan jakon karnada bizia lagunari emoteko, ta abar, Eskerrak laguntziño oneri, Dakarreko arraintzaleen bizibidea guztiz gogorra ta latza da-ta.

Itxaso

Ainbeste dempora daroagu, eta oraindiño ez dogu euki egunero-bere benetako kalma zuririk. Beti aiza, beti olatua. Eta gabaz lotan gagozanean, izugarritzko balantzadea. Berorik be ez dau egiten. Orañarte beintzat. Cubako itxasoan baiño egorantzago egon arren. Baiña ondo pentsatuta, ez da arri-tuteko gauzea, ze berton be oraintxe da negua, eta urtarrilla ta zezeilla (enerua ta febreerua) urteko illerik otzenak. Ori gora beera klima ona da: beti eguzkia, ifnoiz be ez euria ta otza.

Eleiza

Domeketan-bere lan egin bear. Askotan jakin bere ez dogu egiten asteko ze egun dan. Emen gagozan bitartean, iru edo lau illabetean, mezarik entzun barik egon bear. Aita Iratzederrek bere bertsoetan diñoan legez:

«Hemen aphezik, mezarik gabe
baigare nahi ta ez bizi.»

Baiña, zorionez ez da ori pasatzen embarkaziño guztietan. Gurean, Bermeoko «Nueva Galerna»-n, fraille bi datoz, bata sazerdotea, bestea anaia laikoa. Domeka guztietan, naiz goizean lan egiten asi orduko, naiz arratsalde beranduan eguneko bearra amaitu ta gero, mezea entzuten dogu danok. Ze gauza ederra, itxaso erdian, illunabarrean, Dakarreko puntan, mezako sakrifizioa zelebratzea eta Jaungoikoaren verbea entzutea! Eta ze ona dan Eleiza Ama Santua, fraille bion personan gure artera etorri dalako, bere seme arraintzaleak azkordaturik! Ementxe dabilta biok gugaz batera zintzo zintzo lan egiten Frai Alberto, naiz makiñan guardia egiten, naiz gaixoak jagoten naiz zaurituak osatuten, naiz laguneri ulea ebagiten. Aita Imanol, karnadea emoten edo poleatik ten egiten, zein arraiñiak batetik bestera igaroten. Eta gero, deskantsaldietan, danok gure fraille biokaz erlegiñoko gauzen ganean berba egiten.

Poza ta negarra

Gabon gabean, euskaldun untzi guztiak Dakarreko portuan batu giñean. Eta antxe, iñorabarik, danok alkarren ondoan ospatu genduan Jesusen jaiotza. A izan zan alegantzia ta alaitasuna! Gero apalostean, gaberdiko mezea entzuten joan gintzazan. Dakarreko abade batek, Itxas-Apostoladuko arazoa daukonak, bein beiñeko kapilla eder bat atondu eban portuko moilla ondoan. Antxe batu giñean ainbeste euskaldun, eta meza asikeran Gabon kanta zar bat abestu genduan. Abade frantsesak emon eban mezea, eta Aita Imanol, alba ta estolaz jantzita, altara ondoan egon zan. Gero, evangelio ostean, abadeak sermoia egin ondoen, Aita Imanolek, erdi bizkaieraz, erdi gipuzkera-laburderaz, euskerazko verba batzuk esan euskuzan. Jarraian barriro Gabon kantak. Eta dana amaitu ta gero, pozarren joan giñean lotara. Baiña gau atan, negarrezko zeredozer jazo zan. Urrengo egunean eta urrengoan ez zan agiri Ondarroako arraintzale gazte bat. Gabon gabarik aurrera ez eban iñok ikusi. Laster zabaldu zan pekoa ito-edo egin zala.

Eta izan-bere alantxe izan zan. Nonbaitean-be, Gabon gabean, ainbeste embarkaziño artean, illunetan laban-edo egin eban, golperen bat artu, konorte barik uretara jausi, eta berta ito. Urtebarri egunean, Dakarreko eleiza baten entzun genduan bere arimearen alde defuntuen meza bat. Gauza guztiz emozio-nagarria izan zan, ia eleiza guztia euskaldun arraintzalez beterik ikustea, eta Aita Imanolen euskerazko verbaldi sutsua Dakarreko erbestean entzutea!

Euskerea

Jaungoikoak ez daiala gura izan! Baiña iñoizko baten Euskerea galduko balitz, azken azkenengo arraintzaleen artean izango litzake seguru segurutik. Emen dana egiten dogu euskeraz. Radiotik ez da besterik entzuten: Euskaldun frantsesak onda batetik, guk bestetik. Legorrean bardin: dana euskeraz. Batzuk Bizkaieraz, beste batzuk Gipuzkeraz nai Laburderaz. Gure kostaldeko euskalki guztiak entzuten dira emen. Ori gora-beera danok alkarrerri ondo ulertzen deutsagu; eta orain-diño obeto ulertuko geunskio, gutariko bakotxak bere euskalkia artez eta zabal pronuntziatzen jakingo baleu. Baiña ez daiala iñok pentsa, gure euskerea «garbia» danik, ez. Guk ez dogu euskeraz egiten verbetea landuteko, ezpabere bear egiteko eta dirua irabazteko. Guri euskereak *biziteko balio deusku*. Orregaitik, probetxu andiagaz erabilten doguz erbesteko berba asko ta asko. Olan ez balitz, euskaldun arraintzaleok laster largako geunskio euskereari, guztiz «garbia» ta ederra izan arren, eta erdera erabiliko geunke, euskera garbi zaleen negar alperrak gorabeera (...).

Imanol de Berriatúa: *Dakarretik*, in «Anaitasuna», martia, 1958, 2-4.

aizeraka = aizerantz; *poparean* = popatik; *igaz len* = orain urte bi.
ten egin = tiratu.

KEREXETA'tar JAIME (1918)

*Eliz-gaien itzultzaile asperrezina izan dogu Kerexeta ain-
beste urtetan. Baiña olerkari fin lez ere agertu deusku bere burua,
Orbelak eta Bitargi liburutetan.*

85. BIZITZA-AROAK

—«Oi, ni gazte naitenean bai,
Anditxoago nadiñean!»—,
Ziraustan, zazpi urteko ume
Okertxo zintzazanean.

«Orduan, gure mendi oro
Negurtuko dodaz, makilla
Eskuan dodala: Memaia,
Udalaitz eta beste milla,

Ogei urte daidazanean!..»

—«Ba-yatortzuz ogei urteok,
Gazte, mutil aundi egiña:
Bizkortu egikezuz oñok!»—.

—«Oi, nik ba'neukez zazpi urte!
Arratsaldean Albitzu'ra
Joango nintzake, gaztai ta
Ogia aldean dodazala.»—

Gaztaro betetan ta ezin!
Zer gero buru ori ule
Zurituz jantzi daitenean,
Ta oin orreik indarrrik bage?

Bekokia tximur, begi itun,
Gaztarora begira... Ene!
Nor izan leikean barriro
Len izan gintzazanez gazte!

Aurtzaro, gaztaro, zartzaro:
Gure bizitzako aroak.
Betiko laztandu gaizala
Gero, gure Goiko Jaun onak!

Kerexeta, J.: *Orbelak*, Zarautz, 1958, 41.

xiraustan = inostan, esaten eustan.

86. BIOTZA JAUNAGAN

Itxirristuan, eztabaidan,
biotzeko atea;
aizeak ez dautso emon nai
bear dauan bakea.

Zabaldu ta itxi aizeak
nire ate gaiso au:
zartadaka erdi-etenda,
ia Erio'k jo dau.

Burruka luzea darabilt,
gogor arerioa,
kemena guztiz kikilduta,
zauriz josita noa.

Bakar-bakarrik aurkitzen naz,
orain ez dot lagunik:
iges egin dauste guztiak
etsaiak izan ezik.

«Ta, zer egin?», diraust buruak.
Biotza eztabaidan.
Itxi dagiodan atea,
sar nadin nire baitan.

Ixi, aize!, urrun zakidaz,
amaitu dozu lana:
nire bakartade onetan
ba-dator bear dodana.

Irutan Bakar zaran Ori,
Zeu zaitut Maitasuna,
Biztuera, Argi, Bizia,
benetako Ondasuna.

Zeugan dot, Jainko, uste ona,
Zeu zaitut laguntzaille;
nire aterpe Zeu izanik,
neu naz beti garaille!

Kerexeta, J.: in *Dios en la poesia actual*, BAC, Madrid.

itxirristu = rendija; *nire baitan* = nigan.

JOSE BASTERRETXEA «OSKILLASO» (1911)

Gernikar onek sekulako gatza ta umorea erakutsi deuskuz bere lanetan. Euskerearen batasun-bidea urratu nairik, bere eretxiak eta bideak «Kurloiak» liburu atseginean agertu zituan, oraingo «euskara batu» ori plazaratu aurretik. Urrengo zatiak Bizkaiko euskera errikoiaren kresala dakarsku, eta euskerearen inguruan eretxi gogoangarriak ere bai.

87. EUSKERA ETA KANPOTIKO BERBAK

(...) Minduta hunegaitik, ixil ixilik zegoan bidaidea. Baña gogoetatsu jarri zuan entzuten zuanak.

«Berba barrixen arte» erran zion legunkiago gero, «urrutizkiña zorionsuenetariko bat da, gehixen zabaldu diranetariko bat dan ezkeru. Baña «telephon» berbia, hizkuntz guztientzat asmatu zan, eta euskeriak, mundu hontako hizkuntz bat dan ezkeru, beria deu berba hau be. Bixetara esan lei ba euskeraz: telephonus eta urrutizkiña. Baña eztabe bixak bardiñ balixo. Urrutizkiñ berbiak adierazten deuen zabalagoa da niretzat, bestiak adierazten deuen baño. Telephonoz berba egiten deuan gizona bera be urrutizkiña da. Bai ta urrunetik berba egiteko gauza dan edozeiñ tresna bat, asmatua edo asmatuteko dagona be».

Eta ixilune labur baten ostean,

«Electricidadiari 'tximista' esatia astokeri handi bat da» erran zion berotasunaz. «Odeietatik jausten diran tximistak, phenomenu electricuak badira be, eztira electricidiaren consecuentzi bat baño, ez electricidadia bera. Erretan dan ikatz zathi batetik urtetan daben txinpartak be tximistak dira, electricidadiagaz senidetanusik pe ez euki arren».

Bakhetu zan hunekin eta,

«Ez adiskide», jarraitu zuan, «ezta haiñ erreza berba barrixak asmatutia. Eta ondo asmatu ezkeru be, uste dozu hoge euskeldunetik hemeretzik ezagutzen eztaben berba bat euskerazko berbia dala? Euskel Herrixen egiten diran gauzak eztira ikusi iñoiz mundu guztixan. Nun egin etc dira, egileak

bakharrik ulertzen dituzan liburuak? Negargarrixa ezpalitz barrez ithoteko litzake».

Beste ixil-une bat eta,

«Ondo asmatzia gatxa bada, asmatu dana euskeldunen arte zabaltzia gatxago da. Neurkiña ta tximista zabaldu diran lez, zenbat hiz barri urthain zabaldu leikezala uste dozu?».

«Ba... eztakit ba», erran zuan bidaideak, luzaro ixilik egon ostean, «ehun edo... Bai, uste det urthian egun bai zabaldu ditzatekela».

«Khendu hortik! Ehun? Nire bizitza guztian eztotaz ikusi ehun hitz barri... Baña ezta ardura. Emon deigun, urthian heun zabaldu leikezala... Ikusi deigun ia... Honenbestegaz be Matematiketan, Fisikan, Kimikan, Osagintzan, eta beste jakintza-adarretan bihar diran hitzak zabaltzeko, ehun urthe bihar litzakez. Artian beste hainbeste agertuko ziran, urthian ehun baño gehixago jaioten dira ta».

«Aski da», erantzun zuan bidaideak, «ikusten det oker negoala. Agerian dago eztala gauza euskera, gai jakitunez idazteko edo hitz egiteko».

«Adiskide, e'zaitetz joan urrunegi», ihardetsi zion Patxiren aitak. «Ezin leike asmatu, ez ta zabaldu be, jakitun hitzen ordezeko berba barrixak bihar litzaken beste arifi. Eta zorixonez general.. Guk bakharrik aldatu, danontzat asmatuten diran berbak? Danentzat balixo dana guretzat ona izan ez, eta guk, mundu guztitik aparte, haren ordezeko berbak asmatu? Honelako zorakerixak egiten gaituez barregarri kanpotarren aurrian!.. Esaiozu osagille bati, mediziñeko berbak bi bider ikesi biher dituzala guztixak... ikusiko'zu, inpernura bidalduko zaituz. Nahiz frantsesez, nahiz alemanez, nahiz inglese, mundu guztiko liburuetan topetan dituz berak ikasitako berbak. Mundu guztixan agertzen diran gauza barrixak irakurri daikez berba horrerri esker. Zeozer balixo dabe beretzat. Bestiak, euskeraz bakharrik erabiliko litzakezenak zetako ikasi?».

«Zer egin lezake orduan? Erderatik hartu hitz hoiek eta bakhoitzak, berak nahi duan bezela euskeratu?».

«Ez! Hori ez; Ahalik gitxien bihar dira aldatu. Euskera jakitun bakharra bihar badogu, etxake egin bihar beste aldakuntzik, euskeldun guztixak bardiñ egiten dabezenak baño. Igon latifiñera bihar danian, española ta frantsesa han bardintzen dira ta. Bizi deixela kaliañ o'ifiñ arte lez, bakhotxak ikasi deuzen moduan esaten. Agertuko da azkenian euskera

jakitun bat, jakintzako gauzak euskeraz esan ahal izateko, euskeldun guztientzako liburuak idazteko gauza izango dana. Euskeria ezta izan bihar baxharrik baserritarren hizkuntza, bizirik iraun bihar badeu».

«Orain arte», erran zuan bidaideak, «bizitza luzea izan du euskerak, eta ezta inoiz ere izan jakintzako hizkuntz bat».

«Egixa diñozu. Ezta sekula izan jakintzako hizkuntz bat. Baña jakintza bera be, ezta inoiz zabaldu guztietatik gaur zabaltzen dan lez. Dagon moduan, jakintzia heldu, ta agur egiten deusku euskeriak. Ezta zabaldu o'indiño baserrixetara. Bestela hilgo zan o'ingo».

«Jakintzagaitikan galdu behar badegu euskera», erran zuan bidaideak, «eztegu nahi jakintzarik».

«Ez esan holakorik! Jakintziak bi bider gizon egiten deu gizona! Jakintzabako herri errukarriak astokillo-herriak dira! Bitik bat, euskera ala jakintza hautu bihar izatekotan, jakintzia hautuko neuke Euskal Herriarentzat. Ezteigun negar egiñ jakintzia zabaltzen dalako, gauza on ona da ta. Zabaldu daila bazter guztixetatik. Baña gerthatu daila euskeria be jakintzagaz bizitzera, bizi daila gura dogu ta».

* * *

Aita bidaidearekin hizketan eta Patxi leihotik zaintzen guztiz labur egin zitzaien ibilaldia, eta ohartu gabe heldu ziran Bilbo'ra.

Basterrechea, J., «Oskillaso»: *Kurloiak* (Herri txoriak), Zaratuz, 1962, 118-120.

bidaide = bidelagun; *erran* = esan; *neurkin* = metro; *aski* = naiko(a); *ihardetsi* = erantzun; *deixela* = daitela, dadila; *deuzen* = dauezan, dituan.

BITORIANO GANDIAGA (1928)

Fraide gazte zala, zoragarritzko olerki-liburuagaz arritu ginduzan guztiok («Elorri»), poeta barri bat —eta gorengo maillakoa— bide onetik etorrela ikusi genduan eta. Bere leenengo liburu ori bizkaiera «osotu» baten egin eban. «Gaurko olerkaririk onenetakoa dogu» (Mikel ZARATE, BEI, 280). Geroko lanak euskara batuan egin ditu, baiña noizit beinean bere «lurreko» bizkaierari leku apur bat emonez.

88. ITZAREN BILLA

NEURE itzaren billa
—ez gauzetan,
ez jakintzan—,
neure itzaren billa
nabil... amesetan.

Ez-bai utsa dan arnas bat,
zerak doi aitatzekoa,
berba mugarik bakoa
nai dot: gomuta zaarrek
dakien izkuntzakoa.

Itzaren oiartzun sorra
—ez muiña,
ez otsa—,
zerbait xamurra
ozta lioken
kili arin aura.

Ez ipuirik. Doi-doi zera:
era bako
itzal gozo...
Ez irudi, aaztutako
pozen miña baiño.

Lotu bako berba nai dot:
soiñu galdu bat lakoa;
usain askatutakoa;
edo kolore pintatu bako
dan ez dan-ekoa.

Gandiaga, B.: *Elorri*, Oñate, 1962, 24.

sor = mortecino; *aura* = a, ura.

89. USAIN ERLE...

USAIN erle...	arkaitzetako berpizte.
elorri zaarra loretan dago, arkaitzetako berpizte.	Zugaitz eta adar legorrak, miñak ausita, lurrean. Lora txilarrak ageri dira nire arima zaarrean.
Oker eta apal, maitekor, samiñen apar galesti, arkaitz artean, gaur, dirdirazko zuritasunez, elorri.	Arima, lore txikiz, elorri-zotz bat lez, bideko lagun eder egur zaarren amarez, dar-dar, leiar.
Argi ta lore dana, ameseta garbiz ageri da, goizeko intzez eta eguzkiz, dar-dar, leiar.	Usain, erle...
Usain, erle...	elorri zaarra loretan dago, arkaitzetako berpizte.
elorri zaarra loretan dago, arkaitzetako berpizte.	Gatzez et'eztiz ondua —katillu-esne on bat lez—, egur zaar eta lore barrizko giroa dabil, arkaitzez,
Barri dirudit malkorrek ikuspenaren argira. Ta, arima zaarrak, arnas jaiotze edo itxaropen pilpira.	Oker, apal, maitekor, elorria, edur, aideko olatu bat lez —samiñen apar labur—, dar-dar, leiar.
Arima be pilpira, elorri zaarra lez. T'emen, barriro, poza aaztu neban gardenez, dar-dar leiar.	Usain erle...
Usain, erle...	elorri zaarra loretan dago, arkaitzetako berpizte.
elorri zaarra loretan dago,	

Gandiaga, B.: *Elorri*, Oñate, 1962, 33-35.

berpizte = berbizkunde, resurrección; *apar* = bits; *galesti* = karu; *intz* = inontz; *leiar* = cristal, translúcido; *malkor* = páramo; *garden* = puro, transparente.

90. JAUNGOIKO - BILLA

Jaungoiko-billa nabillalako
barre dagista jenteak.
Zorotzat naukee gerizpe-zaleek,
maite bai dodaz bideak.
—«Gelditu adi, esaten deuste,
laga egizak nekeak;
ames billoixi eta utsal dituk
ire geroko-usteak»—.

Baiña aurrerantza noa bidari
geiago-zidor legorrez.
Nire arima ezin da bete
zear-ertzeko zugaitz-pez.
Eguna oso aldakorra da,
bizitza, zertan esan ez.

«Aragorako egiña zara»
diñost, arimak, joranez.

Lilluratua deitu naiela.
Gelditu beitez pozarren.
Argia jatan uste bat daukat
bular-buruak betetzen.
Aurrez aurrera jarraituko dot
bizitza au fedez alaitzen.
Artean, zenbat ukatu bear...
biotzak zenbait min arren!

Eldukerako poza amestuz
—mundutarren barregarri—,
beeko atsegin-ortu ertz-bide
legorrez gora noa ni.

Gandiaga, B.: *Elorri*, Oñate, 1962, 95.

utsal = uts, vano; *bidari* = caminante; *joran* = afán.

91. JOANGO NAZ

Joango naz.
Ez dot urrerik itziko
t'ez dot eroango.
Joango naz ixillik,
ta, nork jakingo dau,
iñoiz, il nintzanik,
bizi nazanik ia
iñork ez badaki?
Nire ama, nire anaiak,
nire prailleak,
nun izango dira?..
Umetan lez dagoke
nire gorpua lo
ama-lurren altzo
geldi ta sakonean.
Etzanik lagako dot,
luze ta argi gabe,

amesik gabeko gau
geldi ta luzean.
Nire praille gajoak
cortziko nabe,
gajoak, nire ama
ta anaiak bai dira.
Bilduko ditue
nire esku lazatuak
beti estutu neban
gurutzari lotuz.
Jantziko deutsie
limosnako neure
betiko abitua
t'eroango nabe
—nungo obi barrira?—
maitasunez.

Algodoia aldendurik
alkoola doaken lez
aldeko dot aidera,

argi ta garbiki,
Jaunaren bi eskuak
dodazan kabira.

Gandiaga, B.: *Elorri*, Oñate, 1962, 172.

umetan = aurtzaroan; *gorpu* = gorputz ila; *eortzi* = lurperatu; *bildu* = batu.

92. GAUZAK POZIK

Gauzak, Jauna, pozik dagoz,
baiña gizonak min dira.
Nire arima tristeki dago
izadiari begira.

Izadiari begira,
gauzetan poza ageri da.
Gauzak pozik dagoz, Jauna,
baiña gizonak min dira.

Baiña gizonak min dira
betiko joran min batez.
Nire arima tristeki dago
izadiari begira.

Baiña gauzak zear, urrun,
zeuganaiño begituta,
zure biotza gizonengana
makurturik ikusten da.

(165 orr.)

93. NEGUAREN OTZA

Gaur nabaitu dot, lenengoz,
aurton, neguaren otza.
Atsekabe illun arrizko batek
zapaldu nai leust biotza.

Ostro igartuak erazten,
asi da, goiko aritza.
Aspaldi dago, adar usturik,
landa zaarreko urritza.

T'ostroak, noizbaitez, jausi
leitekidazan, biotza.
Gaur estuago besarkatu dot,
ain maite dotan bizitza.

(173 orr.)

94. BAKAR

Bakar ta astidun nenbillan,
bide zabal barriz,
arrastiko ordu aulduan.
Eguzkia sartu zan,
atari gorritik,
gabeko etxe barruan.

Gero ta argi gitxiago.
Aide nabarrean
bedar igarren usaiña.
Dana baketan. Ixil.
Baso barrenean,
etenka, ardien txiliña.

Urrun, doiñu bat erne zan,
aitzean itxartuz,
juxtu ta apal, oiartzuna.
Norbait etorren kantuz,
gaba-begietan,
gozatuz, nunbait, illuna.
Leengo kaltzada arritsuez
etorren abotsa
apurka azi ta urbilduaz.
Nornai eiteken izan
bidazti baltzoa,
zernai sentipen ustuz.
Geldi ta zur jarri nintzan
kantua entzuten.
—Lurra biztu egin jatan!—
Eundazak erromes zaar,
urteen barrenetik,
agertu irudi jatazan.
Baso barrengo ardien
txiliñak barriro.
Marduldu zan oiartzuna.
Gardenki entzun neban,
urreean, noizbaiten,
bidaztiak iñoana:
«Zeure gorespenak ditut,
erbeste bidean,
argigarri ta pozgarri.

Gandiaga, B.: *Elorri*, Oñate, 1962, 123-125.

baltzo = talde, aldra; *zur* = adi, atento; *eundazak* = cientos; *erromes* = peregrino; *gardenki* = limpidamente; *ozen* = sonoro.

95. ARTASOKO HIRUGARREN SALMUA

Lurrean
eskubide hartu dot.
Lurretik
nor izatera heldu naz.
Nor bat naz:
nor bat nazala dakidan
lur pixkat.

Lur baino
nor bat edo
lur hontaz
iritzi neikean
zotal bat.

Lur honi zor naiako
Jaungoikoari eskerrak.

96. ARTASOKO LAUGARREN SALMUA

Hilgo naz,
eta edertasunak
jarraituko dau lurrean.
Aleluia.

Hilgo naz,
eta jaustean,
joko dot lurra, lurrean.
Aleluia.

Hilgo naz,
eta erraiak

lurtuko dira lurrean.
Aleluia.

Hilgo naz,
eta hezurak
harri dirake lurrean.
Aleluia.

Hilgo naz,
eta lurrago
jarraituko dot lurrean.
Aleluia.

Gandiaga, B.: *Hiru gizon bakarka*, «Gero», Bilbon, 1974, 177-178.

GARITAONAINDIA'tar GOTZON (1936-1970)

Ondo gazterik eroan euskun eriotzeak gure idazle txukun au, ez lan gixxi eginda, orraitino! Urrengo idazlanean, ain maite zituan «Orixe» andia ta bere jaioterria alkartu zituan Gotzonek.

97. URDULIZ-eko ANSONEKOAA («Orixe»-ren omenez)

Amaikatxu etorten ziran indartsu au ikusguraz Urduliz aldera. Atarañokoa zan indarraren bidez izan eban ospea. Egun baten etxetik urrean goldaketan ziarduala, eguerdi-aurretxean idiai atseden apur bat emon ta bide-batez amaiketakoa artzen egoan solo baztarreko kerizpe batean esarrita. Ara non jatorkozan napartar bi Ansonekoa non bizi zan galdezka. Gure gizonak bape ikaratu barik, artu eban goldea aurreko ertzerik ta lurretik akulua balitz lez bular gañera jasoaz etxera adi jarri eban «antxe bizi da» esaten eutsela.

Gertakizun asko dagoz ondiño edestuteko, baña luzegi izan ez daiten amaitzera noa, ez lenago beste bat esan barik.

Gure morroiak paradako zekorrak azten ebazan etxean. Egun baten auetariko bat —bara t'erdikoa diñoenez— sagarpe baten lotuta egoan. Antza danetik sagar-eperdia lokatu eban; jo ona ta jo ara apurtu eban lokarria ta ara non datorren puska ta surzuloetai lurrune dariela, andik urrean bedarra ebaiten ebillan Ansonekoa'ganantz.

Apur bat bildurtu zan au, zekorrak ekarren itxutasunaz. Baña odol otzez, ezkerreko adarretik oratu eutsan ezkerreko eskua, eskoiaz beste aldeko saietsak estututen eutsazan bi-tartean. Indarketa izugarri onegaz lotu ta lurreratu eban piztia. Baña egintza au azkenengoetan andiena izan zan, ba makalduta geratu zan este-urratu edo erniaz. Arrezkero zurtasun andiz jokatu bear eban, sarritan bere jakerak azpiratzen eban arren.

Gexo onék illundu eban aren eguzkia. Bizitza zintzo bat eroanaz zorionean bizi zan sendia, usterik gitxienean lañotu zan. Joan Batxi sasoirik onenean, este-urratuaz 1856-garren urteko Agostuaren 24'an il zan «Anson» baserrian, bere emazte alarguna lau seme-alabagaz geratzen zala. Jaunak bere altzoan gordeko eban. G. B.

Anai gazteak! Biotzak gora...
Ildakoei otoi eta loral!
Arrotz! arrotz! alperrikan abill!
euskaldunen erria naian ill!
Eman eiozu, Jaungoikoa,
gure lengoari geroa,
Euskal-erria bizi dedin
Zeure mende, bere legeakin!

(*Montzon Olaso*)

Nire gaurko lan au «Orixe» idazle bikañari eskeiñia dan ezkeru, ez neuke lan au amaitu gura beraz zeozer esan barik. Izan be Orixe'k gure Ansonekoa'ren barri ba-eban.

«Euskaldunak» poeman Euskalerria goratu naian ez eban aztu gure erritarra, ainbeste urtean Euskaltzaindiaren aginduz Bizkaiatik zear ibilli zan gure Orixek.

Balankarien gaia emotean iru olerki sartu dauskuz Ansonekoari buruz. Beraz gaurko lan au irakurri ondoren obeto ulertuko doguz «Euskaldunak» poemako 49 ta 50 orrialdetan datoazan bertsuok:

- 1) Bizkaian Urdulitz'a
bearrak aldatu,
ta azi onek an ere
eman zikan zitu.
Osaba Ansorena'ren
berririk nork ez du?
dana dan bezelaxe
nai nitek aipatu.
- 2) Euskal-erri guztian
balankan nagusi,
Napar bat joan zaio
bear dula ikusi.
Gosaltzen alorrean
gizon bat eserki
idiak askaturik
golde-andaitzeti.
- 3) Non bizi da Ansorena?
jeiki da gizona;
goldea kidarretik
—akulu antzera—
zuzen artuta dio:

—Ara an baserria...
Aren errikoa da
gaur irabazia.

* * *

Euskal-erriko gizon saillean
txapeldun zaren bikote;
Gaur motel onek asmatu dauan
goraldia artu eixue.
Batak indarrez, besteak lumaz
euskal gogoa aupa dozue,
Esker on ori biurtu naiaz
lerro auek gaur sortu dire.

Derio'n, 1962-11-8.

Gariatonaindia'tar, G.: in *Karmel*, 1-1970, 76-83.

zitu = frutu; *alor* = solo; *eserki* = jesarrita; *andaitz* = timón del arado; *kidar* = mango.

PEDRO PUXANA «AGIRREGABIRIA» (1915)

Arabako Oletan jaiotako idazle onek, berbaz eta lumaz, amaikatxu bear egin dau, Euskalerrian zear, euskerearen alde! Bizkaiko aditzaren (bere jaioterrikoaren, batez ere) aztertzaile zorrotz, gure izkerearen guna sakonetik ezagutuz, bizkaiera ta gipuzkera maisuki erabilten ditu. Gure Antologia onek Arabako euskera ondarrari maitasunezko omenalditxu bat egin nai deutso urrengo zati onegaz.

98. EUSKERA ARABAN

Yatorriz euskalduna izandako Araba ia dana, zoritxarrez erdeldun utsa dogula gauza yakiña dozu. Probintziaren goi aldeko musturrean badira, bai, euskera ederto ta ugari erabilli daroen erri ta auzoak. Gorbeia ta Anboto mendien kerizpe ta babesean gorde dabie, dirudianez, aurrekoengandik artu eben bitxi zoragarri au. Erri orreik, baiña, esku bateko atzamarrak baiño geaiago eztozuz.

Araba'n gure berbeta ederra galdu zaneko arazoa, aren zati bateri begira badagiogu beiñepin, ez uste izan aintxiña-aintxiñaako gorabera danik. Zazpi-zortzi urte dirala, «Avance» eritxon Gazteiz'ko aldizkari baten, Apraiz jaunak idatzita, urrengo au irakurri neban: Gazteiz'tik iparraldera dagoan zabalguneko erri xectan gure euskera zaarrak emeretzigarren gizaldian iges egin euskula. Ogeigarren gizaldi onen asieran ba ei egozan, egon be, Gamarra deritxan auzoan, Gazteiz'ko ateatietan datzan aretan, artian euskeraz egiten eben agure ta atsoak. Alderdi onetan yausi be abadien ardurabakokeriz yausi ei zan. Apraiz yaunak inoanez, amazortzigarrenian Naparra'n, abadien erruz emen be, galdu zan legez.

Azkenengo lerro oneitan idazleak agertuten eban eritxi az ezin naiteke osotoro bat etorri. Gure euskera galtze onen arrazobide sakon eta eragingarriagorik badagoala uste dot. Dana dala, baiña; onegaitik edo aregaitik, bizizaren alabearrez edo gizonen itsukeri ta nagikeriz, Araba'ko luzera-zabaletik yoan yakun, baita yoanak, yoanak dira, ta galdua, galdua dago.

L. L. Bonaparte

Luis Luciano Bonaparte izan zan izkuntzalari ospetsu ta urtenak euskera ta euskalki bakotxaren barruti ta mugak ziatz-asko izentau ebazan 1869'garren urtian. Yakin gura neuke yakin, Araba'ko zenbat erri euskalduntzat eukazan. Alegiñak egin arren, ezin izan dot yakingarri onen xeetasunik aurkitu. Ukatu ezin leitekena auxe, orratifño: arrezkero egin dauan atzerakada ez dala makala izan. Etxat berealako baten aaztuko, zortzi urte ortxe-ortxe izango dira, Bizkai'ko Lemoa errian nengoala, an neure begiz ikusikoa. Ez eustan gero edozelango biotzikara emon! Bertako abade batek liburutxu bat ekarri eustan. Euskerazko dotriña zan eta 1886'garren urtian, oker ezpanendi, Llodio'ko abade nagusiaren ardurapian argitaratua izan zan, liburuak azalean iñoanez. Yoan gaur Ludio'ra ta begiratu euskeraren lorratzik aurkituten dozunentz.

Ni-neu be arabarra nazanez, aspalditxo neukan nire probintzi onetan euskera zelan ete yoakun yakiteko gogo bizi bat. Gurari au betetako asmoz aren muga gaur egiten dabien erri guztiak ziatz-ziatz aztertu nai neukeazan, Billarreal eta inguruko erritxoak, batez be.

Gorbeia ostera, Baranbio'ra ta abar, yoan-etorri bat egitekotan nago egon. Araba'ko baztar onetan euskera zerbait egiten dala badakit-eta. Erabagi au garatuta ikusteko une egokirik, baiña, ez dot oraiñ arte izan. Gaurkoz beraz, Billarreal eta onen albo erriari dagokiezan barriak emongo dautzudaz, zertxobait ezpada be.

Billarreal'dik eguzkia sartzen dan aldera, lau-bost bat kilometrora, Elosu izeneko erritxoa dago. Muño baten gainian dotore ta baketsu agertuten yatzu, abegi txeratsu ta maitekor bat edozeiñi egiteko eran. Billarreal'ko urtegi aundia izenaz ezaututen dogun urbatuko urak, barren aldiak eztiñero miaztuz, oñetaraño yatorkioz.

Araxe yoan nintzan lenengo. Ezagunik enebalako, artian ezpainintzan bein be leku aretan izan, bertaratu nintzanezkoxe, urren neukan atian dei egin neban. Gizon urtetsu ta lodikote bat laster etorri be atera. Nire lenengo berbak, yakiña, euskeraz zuzendu neuntsozan. Baita berak be bardin erantzun, poz-eztitan ixten ninduala.

—Zer? Elosu'n bizi ta euskeraz badakizu, ala?

—Nik bai beintzat.

—Étzara, baiña, yayotzez emengoa izango.

—Bai, bai, ni ementxe yayo nintzan eta ementxe bizi izan naz beti.

—Alaigarri yat benetan zure erantzuna. Etorri be, inguru oneitan euskera zelan ete dagoan yakiten etorri naz.

—Euskera, euskera! Txarto yoaku, txarto baiño txarrago!

—Emongo zeuskit, mesedez, zure izena?

—Bai pozik be, Agapito Biteri dozuz nire izen-apelliduak.

—Zenbat famili zagoze Elosu'n?

—Guztiz 22 gara orain, urtegi au egin ebenian, or beko etxe batzuk urak artu ebazan-eta.

—Bitoria'tik zenbat kilometro dagoz?

—Kamiñoz ogetabi. Zuzenian amalau-edo egon leitekez.

—Ta euskaldunak zenbat?

—Bertan yayotakoetatik neu bakarrik. Gañetikoak ill egin ziran ta neuk be laster yoan bearko, larogei urte bizkarrian dodaz-eta. Beste euskaldun bi be badira, baiña oneik kanpotik etorriak dira.

—Zure ume aroan danak euskeraz egingo eben, ezta?

—Ni txikia nintzarian, euskera besterik ez genkin. Ez bakarrik Elosu, gaiñera Zestafe, Ollerias, Nafarrete, Urrunaga ta Billarreal euskaldun uts-utsak zenduzan. Urbifia'n gutxiago egiten zan orduan be.

—Ta orain?

—Orain Zestafe'n banaka batzuk badagoz; Nafarrate'n iru etxe gelditu ziran gerratian, beste guztiak erre egin ziralako, ta irurak dira euskaldunak; Ollerias'en bat edo bi izan leitekez.

—Ta Urrunaga'n?

—Inguruan dagoan erririk euskaldunena Urrunaga dozu. Ogei famili bizi dira gaur. Nagusiak ondo dakie euskeraz eta euren artian ala egiten dabie. Gaztiak ez, baiña; yakin be ez-takie-ta.

—Urbifia'n ba ete dago euskaldunik?

—Bertan yayo ziranetatik bi bakarrik dagoz gaur: giza-kume bat eta andrakume bat. Biak larogitalauna urte daukiez.

—Zestafe'ra yoan ete naiteke kamiñoz

—Erri ori antxe goian daukazu. Kamiñoa bestaldetik dago, baiña izerperia ezpaziña, mendiz be laster ziñake an.

—Ta euskera biztuten eta indartuten ez da sekula iñor alegindu?

—Bai, gerra aurretik abade bat egon zan Nafarrate'n. Gipuzkoarra zan bera, ta izena D. Txomin Jaka-kortajarena. Abade yaun onek makiña bat biar egin eban umetxoai euskera erakusten. Gero, badakizu, gerria etorri yakun, bai? ta kitto.

—Billarreal'go barririk eztozu yakingo, ezta?

—Billarreal'en asko ezaututen dodaz euskaldun garbiak, baiña danak urtietan aurrera doiazanak. Lengo egun baten egon nintzan, egon be, gauza onetaz ango abade dan D. Roke'gaz berbetan. Abade onek esan eustanez, euskaldun eta erdeldun familiak erdiz-erdi ei dagoz. Orduantxe bertan, neure aurrian, berrogetamarretik gora kontau ebazan, gurasoak beintzat euskeraz dakien etxiak.

—Ta gaztien artian?

—Gaztien artian txarto yoatzu oso. Kalian erdera besterik ez da entzuten. Euskaldunak baztertuta, kikilduta lez dozuz.

—Eskerrik asko, Agapito yauna, esan daustazuzan gauza guztiagaitik. Ta euskerazko kantarik ez dakizu?, dirautsat azkenez agureari.

—Yakin, len-len banekizan, bai; orain, zaarra naz-eta, aaztu egin dakidaz. «Euskaldun yayo nintzan» kantia askotan kantau izan dot. Entzutia daukadanez, kanta eder ori Otxandio'ko Santugiñarena izan zan (Aonelan eritxoen yayoterri ta inguruan Arrese ta Beitia olerkari aundiari). Ta agure zarkoteak eta biok batera kantau genduan:

«Euskaldun yayo nintzan
euskalduna azi,
euskera utsik amak
eustan irakatsi;
euskera maite-maite,
zabiltz nigaz beti;
euskera ill ezkeru
ez dot gura bizi.»

Alkar agurtu genduanian, matralletatik bera negar malko mardulak eriozan Agapito yatorrari. Gero aitaturiko beste

errietara be, Zestafe kendu ezkeru, ikustaldi labur bat egiteko astia izan neban. Agapito Biteri jaunak emondako barrietatik kanpora, baiña, zuretzat yakingarri litzakenik beste ezer eneban aurkitu.

Puxana, P., «Agirregabiria»: *Euskera Araban*, in «Zeruko Argia», 1965, Irailak 19, 12 orr.

izerpera = propenso al sudor; *urtegi* = pantano.

AGUSTIN ZUBIKARAI (1914)

Beargin itzela gure ondarrutar au, gaztetarik asi eta gaur arteinoko guztian euskal literaturaren arlorik geientsuenak landu dituana, Ondarruko kresal-usaineko izkera bizi, errikoi, labur eta koipetsuz. Gure idazlerik ugarienetarikoa, bizkaieraren barrutian gorengo maillakoen artekoa.

99. BOST KANPAI

Gure kanpaien danbadak,
astegunetan,
biotz minduen taupadak.

Txilin-txilin,
aingeru fin;
danbada bi
eta luze,
emakume.
Iru kanpai,
gazte alai
nai agure.
Bost ba'dira
kezkaz egon,
itxas aizeak
darabillez
berez,
nekez,
ito diran
gizon aldez
otoi eske.

Bost kanpai..!
bost durundi...
Barratik gizonak,
emakumiak zai,
kajarik ez dator,
negar ixilla bai.
Gizonaren negarra
beti da negar latz.

Bost kanpai..!
Aizeak darabillez
itxasotik nunbait.
Iru izan leikez
edo ta amalau,
itxason sabelak
gizon gosea dau.

Bost kanpai..!
Len emazte gordin
ta orain alargun;
len aiten pozkide
ta orain umezurtz,
itxason biotzik
iñok ez ezagun.

Bost kanpai..!
Ba datoz gizonak
kaletan antziz,
lagunen gorputzak
itxasoan utziz,
auzokoenak gaur,
norberenak etzi.

Bost kanpai..!
Illun,
bigun,
aztun,
mindun,
ildun..!

Eleiza zarrean
illeta ixilla,
bost kanpaien otsak
dana dabe illa,
erritarrak makur
errukian billa
otoi samurretan

gizonetan milla,
itxaso lapurra
asetu dedilla.
Nire erriko kanpai zarrak
Itxas zabaleko ondarrak
bost dirudi:
zenbat obi?

Zubikarai, A.: «Itxas lurruna.—IV: Kresal larria». *Dolorezko Izarrak* (Colección «Olerti»), Zornotza, Garilla-Lotazilla, 1966, 96-97.

100. LURRUNPEAN

X

TOBA, KAPI, PELI eta IZAR

IZAR: (*Agertuaz*). Garratza da bizitza.

KAPI: Zer dakartzu?

IZAR: Bizitzea barriztuten asteko gogua. Lizunak kentzeko garra. Kateak eteteko premiña. Sustrai-sustraitik. Adoretzu sentiduten naz.

TOBA: Joan zaite emendik, pizti zatarroi.

IZAR: Bizitzako problemak ez dira argitzen bildurrez eta lotsaz basterrean lagata. 35

TOBA: Ez dira argituko be bakea etenda. Ez zaitut nai ikusi. Zoaz!

IZAR: Kapitana, esku-banda onetan egoteko eskubiderik ba daukat? Bestean ezin lei egon. Andre moskor bat dago lurrean etzanda.

KAPI: Peli, begiratu nor dan eta zaindu egizu.

IZAR: Itxaron. Andra ori ezagunegi da niretzat eta zure emaztearentzat.

TOBA: Beste maltzurkeri bat?

IZAR: Beste argitasun bat geiago oraindik.

KAPI: Zer? Beste semé bat?

IZAR: Edo alaba bat. Zegaitik ez?

TOBA: Agiñak atarako dautzudaz! Zetan lagaten dautsazue jarraitzen?

IZAR: Orain, nire eskubidez. Nire zerbait agertu bear dodalako. Nire soñari ta nire biotzari ta nire izateari ikututen dautsana dalako. Kapi, zuk ba dakizu zure emazteak seme bat izan ebala. Iruntsita zagoz.

KAPI: Jakin bai, ta sinistu...

IZAR: Iruntsita zagoz. Ez ukatu. Beraz, ba dakizu zure emaztea ama izateko kapaz zala.

TOBA: Nora zoaz? Ez dozu azpikeririk amaitu? Zer nai dozu orain?

KAPI: Geldi!

IZAR: Baiña ba zenkien zure alabea... zurea ez danik?

KAPI: Zoro zagoz? Edo zoro nagolakotan diarduzu?

IZAR: Gogoratu... Peli, zenbat urte daukazuz?

PELI: Ogetabi egiteko.

IZAR: Zure amak berrogetasei, nik baiño bat geiago.

KAPI: Ta zer?

IZAR: Peli, edozein egunetan zure jaiotzaren agiria eskatu, zure zifnei Bilboko Amatasun etxean.

PELI: Zetarako?

IZAR: Anai arrebarik euki ezin zeinkela konturatuko zara fitxa aretan.

TOBA: Zelan esan zifnei ori? Nundik atarata?

KAPI: Orretara, ta zorutzen ez ba nazue, nik ekarritako alaba ez da nirea? Peli, lemia ondo dago?

PELI: Ustez, bai.

KAPI: Makifnak be bai?

PELI: Ez dago kontrakorik.

KAPI: Ur gaitzean gagoz?

PELI: Barkuan egon ezkerero...

KAPI: Beraz, ez gagoz zoroetxe baten.

IZAR: Ta ni be ez! Ni be ez! Zure emazteak ume garra agertuko eutzun oi dan lez.

KAPI: Barruko bizitzari, gure arteko bizitza ixillari ez ikutu, mesedez.

IZAR: Ezin dabenak gar geiago eukiten dabe ta ezkontzea justifikatzeko premiña geiago. Kapi. Zure aitatasunaren lenengo barriak, ezkontzeko barri pozgarriak, etxean artu zenduzan?

TOBA: Edozein andre txatxalari gure barruko izatea agertu bear al dautsagu? Goazen, Kapi. Ezin nei geiago. Edozer izan ba naiz be, ezin nei!

IZAR: Mesedez! Laster joango zarie. Parkatu, Kapi. Gogoratu.

KAPI: Ainsteko jakin naia ba dozu, barku onetantxe, Pillipinas'etatik gentozala.

IZAR: Eta zure emazteak ba ekian barriro joateko ziñala?

KAPI: Urte birako. Ba ekian.

IZAR: Eta bera ez zan zeurekin joan.

KAPI: Amatasunik ez galtzearren.

IZAR: Zer galdu? Sinistu; ez eukan ama izateko gairik. Ez eukan sein lekurik, ez eukan bizi barririk indartzeko aalik, mamiñik ez muiñik. Ez zenkien? Peli jaio zanean ebagi ta kendu eutsezan.

KAPI: Ori egia ba da... Ori egia dalako... bere amatasuna Bilboko Casa Cunan ifloren odoleko neska bat artuta billatu eban. Toba!

TOBA: (*Burua makur, erantzunik ez.*)

KAPI: Toba! Au be egia da? Esan! Egia da?

TOBA: Bai.

KAPI: Zegaitik egin zendun? Zegaitik?

TOBA: Zeugaitik.

KAPI: Nigaitik? Zegaitik?

TOBA: Zuri poz emotarren. Zuri bizi barri bat eskintzearren.

KAPI: Baiña atzipetu, engañatu ninduzun.

TOBA: Bestera eukiko ez zendun bizi barri bat sortu neutzun. Ez ukatu. Ez ukatu orain itxaropen barri bat sortu neutzunik. Ez ukatu gizontasun barri bat emon neutzunik. Ez ukatu... amesez eta kezka eta maitasunez biziteko indarra eta gogoa emon neutzuzanik.

KAPI: Ta orain? Orain? Ez nazu ikusten danen lotsari, salduta, mindura, etenda?

IZAR: Eta alaba ori... nirea zan. Nire alaba zan.

KAPI: Peli, benetan be ondo gagoz?

PELI: Ekaitz baltza da au, kapitana.

IZAR: Nire alaba zan, bai! Argalkeri baten alaba. Mundu gaizto baten alaba. Baiña nirea!

KAPI: Nundik dakizu?

IZAR: Peli, Bilboko Casa Cunan zeñiek artu eban nire alaba?

PELI: Kapitana, Bilboko Casa Cunan eta gure barkuan klabe bardiña dago ixillekuak gordeteko.

KAPI: Zelan dakizu? Nundik?

PELI: Ni Casa Cuna orretan anditu nitzalako, aitatasun eta amatasun barik. Bilboko Casa Cunan, orain amabi urteko Mayatzaren bostean dagon fitxan, klabean, auxe esaten da: Neska. Sopelanako Aboitz kapitanearen emazteak beretzakotua.

IZAR: Nirea zan. Ba ekian Tobak.

KAPI: Peli! Itxasoa zabala da. Itxasoa luzea da. Itxasoa sakona da. Baiña itxasoan be gizontasuna bear da. Itxasoan be kontzientzia bear da. Itxasoan be amesa bear da. Ta biziteko arnas garbia. *(Galoiak besotatik kenduaz)*. Peli..! Zu joan ziñei aurrera. Ni ez! Ni, oraintxe bertan, liorreratuko naz. Eta Sopelanako baster baten ezkutatu-ko naz.

IZAR: Sopelanara ni joan bear naz zure aurretik.

TOBA: Guzur barriak agertzen?

IZAR: Nire alaba billatzen. Nire alabari laztan bero bero bat emoten.

KAPI: Zoritzarrez, il zan alaba.

IZAR: Zorionez bizi da alaba.

TOBA: Ez daustazu kenduko! Ez daustazu ostuko! Eskubiderik ez daukazu! Urteak laga dozuz eskatu barik! Eskubideak galdu dozuz!

KAPI: Zein alaba? Besteren bat? Nik ez dakienen bat aurre-ragotik?

IZAR: Yone.

KAPI: Yone? Kanposantutik be atara nai dozue? Joan zaitze danok emendik! Peli! Arlankak jasoteko agindu.

PELI: Ezin giñei etxearen eta poliziaren aginduen aurka joan.

KAPI: Ez jaramonik iñori. Ni naz kapitana. Makiñak ibiltan ipiñi ta urten daigun. Bira osorik lemiari. Guazen aurrera.

PELI: Ezin giñei.

KAPI: Ez al naiz iñor?

PELI: Zeuk galdu dozu nortasuna.

KAPI: Galoiak falta dodazalako? Itxurei begira? *(Asarre,*

bizi-bizi). Barrabillak falta yataz. Dana jo ta apurtu, dana eten eta ebagiteko kobardegi naizalako.

IZAR: Oraindik... oraindik ez.

KAPI: Oraindik ezetz? Ez.

IZAR: Zure alaba nirea da. Ba dakit eskubiderik ez dodala, odolarena ezik. Laga egin neban. Bizi premiñan. Nire bizitzatik urten nai nebalako nik be, ta berari bizitza zatarrrik ez erakusteagaitik. Ala ta be, nirea da. Ezin ukatu. Ezin ziñei. Edo bestela... oraindik ama izateko gai naz. Ezin nei bakartadean bizi. Ezin nei esperantza barik bizi. Ezin nei, Kety gure adizkide galdua lez, mozkorrean eta drogaetan bizi.

PELI: Zeiñek mozkortu eta drogatu dau Kety?

KAPI: Zein Kety?

IZAR: Zure emazteari erantzuna eskatu.

PELI: Poliziak billatzen daben emakumea Kety da.

KAPI: Ontzian ez dator iñor Kety izenekorik.

IZAR: Igone Dongaitz, listakoa, Kety da.

KAPI: Nok daki ori?

IZAR: «Klabelñetan» eta «Potxoletan», gure sasoiñ, Toba, Kety eta Izar giñan entzutetsuenak.

KAPI: Eta ni... irurokin batu naz zimeldu naizenean.

IZAR: Peli, ekarri near zenduke gure aurrera.

TOBA: Zetan ekarri? Gaixo bat da. Galdu bat. Bere jaube ez dan bat.

IZAR: Egia esaten dakian gaixoa. Ta zuk, nai dozuna eragiten jakin dautsazun gaixoa. Ona nentorrela, Ameriketatik netorrela, beragandik artu zendun albiste. Eta zoratu ziñan, nire alaba zendula ba zenkialako. Eta zure zeloak iruditu eragin eutzuen zure senarra, barkuan, emakume atsegiñen atzetik ibilliko zala, eta jakiña, nire inguruan. Eta telegrama bi bialdu zenduzan, Bilbora eldu aurretik, ezkutatu zenduan alaba, il zala niri sinistu eragitearren, bere billa ibilli ez nedin.

KAPI: Toba! Ez dago geiagorik? Nun da gizonaren eskubidea eta senarraren izatea? Nun alkarri eskifiñ geuntsan alkartasun eta konfiantza? Nun da billatu nai zendun zorion bidea?

PELI: Yone izan lei bidea.

IZAR: Yone nirea da.

1.000
KAPI: Yone gurea da. Yone gurea da! Nik sortua ez ba da be, gurea da. Ta bear ba da... nik sortua. (*Bizi*). Galoiak galduko dodaz, entzutea zikinduko dot, osasuna bera minduko yat betiko... baiña Yone gurea da.

IZAR: Odolez ez!

KAPI: Eskubidez bai!

IZAR: Eskubidea zurea dala uste ba dozu, nik be eskubidea daukat, alaba emon neutzun orreri, niretzako beste alaba bat zugandik eskatuteko.

TOBA: (*Garratz*). Kapi!

IZAR: (*Bigun*). Toba! (*Alkarri begira, buruekin, ezetzak egiten ditue*).

PELI: Kapitana, zer egin bear dogu orain?

KAPI: Ez dakit.

IZAR: Sopelanara jo.

PELI: Etxeari zerbait erantzuteko ordua da. Polizia be zai dago.

KAPI: Erantzun.

PELI: Zer?

IZAR: Ontzian sua dagola ta ezin leikela osterarik egin.

KAPI: Aboitiz kapitana bere jaube ez dala.

PELI: Ori ez da egia.

KAPI: Nik ez dakit zer dan egia bizitzan.

IZAR: Nik ba dakit zer dan egia bizitzan.

KAPI: Zeri itxaroten? Ez dozu erantzun nai? Onez ez ba da, aginduz. Esan argi: Aboitiz kapitana andre atsegiñak zoratu dabela, beretik atara dabela. Andre atsegiñak itsutu dabela.

PELI: Ta poliziari?

KAPI: Emengo drogak andre atsegiñetan dagozala.

PELI: Kapitana!

KAPI: Zer?

PELI: Ekatzuz galoiak.

KAPI: Zetarako?

PELI: Arrisku ta guzti, ontzia Sopelanako aurrera eruango dot,
Yone'ren aurrean, ezer ez dakian Yone garbiaren aurrean,
bizia ames eta gogo barriz asi daigun. Bilboko ibaiaren
lurruna astunegi da bizia argi ikusteko!

A M A Y A

Zubikarai, A.: *Lurrunpean*, in «Egan», 1970-71, 105-109.

lema = timón; *txatxala* = emakume berba-lapiko ta zentzun bakoa;
arlanka = aingura, ancla.

LINO AKESOLO (1911)

Erri-euskera aberatsa ta gure idazle zaarrena gitxi ezagutzen dabe Bizkaian aita Linok baizen ondo. Gipuzkeraz ere aibat idatzi dau, baiña Obako fraide onen bizkaierak berarizko gozotasuna ta berezkitasuna ditu ezaugarritzat. Iker-lanak, iztegia, kritika zorrotzak, itzulpenak t.a. eskeini deuskuz orain artean Euskalzaintzaren Zuzendari onek; aurrerantzean ere frutu gozorik emongo al deusku!

101. ATX-OSTERIK ATX-OSTERA

Atxostekoa naz eta Atxostera nator.

Arratia-aldeti Durango-aldera, bitartean diran atx-tontor laño-zaleen ganeti, Izurtzara luzatu nai dot eskua, ango seme argi batek eskintzen deuskun euskal-liburu barri au esker onez artzeko.

Niretzat txikitarik izan da entzuna Atxoste. Atxostekoa zan nik neure auzoan euki neban lenengo eskola-maixua, Ota-motxa ezizenez. Atxoste-aldeti ekarten euskuen umeai Marie Basoko-ren ogia. Atxosteti agertzen zan, astean bein edo, asto ganean, ogi zuridun andrea, lenago emendik ara joana. Atxosteti etorten jakun, urtean birritan gitxienez, gaztedi urduria, santzoka ta kantari, auzoko jaiari bizitasuna emoten.

¿Zer zan guretzat Atxoste? Erbestea, edo beintzat munduaren bestaldea. Gure mundua egunero begien aurrean ikusten genduana zan: gure erria baño askoz geyago ez. Mundu orren azkenengo mugak: Gorbea ta Orozko-aldeko mendi-errezkadak bateti, Serantes ta Ganekogorta, besteti, eta an, urrin baten, Burgos-aldera edo, lausopean galtzen ziran lurren baltzunea, guretzat izen bakoa.

Urteak igarota, Durango-aldean nintzala, barreak emon eustan Atxoste izen ori entzunda. Nik Atxosten nintzala uste, eta neu nintzan an atxostekoa, bestaldekoa. «Ara, ba, esan neban nik, erri batekoak gara guztiok emen. Zuek, atxostekoak, gu bere bai.»

Izenez bat gareanok, orraitio, ez gara alkartasun txarrean ibilli. Gure arteko mendi ta atxak eztira muga izan, bide ta

zubi baño. Lenago etzan oraingo moduan; baterik bestera joateko lenago etzan iñor zelairik zelai Lemoatik zear joango; artez artzen eben mendi-bidea. Olantxe izan da oraintsurarte. Or dagoz oindio mendiko bideok, ainbeste oiñek zapaldu ta sakaturik antxiñarik egiñak. Eta oñak bakarrik ez; lekuan lekuan, burriñea ta sutautsa be erabilli bear izan ziran bidea urratzeko.

Mendian zear ibilli oi ziran gure antxiñakoak. Olantxe egin ebezan ainbeste ezaupide, eta alkar ezagutuaz, ainbat ezkontza be bai, alderdi bi onein arteko lokarriak estuago ta maitagarriago egiteko.

Izen bi aitatu nai ditut emen Atxosterik Atxostera beñola ibilli ziranenak: Pedro Madariaga, ta Durangoko Zidargiñenak.

Madariaga ori Obako semea dogu, oingo Madaria etxekoa. Orain lareun urtekoa da. Oso gazterik ospe andia atera eban Valencia-ko Eskola Nausian, kaligrafi-irakasle. Liburu ospetsu baten egillea da. Erdal-errian bizi ta erdaldunentzat idatzi ebanarren, euskaldun agertzen dau bere burua. Berak emonak dira euskal-ortografiaz be lenengoko zeaztasunak. Eta ezek be ezeutson iguin andiagorik emoten euskeldun erdalzaleak baño. Orrez ganera, gure mendigoiz-zalcenzat eredutzat jartea merezi leuke.

Obati Atxostera egin eban, aurki, bere lenengo urteerea. Eta atxetati zear egin be. Joan-etorri ori bein baño sarriago egin ebalá dirudi. Eta an goiko atxetako gorengo tontorrean, ikusita dauko eguzkia bere goizaldeko lenengoko izpiakaz eta arrastiko azkenengoakaz tontor ori joten. Eta an gelditu jakun bein, «zabal-zabalik begiak», Bizkai osoa begipean ebalá, Portugalete-ko itxas-aldera zoraturik begira. Eta andik bera artu eban azken baten Atxosterako bidea, ikasi-miñak bultz eginda, Itziar, Durango-ko seme argi baten eskola-mutil izateko, eta Italian zear ibillita gero, bera be maixu andi egitera eltzeko. Atxosterik Atxostera bidean, mutiko zala, asmau zituen sentierak ez zituen arik aurrera aiztu. Eta bere izena Durangoko Itziar orren eta gure atx orrein izenaz bat egiñik itxi deusku.

Mendi-bideotan ibilliak dira Durangoko Zidargiñak be. Barriro asi da oraintsu gure artean zidargin-onein izena zabal-tzen. Baña gitxik dakiela uste dot, Dima-ko semea izan zala, Indusi-auzokoa, Durangar ospetsu orrein ezaupidea lenengo emon ebana: J. A. Zamakola, Astarloaren adiskide andia, «Historia de las Naciones Bascas» liburuaren egillea.

Ona Indusiko seme onek esana: «Zidargin bi ezagutu ditut nik eta oindiño bizi dira, anaiak biak, Juan Kruz eta Antonio izenez; lenengoa, bertsolari ta soñulari trebea: bigarrena, yantzarako oso yayoa. Bizkaian, eta Bizkaitik arago be, amaika lekutan izanak dira, auzo ta errietako jaietara deituta. Lenengoak sekulako gatza eukan bertsoгийн eta zortzikoak joten; bigarrenak, bere umoreko arreba bat lagun ebalá (ezkondu bakoa berá), ikusgarrizko yantzaldiak egiten zituen». Orixe diño 1818-an Frantzian ateratako liburu orretan.

Zamakolak ez ete zituan zidargiñak Indusin bertan ikusi? An izan ziran beintzat, atxosterik atxosterako osterea eginda, 1793-garren urtean, ango jaietarako joanda. Ez ziran bakarrik joan. Lagun ebezan beste bi: Momotxo (Momoitio), tanboliñaz, eta Pepe, atabalaz. Euren kontura egoan jai-eguneko yantzea. Ez eben egun txarra emon. Baña biyamonez izan ziran kontuak. Ilibiztuiko atsoak labasuan baño geitxoago egin eban urrengo egunerako (Ilibiztui da Oba-ganeko atx-tontorrik gorenetako bat, eta lañoz estaltzen asten danean, Ilibiztuiko atsoa labasugiñen asi dala esaten eben lenago). Eguraldi txarrak emonda, osterá txarra euki eben. Or laban ta an jausi, busti egiñik eldu ziran Mañarira. Nekez berotu ta bizkortu ziran Txakoliñen tabernan sartuta.

Etzan izan egun pozgarria Indusiti osterea egin ebeneko ori. Alan esan deuskue euren bertso batzuetan:

*Milla ta zazpireun da
larogeta amáiru,
zer pasau jakun aurten
esan bear dogu...*

Aiene baten eldu ziran etxera, beste bein Indusira joateko gogo barik:

*«Etxera eldu eta
esan neban sarri:
Ez osterá Indusira
Inñenganeti.
Agaitik esaten dau
gizon aguduak
eztabiltzala ondo
munduan zorruak.
Ai ene, ai ene, ai ene bada!*

Egun orretan, orraitio, gauzatxo bat ikasi eban gure bertsolariak: Dimati Durangora autsa saltzen joaten ziran neskatillai erruki artzen:

*Zenbat ta zenbat bidar
ikusten ditut nik,
iru zorro buruban,
ondo kansaturik,
itantzen etxe baten:
«Autsik biar dozu?
Onelan euki barik,
arren, esaiguzu»...
Onek onan ikusiz
estana biguntzen,
zelango galtzaidua
izan bear daben!..*

Oitura jakingarria Durangoko bertsolari orrek emen gogorazoten deuskuna. Neskatilla orreik eroien auts ori lexibarakoa zira nonbait, bogadea egin ta zapiak zuritzekoa.

Zorionez uste dogu neskatilla orreik bertsolari areik baño egun obeak artuko zituezala Atxosteti joan etorria egiteko. Eta eguraldi onak lagundu ezkerero, mendi-bide areik ez tira leku txarrak aize onak artuez ibilteko. Azkenengo gerrate ingururarte dana zan, barriz, an txiliña, arrana ta dulun-otsa. Dana egoan basabeiz, beorrez eta ardiz beterik. Len landa eder eta ira-leku bedartsu ziranak orain piñudi dira. Eta ezta entzuten, urrietan, lenago lez, ira-ebatelleen santzo ta irrintzirik ango baso-bideetan.

Durangoko zidargiñen egunak ezkerero, iru baserri-etxe sortu ziran ango bakartadean, Baltzolari Ifiongera-bitartean (Ikusi dogunez, arein bertsoetan *Ifiongera* da, beste batzuentzat *Iguengana* eta *Ifiongera* dana). Etxe areik ustu dira. Edo, obeto esateko, kanpotxoriak sartu dira eurretan. Udaldia an emoteko, bilbotar batzuk egin dira euren jabe. Eta an dabiltz, besteak beste, «agur» baten edo euskel-abestiren baten truke, aspaldiko Indibiti ta inguruko bazterrak erdal-otsez betetan. Ai, len aitatu dan Pedro Madariaga bizi balitz eta ori ikusi! «Ilbirtuiko atsoa, non zara?», esango leukela uste dot nik. «Zergaitik etzatoz zeure atx-gane orretati, zeure iñarra ta ipizkiatz, bazter-erdaltzalleok aurrean artuta, orti zear jaurtiten?». ¿Olango izualditxo bat ez ete letorkie ondo? Euskalduntasuna erakusteko, ¿ez ete dogu asmauko era jatarrago ta gizonezkoagorik? (...).

Akesolo, L.: *Atx-osterik Atx-ostera*, in «Bitaño»: *Atalak*, Zarrautz, 1967, 15-20.

sutauts = pólvora; *aurki* = noski; *arik* = ordutik; *yayo* = agraciado; *ostera* = viaje; *onan* = onela; *lexiba* = colada; *inarra* = escoba de brezo; *ipizki* = estropajo; *izualdi* = espanto.

NIKOLAS ALZOLA (1922)

Euskal jakintzaren ainbeste arlotan erakutsi ditu Izurtzako Nikolasek bere lanerako gogoia ta trebetasuna; literatura barruan, ipuinak eta olerkiak ditu lanik ederrenak. Alzolaren olerki laburrak, L. Akesoloren ustez, egillearen pintatzaile ta dibujogille izakerea erakusten deuskue; andi andika, labur labur, bere barruko ikuspegia emoten ei dabe, bake giroz, euskera errez gozatsuz.

102. KANTUZ ETA ITXAROPENEZ

XXXVI

edur eta urregorri-koloreko argi egokia zan,
ater-una baketsua

estura bako

sinismen

berezkoan.

sua eta aize baltzak etorri ziran gero

urriñetako itxaso izenbakoetatik

eta betiko amatau zan lenagoko atsegin pozgarridun

utsa zan negar egitea,

[zoragarritasuna

osatzerik ez egoalako.

aurreruntz

egin bearrean

aurkitu giñan gero,

atzeruntza begiratzeko denbora barik,

bixirik urtetea gura gendualako danok.

XXXVIII

orrek laiño orrek...

gaztearoa gogoratzen deuste

orrek goiko laiño zuri orrek...

begiak itxi ta zabaldu

edo

kiñu laster labur bat

eta besterik e'tzala

izango

bizitza,
uste
izan
neban
orduan

bere urteak eta egunak daukozala bizitzak, ikusi dot gero, eta arantza bako egun gitxi ezagutu dot. Ogei ta bost ordu luzeko egunak be bai, laino baltzakaz bete diranean udabarriko egun-senti garbiak.
ordaintza zeatza
eskatzen deutso

oiñazeak
bizitzako
atsegin
eta
poztasun
bakoitzari.

Alzola, N., «Markue»: *Oar laburrak-Kantuz eta itxaropenez*, in «Egan», 1-6, 1968, 12-14.

XABIER GEREÑO (1924)

Euskaldun barriei gure izkuntzea irakasteko asmoz, berak bakarrik daki zenbat lan egiten diarduan Gereñok, aspaldion euskara batuaren bidetik. Gereñoren idazlanak gaurko girokoak izan nai dabe, izkera errez bakunean. Urrengo zati au bizkaieraz dago, azala gaurko batuaren erara jantziatz.

103. KARTZELEA

Aparteko esperientzi bat da kartzelea. Benetan ikasketa berezia dala presondegia. Kaletarrak ezagututen ez dabene beste mundu bat. Baiña goazan maillaz mailla. Lehenengo, komisaria...

Automobilla, handia ta baltza, geratu zan.

Naiz eta ahalegin handienak egin, lehenengo lo astunetik hain arin izartuteak amets txar baten egoala pentsau erazo eutsan Aitor-eri.

Baiña ez, ez zan amets bat.

Automobilla, ba, geratu zan, eta behera jatsiteko agindu eutsen.

Jatsi zan eta gizon biren erdian, barrura sartu zan. Kanpoan iñor be ez. Kaleak hutsik. Atean, uniformedun polizi bi. Barruan, patio handi bat, eta automobil eta jeep asko. Ate batetik sartu, eskillara bat igon, pasillu luze bat pasau eta gela baten sartu eben. Han, izena hartu, paper bat firmau, sartu zan eguna ta ordua jarriaz.

Boltsilluak ikusi, barruan eukana atara, ta kendu, gorde. Burnizko rejadun ate bat zabaldu zan, eta handik barrura eroan eben. Pasillu ilun bat. Polizi batek giltz pillo bat atara dau. Batekin, ate bat zabaldu, ta bultz egiñik, Aitor gela baten barruan aurkitu zan.

Atea, barriro itxi eben, kanpotik.

Amets txar bat...

Baiña ez. Han egoan bera, gela hartan.

Hogei metro inguru eukazan. Ormaren parean, harrizko

altura bat, zan guztia luze, metro erdi zabal, beste hainbeste altu. Han gainean, gizon bi lotan, manta ilun batzuetan baturik. Goian, argia, biztuta. Baztar baten, goi-goian, leiho bat, pasillu batera. Gero, kanpoan, pasilluan, beste leiho bat, hori kanpora. Baiña bien artean, pasillua.

Eta atea, burdiñez txapeatua. Leiho txiki bat eukan, pasillukoakin hitz egiteko.

Lurrean, paper zaharrak, igali azalak. Ormetan eta atean, idatzitako gauzak: «Gaur sartu nabe» ta egun bat. «Maite zaitut». Edo biraoren bat. Eta loikeri batzuek.

Han, orma kontra egoan manta bat hartu eban, eta lurrean etzun zan. Lotan egozan gizon biak, bardin jarraitu eben, lotan. Iñor sartu ez balitz legez.

Gora begira geratu zan, begiak zabalik. Ez egoan gehiago egiterik. Zer egin? Deadar? Negar? Kolpeka ateari?...

Urrengo egunean, zer esango eben bere lantokian? Zelan egongo ziran bere etxeoak? Eta bere lagunak? Bere «hartan» egozanak? Zer ekien poliziak?

Milla pentsamentu, milla buruauste. Nahiko ta gehiegi lorik egiten ez itziteko.

Goizean, gizon biak itzartu ziran. Bat gaztea zan, eta bestea zaharra. Zaharra, barritsua. Gaztea, ixilla. Jagi zan hau ta ateruntz joan. Han, kolpeka hasi zan.

Pasilluan, berjadun atea zabaltzen entzun zan. Gero, norbaitek, kanpotik, euren ateko leihotxua zabaldu eban.

—Zer nahi dozue?

—Komunera joan.

Giltzaren zarata entzun zan eta atea zabaldu eben. Gizon gaztea urten zan eta Aitor bere atzean.

—Ez, zu ez. Banan banaka.

Minuto batzuek pasau ziran. Etorri zan gaztea ta Aitor urten.

Egin eban, egin behar ebana. Busti ebazan arpegi ta eskuak, eta bere gelara joan zan.

Gereño, X.: *Arantza artean*, Zarautz, 1969, 74-76.

XABIER KINTANA (1946)

Idazle gazte au euskara batuaren biderakusle ta langille sutsu dozu. «Trauko» ezizenaz, ainbat ipuin argitaratu zituan ANAITASUNA aldizkarian, bizkaieratik baturako zubia egiteko asmotan. Ona emen eurotariko bat.

104. OST (Osaba Martinen kontuak)

Eguzkia diz diz dago zeruan. Ba zan sasoi! Izan ere, euria eta etengabeko zaparradak besterik ez da ikusi aspaldion. Igande goizean, meza entzun ondoren, osaba Martin eta Eneko Artxandara joan dira oinez, aldatsetik gora, pixka bat eguras-teko, ibiliz.

Pinadi baten ondoko iturri batean gelditu dira. Bertan, biek amak prestaturiko hamarretakoa jaten diharduen artean, Enekok, beti jakin gurarik, bere osabari honela dinotso:

—*Osaba, atzo maisuak erromatarren aintzinako jainkoak zeintzuk ziren kontatu euskun. Bat Jupiter zan, zeruetako jainkoa; beste bat Saturno, denborakoa; beste bat Neptuno, itsasokoa; Marte, gerrakoa...*

—*Eta ba ote dakizu, Euskal Herriko aintzinako jainkoak zeintzuk ziren?*

—*Ez. Holakorik ez daukue eskolan irakasten.*

—*Nik oso ederto deritzot kanpoko gauzen berri jakiteari; baina inoren gauzen aurretik norberenak ezagutzea ez dator inoiz gaizki. Grekoek esaten ebenez, «ezagutu eizu lehen zeure burua».*

—*Eta nortzuk ziren bertoko jainkoak, osaba? Nik ez dot inoiz horreen izenik entzun, ba.*

—*Jakina ezetz. Oraingo euskaldunok kristauak gara, eta garai zaharretako jainko hareek ahaztuta daukaguz, Europako beste herrietan jazotzen dan bezala. Hala ere, ba ziren Euskal Herrian halako jainko xeble batzuk, erromatarrenen gisakoak.*

—*Eta zer izen euken, ba?*

—*Hara! Gaur holako jainko baten berri emango dautzut. Ost-ena.*

—Ost-ena? Nor zan Ost dalako hori?

—Ost edo Ortze, euskara zaharrean, zerua esateko izena zan; eta zerua ezeze, bai eta bertan bizi ei zan jainkoarena. Beraz, Ost, gutxi gorabehera, grekoen Zeus edo erromatarren Jupiter lakoxea zan, hau da, zeruetan bizi zan jainkoa, haizea, eurria, ekaitzak, tximistak eta trumoiak ekartzen ei zituana.

Aintzinako germaniarrek ere ba euken antzeko jainko bat, Thor esaten eutsoena.

—Nortzuk ziren germaniarrak, osaba?

—Germaniarrak gaurko ingelesen, alemanen eta eskandinabiarren asaba zaharrak ziren. Europako erdi- eta iparraldean bizi zirenak.

—Orduan, erromatarren Jupiter, grekoen Zeus, germaniarren Thor eta euskaldun zaharren Ost, izen ezberdinaz, jainko bera ote zan?

—Ia, ia bai, gaur dakigunez. Begira, gainera, non agertzen dan izen hori hizkuntza horreetan: Erdaraz *Jueves* izena latinezko *Jovis dies*-etik dator, Jupiterren eguna esan gura dauanetik. Ingelesaz *Thursday*, hau da, *Thor-en eguna*.

—Eta euskaraz, berriz, Osteguna, Osten eguna; egia da, osaba. Begira nondik ia egunero erabiltzen neban nik izen hori, nondik etorren jakin barik. Eta norik esan dau, aintzina euskaraz jainko horri holantxe deitzen jakonik?

—Euskaraz izen hori lehen lehenik esan ebana, antza danez, Aimery Picaud izeneko frantses bat izan zan orain 800 urte inguru, Santiagora pelegriño legez joateko, Euskal Herritik ibili zana.

—Eta Aimery Picaud horrek ba ote ekian euskararik, frantsesa izanik?

—Ez. Baina liburu bat egin eban latinez, eta bertan *Deum vocant Urcia* dinosku, alegia, euskaldunek Jainkoari *Urtzia* edo antzeko zerbait esaten eutsoela. Ba dakizu, Frantzia aldeko euskaldunek ez dabela gure modura *osteguna* esaten, *ortzeguna* baino. Harek *Ortzea* entzungo eban nonbait eta bere erara idatzi eban. Dana dala, frantses horrek oso gauza txarrak kon-tatzen ditu orduko euskaldunengatik: ez zituan batere begi onez ikusten, antza danez.

—Eta ez dago gaurko euskaran Ost jainko horren beste arrastorik?

—Bai horixe. Hortxe dozu *Ostadar* edo *Ostargi* —eta

beharbada, Txori Herriko Ustruku— euriaren ondoren eguzkiak zeruan agertzen dauan kolorezko zubia; *Ostotsa*, Osten zarata, toki batzuetan trumoiari esaten deitsoena; *Ozkarbi*, zeru garbi; *Oskorri*, zeru gorri; *Ostondo*, zeruaren sakontasuna...

—*Osaba, osaba! Begira zelako hodei beltzak datozen handik. Hobe dogu, ahalbait arinen etxeranzko bidea hartzea; bestela, ba leieteke zorioneko Ost hori hasarratzea, eta gero gu blai eginda utziko gaitu.*

—Arrazoa dozu, Eneko. Goazen, goazen agudo.

Kintana, X., «Trauko»: in *Anaitasuna*, 232 zenb., 1972, 12.

GALLASTEGI'tar KAULDI (1906)

Sermolari sutsu au, gerroste illun garratz luzean, euskerearen abaro ta aterperik onena izan da Bilbo erdaldunduan. Baiña idazle lez ere, bai olerkiz bai itz lauz, bear asko egindakoa dogu. Urrengo idazlanean beste abade txalogarri bat aitatzen deusku: gerra aurrean eta ostean, erle langille lez, euskerea zabaltzeko zana ta eukana emon zituan gizon ixil apala.

105. LANGILLE ASPERGABEA

Oraintxe dira sei bat urte Arzubiaga'tar Zirilo, Arrese Beitia ta beste euskaldun jator askoren jaioterria dan Otxandio'ko semea, ixil-ixillik Jaunagana alde egin euskunetik. Bere bizitza luze guztian, euskeraren alde lan egin ebanak ez eban euskeraz illetarik izan. Begoña'n, ia ixil-ixillean, latifez egin eutsoen illetea. Akats gogor ori zuzentzeko ondo izango da beraren oroimentxu bat AGUR'en eukitea.

Or bizi dira oraindiño Manterola, Oar-Arteta ta besteren batzuk beragaz alkarturik lan egin ebenak. Eurak, nik baiño obeto, ezagutzen dabez Arzubiaga jaunaren bizitzea ta lanak. Ondo izango da, dakiena esaten ba'dauskue guri. Nik emen, dakidan pizka bat bakarrik esango dautsuet. Euskaldun ospetsu baten gomutea galdu ez dagigun.

Gazte-gaztetarik Jaunari ta euskereari eskeifi eutsezan bere albide guztiak. Nork zenbatu «Jaungoikozale» ta «Ekin» albistarietako irarkolan bete eban arloa? Zornotza'n, parroikiko zeregiñak amaitu ondoren, bere euskerazko lanari eten barik ekin eutsan, baita orrela Kristau ikasbideai ta beste erlejio-gai askori indarra emon, batez ere Bizkai'ko errietan. Ez dot uste, gure umeak orduan beste kristau ikasbide ifioiz jakin dabenik, ez Euskalerrian ez enparau errietan. Egiten ziran kristau ikasbide txapelketak, andiak, ederrak eta benetan sakonak izaten ziran. Gure errietako umetxuak, teologo bai-ziran bezela, erlejio-gaiak, bai buruz baita adimenez ere, adierazoten ebezan.

Gero gudako enbategi uxatuta, Arzubiaga jauna erbestetua izan zan. An be lan ta lan: inglesa ikasi ta ango irakasbideak ikasten asti guztia emon eban. Euskalerrira biurtzean, oster

be lengo lanari oratu eutsan, ta or ikusi genduan danok Begoña'n Santa Klara'ko zuzendari bezela, lekaimen eleizkizuna zezt bete ta gero euskeraren alde lan egiten.

Ostera be «Jaungoikozale» batzordea berbiztutea nai izan eban. Baiña gotzaiñaren baimenik ez eban lortu. Eta ixil-ixillik jarraitu eban kristau ikasbidea ta beste erlejio-argitalpen batzuk ateraten. Urte asko lepoan euki arren ta oso errena izan, or ebillen, aspertu baga, tirrist-tarrast parrokirik parrokira, Seminario, Ikastetxe ta abade-etxe baterik bestera euskal idaztiak zabaldu ta saltzen.

Batek baiño geiagok itandu eustan neuri be: «Or bideetan beti ikusten dan abade zar eta erren bat, nor ete da?». Ta nire erantzuna: «Jainkoari ta euskereari bizia eskeiñi dautsan abade beneragarri bat da ori».

Euskal idazlea be ba-zan, baiña bere lanik goragarriena irarkolan lan egin eta euskerazko erlejio idaztiak, Euskalerra guztia arakatuaz, zabaltzea da. Bere Begoña'ko bizi-etxea oztopoz beterik egoan, idaztiak gela guztietan, lurrean, eskaratzean eta bazter guztietan. Benetan gauza gatxa an ibiltea! Bein baiño geiagotan esan neutson: «Don Zirilo, txipillotak orbel artean bezela, zu be egunen baten idazti-orri artean itota aurkituko zaitue». Alegintsua, aspergabea, itxaropentsua benetan, Arzubiaga jauna.

Ezin aaztu ezelan be berak, eragozpen andiakaz, egunetik egunera ta urtetik urtera bizi luzean egin eban lan andia! Bere alde, gaur, agurrik eta otoiрик zintzoenak ditugu.

Gallastegi'tar, K.: *Amets eta Egi*, Bilbao, 1973, 72-74.

SANTOS TEODORO REKALDE ()

Euskaldunak mundu guztian dagoz zabaldurik; baiña Ifar Ameriketara beste inon baiño indartsuago jagon dabe euren sor-terriko izkuntza, an bertako berba barriz egokitu ta aberastuz... Ango artzaiñekin urte askotan bizi izan dan Errekaldek polito asko azaltzen deusku ori, eta baita dago artzainen bizimodu gogorra ere, Deunor izeneko nobelan.

106. AMERIKETAN ARTZAIN

Itz barri asko darabillez euskaldunak emen: 'Alfite', 'tente', 'karro-kanpo', 'ditxa', 'geit', 'yerlen', 'troka', 'traka', 'zaldi-tim' eta olakoak.

Astiro-astiro, ze esangura daroen ikasi dot, eta lerro luzea egiña daukat, ze ingeles itzetatik sortu ziran.

Esaterako, «alfite», ingeles itz «out-fit»'etik dator, eta konpañia edo negozioia ta abar esan gura dau. «Tentea», «tent» itzetik, toldozko aterpea da. «Ditxa», ingeles «dich», soloctara ura zabaltzeko egindako sangak. «Geita», ingeles «gate»: ate zabala. «Yerlen», «yearling»etik, urteko ardi edo bildotsa. «Troka», «truck»etik, kamioia. «Traka», trenaren burdi bide ta patari ta gizonen oiñ-otza. «Zaldi-tim», zaldi bikotea. «Draiberra», txoferra, beribil eramallea. «Estorra», Denda. «Basa» autobusa «Baskzenterra», Euskaletxea. «Pitxesa», priskoa. «Breika», freno, galga.

Leenengo egunetan, euskeringles onek zoratu bearrean ninduken. Gero, igarri barik, olako itzak neuk erabiltzen ditut. Berez urteteten deuste.

«Koiote»-gandik ikasi ditudaz onako itz asko. Zer ez eban ikasiko Koiote'k berrogei urtean.

Gernika'n onako itzak erabilten ba'ditut, barre egingo deuste ederto... Ala euskera batuan itz egiten dodala uste izango ete dabe? Koiote'k ez dau iñoiz erreal bat aurreratu. Leenago gitxi irabazten ebalako, orain diruari eusteko aal ez dalako. Beti jatorko emakumeren bat... eta karidadea egin barik, ezin joaten itxi olakoei. Illebeteko alogera, egun bian eroaten deutse.

Emakumeren bat ondorik ez jabilkonean, zenallea paltrikarak agortu jakozana, ta mendirako gertu-gertu dagoana.

Yokin Fruiztarrak, berrogetabost urte daroaz ugazaba onegaz. Osagillea zer dan ondiño ez daki. Ogetamabi urte zituala, amerikana emakumeagaz ezkondu zan. Ezkondu ta iru illebetera, mendiratu zan, emaztea errian itxita. Ugazabari esan eutsan:

—Frances, ille azkenean agertuko jatzu alogera billa. Osorik emongo deutzazu berari nire illeko alogera. Mendian ez deust diruak faltarik egingo.

Bederatzi illetan agertu jakon alogera billa. Urrengo Gabonetan, emazteagaz jaiak igaroteko ustez, Yokin etxera sartu zanean, etxea utsik aurkitu eban. Iñork ez eban jakin sekula geiago, Yokin'en emaztearen barri.

Gizon oneri ez deutsa iñork entzun arrezkero, emakume auturik. Atzo aparitan, Peru'k emakume gaia aitatu ebanean, Yokin'ek pipa biztu, maitik jagi, ta ixil ixilik alde euskun jantokitik. Etzan agertu bigaramon goizera arte.

Edozein ardi-konpañitan, eunetik irurogeitan, emakumetaz jardungo dabe artzañak. Gurean ez. Augaitik edo, geienetan ixilik egoten gara jatorduetan. «Ixilik egoteagaz, ez naz iñoiz damutu, itz egitearren sarri», esan ebana biziko litzake pozik gure artean.

Lengo baten, apaldu barik geratu jakun Yokin. Eskuartean bildotsa il jakon. Bildotsa besoan eroala, nonora joiala ikusirik jarraitu neutsan. Lurrean zuloa egin, eta igurtziak egin ondoren lurpean estaldu eban.

Yokin'en alboan lo egiten dabenak esan euskun: «Amesetan negar egiten izan jok. Goizeko iruretan entzun jeutsast: 'bildots gixajoa! biriak, biriak eukazan ondo egin barik. Arnasarik ezin eban artu, koitauak. Alako bildots ederra!».

Yokin'ek, berekautan dagitso izketan sarri: «Beizain zazkarra! Ze erru ete eukan ardiak. Amabost ardi il besterik barik Gizon kaskoa! Begi bien erditik sartu ta kokoteko zulotik atara neutsan balea. Ez eban zirkiñik egin», iñoan lengo baten.

—Ardian berrogetabost urte! Zelan egin leike abere onein artean ainbeste denpora?—, bota neutsan.

—Eskulanetan antxiña asi nintzoan. Somorrostro'ra, osaba Martin'egaz joan nintzoan umetan. Mozkorra, burruka ta ezta-baida asko, ta irabazi gitxi ikusten najoan. Amazazpiurte

bete nituan egunean, ardira etortea erabagi najoan. Emen najabik arrezkero guztian. Ointxe ez nok luzarorako. Zaar-saria artzeko sasoiak laster jatorkidak. Gitxien uste danean, ba'najoak Gernika'ra.

Abere artean bizi guztia emon ondoren, gizon artean bizitzeko aal izango ba'da ala ez, bildurra dauka.

Iñun diran galderak dagistaz Gernika'ko bizikerazaz Arduraz beterik dago ta jakin guran, Gernika'n bizitea zenbat kostako litzakion, jenteak zer egiten daben.

Azaldu deusat, Gernika'n ba'dirala «amerikano» mordoa ta euren artean pozik ibiliko litzakela. Amerikanoak, euren batzar-tokia dabela, ta egunero, an batzen dirala, jokoan, barriketan ta abar ekiteko.

Pentsetan geratzen jat, ezer esan barik...

Ezin deust sinistu, Gernika'n sei milla dolarregaz etxe ederra erosi leikenik, ez illean eun dolarregaz bizitzeko naikoa izango leukenik.

—Joan bear zenduke, Yokin.

—Joan, joan... Diruagaitik baño be, esaten dauenez senideakaitik... Uste izaten joek, amerikanoak danai emon bear deutseguela.

Rekalde, S. T.: *Deunor*, Kulixka Sorta 76, Zarautz, 1973, 110-113.

LUIS VILLASANTE (1920)

Gure gernikar au, aspaldion, Euskaltzainburu da eta euskara batuaren maisu andi. Bizkaieraz ez dau askotzarik argitaratu, baiña egindakoak argi ta garbi erakusten dau zenbateraino daukan menperatura gure euskalkia, batez ere idazle zaarren bidetik... Ona emen zati labur bat, 1959garrenean egina, baina geroago euskara batuaren jazkeraz barriro argitaratua.

107. F. BILBAO-ren «IPUIN BARREKA»-ri HITZAURREA

1954. urtean sariketa bat ipini eban Euskaltzaindiak. Sari-keta honetan, beste gauzen artean, sari bat izendatu zan 50 ipuin ekartzen zituanarentzat. Etzan eskatuten ipuin berriak edo noberak asmatu-rikokoak izatea. Eskatzen zana zan erriko hizkerekaren jatortasun eta gatzaz jantzirik ekartea ipuinok. Sari-keta haretara aurkeztu zireanetatik bat, liburu hauxe izan zan, orain eskuetan daukozun hauxe berau, irakurle. Eta saritua izan zan, atan be, lehenengo sariaz. Hobeto esateko, lehenengo saria banatu egin zan zati bitan: zati bat honi, eta bestea Azpeitia de Eskauriaza andrearen lanari emon jakon.

Zer ikusi ete eben liburu honetan sari hori emon eutsenak? Barriak edo ezezagunak zireala ipuinok? Ez. Baditu holako batzuk be, baina gehienak ezagunak dira. Hartu euskeraz egin direan ipuin-liburuak. Vicenta Mogel, Kirikiño, Legoaldi, Altuna, Otxolua, Azkue, Manterola, Garitaonaindia... eta hemengo ipuin askoren sustarrak hor-hemen idoroko dozuz. Honegaz eztot esan gura gure Aita Felixek liburu guzti horrek erabili dituanik, berea egiteko. Ezta behar be. Baina hemen datozan ipuinetatik askotxo edonun zabaldua dagoz: eztira inorenak, eztabe jauberik. Herriarenak dira, euskal folklorearen landakoak. Oraindik egin asko eztala, «La Gaceta del Norte»-k, bere *Leyendas vascas*-etan agertu ditu ipuin batzuk; eta batzuk oso antzekoak edo guztiz bardintsuak zirean hemen datozenakin. Beste batzuen iturria bilatu nahi izanez gero, Giulio Cesare Della Croce, Grimm Anaiak, Schmid edo Esoporengana jo

beharko genduke. Ipuinetako gaiak, bada, euskal folkloretik edo beste nunbaitetik hartuak izan dira gehienetan.

Nun dago ba ipuin honeen balioa? Nere ustez, hizkerearen jatorrasunean. Hizkera arraia, bizkorra, bizi bizia ta bihurri-antzekoa dabe. Bizkaiko euskerearen una ta mamina erakusten deuskuela esango neuke. Alkar hizketean batez be, zelako bizitasuna, eta zelako esaerak, herriko berbetearen kolore guztiakaz jantziak!

Gaia beste nunundik hartu dauanean be, bere modura egosten daki, eta soinekoa barriztauta urteten dau bere eskue-tatik. Esate baterako, Azeriaren betekadea deritxon ipuina, Azkueren Euskalerraren Jakintzan dator (ikus bigarren liburua, 75. orrialdea). Biak irakurtea baino eztozu, Aita Felix Bilbaok gauzak zelan janzten dakian ikusteko.

Gogoan dot oraindik Angel Irigaray euskaltzain jaunak esan eustuna, ipuin honeek irakurritakoan:

—Zu, ta ipuin hauek egin dituana prailea dala diozu?

—Bai, jauna.

Gezurra dirudi praile batek horrenbestearainoko gatza ta grazia eukitea...

Zer uste eban ba Irigaray jaunak? Praileak gatz-bakoak direala? Aita Felix ez behintzat. Mutila agiri jaku bera gatz-kontuan.

Sasoi haretan, ipuinok atondu zituanean, estudiantea zan oraindik. Gaur, barriz, sermolari azkar ta trebea egin da. Foruko komentuan bizi da, eta Bizkaiko euskal herri askotan ezaguna dabe. Morgako semea da bera, ta ondo baino hobeto agiri dau zein barruraino daukon sartuta txiki-txikitatik ikasi eban berbeta.

* * *

Nik eztakit zergatik dan, baina Bizkaiko euskereak badau grazi berezi bat ipuinetarako. Beste eskualdeetakoak be gogo onez autortuten dabe hau. Baditu gure euskalkiak urtenaldi bihurriak, esaldi bizkor eta sarkorrak, besteetan bilatzen ez direan bezalakoak. Eta ganera, Kirikiño haundiaren lana dau gure euskereak; beharbada honi zor deutsa bizkaiereak bere fama hau (...)

Gure herriko berbetearen mardoak ikusi ta ikasi gura badozu, hemen egin daikezu ondoen, ispilu baten legez. Euskaldun

askoren ahotan, euskerea ez ete doa gaur makalduaz, zimelduaz, kolorea galduaz, gaza-geldo-motx eta indar barik geldituaz? Benetako euskaldun osoaren berbeteak zelako giharra ta mamin gizena daukon jakiteko, liburu gitxi topauko dozu hau baino egokiagorik. Beraz, barre egitea, eta barre egitea euskeraz, baditu balio bi, nere ustez liburu goxo honek.

Ia ba bizkaitarrak abegi ona egiten deutesen. Eta zuri, Aita Felix: zure lehenengo liburu hau eztaitea azkenengoa izan. Zure luma bizkor hori eztakizula ugerrez beteten itzi.

Villasante, L.: *Hitzaurrea*, in Félix Bilbao: *Ipuin barreka*, Arantzazu, 1973^o, 5-8.

atan be = por cierto; *arrai* = alegre, vivo; *una* = guna, muin; *nunun-dik* = non edo nondik, nonbaitetik; *eskualde* = zona; *urtenaldi* = ateraldi, salida.

MIKEL ZARATE (1933-1979)

Bere indarrak danean neurtu gurarik, ainbeste arlotan sartu zan Zarate bide barriak ikasteko asmoz: irakaskintza, itzulpenak, bertsoak, nobela, olerkiak, alegia ta ipuinak... Sortze-asmo ta minetan bete-beteaz ziardua joan jakun gure artetik, bere amesetako gorengo maillara eldu orduko. Baiña, utzi deuskuzan lanak txalogarriak badira, alegien munduan aurkitu eban berebiziko bidea, barruko kezka eta irudimen bizia ustuteko.

108. EGIEDERKO ALEGI

Lagun asko bizi dira Egiederren. Lagun ezagun asko. Nork ez ezagutu Eleberri, Antzerki, Saio, Ipuin, Kontu, Sermoi..? Mundu guztiak ezagutzen ditu.

Egiederren biotz ingurua txalet eta apartamentu ederrez loratuta dago, olerkiz eta prosaz, eskuz eta inprentaz egindako txalet eta apartamentu zoragarriak. Eta oneetan bizi dira Egiederko lagunik gaienak. Danak ez.

Alegi, Atsotitz eta Sermoi (Alegi ta Atsotitzen morroia) txabola baten bizi dira, autsak eta sitsak jandako txabola zaar baten, baztertutik eta erdi aaztuta.

Eleberri, Saio ta Antzerki, Egiederko jauntxo aundikiak, Alegi ta Atsotitzen txabolara joan dira gaur goizean, eta andik alde egiteko agindu deutse aiei.

—Egiedertik alde..? Baiña zer dala ta alde? Nortzuk zarie, ba, zuok besterik gabe gu Egiedertik kanpora botatzeko? —erantzun deutse Alegik.

—Ori, ori! Kanpokoa etxera, etxekoa kanpora. Leengo zaarren esaerak, guztiak jazoerak. Leen alan, orain ola, gero ez jakin zelan —Atsotitzek.

—Ez egin jaramonik nire aitari. Zaarra ere bada ta, erdi txotxoloturik dago... —Alegik.

—Antxiña baten gaztea nintzan, orain egin naz agura, emazteak eta umeak ere ez nabe ikusi gura. Errementariaren etxean zotza burduntzi, arotzaren etxean otzarea aurki. Dagoanean bonbon, ez dagoanean, egon. Daukanak dauko, ez daukanak,

baleuko. Negua zaarren ilgarria, gazteen zaargarria. Bagendu ta balitz... Ez aal dakizue balizko olearen abestia? Entzun entzun:

*«Baneu ta banintz,
ezaren irrintz;
bazendu ta baziña,
ametsaren ezña;
baleu ta balitz;
mutuaren bi itz;
bagendu ta bagiña,
alperreko aalegiña,
bazendue ta baziñe,
egin-nai utsaren adiskide;
balebe ta balira,
besteen anaiak dira».*

—Aita! —Alegik.

—Aita ta seme tabernan dagoz, ama ta alaba jokoan, areen etxean... —Atsotitzek.

—Aita! Zagoz isilik, ba, apur baten. Gero... —Alegik.

—Gero..., otz ez dana, bero —Atsotitzek.

—Isilik egoteko, ba, Jesus! —Alegik.

—Jesus diñozu, Jesus? Berba ona da, ez bada kunplimentuz. Jesus, Maria eta Jose, beti jan eta... —Atsotitzek.

—Parkatu, Antzerki, Saijo ta Eleberri. Olakoxe txotxolo aldikadak izaten ditu noizpeinka nire aitak eta —Alegik.

—Txotxoloa ni? Baita zera ere! Ezertarako ere ez nazala gauza uste dozue ala? Au ere bada! Jakiña: zaarra, traste txarra... Bai, ta zer? Aizea ere zaarra da, ezertarako balio ez dauana, baiña bera barik bizi ezin. Eta aizea lakoa naz ni ere: ariña, biguna, gogorra, indartsua... Leena, oraiña ta geroa naz ni. Orixe, bai. Arritu egiten zaitue nire jakituriak? Ala zorabiatu? Entzun, bada: Erriaren jakintza, ebanjelio txiki, zuen iturri Egiederren oiñarri..., orixe naz ni. Gazi, gaza, gozo; erreza, laburra, sakona, argia, rimaz eta ritmoz jantzia, buruz ikasia, ezpan-belarri erabillia... bizitzako liburu pozgarria ta negargarria. Zer ikusi, a ikasi. Askok daki zaarrak, erakutsi bearrak... —Atsotitz.

—Ez aal dozu entzun, Atsotitz, semeak esan deutsuna? Zagoz, ba, isilik, txotxolo gogaitu ori! —Saiok.

—Ba... alde egin bearko dozue, Alegi, albait ariñen, Egiedertik —Eleberrik.

—Baiña zergaitik? —Alegik.

—Lotsagarri ta kaltegarri baiño ez zareelako emen Egiederren —Eleberrik.

—Zer egiten dozue, ba? Ezer ere ez. Eta ezer egin eztekotan, alperrik zagoze emen —Antzerkik.

—Alperra beti gazte —Atsotitzek.

—Egiederren, egia edertzeko bizi bear da, eta zuok ez dozue ez egirik ez ederrik sortzen. Ez —Eleberrik.

—Sortu ez? —Alegik.

—Egia? —Saiok.

—Bai, egia —Alegik.

—Egiak ez ditu bide bi —Saiok.

—Egia... —Alegik.

—Egia, surraren ondoan begia. Egia askoren erregarria. Egia biribilla da, ta ezin batera osorik ikusi. Egia esateko ez daukat lotsarik; ez deust bete sekula guzurak boltsarik —Atsotitzek.

—Isilik zu, Atsotitz —Saiok.

—Zer da egia zuentzat, ba? —Alegik.

—Egi bat baiño geiago aal dagoz? —Antzerkik.

—Ez, egia bat da beti. Ez egia da ori. Baiña alderdi asko ditu, alderdi asko, bai —Alegik.

—Zera ditu! —Saiok.

—Zereko zeraren zera zertu da zerean —Atsotitzek.

—Ez aal dozue ifioiz entzun Budaren parabolea? Elefan-tearena eta itsuena? Ez? —Alegik.

—Zelako parabolea? —Eleberrik.

—Begira: Bein baten, jaiotzatik itsu ziran gizon batzuk artu ta elefante baten ondora eroan zituan errege batek. Eta elefante bat zala esan eutsen, aurrean ebena. Eta banan-banan arturik itsuok, elefan-tearen burura eroan eban lenengoa, tronpara bigarrena, bizkarrera irugarrena, anketara laugarrena, buztanera bosgarrena, ta abar. Zer zan a itandu eutsen gero itsuoi... —Alegik.

—Itsuak ikusgura, errenak ibilgura, gorrak entzungura —Atsotitzek.

—Elefantea zala erantzun eben bat-batean danak. «Baiña zelangoa da?», galdetu eutsen barriro ere erregeak. Eta orduan galdara aundi baten parekoa zala erantzun eban buruan egoanak... —Alegik.

—Txapela buruan ta ibilli munduan —Atsotitzek.

—Gomazko tubo lodi bat lakoa zala esan eban tronpearen gaiñean egoanak... —Alegik.

—Txirikitin txonea, Durangon tronpea, Elorrión buzkantza; Ermuan sedea; Ermuan seda barri, mutillok dantzari, neskak konbidetako libre maspasea. Amak emon baleutso etxeko lotsea, ez ebalá galduko urrezko boltsea —Atsotitzek.

—Sala baten antzeko zala esan eutsen erregeari elefantearen bizkar gaiñean egoanak. Tantai batzuk lakoa, anketan egoanak; iñarra bat zirudiala esan eban buztanari ikutu eutsanak; eta abar. Eta orduan... —Alegik.

—Ordua doanean doa mundua —Atsotitzek.

—Isilik! Jarraitu —Saiok.

—Ba, auxe esan eutsen orduan erregeak itsuoi: «Ederto! Baiña esan orain ia zelan izan daiteken batera galdara aundi baten parekoa, gomazko tubo lodi baten antzekoa, sala bat lakoa, tantai batzuk lakoa, ta abar. Zelan ainbeste gauza ez-bardin gauza bati buruz?». Eta eztabaidaka asi ziran itsuok, bakotxak bereari gogor eutsiz... —Alegik.

—Bakotxak berea eta bakotxari berea —Atsotitzek.

—Ulertu dozue? —Alegik.

—Bai. Ta zer? —Antzerkik.

—Ba guk ere geure egia ikusten eta erakusten dogula. Orixe —Alegik.

Sermoi, Alegi ta Atsotitzeneko morroia, agertu da. Luzez eta baltzez jantzirik dago, betaurreko zaar batzuk sur puntan noiz jausiko ditularik. Bera ere zaar egin da.

—Zuek erakusten dozuen egia ta «bapez», bardin. Esatea ere... —Saiok.

—Bakotxak berea —Atsotitzek.

—«In ore istorum non est sinceritas». Non da zintsotasuna? Non gure asaba zaarren zuentasuna? Non..? «Vade restro, Satana! O, zein dan..!» —Sermoik.

—Isilik zu ere, mesedez, Sermoi... Gure egiak ezertarako ere balio ez badau, zuok diñozuen, zuok erakusten dozuen

egia ere nondik artu dozue, ba? Nondik? Geugandik —Alegik.

—Zuongandik? —Saiok.

—Ona emen bertan Bilbo! —Antzerkik.

—Bilbao, an ere dongeak birao —Atsotitzek.

—Geuk sortu genduan Egieder —Alegik.

—Zoratu egin zara zu ere ala? —Saiok.

—Kirtenkeriak esaten ibilli barik, zoaze, bai, ta kitu —Eleberrik.

—Jakiña —Antzerkik.

—Baiña zer uste dozue zuok, bada? Ezerezetik sortuak zareela..? Berez? Geure odola dozue zuek ere —Alegik.

—Baita zera ere! Naiko koplarik da —Saiok.

—Nire aita ta ni ona etorri giñeanean, ez egoan Egiederrik. Geuk emon geutsan asierea, geuk —Alegik.

—Amaiera ere laister —Saiok.

—Kanpora emendik! —Antzerkik.

—Ameriketako indioei emon deutsen antzera, erreserbatxo bat emoiguzue guri ere, besterik ezean, mesedez —Alegik.

—Ez dira faltako landerrak zure lurraldean. Agindu au emoten deutsut, ba: «Zabaldu zure eskua zure lurreko lander eta beartsuentzat». Txiroa zapaltzen dauanak, aren egillea iraintzen dau. Txiroaz erruki danak, ostera... Bai, ai! «Beatus qui cogitat de egeno et paupere: die malo salvarit eum Dominus». Baiña madarikatua... —Sermoik.

—Etxe barri bat egin ezkeron... —Alegik.

—Ez —Saiok.

—Ez orixe —Antzerkik.

—Ez —Eleberrik.

Eztabaidaka ekitaldia egin ondoren, Saiok, Antzerkik eta Eleberrik kanpora jaurti ditue, errukirik gabe, Alegi, Atsotitz eta Sermoi. Eta kanpotik ibilli dira, ara ta ona, nora joan ezean.

Neure etxera etorri dira azkenean. Bai, oraintxe leentxoago etorri jataz, eta pozik artu ditut, eta alkarrizketa luze bat egin dogu, urdaiazpikoa ta intxaurrak janez eta ardao baltz indartsua edanez, bien bitartean. Gero, kantu zaar batzuk abestu doguz eta, jakiña, kanturik kantura, tragua barrura.

«Oso arlote bizi gara
ezin osaturik;
zenbat aldiz eguerdian
oraindik baraurik!
Gaur bai...»

Lo dago orain Atsotitz, eta liburu zaar bat irakurtzen Sermoi. Berba ta berba dabilt Alegi, ta ni isil-isilik entzuten eta entzuten eta idazten eta idazten.

Gaueko amabiak dira baiña, oso pozik nago Alegiri entzuten, eta logurarik ere ez dot.

—Aurrera, Alegi, jarraitu. Amaitu esaten ibilli zaiatazana...

Zarate, M.: *Ipuin antzeko alegi mingotsak*, Durango, 1975, 137-146.

alegi(a) = fábulas; *eleberri* = novela; *antzerki* = teatro; *saió* = ensayo; *atsotitz* = refrán; *eztekotan* = ez egitekotan; *buskantz* = morcilla; *iñarra* = escoba de brezo; *lander* = pobre.

BALENDIN AURRE-APRAIZ (1912)

Zintzoa ta benetalaria, benetan, gura axengiztar au, bai olerkietan, bai itz lauzko idazlanetan: bere gogo-biotzetako pozak, kezkak eta min biziak tolestura andi barik erakusten dakiana, beti ere Bizkaiko erri-euskera jatorraren usain baserritarra zabalduz... Bein baino geiagotan eskatu izan dau, eta gogor eskatu ere, euskerearen jatorrasuna zeatz jagoteko, erderearen menpean jausi barik.

109. OBA EZ!

Beste izkuntzen antzean, euskereak be ba-ditu bere esakera jatorrak, eta ez gitxi be.

Atsegingarria da euskerea baiño beste izkuntzarik ez ekien gure gurasoeri berbetan entzutea: Areiña itz egiteko, berbetako, taiua joskera zuzenez, aditz egokiz eta itz eta esakera ugariz orniduta. Ganorabagakoa ta mengala da izan be esakera bagako autua. Esakera jatorrak apaindu ta edertu egiten dabe, ba, ber-betea.

Belaunaldirik-belaunaldi esakera asko izan dira geuganagiño be, baiña asko galdu bere egin ekiguz, geure ardurabakotasunez eta aldameneko erderen sakakadea dala-ta. Baiña, bakotxak bere esakizuneri gatza ta berakatza ezarteko, gura zein gura ez bear, ba, esakuneak.

Oraingo euskaldun askok, euskeraz diarduenean bere, esakune egokien bat esan gura dabenean, erderara jo oi dabe esakizuna atontzeko. Euskaldun osoak ez izatea dogu, ba, ori.

Esakuneak direala, izan bere, uste dot, nik neuk, naiz-ta euskeraz esan, geienetan erderakadaz esan daroaguzanak. Sarritan entzun oi doguz: «Ze ume polita!» «Ze egun ederra!» «Ze otz dago!» ta abar. Euskera apur bat dakidunok guztiok dakigu, baia, jakin, ze ori zuzendu bearreko erderakada itxusia dogula.

Euskaldunok era asko doguz, ba, ze arrotz ori baztertu ta euskal-era jatorrez esakerak-eta esan aal izateko.

Aulan esango leukez, aitatu dodazan esakerak, euskaldun-euskaldunak: «Au ume polita!» «Au umearen polita!» «Ume au bai polita!» «Au bai egunaren ederra!» «Egun au bai dala ederra!»

«Egun onen ederra!» «Egun au baiño ederragorik!» «Au da otza!»
«Gaur dagoan otz!» «Egundo olako otzik!» eta abar eta abar.

Euskerea ikasten diarduenentzat garrantzi edo gora aundia dabe, ba, esakerak. Euskeraz birrikasten jardun izan nebanean (eliztiz edo gramatikaz ikasten esan nai dot) garrantzi aundia euken, beintzat, niretzat neuretzat, esakerak. Aditzak eta joskerak eurak baizen garrantzi aundia.

Beingoan zabaldu oi dira, gure artean, zabaldu be, gero, euskereari ez dagokiozan esakera ganorabagakoak.

Aspaldion askok idatzi daroe, Benetzuela'tik-edo, gasteleraz izan ekigun (an ugari erabilli daroe, beintzat) esakune bat: «Zelan ez!» Eta, «zelan ez!» erderazko «cómo no!» zuzen-zuzen itzuli daroe idazle askok, guk, geuk, orren ordezkorik ez daukagulakoan, urrean.

Nik neuk, ez dakit, idazleok zelango errietan euskeraz ikasi izan daben, «cómo no!» ori euskaldunok zetarik esaten dogun ez jakiteko.

«Cómo no!» ori adirazteko guk geuk, euskaldun jatorrok, beti esan izan dogu auxe: «Oba ez!» Sarritan destaiña-antzean, eta, beste askotan, benetasunez. Ederto diño, ba, Kerexeta jaunak, geure olerkari ta itzultzaille bikainak, *Orbelak* liburutxo-ko *Negurako-deia* deritxon olerki biotz-ikusgarriaren seigarren aapaldi dotorean:

«Egingo doguz —oba ez!—
Txirristak edur-gaiñean,
Gizonkil bildurgarriak
Eta «gurutzak» edurtzan.»

Euskereak daukazanetz jakin bagarik ez gaitezan ibilli, arrcn, geure esakera ta esakune jatorrak, benetakoak, itxi ta itxusikeri arrotzak geure berbeteari ezarten. Lotsagarria genduke, ba, geure «oba ez!» etxekoa baztertu ta «zelan ez!» sasikoa onartzea. Olakorik egundo bere ez!

Maitetasunez eta zintzo jokatu badagigu, indarbarritu dagikegu, ba, euskerea, —oba ez!— naiz-ta arerioak beredin marrokeriz agertu.

Aurre-Apr aiz, B.: *Oba ez*, in «Agur», 176, 1975, 2.

taiu = jas, trebetasun; *mengal* = efimero, débil; *belaunaldi* = gizaldi, generacian; *ardurabakotasun* = ajolagabekeria; *berakatz* = baratxuri, ajo; *aulan* = aolan, olantxe; *benetasun* = zintasun; *aapaldi* = estrofa; *txirrist* = (onom.) resbalón; *gizonkil* = muñeco; *beredin* = asko; *marrokeria* = dolo, trapaceria.

J. A. ETXEBARRIA (1934)

«Euskaldun barri»-en artean, gitxi beragandu dau euskerea gure santurtziar onek aīñean. Langille bero ta idazle ugaria, mundu klasikoaren maitale bakartia, itzultzaile trebea, eta baita bere biotz ameslariaren gorabeerak olerki ederrez agertu deuskuzana ere, urrengo onetan lez.

110. ITSASONTZIZ

Itsasontzi bat ba'neu...
«urruti-min» jarriko
neuskio izen ta itsas-
zabalera betiko.

Iñungo lurretara
eldu barik nenbilke.
Kresal-usaiña artuz,
barruz garbi ta azke.
Nere maitasuna izar
eta ugiñai emon.

Eta garbi ta azke
ez diranak or konpon.

Itsasontzi bat ba'neu,
oial itxaropentsu,
arraun maitatiz jantzi
ta itsasora kementsu.

Itsasontzi bat ba'neu,
Ludi guztia itsaso
egingo nuke, garbi
ta azke urrunera so.

Etxebarria, J. A.: *Laiño-odoletan*, Bilbao, 1976, 32.

SANTIAGO ONAINDIA (1909)

Izlari gozo, idazle ezin ugariago, aldizkari ta liburu barrien sortzaille ta argitaratzaille, euskal literaturaren azterle ta zabalzaille..., zer ez dogu aita Santi aspaldiko urteotan? «Bizkaieraz eta gipuzkeraz, itz-lauz eta neurtitez, goi-maillako euskera landu, garbi ta aberats bat lortu gurean diardu...» (M. ZARATE, BEI, 245).

111. BELAKIA

Argi-lore eguzkia,
aren euritan, itxas ertzez ni.
Belaki bat ertzean,
urak jaurtia, noski.

Oa, ta asetu adi;
zein arro ta galai abil urez!
Ikus, gora ta bera,
jostailu ugin-aparrez.

Len tximur, orain ase,
ertzik ez, itxas urdiñez bakar
Gizon biotz urduri,
aditu, egik oar!

Elaitxo bat yoako;
gain ezarri arren, geldi ezin.
Oro zorakeri uts,
ur-jolas ta ego-min.

Ni ari so, oldozkor...
Oi Jainko, Zu ez al zara itxaso?
Ta ni? Belaki zingil.
Zu eta ni, or oso.

Belakia, alan be,
itxasoan eta au belakian.
Belaki ezereza
itxas bete nasian!

Zu zaitut, Jainko, itxaso,
ur guztiak Zeugan dozuzana.
Txori, mendi ta lore,
Zuk sortua dan-dana.

Ni bere Zuk egiña,
arnasaz piztu ninduzun gartsu,
ta lore likurta lez,
geroztik zeure nozu.

Nainun zaukadaz beti:
ikus ez arren, soma bai gogor;
billa ez arren, aurki,
eztia ta maitekor.

Zirkiñikan ba'dagit,
Zure baitan naurki oztiñean:
ezker-eskoi, goi ta be,
Zu zaitut barrenean.

Zergaitik billa zaitut
lore usaiñean, mendi-argian?
Utsal-izakiak at,
sar nadin biotzean.

Belakian itxaso,
nigan Zu, gogozko leza-ondo.
Argi-lore biltzea
neugan daroat gozo.

Adi, oil, zer diñostan:
«Ez zara bat; bi gara, zu ta Ni.
Gogoz maite nagizu;
Egille nozu, sari».

Bai, Jauna: Zu itxasoa,
ta ni belaki zure altzoan.
Jarrai ortxe, maitekor,
ene biotz-zokoan.

Onaindia, Aita: *Goiznabar*, Olerki bilduma, 1929-1950, Bilbao, 1970, 193-195.

belaki = esponja; *naurki* = aurkitzen nau; *at* = kanpoan.

112. SORNE UNTZUETA

Euskal literaturan ez dira gitxi euskeraz idatzi daben emakumezkoak. Danak bat-banatzera ezkeru, mordotxoa egingo leukie. Bizenta Mogel'egandik asi ta gaur idazten dabene-taraiño, Jone Azurtza'ganaiño adibidez, izen-erreskada polita eioko geunke. Azken urteotan, izan be, aomen andikoak ditugu: Tene, Julene Azpeitia, Onintze, Maite, ta abar; guztiokin sail ederra osotzen da. Onein artekoa dozu Sorne Untzueta be.

Lauaxeta bizkaitar olerkari gurenak sarri goratu eban euzko-emakumea, bertsoz eta prosaz. Eder ikusten zituan euskal alabak, naiz sukaldeko arazoetan langille, naiz gizarteko goraberetan, politikan, ofiziñan... Eurok bai dira geroaren itxarokizun: aundikiro abestuak daukaguz bere poemetan, eusko alaben soin-edertasuna ta biotza.

Emakumearen biotza, izan be, arrokeri ta andiputzak —edo-ta lizunkeriak— usteldu barik dirauanean, ederra dogu, zoragarria; literatura testigu, zelan ikusten zituan gauzak, esate baterako, Txile'n jaioa izan arren, zanetan eusko-odola eroian Gabriela Mistral'ek! Biotz leun, adeitsu, samurra darakusgu dardaraz «Ternura» bere poesia-liburu atsegingarrian.

Euskal idazle

Sorne Untzueta be euskal idazle ta olerkari dozu. Prosaz eta bertsoz idatzi dausku. Abando-Bilbao'n jaioa da 1900-11-27'an. Berton osotu zituan bere ikasketak, Maistra karrera egitiñik. Gero, Errigoiti'n, Plentzia'n, Lemona'n eta Berango'n erakutsi eban. 1930'an Lemoa'tik idazten dau «Euzkerea» aldizkarian.

Errepublika garaian batez be, 1931'tik aurrera, erririk erri ibilli yakun izlari errime, eusko emakumeak erriketa ta politikan daukazan betebearrak euskeraz eta erderaz adierazo ta zabaldu-

rik. Gerratean Prantzi'ra anka egin euskun, Paris'ko «Euzko Deya»-n olerki batzuk argitara emonik. Gaur Euskalerrian bizi da.

Euskal idazle dogunez, Bilbao'ko euzko gaztediak zuzentzen eban «Euzkerea»-n, «Euzko Deya»-n eta Guatemala'ko «Euzko-Gogo»-n azaldu ditu, batez be, bere idazlanak. «Utarsus» izenordea, edo laburtua, erabilli dau sarri.

Eder izan dau bere arloko gaiak erabiltea. Ikastolan ikusi ditun gaitzak eta erreztasunak, umetxoak euskeraz ta erderaz ikastea, esaterako. Zentzun andiz biribildua dau «Ikastoletan bi elez» deritzan lana. Ba-daki ondo be umetxoen biotzak zelan zabaltzen diran, eta adimen-orriak; zelako burruka sortzen dan, laiño artean lez bi izkuntzen artean; burruka ortan zelan jokatu bear dauan irakasleak, eta umetxoak.

Olerkari

Biran daukaguzan gauzak eder opaka dagoz. Gu, alan be, ez gara sarri ortaz konturatzen. Eder-jasotzailleak bere biziko pozak izan oi ditu: olerkariak geien bat orrelakoak izaten dira, inguruko ederraz konturatu ta barruz be ederra, euren senez ta jakitez sortu ta biribiltzen dabenak. Zeregin duiña, gurena ziurrik asko.

Ortan alegindua da Sorne. Ba-daki inguruko ederra jasoten; ba-daki baita, barnera begira, ederra, erleak ezta lez, adimen eta biotz-errotan eio ta moldatzen. Olan ondua dau olerki mordoa. Dirala ogei ta lau bat urte, neure «Milla euskal olerki eder» liburua eratu nebanean, Utarsus'en bi be —«Gomutakiak» eta «Gogo ituna»— bertan sartu nituan.

«Gomutakiak» zortzi ahapaldiko poesi leuna dozu. Gazte-tako gomutak yatorkoz, gozo ta samur, gogora. Ibai ondoan dagoan bide zabaleraño dator, gaur be, antxiña lez, itxasotiko kresal usaiña. Orrek lo egoan gomuta bat berbizten dautsa: begi urdin batzuk ixetu. Olerkariak:

«Zugatx ostian zagoz, ene maitia?» ditauntsot une baten. Ez, begi urdiña dagoz ngandik urrun, izarren antzez, neuretzako betiko lortu eziñak.»

Ibai geldiak basea dauko barruan, goian ur gardena; aza-lean, «antzezkuza lez», ortzeko margoaz margoztuta dago. Gaiñetik beintzat eder! Olerkariaren arima be, itxaso antzekoa yako; gentza ta bakea ipiñi gura leuke barrenean. Baiña ez yako errez. Gizamaitasunak, aiztu eziñak izanda be, benetan dira basazkoak. Itxaso barrua noski! Baiña azalean, itxasoan

lez, ez ete da ur gardenik? Bai, ba-da basazkoa baiño gorago dan zerbait. Maitasun bi, goragokoak, aitatzen dauskuz emakume olerkariak: Jainko maitasuna ta Aberri maitasuna. Ona:

*«Eurak baño gorago, Aberrientzat
maitetasuna, auxe da, ur gardena.
Baña gorago ondiño, dan bikañena
Jaungoikoarentzako maitasuna.»*

Sarri izan oi dau gogoa itun; jente artean dagonean, mitxeletak argi inguru lez, dabilkio tamala, ta bakarrik dagonean, kendu eziñak yakoz mitxeleta baltzak. Negu biotzean galdu yakon maitearen irudiak dira; alan be, ez dau nai guzur-atsegiñik, gurago dau bakarrik, bere gelan, egotea; ez, ez doa ludi onetako alai billa. «Gomuta itunen tamala da neuretzat gozo, maite», diño.

Zelako idazle

Egiñetatik da gizona ezagun. Idazlea idatzietatik, ez izan dudarik. Sorne Untzueta be, bere idazlanak darakuskue noraiño idazle dan. Ona 1930'ko urtarrillean, LEMONA'tik «Euzkerea»-ra bialdutako lantxo baten zati au. Bertan diñoskuna guztiontzat dator ondo, geurea zaintzen ikasi dagigun.

«Eztozube entzun, ene irakurliak —diño—, lengo egunian geure errijan jazo dana? Emengo langille batzuk, biarra lagata olatik urten, eta euren etxeetara eldu baño lenago, ardantegira sartu ziran, alkarregaz ardao pizkat edateko asmuz. An geure elez berriketan iñardubela, oi dan lez atzerritar bat sartu zan, eta jakiña, ez eutson ondo eritxi euzkeraz egitari; ez, ba, abo gustijentzako egiñikua eztija bera be ez da-ta, ta eurakana juanda esan eutsen, bere aurrian ez erabilteko basatjen izkerarik.

«Geuriak be mutuak etziran ta, adoretu ta gixa-lagiz aldeztu eben erabilten euzkera ederra. Lenengo urten zan atzerritarra makaldutera yoyala ikusita, beste eurretat batzuk lagundu yakozan; alperrik, baña, euzkeldunen alde urten ebenak geyago izan ziran-eta. Azkenerako sortu zan sortu biar zana: burrukia, gudial! An ixan ziran galopadak, arrapaladak!... Zer ixan zan angu apatxotsa «Agerre»—tik aurrera!!

«Auxa da jazo zana. Zer deritxazube? Tamalgarrija ta lotsagarrija dala diñue batzuk; nik baña besterik diñot, burrukaldi ori, euzkeldun orontzat dala omuratsu-omuratsuba. Zer ba!.. Gura daben gustija esaten itxi? Ez olakorik, aldeztutia azke dagon

arte beintzat! Onelako estabaidatxubak egunoro biar litzakez, zaurijan ukutuagaz, zauriduna biskortu egiten da-ta. Dakusgunez, ba, geure-geuria dogun euzkel-ele ederra aldeztuteko nok zirikatatu biar dogu, ta egunoro zirikatatu ezkeru, euzkeldun odola bixi-bixi eginda, bere-beriak diran gauzak aldeztuten asiko litzake».

Onelaxe, argi ta zentzunez, idazten dausku beti Untzueta, euskal idazle jatorrak. Zergaitik daukagu gaur ixillik? Geurea aldeztu bearrean dagoz, bal Urteak eratxi bear da? Euskal idazleak eriotzaraiño kanta bear dau.

Onaindia, Aita: in *Zer*, n.º 1, uztaila 1977, 10.

aomen = ospe, fama; *adeitsu* = cortés; *ele* = izkuntza, berbeta; *ostian* = ostean, atzean, gibelean; *ditauntsot* = itanduten deuntsot, galdetzen diot; *basa* = barro; *gixa-lagi* = giza-lege; *ukutu* = ukitu, ikutu; *eratxi* = baldar.

MARTIN OLAZAR (1927)

Bizkaiereak gaur daukan aldezerik sut-suenetariko bat Martin Olazar dogu, duda barik. Urteotako estabaidetan —euskera batua bai ala ez, «h» bai ala ez—, bere eretxia nainon argi ta garbi agertu deusku, euskera argi, zeatz eta ondo neurtu baten bidez. Orren lekuko, ona emen artikulu au:

113. BIZKAI'tarrai, BIZKAIERAZ

Zor dodan erantzuna

ARAN lenengoz agertu zanean, euskerea ikasteko bear-turik gagozela adiazoteko idazlantxu bat agertu neban, euskera batuari buruz nire eritxi batzuk labur-labur agertuaz.

Baiña batzuntzat eritxiak agertzea ez da gauza ona eta eurakaz batera ez ba'zagoz laster esango dautsue «afirmazio merkeak» dirala.

Azkenengo ARAN'en agertu da Aurrekoetxea'tar Gotzon'en erantzuna. Euskera batua esaten dautsoen orreri buruz esan nituan gauza batzui erantzuten dautse.

Nire eritxiak garbi geratu daitezzen eta iñorentzako oker-biderik sortu ez daiten, zerbait esatera bearturik ikusten dot neure burua eta orregaitik, barriro idazten dot gai oneri buruz.

Orrez gaiñera, gaur ain zapaldua ikusten dodan Bizkai'ko euskera ederra eta gure elertian guztiz aberatsa danaren alde zerbait egin bearrean nago. Zapaltze guztien aurka jokatzea, zuzentasunak berak eskatzen dau ta.

Atxeak kendu bearra

Euskera baturako atxeak kendu bear dirala esan neban, eta ori «afirmaziño» gogorra dala diño Gotzon'ek.

Nik ez dot uste afirmaziño gogorra danik, eta gogorra ba'litz be, bearrezko gauzea da eta barriro be egiten dot afirmaziño ori.

Eta ez bakarrik euskeran, gazteleran bertan be atxe guztiak

kendu bear litzakez edo, obeto esanda, sekula ez zan sartu bear atxerik. Ez dot uste afirmaziño au Real Academia Española de la Lengua'rentzat iraingarri danik.

Zenbat ordu ta diru alperrik eralgi ete dira gazteleran atxea non jarri jakiteko! Eta gaur be zenbat buru-auste, nai ta nai ez erdera ori ikasi bear dabenentzat. Erdi-aroan bide obean egoan auzi ori, gerokoa da nastea, jakitunak sortutako alperriko nastea.

Euskerea zori onekoa zan orretan, batez be Barrizkunde-aldian eta Sabin Arana'ren lanai esker, Euskaltzaindian gerago onartuta, atxea kendu eta abots (fonema) bakoitxak ikur bakar bat eukanean. Eta orrexen billa doaz gaur izkuntza guztiak. Zergaitik orain dana nastau eta ikasleentzat gogaikarri dan atxea sartu? Jakitunen lana ba'da, orretan uts galanta egin dabe, gazteleran egin eben lez. Orretan eztaibadea onuragarri dala edo izan leitekela uste dot, ebatzi zuzenera eltzeko.

Euskerearen abotsa ete da atxea?

Euskerearen abotsa, fonema, dala atxea diño Gotzon'ek eta abotsagaz bardintzen dau.

Baiña orretan oker-ulertu bat dauka. Atxea ez da euskerearen abotsa, euskalki batzuna baiño, eta euskaldun gitxik erabilten dituen euskalkiena izan be.

Atxea agoztuten daben euskaldunak 60.000'ra ez dira elduko eta atxe barik berba egiten dabenak 600.000'tik gora dira. Oneintzat atxea ez da abotsa, ez da fonema.

Orrela izanik, batua egiteko bidea zeifenena da? Geienena ala gitxienena?

Iparraldeko euren euskalkian erabili begie atxea, onuragarri ba jake, baiña batua egiterakoan, erreztu beiskue arazoa, atxea alde batera itxiaz.

Ba ditu bizkaierak be beste fonema batzuk, 200.000 euskaldunek erabilten dituenak, baiña bizkaiera batua egiteko eta euskera batura-bidean itzi egiten doguz.

Atxeagaz euskerea gatxagoa da

Atxeagaitik euskerea ez dala gatxagoa, diño Gotzon'ek. Gai onetan ez dot uste erantzuna emon bearrik dagoanik. Ori ez dau iñok be sinisten eta Gotzon'ek berak be ez dot

uste. Atxeak euskerea gatxagoa egiten dauala, izkuntza au ikasten lan egin dauan edozeinek daki.

Gaxtasun aundia ez dala eta azpiratu egin bear dogula esan ba'eban, obeto esana izango zan. Baiña errez kentzeko oztopoak, azpiratu baiño kendu oba dala esango neutsan.

Erakundeak ez dira ankar gora jausi

ARAN aldizkari apal onetan egin dodazen baieztapenak egin dodazelako, Euskalerriko erakundeak ankar gora bota dodazela diño Gotzon'ek.

Ez neban uste orren besteko indarra neukanik!

Baiña ori ez da orrelan, erakundeak or dagoz zutunik, len lez.

Jakintsu guztiak be bera bota ei dodaz, baiña ez estutu, or jarraitzen dabe zutunik eta euren eritxiak zabal agertzen (...)

Atxea nortzuk onartu daben

Erri guztiak onartu ei dau atxea, bere ustez.

Ori uste ba'dau, ez dau asko erria ezagutzen, berak uste dauan baiño zabalagoa da Euskalerria, aundi-aundia izan ez arren.

Nik erritar asko eta asko, euren artean eundak idazleak, onak eta jatorrak, ezagutzen dodaz atxea onartzen ez dabenak. Euskaltzaindikoak be ez gitxi.

Olako idazle askogaz artu-emonetan diardut eta oraintxe gertatzen dogun omenaldi baterako, 125 idazlek euren lanak bialdu ditue, atxedunik bat be agiri ez dala.

Nik ez dakik olako gauza bat esateraiño zelan itsutu leitenen gizonal!

Eta euskaltzainiak aitatu doguzan ezkerro, zerbait esan bear dot arlo onetan.

Bear ba'da Gotzon arritu egingo da, baiña Euskaltzaindiak ez dau iñoz atxea erabilteko ebatzi sendorik artu, Arantzazu'ko batzar ospetsu ta zatatsu aretan bokal biren erdian erabiltea ondo ikusiko leukela esan baiño. Gero idazkietan euskaltzain batzuk, egitez, zabaldu dabe bide ori, baiña ez Euskaltzaindiaren ebatziz.

Dana dala, «atxea ez erabiltearren Euskaltzaindiak ez dau iñor espetxeratuko», Igorre'n Irigoien'ek esan eban lez.


Euskerearen alde lan

Amaitzeko, agertu dagiguzan eretxiak, emen lez, eta zabaldu dagioguzan euskereari bide guztiak. Alkar aztertzea ondo dago, baiña lan egin dagigun.

Ara non Gotzon'ek esaten ditun antzeko berbakaz amaitzen dodan: Ikasi dagigun guztiok gaur erabilten dan euskerea, gaur idazten dan euskerea, geuk be idazteko, idaztea da salbabidea ta. Idazten ez ba'dogu, euskerea il egingo da.

Olazar'tar, M.: in *Aran*, 1978, jorrailla, 12.

elerti = literatura; *ikur* = seinale, signo; *ebatzi* = decisión; *euskalki* = euskal dialekto; *agoztu* = pronunciar; *oztopo* = eragozpen, obstáculo; *erakunde* = institución; *baieztapen* = afirmación; *eundak* = cientos.



GEIGARRIA: ITZULPENAK

«Euskeratu bakarrik ez, euskaldundu egin bear da!», esaten eban, eta sarritan esan ere, Mikel Zaratek. Itzulpenak ondo egitea ez da berezko gauzea, ez orixe! Zeatzak, zuzenak, egokiak eta bigunak direnean, itzulpenak euren meritua dabe; baina, edozein modutan ere, literatura baten ospea eta izen ona sortze-lanetatik datoz, ez itzulpenetatik...

Au olan izanik, gure lorategi onetan, birritan-edo baino ez dogu sartu itzulpenik (J. A. Moguel-en «Alejandroren berbakuntzia...», 77 orr.; eta J. A. Añibarro-ren «Geroko Gero»-ren buru edo kapitulu bat, 11 orr.).

Baina itzulpenak gure artean izan dabeen garrantziak alan eskaturik, gitxi batzuk sartzeari ondo eretxi deutsegu, labur-labur bada ere: Biblia osoa, Liturgia barria, W. Shakespeare-n lan guztiak Bizkaiko euskerara biurtzea ez da, ez, edozelango bear arinal



114. TORMES'ko ITSU-MUTILLA

(N. Ormaetxea «ORIXE»)

«ORIXE» andiak ainbat euskalki landu zituan, eta gure bizkaieroa ere maite-maite eban: ori olan zala erakusteko, erderazko El Lazarillo de Tormes biurria artu eta gure euskalkian larri eban, egoki benetan, naiz eta bein baino sarriago arrotz-usaina euki gure belarrientzat.

Alboan arda-pitxar bat euki oi eban bazkaltzekoan. Nik elduten neutson arin, eta bi mosu ixil emon-ostean, bere tokian izten neban. Ez luzaro. Edatean ezagutu eban palta zala, ta bere ardua seguru gordeteko pitxafari belafitik eusten eutsen, beñere itzi baga. Burdin-biziak eztau ezer bereganatzen, neuk lasto-izpi bategaz arda a baizen ondo. Sañtuten neban pitxara aboan eta itzungi egiten neban pitxara, «gabon» esanda. Baña aen maltzura ta azeria zan, oartu edo zan, eta aurera asmua aldatu egin eban, eta ankartean imiñi eban eta eskuaz tapetan eban, eta alan nasai edaten.

Ni ardauari yafia nengoan eta itotzen nengoan ardaugura. Lasto-izpiaz ezin baliatuta pitxafari zulo estu bat egiteko asmua artu neban, eta polito polito argizari-falo me-meaz itsututea, ta bazkal-orduan, otzak nengoala-ta, sartzen nitzaion ankartean, su apufaren ondoan berotzeko. Argizari apufa urtuten zan beroaren beroz, eta asten zan itufitxua tantaka nire abora, aratean neukola, ta jon dakiola galtzen zan tantari! Gizagaxuak edaten yoianean, pitxar utsa aurkitzen eban.

Añitzen zan, biraoka asten zan, gaitzesten ebazan pitxara ta ardaa, zer izan legikean yakin barik.

«Ez esan, osaba, nik edaten dodanik, niraution, eskutik eztozu izten-da».

Eskuetan itzuli ta irauli ta aztamu, atzenik aurkitu eban itufia, ta ezagutu eban nire iseka; baña ez-ezagunena egin eban.

Biamamonean, nire pitxara edoskitzen niarduela, ze gaitz etoriko yatan uste barik, eta itsu gaiztoak sentitzen ez nidualakoan, yezari nintzan, beti lez, tanta areik biltzen nebazala, arpegia zerura begira, begiak erdi-itxiak gustu ohea artzeafen. Orduantxe nigandik asefekundea artu bear ebala otu yakon

itxu gaiztoari; ta bere indar guztiaz, bi eskuekaz pitxar goxo ta gañatz a goratzen ebala yaurti eustan abora indar guztiz. Lazaro gizagaxua ardura barik nasai egoan, alangorik bururatu baga, ta oraingoan zerua ta izartalde guztia nigana yausi zala iduri yatan.

Alako kaskatakota ta alako pitxar-kaldiak: kordebaga itzi nindun. Pitxar-puskak arpegian sartu yatazan toki askotarik, eta aginak apurtu eustazan. Ordu ezketiño, ain barik nago. Andik aufera gofoto artu neutson itsuari, ta maite ba ninduan bere, ta atsegin eta losentxa egiten ba eustan bere, ezagun zan neure ezbear gogoñaz poztu zala. Ardauz egin eustan arpegiko osaketa, eta bañeka iñoan:

¿Zer deritxok Lazaro? Gaitz egin yeutseanak berak «osaututen au». Eta olango ateraldiak ebazan, ez nire atsegiñekoak.

Nire odoleri ta zigoñalditik osatutxu nintzanean, alango takateko gitxigaz itsuak galduko niduala ta, neuk bera galdutea asmau neban. Baña astiro artu neban egikizun ori, seguruago egiteafen. Nik biotza ibitu nai ta pitxar-kaldia parkatu nai ta bere, ezin negiken itxu gaiztoak andik aufera emoten eustan yardunaz. Zio barik, niri kaskañekoka ta ule-tiraka ziarduen. Eta norbaitek esaten ba eutson zegaitik alan yokatzen zan nigaz, berelaxe kontetan eutson pitxarñarena.

«Uste al dozu mutil au kokoren bat dala? Deabruak bere, asmauko ote leuke olango egiterik?».

Entzuten ebanak ziñatuta iñoen: «¿nok usteko eban mutiltxu ofek olako txarkeria egingo ebanik?».

«Zigoña, zigoña ofi. Yainkoak ordainduko deutsu-ta». Beraz ez eban besterik egiten.

Ormaetxea, N., «Orixe»: *Tormes'ko Itsu-mutila*, Bilbao, 1929
19-23.

itzungi = amatau, itzali; *ttalo* = torta pequena; *aratean* = aoz gora; *gaitzetsi* = madarikatu; *axtamu* = ikutu, tacto; *atzenik* = azkenean; *edoski* = mamar; *losentxa* = lisonja; *ibitu* = anditua kendu, baretu; *zio* = arrazoi; *koko* = lelo, bobalicón.

115. **BIBLIA: JOB'en LIBURUTIK** (Itzulpena:
Kerexeta'tar Jaime'k)

Azkenengo ogei urteotan, beintzat, Bizkaiko euskaldunok geien-geien irakurri edo entzun izan dogun euskerea Kerexetarena da: Alkartasun Barria, Eguneroko Meza, Biblia osoa... egunero edo, gitxienez ere, domekan domekan entzun izan doguz askok eta askok, euskera garbi, zeatz, zuzenean. Bizkaiko Eleizeak eta erri euskaldunak ordaindu ezinezko zorra dauke Elorrioko abade beargin amorratu onegaz.

Jaunak Job'i ekaitzaren barrutik itz egin eta auxe esan cutsan:

- Nor da, sen bagariko itzez,
Jaungoikoaren asmoa illuntzen diarduan ori?
Gizona ba'zara, lotu egizu gerria:
itaunka natorkizu, erantzun egidazu.
Nik lurrari oiñarria ezartzean, non zengozan zu?
Esan egidazu, orrenbeste ba'dakizu.
Nok erabagi ebazan aren negurriak?
jakingo zeuke? nok ezarri eutsen negurtzeko aria?
Non sendotu ziran aren oiñarriak?
nok jarri eban aren giltzarria?,
goizeko izarrak batera oiuka
eta aingeruak goraka ziarduela?
Nok itzi eban itsasoa ate-barruan,
amaren sabeletik ibaika urten zanean,
odeia soifiekotzat eta laifioa sein-zapitzat jantzi neutsazanean?
mugak ezarri, eta ateak eta morroilloak ipiñi neutsazanean?
«Onagiño elduko zara —esan neutsan—, eta ez aurrerago;
ementxe lertuko da zure olatuen andikeria!»
Zure bizitzan, goizeko izarrari noizbait agindu,
eta egunsentiari bere tokia izentatu ete-dautsazu?,
lur-ertzei oraturik, gaiztoak astindu dagizan?
Orduan, lurra sillu-buztifa lez biurtzen da,
soifiekoa lez koloretzen da;
gaiztoai, barriz, argia atzamatuta,
eta beso goratua ausita geratzen yakez.

Isatsoaren iturrietaragiño sartu ete-zara?
 lezearen sakonean ibilli ete-zara?
 Eriotzaren ateak erakutsi ete-dautsuez?
 Gerizen atariak ikusi ete-dozuz?
 Lurraren zabalerea aztertu ete-dozu?
 Guzti ori ba'dakizu, azaldu egidazu.
 Nondik joaten da argiaren etxera? non bizi dira illunpeak?
 Euren lurraldera eroan ete-zegikez,
 edo etxeko bidea erakutsi ete-zegikioe?
 Jakin be ba-dakizu zuk, areik baiño leen jaio zintzazan-eta,
 orrenbeste urte bete dozuz-ta!

(JOB-en liburutik, 38. kapitulua)

Kerexeta, J.: *Euskal-Biblia* (Bizkaieraz), Bilbon, 1976, 778-779.

116. JAUNAREN ARGITASUNEAN (Liturgia barria)

Azkenengo Kontzilioak zabal-zabalik utzi zituan erri-izkuntzentzat liturgiaren ateak: au olan dala, gure euskera zaarrak bide barriak aurkitu ditu, apaindu, egokitu, batu ta zabaltzeko. Liturgi-itzulpenak eleizbarruti arteko talde batek eginak dira, aal danik eta batuen, baina beti ere erri xeak ulertzeko era, euskalki bakotxari berea emonez. Emen irakurgai eder bat eskeintzen dogu, bere salmo-kanta ta guzti (Salmoak Iratzeder-ek euskeratu zituan bertsoan, L. Akesolo-k egokitu bizkaieraz; salmo-kanta au liturgi-taldeak eratua da).

Baruk Profetaren liburutik (3,9-15. 32—4, 4)

Entzun egizuz, Israel, bizi-aginduak; zagoz adi, zuurtasuna ikasteko. Zer dala-ta zagoz, Israel, arerioen lurraldean?; zer dala-ta zagoz atzerrian zaartuten, gorpu-artean loiturik, illen artekotzat zaukezala? Zuurtasuna itxi dozulako da ori. Jainkoaren bideetatik ibilli baziña, bakean biziko ziñan beti. Ikasi non dagoan zuurtasuna, non dan zentzuna ta non indarra. Olan jakingo dozu non dan luzaro bizitzea, non begietako argia ta non bakea. Baiña nok aurkitu dau aren lekurik, edo nor sartu da aren gordelekuetan?

Dana dakianak, arek bai ezagutzen dau jakituria, barru ta sakon ezagutu bere. Berak jarri dau lurra betiko sendo, berak lau oiñeko z bete. Berak agintzen deutso argiari eta argia badoa; etorteko esaten deutso, ta arek ikaraz egiten dau bere esana.

Berak dei egiten deutse euren gau-lekuetan pozarren dagozan izafrei, ta oneik «Emen gara» erantzuten deutsoe eta pozik egiten dabe euren Egillearentzat argi.

Bera da gure Jainkoa; ez da beste bat Bera langorik. Ja-kituriaren bideak Berak asmau ditu, ta emon bere bai bideok Jakob bere semeari, Israel bere laztanari. Gero, lurrera agertu zan eta gizonen artean bizi. Bera da Jainkoaren agindu-liburua, beti irauteko legea. Lege au gordetan dabenak bizia izango dabe, eta gorde ez egiten dabenak, eriotzea.

Artu egizu barriro, Jakob, lege ori; zabiltz Aren argitan. Ez itxi besteri zure aintza dana, ez atzerritarrei zure aunditasuna. Zoriontsuak gu, Israel, Jaungoikoaren gogoko zer dan daki-gunok!

Jaunak esana.

SALMO-KANTA

(Ps 18,8.9.10.11) (Jon 6,69)

Jaunaren itza
gure argia,
gure bidea,
gure bizia.

Jainko-legea / bikaiña da,
biotz-gogoen / bizkorgarri.
Jaunaren itza / sendoa da,
ez-ikasien / jakituri.

Ak aginduak / beti zuzen,
biotzarentzat / alaitasun.
Jaunak esanak / dira garden,
bi begientzat / argitasun.

Jaunaren naia / zein garbial;
iraungarri ta / betikoa.
Aren epaia / zein egia:
okerbiderik / bagekoa.

Urrerik ez da / ain ederrik,
naiz izan urre / garbiena;
Eztirik ez da / ain gozorik,
naiz izan ezti / gozoena.

Bilboko elizbarrutia: *Irakurgai-liburua*, II, 13 urtea, 1972, 103-104.

117. W. SHAKESPEARE: OTEL (Euskeratzailea)

Larrakoetxea'tar Bedita)

Teatrogilerik ospetsuen orren lan guztiak euskeratu deuskuz B. Larrakoetxea-k, erbesteko lur arrotz garratzean, bere Arratiko izkera aberats, gogor, latz eta indar andikoan.

OTEL: Ni zelango nazan ikusteko, Yaungoikoak elorrioak bidali izango ba'leustaz; nire buru gorriaren gainera guztitariko min eta lotsariak euri-tantanak bestean sarri egotzi izan ba'leustaz; landertasunean okotz eta ezpanetaraño murgildu izan ba'nindu; ni ta nire itxaropen guztiak iñoren yopu egin izan ba'leuz; nire biotzean nonbaiten aurkitu izango neban epe-tantatxoan bat: baña, onangorik! edonok, atzarri geldiro eraginda, ni edonok, txuxo ba'nintz lez, niri irri ta iseka egiteraño erastea!.. orraitiaño, nik orixe be eroango neuke; tira, tira, ba: Baña, ara, nire biotza yarri dodan toki beretik; antxe edo bizi edo il bear dodan lekutik; nire biziaren iturria dodan leku-lekutik; nire biziaren erioa datorren eta agortzekotan ilgo nazan iturritik nire alde eragitea! edo bertan gelditzekotan, kunkun iguingarriak alkarrekin batu ta umeak sortzen dabezan lezan legetxe, osin ustel atan euki nire biotza!

DESTEMONE: Nire yaun yatorrak ni zintzotzat nauela uste dot nik.

OTEL: Ene! Ez, izan ez! Udan arategian bertatik ugaritzen diran euliak legetxe zintzo zu. Orren lirain eta lerdan izan, eta sentzunai min emoteraño orren gozo zarean bedar txar ori, ez al zintzazan eguño yaio!

DESTEMONE: Ai ene! neuk eztakidala, ze oben egin ete dot nik?

OTEL: Ingi lirain ori, yaungoiko-yaungoikozko idazti ori or ematxar itza idazteko egina ete da? Zer egin dozu, zer egin, iñoren mutxikin orrek? Nik nire masallak laba goritu egin bearko neunkez, eta nire neurrikotasuna erre ta geltzotuz, zuk eginak azaldu bearko ba'neuz! Zuk egin dozuna! Yaungoikoak berak sur-zuloak itxi egiten dauz, zuk eginaren andurrik eldu ta sartu eztakion, eta ilargiak begiak

itxi egiten dauz; bidean yoan ala aurkitzen dauen edozeri mun egiten dautsan axe zantarra bera be lur arroaren sabelean ostondu da ixilik, zuk eginik ez entzutearren. Zuk zer egin dozun! lotsagalduko ematxar orrek!

DESTEMONE: Yaungoikoarren, zuk irain egiten daustazu.

OTEL: Etzara ematxar ala?

DESTEMONE: Ez, eta Kistar-itz dozu nire «ez» au: nire ontzi au beste iñok zantarkiro ukutzeka nire yaunarentzat garbi ta kutsuga eukitea ematxar izatea ez izatekotan, ni enozu ematxar.

OTEL: Zer? Etzareala emagaldu?

DESTEMONE: Ez. Yaungoikoaren aurrean dirautzut.


OTEL: Izan ete leiteke olagorik?

DESTEMONE: Ene! Yaungoikoak asketsi begiskul!


OTEL: Olan izatekotan, askespen-eske nagoztu: nik Otel-ekin ezkonduko Binixa'tar emagaldutzat artu izan zaudaz-eta.

Larrokoetxea'tar, B.: W. Shakespeare-n: *Otel, Binixa'ko Mairua* euskeraz, Odol-antzerkiak, Tolosa, 1976, 154-155.

elorrío = tribulación; *atz* = atzamar, beatz; *txuxo* = espantajo; *eratsi* = beera bota; *kunkun* = sapo; *geltzotu* = errauts biurtu; *andur* = ats andiko zikinkeria; *azketsi* = parkatu; *zaudaz* = zaitut.



**B) TESTU AZTERKETA
ARIKETAK**



TESTU AZTERKETA

Testu azterketa zer dan esatera eta mugatzera beartuak gagoz, testuen antologia bera sakonetik aztertzen lagundu dagiskun. Eta munarriak ipini orduan, elburu bi izan ditugu, batez ere: oñarrizko gauzak esatea, sakontasun geiegi barik, pedagogia aurkitu naiaz; eta, bigarrena, argitasuna billatzea, teknizismoa alde batera itxirik.

I. Literatura arte bat da

Eta hau zalantzatan jarri eziñezkoa da. Baiña honek ondoren batzuk dakarskuz. Ondorenak, batez ere, irakurlea obra batera zelan urreratu behar dan adierazten dabenak. Azaldu egingo dogu. Eziketaz, ez dogu uste bardin bardin urreratzen gareanik Pinturara eta Literaturara, azkenengo honek atentzinoa denbora geiagoz lotzen deusolako irakurleari. Horregaitik, guk uste, lan batera ez gara rezeptibitatez urreratzen. Danok ezagutzen dogu eleberrien (nobelen) argudioa jakiteko baka-rrik irakurten dauan jendea. Beraz hori ere bada irakurketa bat, baiña normalki azal-azaleko irakurketa. Baiña badago beste biderik ere.

Gure ustez, lortu bear doguna hauxe da: irakurlea literaturara zeozer entzutera, ausnartzera eta gozatzera urreratu daitela, literaturagaitik gustoa sortueragin irakurleari. Baiña hau egiteko, azken baten, bide bat baiño ez dago: irakurtea.

Bear bada liburu hau irakurri dagien geienak Espaiñiako Batxillerrean pausuren batzuk emonda egongo dira eta, bear bada, gure auzokoen eziketa plangintzan oraintsura arte testu azterketa baztertuta egon dana ere konturatuta egongo dira. Lanak iruntsi egiten ziran, ezetariko gustu barik, gogait eragin arte.

Literaturaren arte balioa barriro sentitzera bultzatu bear ditugu geure buruak. Eta horretarako rezeptibitatea bear bearezkoa da. Logikaz eta sentimenez urreratu beste batek esaten deuskunera. Irudiari hainbeste toki emon deutson geure gizar-

tean, irakurteko bear dan konzentrapena eta sensibilitatea lortzea ez da batere erreza, baiña erreinbindikatu egin bear dogu geure euskal munduan.

II. Zelan egin testu azterketa?

Horretarako ez dago erantzun zeatzik. Oso ezaguna da beti emon oi dan formula majikoa: «irakurri, irakurri eta irakurri». Baiña, bere orokortasunean, formula honek ez dau geiegirik balio. Horrelanik bada (eta bide zeatzik emoten ausartu barik), lau urrats proposatzen ausartuko gara:

1. Irakurtea
2. Oartzea
3. Zintzotasuna
4. Idaztea

Bakotxa azaltzen dogun bitartean, adibide legez poema erreztxo bat komentatuko dogu gaiñetik.

1. *Irakurtea*: Urrats honetan mailla bi bereiztuko ditugu. Lehenengo lehenengo, testuko itz ezezagunak iztegian begiratu eta ulertu bearko dira. Ez itzak bakarrik, baita testuaren zentzun osoa ere. Eta ez litzateke txarto egongo, testo hori idatzi zan giroa eta ingurua ezagutzea ere. Horretarako, euskal literaturaren historia on bat euki bearko dogu urrean.

Adibidetzat proposatzen dogun olerkitxo haxe da:

«Adios adixkidea
adios sekulako,
zure dizdira anaikorra
gugan ez da itzalduko.
Agur, Zarateko Jauna,
letretako zalduna.
Maite zendun lur honetan,
aurki dezazula atsedena.

Lezaman, 79-4-11»

Benito Lertxundik Mikel Zarateren illetan eginiko poema txiki eta sentikorra.

Lehenengo urratsetan asten dan irakurle batek bear bada ez dau jakingo zer diran «dizdira», «anaikorra»... Eta bizkaitar

bati «aurki dezazula» aditza arraroa egingo jaku. Azterketan asi aurretik bada, euren esangurea argitu bearko dogu. Baiña ez hori bakarrik; olerkiaren zentzuna osorik ulertzekotan, «Lezaman, 79-4-11» leku eta fetxaren esangurea ere ulertu egin bearko dogu; eta Mikel Zarate nor zan, zelan il zan, eta Benito ta Mikelen arteko artuemonak zeintzuk ziran jakitea ere interresgarri jaku. Baita Benito Lertxundiren abesti mota eta abestien letretan eioten dauan literatura mota ere.

2. *Balio literarioen oartzeta*: Bigarren urrats hau betetzeko, baldintza bi bete bearko dira: barrero irakurri testoa, eta metodologiaren bat menperatuta izan (horretarako, geroago, azken momentuko metodologiaren batzuek jarriko ditugu). Kontuan izan daigun, une honetan gure eritxia zientifikoa izan daiten datu billa gabiltzala. Datuok metodologiaz jaso bearko ditugu, osterantzean ez dogu nondik asi ere jakingo.

Gure ustez, bada testo bati buruz eritxi zeatz bat emoteko balio dauan metodo on bat: Gaia, estruktura, fonetika, —poema bat bada, puntua ere bai—, izenak, izenordeak, izen ondokoak, aditzak aztertzea. Eta *aztertu* esakeran, hauxe esan gura dogu: gramatikazko forma honeek erreskadan batu, goitik behera. Holan testoaren irakurketa bi egingo doguz: ezkerretik eskumara (normala), eta goitik behera, itzok euren ingurunetik aterata. Horrek bentaja bat dauka, zalantza barik: testoa beste ikuspegi batetik begiratzea; baiña arrisku bat ere bai: testoaren interpretaketa egiterakoan, gauza batzuk euren testuingurutik aldentzeagaitik, ondorio faltsoetan jaustea. Horregaitik bada, interpretazino bat egikeran, ingurua ere kontuan artu bearko dogu; edo beste era batera esanda: ezker-eskuma eta goitik beherako irakurketa biak egin bearko doguz, bata besteagaitik ahaztu barik. Beraz, esanguraz kideak diran izenen biltzea baiño ez da, testu baten esangura ardatzak markatzea.

Begiratu dagigun gorago jarri dogun poeman. Horren leuntasuna, gure ustez, honela lortzen da:

a) Afektibitateari dei egiten deutsoen itzen bitartez: «adis-kide», «anaikor», «maite», «atsedena».

b) «Adios ene maitea» abestiaren doiñuaz eta asiera bardingintzuz baliatuta egiñiko poema dogu, eta doiñuak ere afektibitate horri lagundu egiten deutso.

d) «Zarate Jauna», «zalduna» itzak oso ebokatzailleak dira.

Erdi Aro poetiko batera garoezan berbak. Lillura aundiz ikusten dan zaldun eta jaunen mundu batera.

Guk jarri ditugun ondorioak esangura bardintsuko itz pillaketan oinarriturik dagoz, azken baten izen eta izen ondoak alkartuaz.

Puntuaz aztertzen badogu ere, bada zer esanik:

1. puntuak : — KO
2. puntuak : — NA

Badirudi lehengo puntuak eriotzeak emondako zartakoa, golpea adierazi gura dauala. Oartu dagigun fonetikak ere lagundun egiten dauala honetan: zenbat bidarrez erabilten dan /k/ fonema eta bere kontrakoa /s/ (adiskidea, sekulako, anai-korra, gugan, itzalduko). Oklusibak gogortasun ritmiko bat emoten deutsoe poemari. Baiña lehen esan dogunez, poema bera leuna da. Zerk emoten deutso, oster, izenaz aparte, leuntasun hori? Ba, bigarren puntuko fonema nasalak (/n/), beste nasal batzuekin batera: «jauna, zalduna, zendun, honetan, atsedena».

Aztergai dan beste puntu interesgarri bat ere bada. Esango genduke testuek daben espazialitate zentzuna galdu egin dogula. Nai ta naiz ez, literatura espazio baten dago. Bear bada metro batez ezin neurtu daikegu, baiña badaukaguz hori neurtzeko beste neurriren batzuk ere: nobela baten kapituluak eta orriak; poema baten espazialitatea ikustea errezagoa izaten da, orri bat naiko dalako askotan.

Espazialitate bat dagoala ulertzeak ondoren jakingarri batera garoiaz: azken baten, ordena bat dagoala poeman, eta ordena hori zein dan billatu egin bearko dogu. Eta horrek, ardatz biurtu dan adierazpide bat dakar: paralelismoak billatzea.

Komentatuz gabiltzan poema honetan baditugu paralelismo batzuk:

- a) Adios Agur
- b) Dizdira (ez) itzalduko
- d) Adiskidea anai (korra)
- e) Zure Gugan
- f) Jauna Zalduna
- g) Maite Atsedan
- h) Adiskidea Zarate Jauna (hau oso interesgarria)

Idazleak lehenengotan anonimo ipinten dau pertsonaia; «adiskidea» nor dan ez dakigu. Holan interes bat sortu dau, gero konkretatzeko: «Zarate Jauna» da adiskidea.

3. *Zintzotasuna*: Irakurleak zintzo jokatu bear dau bere buruagaz, hauxe dalako besteekin zintzoa izateko modu bakarra: norberagaz zintzo izan aurretiaz. Baiña zer da zintzotasuna? Zelan konkreta daikegu? Hau ez da erreza. Baiña artearen interpretapena norberaren jokera ta gustoaren interpretapena danez, testuak zein zirrara eragin deutson irakurleari analizatu bear da. Eta honen zintzotasuna bear dogu. Bear bada testu bateko atalen batzuk ez jakuz gogoko izan; hori zergaitik dan esaten badogu ostera, zientifikotasunerako pausuak emonaz goaz. Bada sasoa Euskalerrian izan dan jokera bat baztertu dagigun: idazlearen lagunak garcala-ta, edo begi onez ikusten dogula-ta, baloreak goraiño jaso eta akatsak ezkutatzea.

Atzera poemara itzuliz, esango genduke jauzika edo saltoka antzera eginda dagoala. Horrela simetria bat lortu dau, baiña poemaren ritmoa apurtu.

aditzik ez: *Adios* Agurtza
Adios

aditzarekin: *Zure* zerbait baieztatzeko
Gugan

Aditzik ez: *Agur* Agurtza
Letretako

Aditzarekin: *Maite* zerbait desiratzea
aurki

Eta hori gustuaren prolema izango da, baiña zeozer gus-tatzen ez bajat, edo beste gauzak aiña ez, orduan esan egin bear-ko dot.

4. *Idatzi*: Laugarren urrats hau ez da derriorra, jakiña. Baiña antologia hau ikastaroan erabilteko eginda dagoanez, ko-menigarri litzateke ikasleak bere eritxiak eta azterketak idatziz emon dagizan.

III. ZER egin bear dau testu azterketa batek?

Gure eritxiz, testu azterketa batek testuaren edertasuna idazlearen idaztankera eta idazlearen ingurua ezagutzen lagundu bear deusku. Ustea uste dalarik ere, iru itauni erantzun bear deutso testu azteketa batek:

1. Testu baten edertasuna zertan datza? Beraz, testu azterketa bat egiterakoan testua bera dogu iturri bakarra eta alderik inportanteena, eta beratatik ateraten doguzan ondorenak. Goian apurka apurka egin dogun azterketak balio dauala uste dogu testu baten azterketa egiteko, eta aukeratu dogun testoa-ren balioak argi itxi ditugulakoan gagoz.

2. Testuaren barnean idazlearen zeintzuk ezaugarri dira? Testua idazlearen ezaupidea dogu. Baiña ipinten doguzan ezaugarriak zeaztuteko, idazlearen beste lan batzuk ezagutu bearra daukagu. Aztertzen gabiltzan poema honetan, Benito Lertxundiren ezaugarri honeexek agiri dira, gure ustez:

— Erri abestienganako zaletasuna

— Igarotakoaldi lilluragarri baterantzako jokera.

Oartu eragin dogun onezkero «zalduna» eta «Zarate Jauna» berbak daben Erdi Aroko ebokazinoa.

3. Testua zein mogimentu literariotan kokaturik ete dago?

Bear bada, irugarren itaun honen erantzuna urrago egongo da, gaurkoak ez diran poemen artean. Euskal Literaturaren historietan mogimentu bakotxaren ezaugarriak agertzen dira; eta orduan, irugarren erantzun hau betetzeko, konparazino bat egin bearko dogu: Literaturaren historiaz dakigunaren eta testotik atera ditugun karakteristiken artean. Baiña gaurko azken literatura ez dago oraindiño ondo azterturik, eta gaurko mogimentuen karakteristikak testu ezbardifiak alderatuz jakingo ditugu.

IV. Metodoak

Danok ibilli oi gara beti metodo zeatz baten billa, gure kritika lana zerbait erreztu eta bideak argitzeko. Eta edozein testutarako balio dagiken metodo baten billa, obeto esateko. Baiña egia esan, ez dago metodo infaliblerik, ez dago halako «urrezko arau» bat testu guztiak aztertzeko: testu bakotxa mundu bat da eta bere berezitasunak ditu. Ezin alkartu daikeguz testu guztiak arau matematiko batzuen esi barrura.

Halanik ere, ondoren metodoren batzuk opatuko ditugu, ez rezetario moduan, metodo batzuen nondik norakoa izan dagizuen eta testu azterketako bigarren pausua emoteko argibide batzuk izan dagizuezan baiño. Baiña testuaren irakurleak aska-

tasun osoz jokatu bear dau, testu bakotxari dagokion bideari (guk proposatutako bideari edo berak intuizinoz aurkitutakoari) jarraitzeko.

Jakiña, testu azterketak egiten jakiteko bide bakar bat dago: testuak aztertu ta aztertu ekitea. Arlo honetan ekiñak lortzen dau egintza.

1. *Jakingarri orokor batzuk*

Historian zear jokera nagusi bi izan dira testuak aztertzeko.

a) Oraintsura arte azterketa testutik kanpora edo testu inguruan egozan elementuetan oñarriturik egoan: hau da, Historia (datu historikoak zelan agertzen diran testuan), Ideologia (marxismoaren ala beste pentsamolderen baten aztarrenik azaltzen ete dan testuan), Soziologia (idazlearen garaiko gizartearen elementu edo daturik azaltzen dan), idazlearen nortasuna, bizitza, jatorria, ingurua ea zein neurritan islatzen zirean bere testuan. Elementuok argi dakusgu ez dabela testuarekin zerikusi aundirik, testua bera literariotzat jo ezkerro beintzat.

Testuaren inguruko elementuok baliagarriak ditugu idazlanaren esanaia argitzeko, dagozan beste elementu illun batzuk argitzeko; baiña testuaren berezitasuna ta edertasuna sumatzeko, idazlearen estiloa edo idaztankera ezagutzeko, testuari berari begiratu bearra daukagu, testuak berak izan bear dau gure analisiaren objektua.

b) Gaur eguneko korronte estilistikorik geienak, ikusiko dogunez, alde honetatik doaz, naiz eta lehenengo oraintsura arte nagusi izan.

2. *Adierazlea eta adierazia*

Sarritan entzun izan ditugu izenok: edozein itzek, esaldik, testuk..., azken baten esanaia dauan edozerk zati bi ditu: esaten dana (adierazia) eta esateko hau adierazteko erabilten dan izkuntza (adierazlea).

Elementu biok ezin banatu daikeguz, osotasun bat egiten dabelako. Eta batasun honetan, begirada orokor bat emonda, era bitara egin geinke azterketa.

A) *Adierazletik Adierazira*.—Hau da, lehenengo kanpotik, azalean agiri jakun izkuntza: idazleak apartekotasun batzuk ditu bere izkuntzaren aldetik (gogora ekarri lehen aitatu dogun «balio

literarioen oartzeara). Honen ostean idazleak zer esan gura izan deuskun ikusi: Zer aitzen emoteko erabili ditu berezitasunok? Zelango lotura egon da idazleak erabili dituan irudien, itzen... eta berak esan gura izan dauanaren artean?

B) *Adierazitik Adierazlera*.—Aurreko prozesuaren itzulitara, atzekoz aurrera dogu hau. Zer diño idazleak? Zelan atontzen da ZER hori azaltzeko, zelango izkera, irudiak... erabilliaz? Zelan dagoz lotuta berak esan gura izan dauana eta hori aitzen emoteko erabili dauan bidea?

ADIERAZIA aztertzeko honako elementuok kontutan artu geinkez:

- Zein da testu honen gaia edo mezua?
- Gai hau zelan banatzen da testu osoan zear?
- Mitoren bat ez ete dago? Siñeskeriarik?
- Alegoriarik aurkitzen ete dogu?
- Pertsonaiak (baldin badago) zelangoak dira? Zelan deskribitzen ditu idazleak?
- Topikoak
- Deskripzinoak zelangoak dira? Eta narrazioak?
- Ironiarik, paradojarik edo satirarik egiten ete da?
- Testu honek ez ete dauka non edo nongo iturbururen bat, beste testu ezagunen baten lorratzik?

ADIERAZLEA aztertzerakoan, elementuotan oartu gein-tekez:

- Prosa ala olerkia (bertsoa) da?
- Olerkia bada, zelango bertsoak, zelango puntua (rima)... erabilten ditu?
- Zelango izkera mota agertzen jaku? (esaldi luzeak, laburrak?; izenlagun asko ala gutxi?; elipsirik agertzen da?; paralelismorik?; iztegi aberatsa ala erreza?...)
- Ete darabil irudi erretorikorik? (metaforak, sinestesiak, personifikazioak, aliterazioak, epitetoak, metoni-miak...)
-

Hau aplikatzeko, edo orain arte esan doguna praktikatzeko, badaukagu metodo errez, konkretu eta oso ezagun bat; Fernando Lázaro Carreter-ek darabilena. Guztiz argi eta zeatza dogu:

a) Astiro astiro irakurri, eta itz ezezagunen esanaia billatu iztegi bat lagun dala.

b) Nork idatzi eban testua? Noiz? (zein alditan? zein korronteren barruan?)

d) Gaia edo mezua zein da?

e) Gai hau zelan banaturik dago testuan zear? Gaiaren banaketaren aldetik, zelan egituraturik dago testua?

f) Adierazleak edo irudi erretorikoak aztertu gaiarekin loturik: ea egokiak direan, esan gura dauana kontuan arturik.

g) Konklusinoa eta baloraketa.

Jakiña, naiz eta metodu argi honi jarraitu, ahalbide asko daukagu testua aztertzerakoan. Lehentxoago ikusi dogunez, bai adierazian eta bardin adierazlean, gauza asko dago kontuan artzeko (ikusi zenbat posibilitate apuntatu ditugun sail bako-txean). Zein edo zeintzuk elementutan dagoan testu bako-txaren guna, zein dan testuaren klabea aurkitzeko bein eta barriro irakurri bear dogun testu atala, al danik eta elementurik geien, muiñezkoak batez ere, batuz. Eta hori geure intuizinoak esango deusku, irakurten gagozan bitartean.

3. *Gaur egungo kritika eskola batzuk*

Asieran esan dogunez, gaur egun ia kritiko guztiak jotzen dabe testura bertara. Azterketa literario bat egiterakoan, testuaren kanpoan (historia, ideologia, filosofia, mitologia...) edo inguruan dagoan guztia alde batera itzirik edo argigarritzat bakarrik arturik. Badira salbuespenak, baiña geien-geienak bide honetatik dabiltz. Eta jokabide honen lekuko gisan, ara hemen gure aldiko kritika eskola batzuen barri.

A) *Estrukturalismoa*.—Oraintxe bertan aitatu dogun bide horretan, estrukturalistak beste ertzeraiño joan dira. Hau da, testuaren barru-barrurairiño sartu bear dala diñoec, beste elementu guztiak bazterturik eta gizon baten frutua dala ahazturik. Horregaitik ba, kritika hau, naiz eta ondorio interesgarriak atera eta testua goitik behera ezagutu, otzegia eta tekniko begitantzen jaku, idazlea ezertarako ere kontutan artzen ez dalako. Testua

ez da, estrukturalisten ustez, gizon baten, aldi konkretu bateko frutu bat, testua objeto uts bat baiño ez da.

Estrukturalistek testua atalik txikienetan zatitzen dabe, atalok, urrengo pausu baten, osotasun baten ikusiaz, gauza nagusi baten alkaturik. Testuan adierazpena daben elementurik txikiak aztertzen ditue (morfemak, aurrizkiak, itzak...), atal-txook daben balio literarioa eta gai osoagaz dabezan loturak. Eta hau, arau zeatz, tekniko eta iraunkor batzuen bidez, obra guztientzat balio dagiken estruktura eredu bat lortu gararik.

Azterketa hau, esan dogunez, guztiz zeatz eta sakona dogu, atalik txikiena deskribatzen bait dau, eta atalok euren artean eta osotasunagaz dabezan artuemonak eta loturak aztertzen dau-eta.

B) *Nouvelle critique* (kritika barria).—Tendentzia hau Frantziar sortu zan, eta bere bururik argitsuenak Roland Barthes eta Lucien Goldman dira.

Labur-labur esateko, tendentzia honen jarraitzaileek zera uste dabe: testu bat ezin aztertu daitekela, testu horretan agertzen dan ideologia aitatu eta aztertu barik. Horretarako soziologia, antropologia, filosofia eta abar erabilten dabez euren azterketetan. Argi ikusi daikenez, korrante orokorraren kontra doa eskola hau, testuan bertan ez dagoan zerbaiti garrantzia andiegia emoten deutso eta.

Baiña tendentzia hau beherantza doala esan bearra dago, gaurko jokera nagusia beste bat dogu eta. Bide nagusi honetatik Ipar Ameriketako «New Criticism» korronteak jarraitzen dau.

D) *Estilistika*.—Oso entzute aundikoa da korrante hau. Beronetan dabilzan kritikoak ere guztiz ezagunak ditugu: Bally, Vossler, Spitzer, Croce...

Metodo aldetik, egia esan, ez dau bide barri aundirik zabaltzen. Bere elburua idazle bakoitzaren idazteko era berezia, idaztankera edo estiloa aurkitzea da. Honetarako idazle beraren lan bat baiño geiago irakurri bearra dago, eta bere izkuntzaren erabillera eta dakarzan irudiak kontuan artu bearra.

Bally-k ardura aundia dau idazleak (eta edozein pertsonak itz egiten dauanean) bere sentipenak azaltzeko darabilzan adierazpideak billatzen: idazterakoan naiz berba egiterakoan izkuntzaren erabillera apartekoa daukagulako, gure sentipenak eta gure izatea beratan doguzala.

Metodo bat aitatzeraoan, ara Leo Spitzer-ek erabillena:

- Irakurri egiten eban testua.
- Gauza arraro interesgarriren bat aurkitzen ebanean, apuntatu egiten eban, eta beraren gainean hipotesi bat asmatzen eban.
- Honen ondoren, hipotesi hau baieztatzeko beste elementu batzuen billa asten zan; hipotesi hori edo asieran ikusi eban fenomeno bitxiori bakarra bazan, ez zan idazle horren ezaugarri bat; baiña hipotesi hori testuaren barruan geiagotan errepikatzen bazan, idazlearen apartekotasun bat zan.
(Testu asieran, adibidez, bat edo bi berba abstraktu («maitasuna», «bakea»...) aurkitzen baeban, ziurtasunez ezin esan eitekean «idazle honek itz abstrakto asko erabilten dau testu honetan». Aurrera jarraitu bearko eban ea itz abstraktu geiago agertzen zan ikusteko. Hau olan balitz, orduan bai, «idazle honek itz abstraktu asko erabilten dau» esan al izango eban.)
- Azkenean, gauza berezi guztiak alkartuaz, konklusinondoren batera elduko zan.

4. *Samuel R. Levin-en metodo analitikoa*

Kritika-mundu zabal honetan azken urrats bat emoteko, oso egoki begitandu jaku Levin-en metodoa aitatzzea, testu batzuetan (ez da hain erreza danetan egitea) azterketa on bat egiteko bide egokia izan leitekigulako.

Sarrera honetan bein baiño geiagotan esan dogunez, eleberria edo olerkia... (azken baten, literatura) izkuntza erabilteko erak ditugu. Baiña kaleko izkera arrunt horretatik zearo bereizten da, naiz eta izkuntza bardifia erabili. Non dago, orduan, bien arteko aldea? Izkuntzaren erabilleran, eta erabillera horretan dagoan funtzino ezbardintasunean (komunikazioa kasu batzuetan, testu eder bat lortzea beste batzuetan).

Baiña, esanak esan, izkuntza bera erabilten da. Orduan, hau gogoan dauala, Levin-ek olerkiaren azterketa gramatikala egiten dau. Literaturan erabilten dan izkuntzaren garrantzia izkuntzan beratan dago (beste kasuetan, komunikazinoan). Eta hau zelan lortzen da, Levin-en ustean? Ba, zentzun edo funtzino bardifia daben elementu bi edo geiago errepikatuz, edo

leku paraleloetan egonez olerkiaren barruan (bere terminologian, fenomeno honeek «coupling» edo «recurrencia» izena dauke).

Eta paralelismo ta errepetizio honeek mailla guztietan jazonen dira, ondoren ikusiko dogunez.

a) Itz bik funtzino sintaktiko bardiña dabe beste elementu bategaz (osogarri zuzen bi; sujeto bi, atributo bi...): «trenaren ots monotonaren / konpasean / aritzen dira *gaita eta bertsoa / batean*» (Mikel Arregi). «enara izan nahi nuke, / enara *bizkor eta trebe / gure Herriko atarian / gure Herriko alorrean*» (Bitoriano Gandiaga).

b) Beste batzuetan, esaldi bik egitura bardiña dauke (Suj. - Aditza - osogarri zuzena). Orduan sujeto biak, aditz biak... parekatu egin daikeguz:

— «gas pozoitsuaren ke laino mozkor /
sorgin haizearen hauts ero»

(*M. Zarate*)

— «Norbait iñora joan bada, beste norbait etorri bada...»

(*Tx. Agirre*)

— «bik edo lauk, ixilik edo deadarka... edozetara ta edonon,
noiznai eta edozergaitik»

(*Tx. Agirre*)

— «Nun dira, bada, zure semiak / Foru ta euskera zaliak?
Nun dira, bada, Tubal, gure aita / zure ondorengo
garbiak?»

(*Felipe Arrese*)

d) Semantika aldetik antzekoak diran itzak alkartu daitezke, bai ia esangura bardiña dabelako, bai kategoria edo sail bardiñekoak diralako (zugatz izen bi, edo itz abstrakto bi...) Adibidez: Itxaropenak eta nahiak; berebillak eta autobusak; gerrak eta gosea...

e) Idazleak neurri-arau batzuk onartzen dituanean, beste arau batzuk ere onartu bear ditu (olerkietan), hau da, azentua, puntua... (honek osotzen dau Levin-ek aitatzen dauan «matriz convencional» dalakoa).

f) Azkenez, eta fonetika mailla batean, aliterazinoak, soifñu baten errepikapenak ere, sail honexetan batu daikeguz.

— «haserre gorritan Gernikarantza...»

(M. Zarate)

— «Lander eta bakar,
zarpil..

lakar t'errukarri

apal ta urratu, joran eta larri,

arkaitzeko antsi,

samin zaarraren betiko erpe,

tartean, bigurri / neguko elorri / gorri ta laborri...»

(Bitoriano Gandiaga)

Errepetizino honen bidez, mamin eta azal (*fondo* eta *forma* erderaz esan oi dana), adierazlea eta adierazia, alkatu egiten dira. Eta holan izkuntza poetikoak dan legez irauten dau historian zear. Izkuntza normalean gaia bakarrik gogoratzen da, baiña ez forma literala; hau ahaztu egiten da. Hizkuntza poetikoa betiko gordeko da. Lizardiren itzak «O zein dan ituna...» euskaldunon gogoetan beti egon dira.

ARIKETAK

Emondako teoria hori zertzeko, hona hemen ariketa errez batzuk.

1. KARTZELEA (103gna). *Idazlea: X. Gereño*

1.—Pertsonaiaren bakartadea zelan azaltzen da? Gutxienez, urratsok ikusi bear ditugu:

— pertsonaia: barruko mundua.

— Aitor eta beste pertsonaiak. Honeek ba ete dauke izenik? Beragaz berbarik egiten ete dabe? Zein tonutan?

2.—Testuan mailla bi:

— idazlea irakurleari (lenengo lau lerroetan)

— pertsonaien mundua.

Zer dala-ta egiten dau idazleak sarrera hori?

3.—Formari buruz, zeaztu egizu narrazioaren erritmua: arina? astuna?

Deskribapena zelan emoten da? Deskribapen horrek ba ete dauka zerikusirik Aitorren egoereagaz, bere bakartadeagaz?

2. JOSETXO UMETAN (52gna). *Idazlea: Jose Manuel Etxeita*

1.—Testuaren gaia zein da?

2.—Testuaren egitura. Ikusi begi irakurleak:

— planteamendua: pertsonaien arteko artuemonak.

— gurasoen jokabidea.

3.—Alkarrizketaren aberastasuna zer elementuz lortzen da?

3. **BIJAR DONIBANERA!** (65gna). *Idazlea: B. M. Garro «OTXOLUA»*
- 1.—Aztertu egizu barne-egitura: planteaketa zein dan, klimax horren luzapena emakumeen ekintzagaitik, amaiera zorionsu bi...
 - 2.—Alkarrizketaren funtzinoa zein dan aztertu egizu. Alkarrizketa zertarako erabilten da?
4. **AMA EUSKERIARI AZKEN AGURRAK** (45gna). *Idazlea: F. Arrese-Beitia*
- 1.—Izkuntzaz daukazuzan zalantzak batu ta aztertu egizuz.
 - 2.—Izadia zein eratara agiri da Arrese-Beitiaren olerki honetan?
 - 3.—Hor agertzen diran pertsonaiak zeintzuk dira, eta zein paper jokatu dabe euskal historian?
 - 4.—Foruen galtzea dala-ta, zer giro sortzen da Euskalerrian.
 - 5.—Erromantizismoaren ezaugarri nagusiak zelan agertzen dira testu honetan?
5. **BIZKAITARRA** (83gna). *Idazlea: Gabriel Aresti*
- 1.—Gai aldetik: Gogora ekarri Euskalerrian azken urteotan jasan dugun etena: kristau-fedea / erri fedea aurrez aurre?
 - 2.—Olerki honetan agertzen dan autobiografismoaren birtartez, Arestiren bizitzara urreratu.
6. **GURE BASERRITARRAK** (62gna). *Idazlea: H. Larra-koetxea*
- 1.—Erretorika generoaren estilo batzuk aztertu:
 - 1.1. parrafoaren egitura; esaldi bikotzak ala irukotzak?
 - 1.2. entzuleen bizimodutik artutako adibideak.
 - 2.—Entzuleek ulertu dagien, azkenean sermolariak darabilten mezuak zein funtzino betetzen dau?

7. GABONETAKO IKUSIKIZUNA (28gna). *Idazlea: E. Barrutia*
- 1.—Testu honetan erabilten dan METRIKA aztertu egizu.
 - 2.—Pertsonaien deskripzioa:
 - ekintza bidez
 - besteak deskribaturik
 - 3.—Aingerua era bitara deskribaturik agertzeak zer esan gura dau? Barregarria?
8. BEDAR TXARRAK (51gna). *Idazlea: Txomin Agirre*
- 1.—Euskerari buruzko prolemak argitu egizuz.
 - 2.—Pertsonaien aldetik, zer berezitasun nabaritzen da?
 - 3.—Txomin Agirrek bere eritxia zein pertsonaiaren bitartez emoten dauku?
 - 4.—Ikusi zeintzuk diran pertsonaien eztaidazko puntuak.
 - 5.—Zergaitik puntuok? Erantzuna orduko giroan billatu.
9. URTEBARRI BARRI (55gna). *Idazlea: E. Bustintza*
«KIRIKIÑO»
- 1.—*Gaia:*
 - Zer oitura kontatzen deusku Kirikiñok
 - Zure errian horrelakorik egiten bada, azaldu.
 - 2.—*Egitura:*
 - Egitura aldetik, narrazioa eta abestiak nahastaten dira. Zergaitik?
 - Noiz erabilten da bakotxa?
 - Alkarrizketa zein aditz pertosonatan dago? Zergaitik sartzen dira alkarrizketok?
 - 3.—*Teknikak:*
 - Kirikiñoren balore eta ezaugarri agiriko bat, deskripzioa jartzearen trebetasuna dogu. Zelan lortzen dau hori?: zertzelada txikien pillaketa, izenondo-koen erabillera...

4.—*Estiloa:*

- Estilo aldetik, kontrazino edo laburpendun izkera darabil. Zergaitik? (arrazoi historikoak, estilistikoak...).
- Barre eragitea zelan lortzen dau? (sorpresa azke-nerako gorde...).
- Esakerak batu.

10. BAKAR (94gna). *Idazlea: Bitoriano Gandiga*

1.—*Gaia:*

- Zelango sentipena azaltzen jaku olerki honetan?
- Gai beronetaz zeure idazlan bat egizu.

2.—*Teknikak:*

- Abestien eta abestiok sortutakoaren arteko oreka.
- Izenondokoen erabillera aztertu. Zeintzuk? Irakurlearengan ze sentipen sortzeko?
- Progresinoa: gaua aurrera doa, eta olerkian agertzen dan pertsonaiaren arima sakonago..., abestia etorri eta joan doa. Iru elementuon arteko paralelismorik ba ete dago?

11. PRANTZIE KORTEKOA (8gna). *Erromantzea*

1.—*Gaia:*

- Gaia eta argudioa bereiztu. Argumentua poeman zear kontatzen danaren laburpentxo. Baiña gaia aztertzeko, poemaren azken mezua kontutan artu bear dogu, poemaren muñik estuena dogu gaia.

2.—*Egitura:*

- Zenbat zati ditu poema honek: denboreari begira, pertsonaiei begira...?

3.—*Pertsonaiak:*

- Pertsonaien artean dagoan burrukea azaldu. Zergaitik ez dau maite amak Juanita? Semeak zergaitik amore emoten deutse amaren gurariei?

4.—*Tonoak eta elementu literarioak:*

- Sentipenen funtzinoa aztertu. Ze sentipen nagusi agiri dira? Sentipenok irakurlearen barruan ikararik eragiten al dabe?
- Misterioa: poeman zear elementu batzuk estalduta dagoz: horrek zeaztasun falta bat sortzen dau; eta zer lortzen dabe irakurlearen baitan?
- Konnotapen mailla aztertu. Itz sinbolikoak.
- Metaforak eta beste adierazpideak: paralelismoak...

12. LANGILLE ERAILDU BATI (71gna). *Idazlea: E. Urkiaga «LAUAXETA»*

1.—*Gaia:*

- Gaia eta poesia soziala. Gerra ostean erabillia dan poesia soziala eta Lauaxetarena bereiztu.
- Gai aldetik, ba ete dago arrazoirik poema zati bitan banatzeko?

2.—*Egitura:*

- Poemak zati bi dituala-ta, beste zatirik ez ete dago?

3.—*Teknikak:*

- Zelan deskribitzen dira personaiak?
- Ze erataria lortzen da langillea errukior gertatzea, eta «txapel okerrak» destaiñagarri?
- Poetizazioa kontutan izaten badogu, estilazazioak zer paper jokatzen dau poema honetan?

4.—*Estiloa:*

- Estiloari buruz, zein da zure eritxia?
- Errepikapenik (itz, esaldi edo zentzuaren errepikapenik) ba ete dago testuan?
- Esaldien egiturari begiratu, paralelismo eta simetriarik ikusten dozu?

13. EUSKALDUN MUTILLAK MORUEN KONTRA GER-
RRAN (43gna).

1.—*Gaia:*

- Zein da gaia? Gaiaren tratamentuari ze kritika egingo zeuskio?
- Gaia politikoa dala kontuan arturik (edo, beintzat, propaganda egiteko burutua), zein elementuren bidez agertzen jaku propaganda hori?

2.—*Egitura:*


- Bertsuok iru zati nagusi-edo ditue: Zeintzuk dira?
- Zure ustez, zein da tratamentu ohea artu dauana eta zergaitik?

3.—*Teknikak:*


- Zelan lortzen da gudarien arrotasuna?
- Zergaitik erabilten dira 1. eta 2. aditz pertsonak bertsoen amaieran?

4.—*Komentarioa:*

- Bertsook atxaki dirala, sasoi haretako historiari buruzko barri batzuk batu. Beste alde batetik, euskaldunak soldadutzara ez joateko eskubidea galtzea dala-ta, aztertu kondaira aldetik.



D) **BESTE AURKIBIDE BATZUK**



I. IDAZLANAK EUSKUALDEKA

Bizkaiera euskalkiak, jakitunak dinoenez, iru subeuskalki ei daukaz; baina izkera idatziak, apurka apurka, «bizkaiera batu» antzeko bat ere sortu deusku, eta, azken urteotan, bizkaieratik oraingo «euskera batu» orretarako zubigile batzuk ere agertu dira gure artean...

1. **SORTALDEKO SUBEUSKALKIA** (Markina, Lekeitio, Ondarroa, Ermua, Elorrio...): 3. 6. 10. 11. 21. 23. 26. 29. 30. 31. 32. 38. 39. 40. 41. 42. 43. 44. 46. 59. 74. 99. 100. 105.
2. **SARTALDEKO SUBEUSKALKIA**
 - 2.1.—Bermeo: 52. 53 (76).
 - 2.2.—Gernika aldea eta Durango aldea: 5. (14). 19. 24. 25. 47. 54. 55. 56. (78). 87. (106). (109).
 - 2.3.—Otxandiano: (45). (98).
 - 2.4.—Arratia: 12. 15. (18). 22. (32). 33. 34. 35. 36. 62. 64. (101). (117). 61 (Txorierri).
3. **GIPUZKOA ALDEKO SUBEUSKALKIA**
 - 3.1.—Bergara aldekoa: 7. 16. 20 (Eibar).
 - 3.2.—Gatzaga aldekoa: 2. 4. 9. 23.
4. **«BATU» ANTZEKO BIZKAIERA (LANDUA):** 13. 14. 17. 18. 26. 50. 51. 54. 55. 56. 57. 58. 63. 65. 66. 75. 76. 77. 78. 79. 80. 81. 82. 84. 85. 86. 88-94. 97. 98. 101. 105. 107. 108. 109. 110. 111. 112. 113. 114. 115. 116.
5. **BIZKAIERATIK ORAINGO «EUSKARA BATU»-RANTZ:** (87). 95-96. 103. 104. (107). 108. (116).
6. **IRAKURGAI ERREZ ARIN BATZUK:** 10. 11. 12. 14. 17. 18. 20. 21. 22. 36. 38. 52. 54. 55. 56. 61. 62. 74. 76. 78. 84. (100). 101. 103. 108.

7. **GARBIZALEKERIAK KUTSATUTAKOAK:** 48. 49. (53). (65). 67. 68. 69. 70. 71. 72. 73. 75. (112).
8. **«I» eta «NO»-zko berbetea:** 14. 18. 20. 21. 22. 24. 28. 37. 50. 53. 54. 55. 61. 71. 77. 78.

II. IDAZLEEN AURKIBIDEA

- «ABELETXE»: Ikusi ZIARSOLO, M.
ABOITIZ, Juan Domingo Agustín (Lekeitio, 1751-1824): 3
AGIRRE, Domingo (Ondarroa, 1864-1920): 50. 51
AGIRRE, Domingo, Aita Luki, «LANDAXU» (Dima, 1908): 22
«AINGERU»: Ikusi MADARIAGA, A.
AKESOLO, Lino (Dima, 1911): 15. 101
ALZOLA, Nikolas, «BITAÑO» (Izurtza, 1922): 19. 102
ANDRINUA, Martzel, «MARTZEL» (Markina, 1930): 26
ANONIMO: 2. 4. 5. 6. 7. 8. 9. 10. 11. 12. (13). 42. 43. 116
AÑIBARRO, Pedro Antonio (Areatza-Villaro, 1748-1830): 33
34. 35. 36.
ARANA GOIRI, Sabin (Abando, 1865-1903)
ARESTI, Gabriel (Bilbo, 1933-1975): 83
ARRESE BEITIA, Felipe (Otxandiano, 1841-1906): 45
ARRIANDIAGA, Imanol (Elantxobe, 1876-1947): 73
ARRIZABALAGA, Juan Jose, «MARKIÑA» (Markina, ?): 23
ARTEAGA, Lon (Mañaria, 1917-1980): 78
ASTARLOA, Pedro Patrizio (Durango, 1751-1821): 41
AURRE-APRAIZ, Balendin (Axangiz-Gernika, 1912): 109
AXULAR, Pedro (Urdazubi, 1556-1644): 36b.
AZKUE Eusebio María (Lekeitio, 1813-1873): 44
AZKUE, Resurrección María de (Lekeitio, 1864-1951): (4).
(6). (7). (9). 58. 59
- BAERTEL, Daniel (Durango, 1850-1922): 46
BARANDIARAN, José Miguel (Ataun, 1889): (12)
BARRUTIA, Pedro Ignacio (Aramaio, 1682-1759): 28
BARTOLOME de Sta. Teresa (Etxebarria, 1768-1835): 38
BASTERRETXEA, Agustín (Lekeitio, 1700-1761): 29
BASTERRETXEA, José, «OSKILLASO» (Gernika, 1911): 87
BERRIATUA, Imanol (Elantxobe, 1914): 84

- BILBAO, Félix (Morga, 1937): 18. (107)
 «BITAÑO»: Ikusi ALZOLA, Nikolas
 BUSTINTZA, Evaristo, «KIRIKIÑO» (Mañaria, 1866-1929):
 54. 55. 56
 BUSTINTZA, Errose, «MAÑARIKO» (Mañaria, 1899-1953): 14
 EGUSKITZA, Juan Bautista (Lemoa, 1875-1939): 57. (58)
 ENBEITA, Balendin (Areatza-Muxika, 1906): 25
 ENBEITA, Kepa (Peru) (Areatza-Muxika, 1878-1942): 24
 ENBEITA, Manu (Areatza-Muxika, ¿-?): 24
 ERKIAGA, Eusebio (Lekeitio, 1912): 79. 80. 81
 ESTOMBA, J. Manuel (Urantzu-Irún, 1916): 17
 ETXEBARRIA, J. A. (Santurtzi, 1934): 110
 ETXEITA, José Manuel (Mundaka, 1842-1915): 52. 53
 GALLASTEGI, Kauldi (Elorrio, 1906): 105
 GANDIAGA, Bitoriano (Mendata, 1928): 88-96
 GARIBAY, Esteban (Arrasate-Mondragón, 1533-1599): (9)
 GARITAONAINDIA, Gotzon (Urdúliz, 1936-1970): 97
 GARRO, Bernardo María, «OTXOLUA» (Mundaka, 1891-
 1960): 65. 66
 GEREÑO, Xabier (Bilbo, 1924): 103
 IBARGUTXI, Jon Gurutz (Ubidea, 1883-1969): 75
 IRIGOYEN, Alfonso (Bilbo, 1929): 82
 IZURRATEGI, Jon (Bilbo, 1863-1938): 60
 JAUREGI, Gabirel (Aramaio, 1895-1945): 77
 KANALA-ETXEBARRIA, Domingo (Gernika, 1828-1897): 47
 KEREXETA, Jaime (Elorrio, 1918): 85. 86. 115
 KINTANA, Xabier (Bilbo, 1946): 104
 «KIRIKIÑO»: Ikusi BUSTINTZA, Evaristo
 «LANDAXU»: Ikusi AGIRRE, Domingo, Aita Luki
 LARRAKOETXEA, Bedita (Benito) (Zeanuri, 1894): 64. 117
 LARRAKOETXEA, Hipólito (Zeanuri, 1892-1978): 62. 63
 «LAUAXETA»: Ikusi URKIAGA, E.
 LEKUONA, Manuel (Oiartzun, 1894): (5). (8).
 LETAMENDIA, Juan Antonio (Donosti, 1940): 16

- MADARIAGA, Bartolomé: Ikusi BARTOLOME de Santa Teresa
- MADARIAGA, Angel, «AINGERU» (Bermeo, 1893-1963): 76
- «MAÑARIKO»: Ikusi BUSTINTZA, Errose
- «MARKIÑA»: Ikusi ARRIZABALAGA, Juan José
- «MARKUE»: Ikusi ALZOLA, Nikolas
- MARTZEL: Ikusi ANDRINUA, Martzel
- MIKOLETA, Rafael (Bilbo, 1611-?): 27
- MOGUEL, Juan Antonio (Eibar, 1745-1804): (9). 30. 31. 32
- MOGUEL, Juan José (Deba, 1781-1849): 39. 40
- OAR-ARTETA, José Antonio (Etxebarria, 1900-1978): 74
- OLAZAR, Martín (Gámiz, 1927): 113
- ONAINDIA, Santiago (Amoroto, 1909): 111. 112
- ORMAETXEA, Nikolas, «ORIXE» (Orexa, 1888-1961): 114
- «OSKILLASO»: Ikusi BASTERRETXEA, José
- «OTXOLUA»: Ikusi GARRO, B. M.
- PUXANA AGIRREGABIRIA, Pedro (Olaeta, 1915): 98
- REFRANES Y SENTENCIAS DE 1596: 9
- REKALDE, Santos Teodoro (Galdakao, 1926): 106
- SAN MARTIN, Juan (Eibar, 1922): 20
- «TRAUKO»: Ikusi KINTANA, Xabier
- UNTZUETA, Sorne, «UTARSUS» (Bilbo, 1900): (112)
- URIARTE, Juan Antonio (Arrigorriaga, 1812-1869): (3). (43)
- URKIAGA, Estepan, «LAUAXETA» (Laukiniz, 1907-1937): 67-72
- VILLASANTE, Luis (Gernika, 1920): (10). (11). 107
- ZABALA, Juan Mateo (Bilbo, 1777-1840): 37
- ZAMARRIPA, Paulo (Laredo, 1877-1950): 61
- ZARATE, Mikel (Lezama, 1933-1979): 108
- ZIARSOLO, Manu, «ABELETXE» (Bilbo, 1902): 21
- ZUBIKARAI, Augustin (Ondarroa, 1914): 99. 100

III. GAIEN AURKIBIDEA

- Abereak* (piztiak): 12. 18. 31
Aberria: 41. 42. 48. 49. 69. 72. 84 (Ikusi «Euskalerrria»)
Alegiak: 31. 37. 108
Alkarrizketa: 2. 4. 8. 10. 12. 13. 14. 17. 19. 20-24. 27-29. 32.
37. 50-56. 61. 65. 69. 76. 79. 87. 98. 100. 104. 108
Arrantzaleak: 65. 70. 79. 80. 84. 99
Artzainak: 53. 64. 106
Artegasuna: 67. 92. 94. 117
Atsekabea: 1. 2. 4. 8. 25. 34. 45. 53. 66. 67. 71. 80. 92. 94. 99. 103
Atsotitzak: 9
Atzerria: 43. 47. 63. 76. 78. 84. 106
Aurtzaroa (Ikusi «Umeak»)

Baserria: 22. 24. 39. 40. 53. 56. 62. 101
Bertsoak: 5. 24. 25. 26. 29. 31. 42. 43
Bizitz-aroak: 52. 54. 55. 59. 67. 85

Deskrizinoak: 28. 34. 36. 38. 41. 44. 51. 54. 55. 59. 64. 65. 71.
74. 78. 79. 84. 97. 101. 103. 114

Emakumea: 37. 38. 50. 53. 56. 65. 70. 100. 112. 117.
Eriotzea: 1. 2. 8. 25. 37. 72. 80. 91. 93. 99
Erlejinoa: 5-8. 26. 28. 29. 33-36. 43. 46. 47. 63. 68. 72. 75. 83.
86. 90. 92. 94. 96. 111. 115. 116
Errefrauak (Ikusi «Atsotitzak»)
Erromantzeak (eta eresiak): 2. 3. 4. 6. 7. 8
Eskutitzak: 60. 78
Espetxea: 49. 103
Etnografia (etnologia): 13. 14. 15. 17. 27. 37-40. 53-56. 62. 64.
74. 76. 78. 97. 99. 101. 103. 104. 106
Euskalerrria: 41-43. 45. 48. 94. 98
Euskaltzaletasuna: 30. 32. 48. 50. 63
Euskera: 30. 32. 45. 46. 57. 58. 82. 84. 87. 98. 106. 108. 109. 113

Familia: 1. 2. 8. 13. 21-25. 40. 52. 59. 62. 70. 100. 106

Foruak: 42. 45. 46

Gazteak: 8. 10. 23. 38. 39. 42. 43. 53. 67. 79

Gerra: 41. 42. 43. 48

Gizartea: 71. 76. 81. 84. 100. 103. 106

Gizonezkoak: 11. 20-22. 24-28. 38. 41. 43. 47. 49. 53. 64. 65. 66.
71. 72. 76. 84. 97. 100. 103. 105. 106. 114. 117

Historia (Ikusi «Kondaira»)

Ipuinak: 10. 11. 12. 13. 14. 15. 16. 17. 18. 19. 59. 104

Irakaskintza: 33. 36. 75. 77. 82

Itsasoa: 65. 70. 76. 79. 80. 84. 99. 100. 110

Itzaropena: 86. 89. 102. 110

Itzaldiak: 34. 46. 57. 58. 62. 82

Itzulpenak: 32 (azkena). 35. 73. 114. 115. 116. 117

Izkuntza: 27. 51. 63. 82. 88. 107 (Ikusi «Euskera»)

Jaiak: 5. 28. 29. 38. 46. 54. 55. 57. 58

Kazetaritza: 76. 98. 105. 109. 113

Kondaira: 41. 42. 43. 48. 50. 63. 98. 101. 105

Kritika: (Liter.): 107. 112

Lurra: 95

Moralismoa: 33. 36. 38. 39. 40. 42. 43. 46. 47. 51. 57. 62. 74

Narrazioak: 10-23. 38. 51. 52. 54-56. 59. 60. 65. 74. 78. 81.
84. 97. 101. 105. 106. 114

Nobela: 50. 51. 52. 53. 74. 79. 81. 106

Olerkiak: 1-8. 35. 44. 45. 49. 66. 67-72. 80. 85. 86. 88-96. 99.
102. 110. 111

Piztiak (Ikusi «Abereak»)

Poesia (Ikusi «Olerkiak»)

Polemika: 47. 63. 113

Poza: 13. 19. 54. 55. 86

Siniskeriak: 1. 2. 4. 6. 14. 15. 16. 19. 104


Sinismena (Ikusi «Erlejinoa»)

Teatroa: 28. 100. 117

Umeak: 19. 40. 52. 54. 55. 59. 104

Zaartzaroa: (Ikusi «Bizitz-aroak»)

E) IZTEGIXUA



(*Emen, bizkaierearen berbarik berezienetariko batzuk baiño ez doguz emoten, beste euskalkietako irakurleen lagungarritzat, batez ere.*)

abade = apaiz, apez
aba(ga)dume = egokiera
adore = kemen
adur = lerre
albista = berri
aldatz = aldapa
aldra = talde
amatau = itzali
aratu = arakatu
ardi = arkakuso
ardura = ajola
arean = ezer, inor
arerio = etsai
arin = azkar
arineketan = galapan
arrast(eg)i = arrats(alde)
artasi = guraize(ak)
ats = kirats
atzamar = eskuetako beatz
auts = errauts
aurki = aulki / noski / berea-
 laxe
azartu = ausartu

baga = gabe
ba(ga)rik = gabe(rik)
baizen = bezain, (baino)
bear = lan
bearrizan = premia
begitandu = iruditu
beingoan = berealaxe
bekoki = kopeta
belu = berandu
bellegi = ori

berakatz = baratxuri
berba = itz
berbeta = izketa
berebiziko = egoki
beren-beregi = apropos
bertatik = berealaxe
betsein = begi-nini
billau = prestuez (villano)
bits = apar
buruz = memoriz

dedu = honra
dendatu = leiatu
destaina = mespretxu
donga(ro) = gaizto / gaizki
dun = digno

ebatzi = erabaki
ei = omen
ekandu = oitu(ra)
enpara(d)u = beste(ak)
eratu = antolatu
eroan = eraman
errime = irme, irmo
eskerga = guztiz andi
etxandera = etxaunaren
 emaztea
ezain(du) = itxusi(tu)
ezketino = -z geroz, ezker

firu = ari
fraka (praka) = galtza

galdara = pertz

geratu = gelditu
geriza (keriza) = itzal
-*gino* = -raino
gogaitu (gogait egin) = as-
pertu
gomuta(tu) = oroi(pen),
oroitu
gorpu = gorputz illa
gura (izan) = nai (izan)
gurari = naikunde

idoro = ediro, arkitu
idun = sama, lepo
iguin = nazka
iñetasi = txingor, kazkabar
ira = garo, iratze
iragarri = otsegin, berri eman
iretargi = illargi
iratzartu = esnerazi, iratza-
rri
itaun = galdera
ita(u)ndu = galde egin, gal-
detu
ixio(tu) = piztu
izara = maĩndire

jadetsi (jaritxi) = iritxi, lortu
jagon = zaitu, zaindu
jaramon = kasu
jardun = ari izan, ihardun //
berriketaldi
jas = garbo
jausi = erori
jazo = gertatu

koillara = kutxara
konorta = zentzu
korta = okuillu
kuma = seaska
kristinau = kristau, girixtino

lako(lango) = bezelako, be-
zala

la(r)ga(tu) = utzi
lar(regi) = geiegi
lau = zelai
le(ge)z = bezala, bezala
le(ge)txe = bezelaxe
lortu = iritxi
lotu = gelditu
lupetza = lokatz(a)

ogerleko = duro
onura = protxu
oratu = atxiki
orban = mantxa
orma = paret(a)
ortu = baratz(e)
osatu = sendatu
ostendu = ezkutatu
ost(er)antzean = bestela
ostera = atzera // bestela //
joan-etorri
otu = burua etorri

pausu = urrats
plater = plato
praka = (fraka) = galtza
prestu = ondradu


sama = lepo
sats = simaur
sein = aurtxo
su(b)ete = sukalde
sunda = kirats

tamal = pena
tertzio = garai
txera (jera) = abegi on
txikar (txiker) = txiki, ttipi
tximino = tximu

zaartza = zaatzaro
zaartza = zaatzaro
santar = zikin

zaparrada = euri-jasa
zarata = zalaparta
zelan = nola
zein... zein = naiz... naiz

seken = zikoitz
zematu = meatxu egin
zio = arrazoi
zirkin = ikara, movimiento



AURKIBIDE NAUSIA

Orria

SARRERA	11
-------------------	----

A) ANTOLOGIA

LEENENGO ZATIA: ERRI-LITERATURA:

Milia Lastur-koren Eresia	17
Milia Lastur-koren Bigarren Eresia	18
Tortolatxu bat basuan	18
Aldaztorrean nengoanean (erromantze)	19
Marijesiak (Gabon kantak).	20
Uso zuri eder bat (erromantze).	21
Agostuaren (erromantze)	21
Prantzie-kortekoa (erromantze).	22
Atsotitzak (Garibay-renak, 1596-ekoak, J. A. Moguel-enak, R. M. Azkue-renak)	24
Peru ta Marixe-ren ipuinak: Begia bota batabateri	26
Euliski (ipuina)	28
Lukiaren zoritxarra (ipuina)	29
Ikazkinak yauregian (ipuina: R. M. de Azkue)	30
Prakagorriak (ipuina: Bustintza'tar Errose, «Mañariko»)	33
Lamiñek (ipuina: F. Angoitia-L. Akesolo)	36
Edurne Zuri ta Anboto'ko señoia (ipuina: J. A. Letamendia)	38
Iñigo ta Mari (ipuina: Estonba'tar Manuel)	40
Azeriaren betekadea (ipuina: F. Bilbao)	42
Xaturditxo-ren San Joan eguneko egun-sentia (ume txikientzako ipuina: N. Alzola, «Bitaño»).	45
Zirikadak: Bata zu ta bestia ni (J. San Martin)	47
Gazi-gazak (Manu Ziarsolo, «Abeletxe»)	49
Don Niko'ren gizona (D. Agirre, «Landaxu»).	50
Ezkonduta ta kitxu (J. J. Arrizabalaga, «Markiña»)	52

BERTSOLARIAK:

Mujikan gertatua (Peru ta Manu Enbeitarrak)	54
Aita bertsolariaren eriotza (Enbeita Balendin).	58
Agur, Aita Patxi (Martxel Andrinua)	59

BIGARREN ZATIA: IDAZLE ZAAR edo KLASIKOAK

(XVII-XIX gizaldiak):

Rafael de Mikoleta: Platika lelengoa	65
Barrutia, Pedro: Gabonetako Ikusikizuna	68
Basterretxea, Agustin: Jesukristo gure Jaunaren Pasinoia	75
Moguel, Juan Antonio: Berba-aurrekua irakurle bizkaitarrari	77
—: Txakur bijak	79
—: Diálogo entre dos amigos eclesiásticos, el P. Fr. Pedro de Urtija y D. Juan de Zandija	80
Añibarro, Fr. Pedro Antonio: Bost-garren aginduaren ganean.	86
—: Andra Mariaren nekeak	87
—: Sakramentu Santuari esateko kant-onak	88
—: Zelan dan geroago gatzago, bekatu rik jagi ta urteea	89
—: Nola den geroago gaitzago, bekhaturik ilkitzea.	90
Zabala, Juan Mateo: Ogeta bederatzigarren Ipuña	92
Aita Prai Bartolome de Sta. Teresa: Plazako piestia zelan egiten dan	93
Moguel, Juan Jose: Nasaikerija	98
—: Otseñak.	99
Astarloa, Pedro J. Patrizio: Bizkaitarrak antxinako kanta-uritarren seme	100
Karlistenak (bertsoak).	102
Euskaldun mutillak moruen kontra gerran (bertsoak)	106
Azkue, Eusebio Maria: Zaldun baten mandatua dama bati	109
Arrese-Beitia, Felipe: Ama Euskeriari azken agurrak.	113
Baertel, Aita Pray Daniel: Jai-aldi euskerazkoetan Sermoia	118
Kanala-Etxebarria, Domingo: Iru martiri santubak	120

IRUGARREN ZATIA: GERRA-AURREKOAK

(XIX-XX gizaldiak):

Arana-Goiri'tar, Sabin: Geure Edestija	125
—: Abertzale ezkontuba espertxian	126
Agirre, Domingo: Euskal emakumeak abertzale (Añemendi-ko Lorea)	128
—: Bedar txarrak (Kresala)	130
Etxeita, Juan Manuel: Josetxo umetan (Josetxo)	136
—: Agaton Korkotx eta Dorote (Jayoterri maitia)	138
Bustintza'tar Ebaista, «Kirikiño»: Aratoste (Abarrak).	140
—: Urtebarri barri (Abarrak)	142
—: Tximistargi barrija (Abarrak).	145
Eguzkitza'tar Jon B.: Durangoko Euskalegunetako sermoe-zatia.	147
Azkue, Resurrección María de: Durangoko Euskalegunen amairako Itzaldia.	151

Azkue, Resurrección María de: Batxi Guzur.	155
Izurategi'tar Yon: Tabor menditik	158
Zamarripa, Paulo: Bakea dala bake	160
Larrakoetxea, Hipólito: Gure baserritarrak.	162
—: Faxistak.	164
Larrakoetxea'tar Bedita: Gorbaie'ko Gaztagintzea	167
Garro, Bernardo M., «Otxolua»: Bijar Donibane'ra,	171
—: Baneban nik izan («Gaucho» baten erostak)	175
Urkiaga'tar Estepan, «Lauaxeta»: Gaste gexua	177
—: Jaunagan atsedena	179
—: Espetxekuaarena.	181
—: Itxas-ondokoena	181
—: Langille eraildu bati.	183
—: Agur, Ama	184
Arriandiaga'tar Imanol: Amañ legenaf'dunaik	186
Oar-arteta, José Antonio: Iñaki bide okerretik	187

LAUGARREN ZATIA: GERROSTEKOAK

(xxgarren gizaldia):

Ibargutxi'tar Jon Gurutz: Aita	191
Madariaga, Angel, «Aingeru»: Makaillaozaleak	193
Jauregi'tar Gabirel: Aurritza (Pisia).	198
Arteaga'tar Lon: Kuzko	201
Erkiaga, Eusebio: Arranegi	204
—: Ontzi gorri	206
—: Batetik bestera.	207
Irigoyen, Alfonso: Berbak eta Izkuntza	211
Aresti, Gabriel: Bizkaitarra	217
Berriatua, Imanol: Dakarretik	221
Kerexeta'tar Jaime: Bizitza-arook	225
—: Biotza Jaunagan	226
Basterretxea, José, «Oskillaso»: Euskera eta kanpotiko berbak	227
Gandiaga, Bitoriano: Izaren billa.	230
—: Usain, erle.	231
—: Jaungoiko-billa.	232
—: Joango naz.	232
—: Gauzak pozik	233
—: Neguaren otza	233
—: Bakar	233
—: Artasoko hirugarren salmua	234
—: Artasoko laugarren salmua	235

Garitaonandia'tar Gotzon: Urduliz'ko Ansonekoa («Orixe»-ren omenez)	236
Puxana, Pedro, «Agirregabiria»: Buskera Araban	239
Zubikarai, Augustin: Bost kanpai	244
—: Lurrunpean	245
Akesolo, Lino: Atx-osterik Atx-ostera	252
Alzola, Nikolas: Kantuz eta Itzaropenez	257
Gereño, Xabier: Kartzelea,	259
Kintana, Xabier: Ost (Osaba Martinen kontuak)	261
Gallastegi'tar Kauldi: Langille aspergabea	264
Rekalde, Santos Teodoro: Ameriketari artzain (Deunor)	266
Villasante, Luis: F. Bilbao-ren «Ipuin barreka»-ri Hitzaurrea	269
Zarate, Mikel: Egiederko Alegi.	272
Aurre-Aprai, Balandin: Oba ez!	278
Etxebarria, J. A.: Itsasontziz.	280
Onaindia, Santiago: Belakia	281
—: Sorne Untzuetan	282
Olazar, Martin: Bizkai'tarrai, bizkaieraz	286

GEIAGARRIA: ITZULPENAK

Tormes'ko Itsu-mutilla (N. Ormaetxea, «Orixe»)	293
Biblia: Job'en Liburutik (Jaime Kerexeta)	295
Liturgia barria: Jaunaren argitasunean.	296
Otel (W. Shakespeare-Larraoetxea'tar Bedita)	298

B) TESTU AZTERKETA ETA ARIKETAK

I.—Literatura arte bat da	303
II.—Zelan egin testu azterketa?.	304
III.—Zer egin behar dau testu azterketa batek?	307
IV.—Metodoak	308
ARIKETAK	316

D) BESTE AURKIBIDE BATZUK

I.—Idazlanak Euskualdean	325
II.—Idazleen Aurkibidea.	327
III.—Gaien Aurkibidea.	330

E) IZTEGIXUA

EUSKAL IDAZLEAK liburu onek gure euskalki baten ikuspegi zabal ederra eskeintzen deusku: Bizkaiko euskera gizontsuarena. Dakigunez, bizkaiera basterreko euskalkia da (gaur, bear bada, geiegi bastertua ere bai!), euskal elertiaren mundura beranduen agertua, baina asmoz eta egitez naikoa aberatsa; eta, batez ere, bai atzo eta bai gaur, euskaldun askoren ezipan eta biotzetan bizi bizirik irauten dauan berbete sendo errimea...

Liburu au Derioko **UDAKO EUSKAL IKASTAROKO** ikasleentzat egin da, batik bat: gure ikasleak, ia danak, bizkaitarrak dira; au olan dala, eta aspaldiko jokabideari —«dakigunetik ez dakigunera»— jarraituz, Ikastaroko ikasleak euren euren daben euskalki au sakonetik ezagutu bear dabe, gero goragoko mailetan beste euskalkien eta oraingo euskara batuaren aberastasunak ere ezagutzeko.

Antologiak bizkaierazko literaturearen nondik-norakoa, gaiak, idazleak, arloak eta aroak, asmoak, bideak eta frutu elduak jarten ditu irakurlearen aurrean; Testu Azterketak eta Ariketak metodologia egoki baten laguntasuna eskeini nai dabe; azkenez, Aurkibideak eta Iztegitxoak liburu onen ondasuntzia non eta zelan bilatu erakusten dabe.

Iru egileak eura ere Ikastaro orretako irakasleak dira, eta alkarri lagunduz burutu dabe euren lana, aurretzean oraingo au osotzeko asmoz eta gogo beroz.

Liburu au egiteko erabagia artu zanean, gure Mikel ZARATE ere lankide zan; baina lan onetan sartzeko asti barik eroan euskun eriotzeak. Adiskide-maitasunez eta esker onez berari eskeinuta dago liburu au, Mikelen eretxiz nainon ornidua.



LABAYRU IKASTEGIA